

**GLOBALIZAZIOA ETA
HIZKUNTZA GUTXITUAK.
AUKERAK ETA
ARRISKUAK**

Imanol Haro Solaberrieta

AURKIBIDEA

0. Laburpena

Globalizazioa definitzen

1. Globalizazioa definitzeko zailtasunak
2. Globalizazioak dakartzan berrikuntzak
3. Globalizazioaren estaldura ideologikoa
4. Pentsamendu bakarra
5. Globalizazioaren aurkako mugimendua
6. Laburbilduz

Hizkuntzak gutxitzea eragiten duten faktoreak

1. Sarrera. Hizkuntza gutxituak zehazteko zailtasunak
2. Hitzun kopurua
3. Estatusa edo ofizialtasuna
4. Administrazioa
5. Transmisioa
6. Hizkuntza gutxituak generoaren ikuspegitik

Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak. arriskuak eta aukerak

1. Gerrak eta gatazka armatuak
 - a. Gerra eta globalizazioa
 - b. Gerra zaharberriak
 - c. Eskualdeko gerra handiak
 - d. Gerra nazionalak
 - e. Gerraren logika eta hizkuntz aniztasuna
 - f. Bestelako "gerrak"
2. Gizakien desplazamenduak
 - a. Gizakien desplazamenduak (I). Migrazioak
 - i. Sarrera
 - ii. Urbanizazioa
 - iii. Makrohiriak eta eleaniztasuna
 - iv. Migrazioak eta jatorrizko herrialdeak
 - v. Migratzaileak eta bidaia
 - vi. Herrialde hartzaileak
 - vii. Ondorioak
 - b. Gizakien desplazamenduak (II). Turismoa
 - i. Turismoa eta globalizazioa
 - ii. Turismoaren bilakera historikoa
 - iii. Turismoaren mitoen faltsukeria eta ondorioak hizkuntzatan
 - iv. Turismoaren izaera asimetrikoa
 - v. Ondorioak
3. Hizkuntzaren gaineko diskurtsoa globalizazioan.
 - a. Hizkuntzaren gaineko diskurtso globalizatzailearen printzipioak

- b. Ondorioak

- 4. Ingelesaren nagusitasuna gaur egun
 - a. Sarrera
 - b. Hiru zirkuluen teoria
 - c. Ingelesaren nagusitasunaren mugak
 - d. Hiru zirkuluen teoria eta hizkuntza gutxituak
 - e. Ingelesa zatitzeko arriskua
 - f. Ingelesaren etorkizuna nazioarteko erakundeetan

- 5. Identitatea
 - a. Identitatea zer da?
 - b. Identitate zilegiztataileak
 - c. Erresistentzia identitateak
 - d. Proiektu identitateak
 - e. Identitatea eta hizkuntza
 - f. Globalizazioa eta identitatea
 - g. Indigenismoa

- 6. Botere aldaketa eta enpresak
 - a. Sarrera
 - b. Enpresak eta enpresa irizpideak
 - c. Hedabideak
 - d. Teknologia berriak

- 7. Hizkuntz plangintzak eta hizkuntzalarien funtzioa
 - a. Sarrera
 - b. Hizkuntzalarien funtzioa
 - c. Hizkuntz plangintzen paradigmak
 - d. Hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntz plangintzak

Azken ondorioak. Bistaratzea helburu.

Bibliografia

SARRERA

Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak lotzen dituen lan honetan, galdera nagusi bat izango dugu abiapuntu: zer-nolako arriskuak eta aukerak ekartzen dizkie globalizazioak hizkuntza gutxituei? Galdera erraza egiteko eta oso zaila erantzuteko, batez ere, oro har, ez daukagulako oso argi galderan dauden kontzeptu batzuk zer esan nahi duten. Zer da globalizazioa, eta, gaur egun hitz hori nornahik nonahi erabiltzen duela ikusita, zer ez da globalizazioa? Eta zer da hizkuntza gutxitua eta nork edo zerk gutxitzen du?

Globalizazioaz hitz egiten entzuten dugunean, arlo asko etortzen zaizkigu burura: teknologia berriak, enpresa transnazionalak eta lan munduko aldaketak, migrazio berriak, informazio zientziak eta hedabideen zabalkundea eta beste asko. Kontua da arlo jakin batzuk bururaten zaizkigula; hartara, zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta ezaugarri gehiago gehitzen dizkiogu zerrendari. Azkenean, erosketen zerrenda moduko bat dugu: elementu solte pila bat, elkarren segidan jarrita. Lan honetan hautatutako ikuspuntuaren arabera, elkarrekin inolako harremanik ez duten elementuen zerrenda huts bat baino gehiago, globalizazioa elementu solte horiek guztiak bere baitan hartzen dituen dominazio sistema bat da, hau da, ezaugarri jakin batzuk dituen zapalkuntza sistema bat, berritik baino zaharretik gehiago duena.

Hizkuntza gutxituez hitz egiten entzuten dugunean ere, nork eta zergatik gutxitzen duten izaten dugu hizpide, eta gutxitze mekanismoak alde batera uzten. Eta, hain zuzen, gutxitze mekanismoak identifikatu ezean, ez da nahiko argudiorik izaten gutxitzea eragiten duten eragileak eta arrazoiak zein diren atzemateko. Lan honetan, mekanismo horietan globalizazioak zer-nolako eragina duten ere saiatuko gara aztertzen, arriskuen eta aukeren panorama zabal batera iristearren.

Azkenik, “globalizazio” eta “hizkuntza gutxitu” hitzez ari garelarik, bi ohar: batetik, hitz horiek eta hitz horietaz lan honetan emandako adierak aukeraketa ideologiko baten ondorio dira, beste adiera batzuk beste jarrera ideologiko batzuk adieraziko luketen moduan, eta, bestetik, lan hau globalizazioak hizkuntza gutxituei ekar diezazkiekeen aukerak eta arriskuak zein diren jakiteko hurbilketa bat baino ez da, erantzunaren bila nondik joan daitekeen adierazi nahi duen lan xume bat.

Lana irakurtzen duenak ikusiko du zenbateraino zaion baliagarri hitzen adieretan islatutako aukeraketa ideologikoa eta lan honetan iradokitako bidea.

GLOBALIZAZIOA DEFINITZEN

Zerbait *globala* bada, orokorra da, erabatekoa, osoa, betea... eta egoera horretara iristeko prozesua *globalizazioa* da. Baina, zer ari da *globalizatzen*?

1. Vicent Castellar

1. GLOBALIZAZIOA DEFINITZEKO ZAILTASUNAK

Globalizazioaz hitz egiten entzuteko ez dugu oro urruti joan beharrik: inguruan gertatzen zaigunari begira jarri edota ingurukoek esaten dutena entzun besterik ez da egin behar. Izan ere, globalizazioa hitzetik hortzera darabilgun kontzeptua da: gure arrantzaleek antxoaren arrantzaren gaineko debekuak globalizazioarekin lotzen dituzte, etxepeko dendariak dio denda itxi behar izan duela kontsumoaren globalizazioaren ondorioz, Senegaldik auzora etorritako gizon batek dio globalizazioagatik etorri dela, Londresera joatekoa den adiskide batek dio ezinegona sortzen diola globalizazioak ekarri duen terrorismoaren aurkako gerrak eta beldur dela aireportuan izan ditzakeen eragozpenengatik, herriko apaizak gure garaiko gainbehera morala azaltzeko globalizazioaz mintzo da... Eta, jakina, hizkuntza gutxituei eta hizkuntza horietako hitzunei ere eragiten die globalizazioak: herriko zinegotzi batek dio mundu globalizatuan ingeleza euskara baino garrantzitsuagoa izango dela, 200 biztanlera iristen ez den herrian hizkuntz ohiturak aldatu egin dira globalizazioak ekarri omen dituen kanpotarregatik, gure hizkuntzak ez omen du bermatuta bizirik irautea etorkizun globalean...

Globalizazioa, globalizazioa eta globalizazioa nonahi. Batzuetan, ematen du non aurkitu baino zailagoa dela globalizazioa non ez dagoen aurkitzea. Non ez dago globalizazioaren zantzurik? Edo, galderari buelta emanda, den-denak al du zerikusia globalizazioarekin? Kontzeptuak bere baitan hartzen duen guztia zein handia eta zabala den ikusteko, hemen ditugu bi adibide.

Batetik, interneteko Google bilatzailean “globalizazio” hitza euskaraz eta inguruko hizkuntza nagusietan sartu eta hona hemen zenbat sarbide atera diren hizkuntzaz hizkuntza: euskaraz, 24.700 (“globalizazioa”¹); ingelesez, 27.000.000 (“globalisation”); gaztelaniaz, 8.840.000 (“globalización”); frantsesez, 9.560.000 (“mondialisation”).

Bestetik, globalizazioa gaitzat hartuta munduan argitaratu diren liburuen kopurura hurbilketa bat egiteko, ideia hona da AEBetako datuetara jotzea. AEBetako Kongresuko Liburutegiaren arabera, 90eko hamarkadan mundu osoan 500 liburu argitaratu ziren globalizazioari buruz, eta 2000tik 2004ra, 4.000 baino gehiago. Datu horien arabera, 90eko hamarkadaren erdialdetik 2003 arte globalizazioari buruzko liburu kopurua bikoiztu egin da 18 hilabete behin. (GHEMAWAT, 2007)

Ugaritasunaz gain, bada beste faktore bat “globalizazio” kontzeptua definitzea asko zailtzen duena. Globalizazioa ikuspegi askotatik definitu izan dute: ekonomiatik, antropologiatik, soziologiatik, historiatik, filosofiatik... Horren ondorioz, hainbat eta hainbat adituk aztertu dute fenomenoak: politikariek, enpresariek, bankariek, idazleek, pentsalariek... Ez da harrizkoa, beraz, gehien erabiltzen den hitzetako bat horixe izatea. Ildo horretatik jotzen du Nayan Chanda Globalizazio ikertzeko Yale-ko Zentroko arduradunak (AEB), “globalizazio” kontzeptuaren lehenengo hurbilketa saioan.

“The Economist” aldizkariak adierazi duenez, [globalizazioa] “XXI. mendeko hitz erabiliena” da. Izatez, ez dago beste hitzik hainbeste gauza esan nahi eta hainbesteko zirrara eragiten duenik. Batzuek nirbanatatzat

¹ “Globalizazioa” sartu dugu, horrela deklinatuta. Horrek ez du esan nahi gaiarekin lotutako sarbide guztiak horiek direnik. Izan ere, beste kasu batzuetan deklinatuta (“globalizazio”, “globalizazioak”, “globalizazioan”...) sarbide gehiago ere lor ditzakegu.

hartzen dute –bake unibertsa eta oparotasuna dakartzan egoera–; beste batzuek, aldiz, gaitzetsi egiten dute, globalizazioan kaosa besterik ez baitute ikusten. (CHANDA, 2002)

Horrek guztiak izugarri zailtzen digu globalizazioa zer den zehatz-mehatz jakitea; izan ere, neurri batean, globalizazioa zer den azaldu nahian, fenomenoa nola bizi dugun eta guregan zer-nolako eragina duen azaltzen baitugu, zer den zehaztu beharrean. Hartara, ugaritasunak, batetik, eta aldeko eta aurkako joerek, bestetik, zaildu egiten dute definizio akademiko bakar eta bateratua, Alessandro Baricco idazle italiarrak eta Matthew J. Gibney Oxfordeko Unibertsitateko migrazio adituak diotenez.

Batzuek diote globalizazioa egunero gertatzen dela; beste batzuk, aldiz, ziur daude globalizaziorik ez dagoela, hau da, munduko ordena berri bat saltzeko publizitatearen lelo hutsa baino ez dela. Desberdintasun horiek ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula. Eta, hala eta guztiz ere, denek hitz bera erabiltzen dute, baina, begien bistakoa denez, gauza desberdinak izendatzeko. Argi dago, beraz, gero, aldeko edo aurkako jarrera hautatzerakoan, ikaragarritzko anabasa sortzen dela: baina, zeren alde edo zeren aurka? (BARICCO, 2002)

“Globalizazioaren industria” sortu da, eta horrek ikuspegi intelektual eta politiko askotako jendea erakarri du, eta audientzia handia lortu du politikariengan, enpresariengan eta kazetariengan. “Globalizazio” hitzaren itzelezko erakargarritasunak ez du zentzuzko azalpenik. Zalantzarik gabe, hitzaren erreferentetaren zehaztasun falta da horren arrazoi bat; izan ere, fenomeno sozial, politiko eta ekonomiko desberdinak hartzen ditu bere baitan. Hitzaren zaporegabetasun ideologikoa ere faktore garrantzitsua izan da. “Globalizazioa” ez da, berez, miretsi edo onartu beharreko ezer, baina bietarako balio izan du eta aurkakoak eta aldekoak asebite ditu. (GIBNEY, 2004)

Zehaztasun falta edo lausotasuna da, beraz, globalizazioaren definizioaren bila aritzean aurkituko dugun beste zailtasun bat. Askotan, pentsalariek, filosofoek, politikariek, idazleek, soziologoek, hizkuntzalariek eta abarrek ematen dituzten definizioak hain dira lausoak, non edozertarako balio duten. Hutsaltasun horren adierazle dira kasu hauek: Paul Hirst soziologoak eta Grahame Thompson ekonomia politikoko irakasleak – Erresuma Batukoak biak –, *Globalization in question* liburuan, “modako kontzeptua” dela nabarmendu dute, eta Freyssenet soziologo frantziarrak terminologia berria sortzeko egungo joera kritikatu du, haren ustez gizarte zientzietan akatsak egiteko modurik errazena horixe baita. (GARRIDO, 2004)

“Ekonomia globalari” buruzko bibliografia ugariari begiratu gero, atentzioa ematen du definizio zehatzik ez egotea, nahiz eta kontzeptu etereo horrek, onerako edo txarrerako, gure planeta osoan eta egoera ekonomiko garrantzitsuetan eragin. Globalizazioari buruz, munduaren egungo sistema ekonomikoaren ezaugarri zerrenda handi bat baino ez dugu aurkituko, xehe-xehe azalduta. (FRANQUET, 2005)

Hartara, globalizazioa definitzean, kapitalismo finantzarioaz, teknologizazioaz, informazioaren hedapenaz, kultur uniformizazioaz, ekologiaren suntsipenaz eta beste hamaika prozesuz mintzaten dira egileak.

Definizioak definizio, mugarik gabeko mundu batera goazela adierazteko, hainbat kontzeptu erabili izan dira, globalizazioaz gain: ziberespazioa (Negroponte), inperioa (Hardt-Negri), hirugarren uhina (Toffler), informazioaren gizartea eta sareez osatutako gizartea (Castels), herrixka globala (McLuhan)...

Zailtasun nagusiak, beraz, lau dira: ugaritasuna, aurkako eta aldeko jarrera sutuak, zehaztasun falta eta antzekoak edo berdinak diren hainbat kontzeptu egotea. Horrek, jakina, definizio akademiko objektibo samar bat ateratzea zailtzen du. Zorionez baino gehiago zoritxarrez, tentazio akademiko egoentrikoa hor dago, eta zaila da tentaldian ez erortzea. Alessandro Baricco definizioak ateratzeko zailtasunez harago egin eta definitzea bera krisian dagoela aldarrikatzen du.

Agian, globalizazio kontzeptua definitzean dagoen desadostasuna definitzeko fenomenoaren krisi historikoaren ondorioa ere bada. Galdera hau egiten diot neure buruari: ez al da bukatu definizioak emateko garaia? [...] Eztabaida ugari dago globalizazioaren ondorioei buruz eta oso gutxitan eztabaidatzen da globalizazioa zer den. Ia guztiok gai gara globalizazioaren aldeko edo aurkako jarrera hartzeko, baina oso gutxi dakite zer den. Fenomenoak, berez, ez du ez hanka ez buru, baina logikoa izatera iritsi da oso denbora gutxian, hain zuzen, definizioak emateko gustua gainbehera joan den denboran. Definizioak ez dagoelako ez dago globalizazioari buruzko definizioak (BARICCO, 2002).

Hitza definitzeko zailtasun horien guztien ondorioz, bada joera bat gertatzen den gauza oro globalizazioarekin identifikatzeko: guztia da globalizazioa, edo guztia da globalizazioaren ondorio.

Askotan, “globalizazio” kontzeptuaren oinarrian aurreko egoera bati gailenduz egoera berri-berri bat ezartzeko asmoa dago, eta azken helburua joera orojalearen bidez aurreko egoerei leku guztia kentzea da. Digeritze lanak bukatu ondoren, “Globalizazioak” hartu du toki oro. Ekonomiak, gizarteak, sistema politikoak eta kulturak aurrera egin ahal izateko, globalizazioari makurtzea da bide bakarra. Planteamendu horretan, nabarmen-nabarmena da postmodernismoaren eragina, “egunerokotasunean” txertatzeko asmoa baitu, eta “berriro hutsetik hasi” dioen doktrina epistemologikoa ezartzen baitu. “Globalizazioa” ezarritakoan, ez dago ezer justifikatu beharrik: globalizazioa bera da gerta daitekeen guztiaren justifikazioa (GARCIA MORALES, 1997).

Horregatik guztiagatik, gaiari buruzko sarrera honetan, helburua ez da izango “globalizazio” kontzeptuaren definizio akademikoa ematea, baizik eta globalizazioaren ezaugarri batzuen zertzeladak ematea. Horretarako, galdera hauek izango dira abiapuntu: globalizazioa berria al da gizakiaren historian? Zer lotura du globalizazioak kapitalismoarekin? Globalizazioa ekonomiari lotuta bakarrik al dago? Hobeto bizi al gara globalizazioaren garaian? Nor bizi da hobeto? Zer bultzatzen du globalizazioak? Zer-nolako eragina du gure bizitzan? Globalizazioa saihestu al daiteke, edo

erremediorik gabe goaz mundu globalizaturantz, zuzen-zuzenean eta atzerabueltarik gabe? Zer zerikusi du horrek guztiak hizkuntza gutxituekin?

2. GLOBALIZAZIOAK DAKARTZAN BERRIKUNTZAK

Ekonomilariak, politikariak eta beste askok globalizazioa errealitate berria bailitzan erabiltzen dute. Horren adibide, munduko egungo egoeraz hitz egitean, Tony Blair Erresuma Batuko lehen ministro ohiak esandakoa: “Dena da berri-berria”. Eta berrikuntza horri globalizazio izena jartzean, ideia borobilduta geratu ohi da: dena da globalizazioa, globalizazioa berri-berria da, eta dena da berria. Egile gehienek, ordea, ez dute uste globalizazioa fenomeno berria denik.

Askotan, azkeneko hilabeteotan etengabeko globalizazio prozesuan sartuta gaudela eta halakoak entzuten dira, baina badira zenbait adierazle oraingo berritasuna erlatibizatzen dutenak eta testuinguru zabalago batera garamatzatenak. Batzuen iritziz, oraingo egoera prozesu luze baten jarraipena da (eta ez helmuga, ez gailurra). Munduko gizarteek guk normalean uste duguna baino harreman estuagoak eduki dituzte euren artean, halako moldez non ikerle batzuek milaka urteko iraupena ematen baitiete harreman orokor horiei. (ZABALO, 2000)

Berria ez bada, hasiera data jartzea besterik ez zaio falta, eta hor buru adina aburu daude. Honako pasarte hau Wikipediatik atera dugu²:

Aldo Ferrerrek dio egungo globalizazio prozesua 1492an abian jarritako prozesu handiago baten zatia dela, eta prozesu hori Europak munduaren zati handi bat konkistatu eta kolonizatu zuenean hasi zela. Marshall McLuhanek, 1961ean, zioen hedabide elektronikoak herrixka globala eratzen ari zirela. Rüdiger Safranskinek nabarmendu du 1945ean Hiroshiman bonba atomikoa lehertu zenean holokausto nuklear orokorraren beldur bizi den komunitate globala jaio zela. Globalizazioaren hasiera beste hainbat gertakizunekin ere lotu izan da: txipa asmatzearekin (1958ko irailak 12); Gizakia Ilargira iristearekin, ailegaera satellite bidez mundu osorako lehen emankizuna izan baitzen (1969ko uztailak 20); edo Internet sortzearekin (1969ko irailak 1). Baina, oro har, globalizazioaren abiapuntua Sobietar Batasuna eta haren mendeko bloke komunista desagertzearekin lotzen da. SBk bere burua 1991ko abenduaren 25ean desegin bazuen ere, desegitea hobeto irudikatzen du 1989ko azaroaren 9an Berlingo Harresia erori izanak.

Nolanahi ere, beste egile batzuek oraindik atzerago egiten dute globalizazioaren abiapuntua zehazteko, ia gizakiaren hastapenera jotzen baitute. Horren adierazle dira, hurrenez hurren, Nayan Chandaren eta Kwame Anthony Appiah filosofo ingelesaren hausnarketa hauek:

Hitz horren –globoa– sustraia erabiltzen hasi aurretik, gure arbasoak mundu osoan barreiatuta zeuden. Izan ere, kontinente guztietara (Antartikara izan ezik) hedatu zen giza migrazioen prozesua proto-

² Wikipediaren gaztelaniazko bertsiotik: <http://es.wikipedia.org/wiki/Globalizac%C3%B3n>.

globalizazio mota bat izan zen. Duela 50.000 urte, Homo Sapiens aurremodernoak mundu osoan sakabanatu ziren, eta batzuk Amerikaraino iritsi ziren. Izoztearen azken aldia amaitzearen ondorioz itsasoaren maila igo zenean, Amerika eta Eurasia bereiz geratu ziren, eta elkarrengandik bereiz bizi ziren bi mundu izan genituen 1492 arte, Kristobal Colon Karibeko irla batera iritsi eta bi munduak elkarrekin konektatu zituzten arte. Urte hartan, Martín Behaik Lurra irudikatzeko lehen munduko mapa egin zuen. (CHANDA, 2002)

Orain, “kanpoko” ideiek, objektuek eta pertsonak gero eta presentzia handiagoa dute sekula egon ez diren toki guztietan. Oso ondo dago prozesu horri “globalizazio” deitzea, sarri askotan egiten dugu hori, baina horrek oso gutxi esaten digu globalizazioak dakarren berrikuntzez edo globalizazioaren garrantziaz. Izan ere, aurretik iradoki dudanez, gizateriaren historia globalizazio prozesua dela esan daiteke; nolabait esateko, iraupen luzeke globalizazioa. (APPIAH, 2004)

Beste egile batzuek, berriz, globalizazioez hitz egiten dute, pluralean, eta historian globalizazio bat baino gehiago egon direla diote: Antxon Mendizabal Euskal Herriko Unibertsitateko ekonomia irakaslearen ustez, egungoa laugarren globalizazioa da (MENDIZABAL, 2000); eta, Moreno Bernal ekonomialari espainiarraren aburuz, 175 edo 200 urtean behin, mendebaldeko historian bat-bateko aldaketa bat izaten da, eta, egun, ekonomia kapitalistaren bosgarren ziklo luzean gaude (MORENO BERNAL, 2007).

Nolanahi ere, globalizazioaren jatorria kokatzearen gaineko eztabaidaz gain, bada azken hogeitau urteotan indar handia hartu duen beste eztabaidagai bat: globalizazioa prozesu historikoa den ala ez. Lehen adierazi dugunez, pentsalari batzuek globalizazioa historiaren azken atalean sortutako fenomenotzat dute, eta beste batzuek –eta hauxe da berrikuntza– joera hori muturrera eramanez eta globalizazioa historiari kanpoko garaitzat hartu dute. Francis Fukuyama AEBetako pentsalariak 1989an idatzitako *Historiaren amaiera* liburu entzutetsuan, ideologiaren arteko borroka ez ezik historia ere amaitu zela bota zuen lau haizetara. Hona hemen liburuaren ideia nagusia: ikusten ari garena ez da soilik Gerra Hotzaren edo gerra ondoko garai jakin baten amaiera, baizik eta historiaren amaiera bera; hau da, gizateriaren bilakaera historikoaren azken puntura iritsi eta mendebaldeko demokrazia liberala unibertsalizatu egin da, gizakiek onartu baitute hori dela modurik onena gobernu osatzeko. Liburu argitaratu zenetik, liburu eta egilea erreferentzia puntu izan dira globalizazioaren aldekoentzat eta aurkakoentzat. Dena dela, ikuspegi historikotik begiratuta, Fukuyamak akats larria egin zuen, sistema kapitalistan sakontzen duen garaia “erabateko edo mundu mailako garaipena” izendatu baitzuen. Fukuyamaren aurkakoen arabera, globalizazioa ez da trenaren azken geltokia, ibilbidea bera baizik, eta historiak bizirik jarraitzen du, baita borrokek ere, azken urteotako hainbat gertakari erakusten dutenez: Mexiko hegoaldeko EZLNren matxinadak, globalizazioaren aurkako protesta jendetsuek, Brasilgo MSTren altxamenduek, Frantziako bazter auzoetako istiluek eta hain entzutetsuak izatera iritsi ez diren milaka borroka, tartean hizkuntz erresistentzia ugari. Fukuyamak diskurtsoa

dezente aldatu du orduz geroztik, eta *neocons*-en ideologo izatetik haiei kritika zorrotzak egitera igaro da, besteak beste³.

Ez dirudi, beraz, historiaren amaieran sartu garenik, ezta historiatik kanpoko eremuan ere. Hartara, globalizazioak hizkuntza gutxituentzat dituen arriskuak eta aukerak aztertzean, ezin da bazterrean utzi prozesu historikoaz hitz egiten ari garela, eta ez soilik hizkuntza gutxituek azken 20 edo 30 urteotan izan dituzten aldaketak. Eta hori izango da lan honen oinarrietako bat.

Azken batean, gutxi dira, gaur egun, globalizazioaren *ahistorikotasuna* aldarrikatzen dutenak, eta asko *historizistak*. Hona hemen globalizazioaren *ahistorikotasuna* aldarrikatu duenetako egile baten hausnarketa:

Faktore ekonomiko eta sozial ugariarekin lotuta dago, eta, gaur egun, denok ikusi ahal dugunez, ekonomia kapitalisten baitan dago. Edo, zehatzago, inperialismoaren dominazioaren barruan. Beraz, fenomeno historikoa da. Eta ez ahistorikoa, horren aldekoek dioten moduan, haiek globalizazioaz mozkortu eta garai honen paradigmatzat hartzen baitute (SAXE-FERNÁNDEZ, 1999).

“Globalizazio” kontzeptua noiz erabiltzen hasi zen jakiteko, aldiz, ez dugu mende askotan atzera egin behar. Frantzian, “mundializazio”⁴ hitza 1964an agertu zen, lan ekonomiko eta geopolitikoaren baitan, ondasunen, zerbitzuen, eskulanaren, teknologiaren eta kapitalaren nazioarteko mugimenduen hazkundea adierazteko. Printzipioz, Gerra Hotzeko bloke geopolitikoaren barruan produktu industrialen merkatuaren hazkunderarekin lotzen zen globalizazioa. Hitzaren aitatzat Theodore Levitt hartu izan ohi da⁵: alemaniarra jaiotzez eta estatubatuarra izatez, ekonomilaria zen, eta, 1983an, *The Globalisation of Markets* liburua idatzi zuen, nazioarteko ekonomiak 60ko hamarkadaren erdialdetik izandako aldaketak deskribatzeko. Globalizazioa merkatuen bateratzearekin parekatu zuen ekonomialari estatubatuarrak. Hau idaztera iritsi zen: “Toki guztietan, gauza bera modu berean saltzen da”. Gustuek bat egingo zutela aurreikusi zuen, eta, ekonomia, kultura eta botere gune bakar baterantz goazelako ideia zabaldu zuen indar handiz pentsalarien zirkuluetan. Horri lotuta, agerikoa denez, munduaren bilakaerak hizkuntza bakar bat ekarriko ote duen aukerak ere eztabaida bizia sortu du.

60ko hamarkadan, esparru jakin batzuetan, hitza ezagutzen hasi bazen ere, urte dezente igaro ziren kontzeptua gizarteratu arte, eta hori ez da kasualitate hutsaren ondorio izan, egile askoren arabera.

Jakina da, globalizazio hitza aspaldikoa bada ere, hitzaren tronuratze politiko-mediatiko ikusgarria 90eko hamarkadaren bigarren erdian gertatu zen. Ez dago arrazoirik esateko hitzaren gizarteratze indartsua bat-batean,

³ *Neocons* edo kontserbadore berriek AEBetan jaiotako neokontserbadurismoa aldarrikatzen dute.

Kontserbadurismo klasikoaren aldean, pentsamendu eta antolaketa politiko berriak dituzte, eta egungo joera ideologiko nagusienetakoa da herrialde garatuetan.

⁴ Frantsesez, *mondialisation* kontzeptua nagusitu da *globalisation* kontzeptuaren kaltetan. Egile batzuek bien arteko aldeak nabarmentzen badituzte ere, lan honetan parekotzat hartuko ditugu, beste hainbatetan bezalaxe.

⁵ Ikerketa guztiak ez datoz bat horretan; esate baterako, Giddens eta Rodrik kontzeptuaren aitatasunaz eztabaidatzen aritu dira.

modu neutroan eta inprobisatuan gertatu zela. Aldiz, nahi baino arrazoi gehiago daude pentsatzeko alde zurretik prestatutako fenomenoaren izan zela. (CARLOS TAIBO, 2007)

Hasteko, baieztapen hau egingo dugu, ironiaz: globalizazio hitza interes jakin batzuen ondorioz nagusitu da, AEBen interesen ondorioz. Hitz hori, egun bertute magikoak eranstean badizkiogu ere, ez da inoiz erabili pentsamendu filosofikoaren historian; izan ere, “global” eta “globalizazio” hitzak ez ditu ezein pentsalarik aipatzen, Platonengandik hasi eta Nietzschereganaino. (VEGA, 2006)

Ezkutuko arrazoi horiei oso ageriko faktoreak gehitu behar zaizkio: Gerra Hotzaren amaierako munduak ezinegona sortu zuen sektore ugarian, galdera ugari sortu ziren, ulertzen zaila ziren fenomenoak hauteman ziren, bat-bateko krisi finantzio-ekonomikoak kalte ugari eragin zituzten, ekologiaren gaineko kezka handitzen ari zen, gerrak gutxitu ordez ugari egin ziren, pentsalari asko XX. mende bukaerako mundua deskribatzeko kontzeptuen bila zebiltzan... Testuinguru horretan, 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoaren hasieran, Marshall McLuhan Kanadako filosofoak “Herrixka globala” kontzeptua eman zuen jakitera (McLUHAN, 1990), hedabide elektronikoen bidez gizakiek elkarren artean konektatzeko zuten gaitasuna deskribatzeko. Ideia horien eraginpean, munduaren txikitasuna nabarmendu eta eztabaida intelektual bizi-bizia sortu zuen. Anabasa horretan, guztia azaldu ahal izango zuen *zerbait* behar zen.

Ezinezkoa zen errealitatea azaltzeko sistema bat aurkitzea; are gehiago, guztia bere baitan hartu nahi zuen hitz oro debekatuta zegoen. Ezintasun hori eztabaidaezina zela sinesten hasita geundenean, “postmoderno” etiketa –egoera hori azaltzen saiatu zen kontzeptua– gainbehera joan zen kultur arloan, eta “globalizazio” hitzak ordezkatu zuen. [...] Azken batean, globalizazioa sintesi postmoderno moduan iristen zaigu: irizpide zuzentzailerik gabe, norabide erabatekorik gabe, homogeneousiorik gabe; gure aurrean, lausoa, inguratzailea, anarkikoa eta forma anitzekoa den *zerbait* daukagu. [...] Berrero, Guztia dugu, nahiz eta horren aurpegiak ez duen jainkoaren bakerik. (RODRIGUEZ MAGDA, 2002)

Samir Amin Egiptoko pentsalariaren ustez, guztia azaltzen duen “hitz magikoa” goitik behera iritsi zitzaigun, diskurtso menderatzaileen eskutik, eta hauxe dio “Voces contra la globalización” dokumentalean:

Diskurtso menderatzaileak, duela hogeitun urtetik, mundializazio [gureztat, globalizazio] hitza erabiltzea ezarri zuen, orokorrean egungo munduko gizarteek duten elkarrekiko mendekotasuna izendatzeko. Hitza, ordea, ez zen lotzen kapitalismoa zabaltzeko logikarekin; are gehiago, ez zen aipatzen zabalkunde horrekin batera inperialismoa zegoela. Zehaztasun falta horren ondorioz, ulertarazten da prozesua ezinbestekoa dela, hau da, gizarte sistemetatik independentea dela –mundializazioa herrialde guztietan modu berean ezarriko baita, zurretiko egoera edozein zelarik ere, kapitalista edo sozialista–; hartara, planeta txikitzearen ondorioz, lege natural moduan funtzionatzen du.

Nolanahi ere, goitik behera zetorkigun diskurtsoan, globalizazioa eta sistema ekonomiko kapitalista jatorritik argi eta garbi lotzen ez baziren ere, liburuetan eta adituen esanetan globalizazioa sistema ekonomikoaren bilakaerarekin lotuta agertzen zaigu beti, eta egile guzti-guztiek lotura hori nabarmentzen dute. Victoria Sendón de León filosofia irakasle eta idazleak, bi fenomenoen arteko lotura nabarmentzeko, dio kapitalismoak hasiera-hasieratik daramala egungo globalizazioaren hazia, eta hazia baldintzak egokiak izan direnean hasi dela fruitua ematen (SENDÓN DE LEÓN, 2001). Ildo berean doaz Miren Etxezarreta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ekonomia katedratikoak egindako hausnarketak.

Globalizazioa kapitalismoaren egungo aldiari jarritako izena besterik ez da. Hori baino ez. Ez gehiago, ez gutxiago. Duela bi mende baino gehiagotik bizirik dirauten gizarte kapitalistetan ez da funtsezko ezer aldatu. Oinarrian beti izan dute pertsona batzuek beste pertsona batzuk ustiatzea – eta globalizazioa ere horretan oinarritzen da–. Itxurak baino ez dira aldatzen. Izan ere, garai bakoitzaren premiei eta aukerei egokitzen da. (...) Baina sistema bera da (ETXEZARRETA, 2001).

Globalizazioarekin eta sistema kapitalistarekin oso kritikoak direnez aparte, globalizazioa onuragarria dela aldarrikatzen duten egileek ere bi fenomenoen arteko lotura hertsia egiten dute. Johan Norberg Suediako idazleak, adibidez, globalizazioa eta kapitalismo globala, mundu mailakoa, parez pare jartzen ditu, gauza bera bailiran (NORBERG, 2001). Kontzeptu ekonomiko hutsak direla aldarrikatzen du, Nazioarteko Diru Funtsak edo antzeko beste erakundeek egiten duten bezala.

Ekonomiaren bilakaerari begiratuta, egungo sistema kapitalistaren –globalizazioaren– ezaugarri nagusia ekonomia finantzarioaren nagusitasuna da: ekonomia produktiboak gero eta garrantzi txikiagoa du ekonomia finantzarioaren aldean.

Ekonomia finantzarioak benetako ekonomiarekiko gero eta autonomia handiagoa izateak eragina izan du burbuila finantzario deritzon horretan; izan ere, kapital asko, inbertsio produktiboak errentagarri izango ez direlakoan, espekulaziora bideratzen dira eta kontrolaezinak dira. Dinamika horrek enpresen mozkinen jomugak ere baldintzatzen ditu, aurrerantzean inbertsio txikiak egin eta, nagusiki, kapital espekulatiboa elikatzen baitute (MENDIZABAL, 1999).

Merkatu globalizatua eratzeko prozesuan, munduko bazter guztiak ahalik eta etekin handienaren legearen mendean bat eginda, kapital mota batek independentzia lortu du: kapital finantzieroa da, kapital birtuala, kapital likidua, burtsetan ikusi eta gorpuzten den kapital mugikorra; eta kapital komertziala, kapital industrial eta kapital soziala forma guztietan menderatzen du. (Jean Zieglerrek esana, “El orden criminal del mundo” dokumentalean)

Merkatu finantzarioek ez dute lotura handirik benetako ekonomia edo salerosketarekin. Dibisen merkatuan egunero zirkulazioan dabiltzan

kopuruak 50 aldiz handiagoak dira uki daitezkeen edota finantzarioak ez diren zerbitzuenak baino⁶. (SUSAN GEORGE eta besterik, 2004).

Globalizazioaz hitz egitean globalizazio ekonomikoa eta, horren baitan, ekonomia finantzario birtuala nabarmentzen badira ere, globalizazioa ez da huts-hutsean ekonomiari lotutako prozesua. Oinarrian hori bada ere, bizitzaren esparru guztietan du eragina, eta hainbat prozesuren bultzatzaile ere bada. Hartara, ekonomian bakarrik oinarritutako definizioak hankamotz geratzen dira, Franco Berardi *Bifo* pentsalari italiarrak eta Fernando Rojas Kubako pentsalariak diotenez.

Zer esan nahi du globalizazio hitzak? Globalizazioaz arduratu diren askok faktore hauek azpimarratu dituzte: merkatuak irekitzea, aduanetako mugak kentzea edo salgaiak munduko bazter guztietara iritsi ahal izatea. Fenomeno horiek guztiak esanguratsuak dira eta lotura dute gaiarekin. Baina banaketaz, zirkulazioaz eta kontsumoaz egiten diren hausnarketak ez dira nahikoak globalizazioa definitzeko. (BIFO, 2002)

Globalizazioaren esparru nagusia ekonomia da, baina zaila da globalizazioaz hitz egitea beste eremu batzuk kontuan hartu gabe: kultura, politika, eta, horrekin batera, gizakien, mezuen, zerbitzuen eta ideien mugikortasuna. (ROJAS, 2004)

Ekonomiaren eremutik kanpo (politikan, gizartean, ekologian, kulturean eta, jakina, hizkuntzalaritzan) globalizazioak zer-nolako eragina izan duen aztertzerakoan, ondorioak ezkutupean uzten dituen halako estaldura ideologikoa dagoela salatzen dute hainbat egilek; adibidez, Saskia Sassen Herbeheretako urbanizazio adituak eta Noam Chomsky AEBetako hizkuntzalari eta pentsalariak.

Orduan, Globalizazioaren atzean errotiko aldaketarik ez badago, “esaten digutena” ez bada, zergatik errotu da hainbeste kontzeptu hori gizarte zientzietan? Zergatik igaro da bizitza publikora eta kaleko hizkuntzara hain azkar eta hainbesteko eraginkortasunez? Bada, horren guztiaren atzean eraikitze bat dago: ideologia neoliberalak Globalizazioa hartu du nazio-estatuaren eta bereziki Ongizatearen Estatuaren aurkako erasoaren mito zilegiztatzailetzat. Beraz, merkantilizazio prozesu bat dago ezkutuan (Merkatuak hartzen baitu erdi-erdiko tokiak, Estatuak alboratuz), baita eremu ekonomikoa eremu politiko-sozialetik aldentzeko prozesua ere. (...) IKTen eta Globalizazioaren arteko elkarreraginak sortutako ustezko hiri espazialitatea ez da diskurtso ideologikoa –Globalizazioaren mitoak– sinestarazi nahi digun bezain berria, sustrai historiko sakonak baititu. (SASSEN, 2003)

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dut ez genukeela *globalizazio* hitza erabili behar, ez baitu egoera bat deskribatzen: propagandako hitza besterik ez da. Guztiok gaude globalizazioaren alde; une honetan, zu eta ni era bateko edo besteko globalizazioan murgilduta gaude. Inor ez dago globalizazioaren aurka. Funtsezkoena zera da: zelako nazioarteko integrazioa behar dugu? Sistema doktrinaletan *globalizazioa* esaten dutenean, oso gauza zehatza esan

⁶ Beste egile batzuek are handiagoak direla adierazi dute; esate baterako, Carlos Taibok 70 aldiz handiagoa dela utzi du idatzita. (TAIBO)

nahi dute: nazioarteko integrazio sistema zehatza da, inbertsoreen, banketxeen, enpresen onerako eraikita dagoen globalizazio mota da. Mota honetako globalizazioan pertsonak ez dira garrantzitsuak. (CHOMSKY: 2006)

Azken batean, globalizazioa dominazioa zilegiztatzeko egitura ideologikoa ere bada. Izan ere, globalizazioak badu zer ezkutatua, eta, hain zuzen ere, ideologia neoliberala errealitate horiek normaltasunaren izarapean ezkutatzeko sortu da. Ideologia horren arabera, sistemak denon aukera berdintasuna bermatzen duen heinean, aukerak hobeto aprobetxatzen dituenak lortuko du lehian aurrera egitea. Hizkuntzen egoera aztertzean ere ikusiko dugu diskurtso hori oso indartsua dela eta oso hedatuta dagoela, Susan George globalizazioaren aurkako mugimenduko pentsalari frantziarrak –kanadarra jaiotzez– **(IKUS HIZKUNTZEN GAINEKO DISKURTSOA)**.

Sistema gizabanakoaren askatasunean, nork bere burua arautzean eta gaitasun handiena dutenen lehiakortasunaren eta iraupenaren lege darwiniarrean oinarrituta badago, sistema ez da bat-batean aldatuko, eta sistemak berak ez du eskatuko, berez, arauak ezartzeko. Ezin da espero sistematik etekin gehien eskuratzen dutenek beren berehalako interesen aurka egitea, ezta etekinen printzipioen aurka eta norberaren arrakastaren aurka egitea ere; ezin da espero ere, egungo egoera zein den ikusita, inork hori egitera behartzea (...) [Ideologia neoliberalaren] arrakasta honetan ikusten da: etikoki onargarria iruditzen zaigu pertsona analfabetoak egotea, enplegurik aurkitzeko aukerarik gabeak, hutsalak eta degeneratuak, ugaritzen joatea. (GEORGE eta besterik, 2004)

Hitz bitan, hauxe da arrazoiketa: naturan, gizakiak hautsi ezin dituen legeak nagusi badira, gizarteak modu berean egituratu behar du. Beraz, merkatu ekonomia eta politika zilegiztatzeko, naturalizazio prozesu baten bidez, Francisco Fernández Buey Zuzenbidearen Filosofiaren katedratiko espainiarrak dioenez.

Ideologia neoliberallean ohikoa da gaitz soziala naturalizatzea; hau da, herrialde pobreez hitz egitea herrialde pobretuez hitz egin ordez, pobrezia eta miseria berezko alferkeriaren eta behe mailako kulturen azpigarapenaren ondorio direla aldarrikatzea. Ideologia neoliberalaren ezaugarri nagusietako bat, atzoko kapitalismoa eta gaurko kapitalismoa bereizten dituen, hauxe da: egun, *naturalak* dira herrialde aberatsetan langabezia tasa handi samarrak egotea eta, aldi berean, biztanle ugari leporatzea ustiatuak izateko ere ez dutela balio. Ezta ustiatuak izateko ere, horixe da gakoa. (FERNANDEZ BUEY, 2004).

Egile askok gizarte kapitalistetan nagusi den printzipioari *darwinismo soziala* deitzen diote (George, Apolonia del Brutto...): bakoitzak, bere banakotasunean, ahal duena egin behar du, eta horixe da aurrera ateratzeko bide bakarra. Darwinismoa etengabe agertuko zaigu hainbat suntsitze prozesu azaltzeko boteretsuenek erabiltzen duten diskurtsoan (darwinismo ekonomikoa, politikoa, kulturala, linguistikoa...). Ideia horretan oinarritutako legeak naturaren eta, horren ondorioz, Jainkoaren legeen pare jartzen dira, Andrés Bilbao Madrilgo Complutense unibertsitateko (Espainia) irakasleak eta Eduardo Galeano idazle uruguaiarrak esandakoaren harira.

Ideologia liberalak prozesu ideologiko bat erabili du harreman ekonomikoak eta sozialak naturalizatzeko, Bergerrek aipatzen duen merkatuaren “Sakralizazio” prozesuaren antzekoa; izan ere, ideologia liberala eta bere burua arautzen duen merkatuaren funtzionamendua ezin da ulertu Federik gabe. (BILBAO, 2002)

Eta Jainko hori Itun Zaharreko Jainkoa baino okerragoa da; ez da makala, beraz. Beti dago haserre, beti mendekua hartzen, beti debekatzen... Zigorren Jainkoa da, debekuen, mehatxuen... Orduan, jakina, Nazioarteko Diru Funtzaren, Munduko Bankuaren eta Munduko Merkataritza Antolakundearen bidez, etengabeko bortxa egiten diete kanpo zorreratik soberania murriztuta duten herrialdeei. (Eduardo Galeanok esana, “Voces contra la globalización” dokumentalean)

Beraz, Galeanoren azken pasarteak adierazten duenez, esku hartzeak badaude (Nazioarteko Diru Funtzak, Munduko Bankuak eta abarrek esku hartzen baitute ekonomian zein gizartean), baina esku hori ikusezina da –merkatuaren esku ikusezina–, eta hark sortzen dituen desberdintasunak *naturalak* dira.

3. GLOBALIZAZIOAREN ESTALDURA IDEOLOGIKOA

Estaldura ideologiko naturalizatu horrek, besteak beste, globalizazioak eragiten duen bazterketa uzten du ezkutupean, eta, hain zuzen ere, ezaugarri hori nabarmentzen dute zenbait egilek; adibidez, Susan Georgek eta Jose María Franquet Ekonomia Zientzietako doktore espainiarrak.

“Globalizazio” hitza iruzur hutsa da, egungo errealitatea erakutsi baino estali egiten baitu, eta oso formula egokia da *de facto* gertatzen ari den bazterketa izendatzeko. Ez du zerikusirik mundu bakar, integratu eta bateratua sortzearekin, ezta munduko biztanle guztien onerako izango den prozesu batekin ere. Mundu osoa bizitza hobe bateranzko bidean jarri ordez, globalizazioak aukera ematen dio merkatuan oinarritutako munduko ekonomiari “onenak aukeratzeko eta gainerakoak bazter batean uzteko”. [...] Globalizazioa gobernatzen duten indarrek ez dute ia zerikusirik Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean zehaztutako printzipioekin, eta bai, aldiz, eskulan merke eta ahula bilatzearekin. (GEORGE eta besterik, 2004)

Gini eta Lorenz adierazleek –mundu osokoak– erakusten dutenez, errentaren eta aberastasunaren banaketan dauden aldeak lotsagarriak eta gero eta handiagoak dira. Argi dago merkatuak irekitzearen etekinak lehiatzeko eta esportatzeko gaitasuna zutenek bakarrik eskuratu dituztela. Latino Amerikan, adibidez, merkatuak irekitzeak merkataritza balantzak okerrera egitea eragin zuen herrialde gehienetan; eta, batzuetan, Argentinan kasu, hondamendia ekarri zuen. (FRANQUET, 2005)

Eta hondamendiak ez dira hondamendi ekonomiko-finantzieroak bakarrik. Ildo beretik, gizatasunaren ikuspuntutik urrun samar, bazterketaren atzean animalien berezko jarrerak ikustera ere heltzen dira egile batzuk, tartean González Casanova Mexikoko soziologoak.

Pentsatu behar dugu globalizazioa munduaz jabetzeko eta biztanleak menderatzeko prozesua dela. [...] Natur baliabideez, aberastasunez eta soberakinez jabetzeko, modu bereziak erabiltzen dira –XX. mendearen bigarren erditik aurrera–, garapen teknologiko eta zientifiko aurreratuarekin batera oso aspaldiko modu batzuk erabiltzen baitira, baita animalien pareko jarrerak ere; adibidez, harraparitza, banaketa eta parasitismoa. Izan ere, horrelakoak agertzen zaizkigu pribatizazioan, desnazionalizazioan eta araudiak indargabetezko prozesuetan [...] Globalizazioa azaletik ulertzen da, hau da, iruzurra da, ez baldin bada zapalkuntza eta lapurreta prozesuekin lotzen (GONZALEZ CASANOVA, 1998).

Irudirik beldurgarrietako bat “xanpain koparen grafikoa” da: munduko biztanleen %20k aberastasun guztiaren %87 du. Gainera, desberdintasunak handituz doaz, hainbat egilek diotenez (Franquet, Chomsky, Galeano, Alba, George, Rojas...), eta ez soilik herrialde txiroetan; izan ere, herrialde garatuenetan ere, AEBetan adibidez, aldea gero eta handiagoa da. Gainera, desberdintasunak ez dira bakarrik sozialak eta ekonomikoak, sexuaren arabekoak ere bai, transmisioari buruzko atalean emakumearen garrantzia azpimarratzean ikusiko denez (**IKUS HIZKUNTZA GUTXITUAK. TRANSMISIOA**).

Ikaragarri aberats diren pertsonak arazo izaten dira askotan gobernuentzat. Hasteko, estatuak baino diru baliabide gehiago dituzte; esate baterako, Bill Gatesek munduko herrialde asko baino diru gehiago du. Eta, gainera, batzuetan, politikan sartzen dira buru-belarri. Hortxe daude Silvio Berlusconi eta Thaksin Shinawatraren kasuak, besteak beste: beren dirua jarriz Italia eta Tailandiako gobernuburu izatera iritsi dira, eta hori ez da larriena, hau baizik: estatuak edo bestelako erkidegoak enpresa irizpideen arabera gobernatzen dituzte (**IKUS BOTERE ALDAKETA ETA ENPRESAK**).

Desberdintasunak areagotzeko joera horrek muturretara eramaten gaitu guztiok, eta mundua bitan banatzen dute; batzuek banaketaren bi muturrak Iparra eta Hegoa direla uste dute; beste batzuek, berriz, Zentroa eta Periferia nabarmentzen dituzte; azkenik, eskema horiek balio ez dutelakoan, kontzeptu berriak dakartzatenak daude, tartean Ignacio Ramonet *Le mond diplomatique* agerkariaren zuzendaria eta Franco Berardi *Bifo*.

[XX.] mende[aren] amaierako mundua artxipelago baten ereduaren arabera egituratzen da: iparraldean, pobreen gero eta irla gehiago; hegoaldean, aberatsen gero eta irla kontzentratu gehiago (GARRIDO, 2004).

Mugak ez ditu Iparra edota Mendebaldea eta geografikoki ulertzen dugun Hirugarren Mundutik bereizten; mugak kontinente bakoitza zeharkatzen du, herrialde bakoitza eta hiri bakoitza, eta hurbileko eta urruneko harremanen mapa berregiten du. Klase birtuala [hala esaten dio goiko klaseari] Indiako, Ipar Amerikako edo Brasilgo edozein hiritan egon daiteke, baina truke informatibo, produktibo, afektibo eta kultural global

berean hartzen du parte, eta planetako *underclass*⁷ klasearekin sekula topo egiten ez duen nazio birtual moduko bat eratzen du. Gainera, *underclass* klasea Hego eta Iparreko metropolietan konfinatuta egoten da, zuzeneko komunikatorako aukera oso urria den zonaldeetan. Hartara, planetako proletarioen *underclass*aren barne komunikazioa klase birtualaren komunikazio zentroek kudeatzen dute. (BIFO, 2002)

Nolanahi ere, badira globalizazioa guztion onerako dela aldarrikatzen duten autoreak; esate baterako, Paul Anthony Samuelson AEBetako ekonomilaria eta Johan Norberg, haien ustez desoreka handiak dituzten herrialdeen arteko merkataritza onuragarria baita denentzat.

Mutur aberatsean daudenak, enpresa transnazionalak dira: 40.000 transnazionalak, 170.000 filialen bidez, munduaren BPGren %30 eta esportazioen %40 eskuratu dute, nahiz eta 18,8 milioi langile “bakarrik” eduki –hau da, munduko biztanle aktiboaren %0,75–. Aberastasuna transnazionalen esku pilatzen da, baina ez aberastasuna bakarrik, planetaren baliabideak eta botere politiko-ekonomikoa ere bereganatzen baitituzte, baita hizkuntz irizpideak ezartzeko boterea ere, aurrerago ikusiko dugunez.

Transnazionalak bereganatutako boterearen adierazgarri, adibide hauxe: Gerard Schröder Alemaniako gobernuburuaren bultzadaz, 35 orduko lan astea indarrean jartzeko legea tramitatzen ari zela, Siemens transnazionalak –munduko aurrenetakoa elektronikan– legea onartuz gero bere fabrikak Alemaniatik kanpora eramango zituela zabaldu zuen lau haizetara. Azkenean, munduko laugarren potentzia ekonomikoak atzera egin behar izan zuen, eta Siemens enpresak soldata txikiagoa jarri zien langileei lan bera egitearen truke. Botere harreman erabat asimetriko horrek hizkuntz gatazkatan ere eragina du, noski (**IKUS BOTERE ALDAKETA ETA ENPRESAK**). Botere pilaketa nazioez eta estatuez gaindikoa da, gainera, Toni Negri ekintzaile ohi eta pentsalari italiarrak dioenez.

Mundializazioak mundu osoko klase kapitalistek bat egitea ekarri du. Denak Wall Street-en daude ordezkaturak. Wall Street ez da soil-soilik kapital amerikarraren erdigunea, munduko kapitalismo kolektiboaren erdigunea da (Toni Negri esana, “Voces contra la globalización” dokumentalean).

Beraz, Butros Gali NBEko idazkari nagusi ohiak onartu zuenez, estatuez gaindi dauden erakundeak dira egungo botere guneak eta munduaren gobernu osatzen dute⁸. Neurri batean ikusezinak diren arren, izen eta abizenak dituzte, Jean Ziegler NBEko elikagai eskubideetako errelatore suitzarrak eta Heiz Dietrich Alemaniako soziologoak diotenez.

Munduaren nagusiak, gaur egun, ikusezinak dira. Ez daude inongo gizarteren, sindikaturen, legebiltzarren kontrolpean. Itzalpean dauden gizakiek dute boterea munduan. Estatuak atzean, nazioarteko erakundeak

⁷ “Azpiklase” edo “baztertu” ere jar zitezkeen, baina jatorrizko hitza ekarri nahi izan dugu. *Underclass* hitza asko erabili dute AEBetako eta Britainia Handiko eztabaida politiko-sozialetan, eta gutxiesteko erabiltzen da. Euskarazko hitzek, ordea, ez dute jasotzen gutxiespen ñabardurarik.

⁸ Hauxe da Galik esandakoa, hitzez hitz: “Munduko boterea estatuak kontrolatzen ditu. Izan ere, globalizazioak estatuak egiturez gaindiko botere berriak eratzeko premia asetzen du”. (CHOMSKY, Noam, eta RAMONET, Ignacio (2007)

atzean, oso jende gutxi osatutako gobernu oligarkiko bat dago. Oso jende gutxi da, baina ahalmen, eragin eta gizarte kontrol ikaragarria dute gizateriarengan, gizakien historian Aita Santu edo enperadore batek sekula eduki ez duen adinakoa. (Jean Zieglerrek esana, “El orden criminal del mundo” dokumentalean)

Heinz Dieterich, ostera, *de facto* existitzen den protogobernu mundialaz mintzo da: bere ustez, EEBB, Kanada, Frantzia, Alemania, Japonia, Italia eta Erresuma Batuak osaturiko G7 edo Zazpi Handien taldeak betetzen du gobernu globalaren gidaritza-funtzioa. Horrez gain, G7 taldeak zuzenduriko exekutibo mundialaren egitura honako hau da Dieterichen irudiko: alor ekonomikoa Munduko Bankuaren, Nazioarteko Moneta Fondoaren, Munduko Merkataritza Erakundearen eta Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen esku bide dago; alor politikoa, Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren esku; gizarte alorra, alor ideologikoa, Unescoren, Lanaren Nazioarteko Erakundearen, PNUMAren eta NBERen Batzar Nagusiaren esku; alor militarra, azkenik, NATOren esku dago, denok ere honezkero ondo baino hobeto dakigun moduan (justizia alorrik ez dugu aipatu; beharbada NBERen adar den Hagako Nazioarteko Justizia Auzitegia hor dagoela pentsatuko du norbaitek, baina Dieteritxek ez du aintzat hartzen, baldintzapen ekonomiko eta politiko handiak dituela argudiatuta) (ZUBEROGOITIA, 2000).

Botere gune horien printzipioa hau da: merkatu finantzierok aurrerapena eta egonkortasuna ematen dute. Beraz, onena gobernuak merkatu kontuetan esku ez hartzea da, eta, hain zuzen ere, hori bultzatzen dute: inongo kontrol edo mugarik gabe jardutea. Ikuspegi horren arabera, gobernuak eragozpenak jarri besterik ez dute egiten. Ronald Reagan AEBertako presidente ohiak ezagun egin zuen esaldiak laburbiltzen du ezin hobeto neoliberalismoaren filosofia: “Gobernuak ezin du arazoa konpondu, gobernu bera da arazoa”. Hortik gobernuak suntsitzera edo, behintzat, gobernuen boterea ahultzera urrats erdia baino ez dago.

Botere berriak ditugu begien aurrean edo ezkutatuta, baina non geratzen dira orain arte nagusi izan diren botere guneak? Zenbateko boterea dute estatuetakoko gobernuak eta estatuak beraiek? Hona hemen galdera horri Julen Zabalo Euskal Herriko idazleak emandako erantzuna.

[Estatuaren] eraketa mota hori da gaur zalantzan ipintzen dena, ez bide baita bateragarri globalizazio prozesuarekin. Izan ere, jakina da prozesu horrek nazio-estatuari erasotzen diona eta estatu mota horren funtsa zen nazio esparrua ezartzea indargabeturik geratzen ari dena, azpitik eta gainetik gainezkaturik” (ZABALO, 2000).

Estatuaren indargabetze prozesuan, egile batzuk mutur-muturreraino joan eta estatuaren boterea hutsaren pare jartzen dute. Horren isla dira Carlos Taibo Madrileko Unibertsitate Autonomoko zientzia politikoen irakasleak eta Jean Zieglerrek diotena.

Oso inozoak izango ginatke pentsatuko bagenu estatuaren buruan dauden pertsonak (Zapatero, Bush, Blair...) benetan garrantzitsuak diren gaitan

erabakitze ahalmena dutela. Korporazio ekonomiko-finantzario erraldoiak dira, ezkutuan badaude ere, jokoaren arauak ezartzen dituztenak (Carlos Taibok esana, “Voces contra la globalización” dokumentalean).

[Gobernuburuek] burtsen emaitzei begiratzen diete, jakiteko zerga politikarako, enplegu politikarako eta inbertsio politikarako milimetro horretan nola mugitu –milimetro bat baino ez dutelako!–. (Jean Zieglerrek esana, “Voces contra la globalización” dokumentalean).

Estatuen egungo boterea zenbatekoa den jakiteko, komeni da kapitalismoa besarkatu duten estatuen funtzioak zein diren aztertzea. Printzipioz, estatu horiek bi funtzio dituzte: kapitalari laguntzeko baliabide izatea eta demokrazia parlamentarioen bidez herritarrak gustura egon daitezen lortzea, ezinegon soziala saihesteko. Kapitalismoaz oso iritzi desberdinak –kontrakoak ia– dituzten egileek ontzat hartzen dituzte bi premisa horiek. Hori kontuan hartuta, kapitalismoaren aldi honetan estatuek eta transnasionalek duten elkarlana azpimarratzen du Etxezarretak; betiere, estatuen artean alde handiak daudela ahaztu gabe.

Egile batzuen arabera, gaur egun Estatuak ez dute botererik, Estatuen boterea transnasionalen esku geratu dela uste baitute. Baina den-denak ez dira iritzi berekoak. Estatuak oraindik ere ezinbestekoak dira, gizarte bizitzaren zati batzuk ezin dituztelako kapital pribatuek zuzenean kontrolatu –legeak, politika ekonomikoa, gizarte kontrolak–, eta Estatuak behar dituzte arazorik gabe ibiliko dira ziurtatzeko (ETXEZARRETA, 2001).

Estatuez gaindi, estatu bat eratu da, mundu mailako estatua edo boterea, eta horrek gizarteak benetako botererik ez edukitzea eragiten du. Ideia hau nagusitzen da liburuz liburu eta artikuluz artikuluz: nazio-estatuak indargabetuz joan diren bezalaxe, gizabanakoak eta gizarteak ere indargabetuz joan dira, euren bizitzen eta harremanen gaineko boterea galtzen ari baitira. Nazioez gaindiko estatua nagusitu da, gizarterik gabeko estatua, merkatu finantzieroei eta enpresa handiek gobernatzen dutena, eta mundu mailako estatu hori sendotzeak egungo gizarteak benetako botererik ez edukitzea dakar. Eta ez hori bakarrik, gizarteaz gain, kolektibitate oro erasopean jartzen ditu, tartean hitzunek osatutako komunitateak. Ideia horretan, ñabardurak ñabardura, bat datoz Amir, Mendizabal eta George.

Egun indarrean dagoen sistema ekonomikoak, MMEk eta NDFk ordezkutzen dutenak, oinarri hau du: ez dago gizarterik, euren artean lehian dabilzan gizabanakoen mundu bat baizik. [...] gizartetik geratzen dena desagertzen ari da; ekonomia suntsitu nahi dute [ekonomia errealaz edo produktiboaz ari da] (Samin Amirrek esana, “Voces contra la globalización” dokumentalean).

[Kapitalismoa] giza subjektua hausten duen gizartea da, gizabanakoa eremu komunitario edo kolektibotik, eremu sozial, politiko eta kultural zabalagoetatik aldentzen baitu. Gizakia produkzio gaitasunera eta kontsumo ahalmenera murrizten du. Gizarte horrek, gizabanakoaz

hainbeste hitz egitearen poderioz, gizabanakoa gero eta isolatuago eta galduago uzten du, ahanzturaren basamortuan. (MENDIZABAL, 1999)

Gure gizarteek oso gutxitan aplikatzen dute erantzukizun kolektiboaren kontzeptua, eta are gutxiago guztion onura lortzeko erantzukizun kolektiboarena. (GEORGE, 2001)

Zentzu kolektiboaren adierazpen bat kultura da, eta kultur aniztasunaren aurkako joera da globalizazioak bultzatzen duen beste ondorio bat. Gero eta antzekoagoak gara denok kulturaz, euskal herritarrak izan, japoniarrak izan edo somaliarrak izan. Kultur identitateen zapalkuntza eta kultur uniformizazioa globalizazioa bezain hedatuta daudela azpimarratu dute Chomskyk, Fernandez Bueyek eta Mendizabalek, besteak beste.

Globalizazioa kulturaren zati baten balioen globalizazioa da: Mendebaldeko egitura patriarkalen eta kapitalistena. Horrek esan nahi du gainerako kultura guztiak bortxatu egiten direla, bai Mendebaldean, bai gainerako tokietan (CHOMSKY, 2004).

Idea horren arabera, gizateriaren kultura historikoak bitan sailkatuta daude: unibertsalistak (aurrerakoiak, modernizatzaileak) eta kaskagorkeriaren kaskagorkeriaz partikularistak direnak (edo basatiak) (FDEZ BUEY, 2004).

Kultur zapalkuntza ustiaketa globaleko edozein sistemaren faktore erabakigarria da. Kultur zapalkuntza horrek zapal dutako klaseen eta herrien balioak, jarrerak, erakundeak eta identitateak birdefinitzen ditu, zapalkuntza harremanak eta egoerak naturalizat hartzeko. Homogenizazio prozesu horrek hizkuntza eta kulturala nazionalen asimilazio abiadura bizkortzen du, eraso biderkatu eta arriskuan jartzen baitu defentsa txikiak dituztenak. Egoera hori are larriagoa da Nazio-estatu handien barruan dauden herri zanpatuetan (MENDIZABAL, 1999).

Berezko kultur adierazpenak albo batera utzi eta unibertsalak geureganatzeko prozesu horretan, AEBetan nagusi diren kultur ezaugarriak geureganatzen ditugu, huraxe baita eredu unibertsala –"kultur zanpagailua" esaten dio Carlos Taibok (TAIBO, 2005)–. Eta Samuel Huntington AEBetako zientzia politikoetako adituak⁹ berak ere onartzen du ezin dela merkatu libreko sistema globalizatua ezarri, horren oinarrian dagoen kultura ahulduz badoa (GEORGE, 2001). Hau diote gaiari buruz Fito Rodriguez EHuko filosofia irakasleak, Franquetek eta Marcos EZLN gerrillako buruzagiak.

Baina fenomeno kulturala izateaz gain, globalizazioaren azpian ekonomia antolaketa berria dago, non finantzabideek industrializazio modernoaren egituraketa desegino duten, aurreko lan harremanak ere desitxuratuz. Honetan, berriro ere, ezin esan inolako mundializazioa ezarri denik, baizik

⁹ 1993tik aurrera, hainbat artikuluren eta liburu baten bidez, Huntingtonek eragin handiko ideia bat plazaratu zuen: zibilizazioen arteko gerra. Askotan, Fukuyamaren "Historiaren amaiera" kontzeptuaren garapentzat jo izan da. Huntingtonen teoriaren arabera, elkarren aurkako gatazkan ari diren zibilizazioek osatzen dute mundua. Idatzietan, mendebaldeko eta "mendebaldetik kanpoko" ikuspegiak kritikatu ditu, hipokritak direlako eta beren zilborrari begira daudelako.

eta (goian kultur arloan esan dugun bezala) Amerikako Estatu Batuen inperioak bere agintea (ekonomikoa, oraingo honetan) mundu osora zabaltzea lortu duela. Beraz, globalitate garaian bai kulturalki hedaturiko *American way of life* (Gorz, Grignon) baita amerikar beharren arabera ekonomia borobildua ere (Burgi, Golub, Fitoussi) ditugu funtsezko zutabeak. Dagoeneko, bada, moderniak eraikitako gizartea, bere estatu-nazioa, kultura berezitua eta guzti, bere industrializazio eta merkatu nazionala babesten zuen legeteri propioaz... desagertuta dago (Piore, Sabel). (...) Globalizazio deritzana inperialismo amerikarraren aurpegi berria dugu (RODRIGUEZ, 2000).

AEbak eredu unibertsal direla izan da AEBetako zibilizazioaren ezaugarri nagusia denbora luzean. 80ko hamarkadan, Eskuinak, merkatu librearen ideologiaren pean, misio nazionala aldarrikatzeko abilezia izan zuen. Egun, XXI. mendearen hasieran, AEBetako transnazionalen boterea mundu osora zabaldu da eta zibilizazio unibertsalaren ideala iparramerikarren diskurtso publiko guztietan txertatu da (FRANQUET, 2005).

Planeta konkistatzeko neoliberalismoaren lagun den eredu ideologikoa oso zaharra da eta lizunduta dago. Bigarren Mundu Gerran, 60ko hamarkadako Vietnemo Gerran, eta, gerora, Pertsiar Golkoko Gerran AEBetako armadaren bidelagun izan zen “American way of life” merkatu finantzarioen eskutik doa gaur egun. (MARCOS, 1997)

4. PENTSAMENDU BAKARRA

Ideologia nagusia indartzeko saltzen diren informazio produktuek pentsamendu bakarra eragiten dute. Ramonet eta Chomskyren arabera, pentsamendu bakarra ere ez da berria, aspaldikoa da: Bretton-Woods akordioetan formulatu eta definitu zen 1944an, eta erakunde handiek beren intereseko ideiak mundu osora zabaltzea zuen helburu. Egile horien arabera, bi printzipio nagusi ditu pentsamendu bakarrak: irizpide ekonomikoak irizpide politikoen gainetik kokatzea eta irizpide horiek politikaren zerikusirik ez daukatela sinestaraztea, hau da, ideologiaren *apolitikotasuna*, gerora Fukuyamak zehaztutako *ahistorikotasunaren* anaia bikia. Chomskyk eta Ramonetek pentsamendu bakarraren mandamenduak idatzita utzi dituzte, indartu beharreko kontzeptuak eta horren arrazoiak zehaztuta.

[1] Merkatua, merkatuaren esku ikusezinak kapitalismoaren alde txarrak eta disfuntzioak konpontzen dituelako; [2] lehiakortasuna, enpresak sustatu eta bultzatzen dituelako etengabeko modernizazio onuragarriantze; [3] mugarik gabeko elkartruke librea, merkataritza eta, horren ondorioz, gizartea etengabe garatzearen aldeko faktorea delako; [4] mundializazioa, bai manufaktura produkzioarena, bai finantza fluxuena; [5] nazioarteko lanaren banaketa, sindikatuen aldarrikapenak leundu eta soldaten kostuak merkatzen dituelako; [6] moneta indartsua, egonkortasuna ekartzen duelako; eta, horrekin batera, arauak kentzea; pribatizazioa; liberalizazioa; eta [7] estatuen botere murrizketa, lanaren aurretik kapitala lehenesten delako (CHOMSKY eta RAMONET, 2007).

Egileen arabera, argudio horiek behin eta berriro errepikatzen dira, errepikapenaren errepikapenez frogatutzat onar ditzagun. Haiek diotenez, kapitalismoaren ikuspegitik, pentsamendu bakarraren premia “koakzio makina erraldoien” (eskola, eliza(k), familia, armada...) eta estatu totalitarioaren krisien ondorio da. Azkenik, honako hau eranstean dute: pentsamendu bakarraren *betaurrekoekin* langabezia, hirietako hondamendiak, lan prekarizazio orokorra, lehertzearen dauden bazter auzoak, arpilatze ekologikoa, arrazakerien itzulera, baztertuen oldea eta abarrak ameskeria edo irudikeria hutsa dira, inon agertzen ez diren arazoak. Lan honen aztergaiak hizkuntza gutxituak direnez, ez dago soberan ameskeria horien artean hizkuntz aniztasunaren murrizketa ere sartzea.

Errealitatearen eta ameskeriaren arteko aldea frustrazioz barneratzen dute norbanakoek, eta horrek norberaren psikologian ere eragina du. Sendón de Leónen eta Joseba Azkarraga Etxegibel Euskal Herriko soziologoaren arabera, buru gaixotasunak gaixotasun psikosozialak dira, bizi garen munduaren ondorio.

Dany-Robert Doufur filosofo frantziarrak honako hau esan du: “Subjektu postmodernoa neurosi eta psikosi egoeren arteko mugan definitutako egoera subjektiborantz doa, ematen du faktore batzuek gero eta kateatuagoa dutela: malenkolia estaliak, lehen pertsonan hitz egiteko ezintasunak, “izaera” faltsuetan oinarrituta aurrera egiteak, hau da, merkatuak eskaintzen dituen pertsonalitate ugarietako bat aldi baterako hartuta jokatzek. (SENDÓN DE LEÓN, 2001)

Gosaldu berri eta eguna erabat petraltzeko arriskua ikusi dut, hasi naiz-eta neure buruari serio galdetzen aro globalak ez ote duen psikopatak berezkoa duen hori: nortasun antisoziala. Ez ote diren inoiz baino errazago fabrikatzen portaera ez enpatikoak. (AZKARRAGA, 2007)

Beldurra, neurosi egoerak, “izaera” faltsuetan oinarritutako pertsonalitateak, nortasun antisoziala... Horra hor hizkuntza gutxituetako hitzunen ezaugarri psikosozialak aztertzean kontuan hartu beharreko faktore batzuk. Errealitate hori pairatzen dugu, baina zorientasunaren ideologiak estali egiten digu.

Zoriontsuak izango garela dioten promesa dabil masa kulturaren eta publizitatearen, baita ideologia ekonomikoan ere. Ohiko diskurtsoan, zorientasuna ez da aukera, betebeharra baizik, *must*¹⁰ bat; ekoizten, erosten eta kontsumitzen dugun salgaiaren balioaren oinarritzko balioa da. Horixe da *new economy*aren filosofia, nonahi dagoen publizitate diskurtsoak bideratuta dago, zenbat eta ezkutuago, orduan eta eraginkorrago. (BIFO,)

Azken batean, ondorioa garbi dago: globalizazioak ez gaitu zorientsuago egiten, hainbat autorek diotenez (Chomski, Negri, Alba, George, Klein, Franquet, Bifo, Mendizabal...), eta hori frogatutzat ematen du Georgek, besteak beste:

Gaur egun, merkatuan oinarritutako sistema liberalak ez du zorientasuna ekarri, gizateriaren gehiengoari ez dio ekarri kontsolamendurik edota nolabaiteko segurtasunik, eta ez dio horrelakorik ekarriko etorkizuneko

¹⁰ Ingelesez, “behar”.

gizakiei ere: datuak ezagunak dira eta onartu besterik ez dugu egin behar (GEORGE, 2001).

Georgek dionean globalizazioa onartu besterik ez dugula egin behar sistemaren tokian jartzen da, hau da, “Informe Lugano” liburuan ironiaz hartutako toki berean¹¹, baina iruzkin horrek eztabaidagai hau jartzen du mahaiaren gainean: benetan saihestezina al da globalizazioa? Manolo Sáez ekologista ekintzaile espainiarraren ustez, ez.

Globalizazioan bizitzera zigortuta gaude. Nork bere txokoa aurkitzea da onena, globalizazioan bizirik jarraitzeko habia bat. Ez Dago Beste Alternatibarik (ingelesez, TINA¹²), Thatcherrek zioenez, eta ahalegin handia egin dute mundu osoko biztanleek hori sinets dezaten (SÁEZ, 2001).

Argi geratzen da ideologia neoliberalak saiitzen dela sinestarazten globalizazioak atzera bueltarik ez duela, globalizazioa berria dela lau haizetara zabaltzeko erabiltzen duen mekanismo eta baliabide berberen bidez. Ez da berria, beraz, eta saihestezina ere ez da, Santiago Alba filosofo espainiarrak dioenez.

Saihestezina delako kontuari dagokionez, Aznarrengandik hasi eta Clintonenganaino, etengabe entzun diegu gure agintariei globalizazioaren aurkakoei esaten “saihestezina” dela, inkontzientziaz sinetsita produktu nahiko zalantzarri baterako publizitate lelo konbentzigarria aurkitu dutela. [...] Globalizazioa saihestezina dela etengabe esaten badigute, ez da soilik “saihesgarria” dela ez pentsatzeko, baizik eta, batez ere, “zentzuzkoa” dela onartzeko. (ALBA, 2003)

5. GLOBALIZAZIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA¹³

Aurreko puntuetan azaldutako egoera hori salatzeke eta aldatzen saiatzeko, hamaika herrialdetako hainbat pertsona, talde, elkarte eta erakunde elkarlanean hasi ziren, eta globalizazioaren aurkako mugimendua eratu zuten. Mugimenduko ekintzaileek eta militanteek argi utzi dute globalizazio honen aurkakoak direla. Mugimenduko kideen kezka komuna hau da, funtsean: egungo sistema kapitalista neoliberalak sekula ezagutu gabeko kaltea eragiten ari da mundu osoan, maila eta esparru guztietan, bai gizartean, bai politikan, bai ekonomian, bai kulturean, eta horren ondorio dira goseteak, bazterketak, gerrak, natur hondamendiak, mota guztietako uniformizazioak... Mugimendua eratzearen premia eraso global horri aurre egiteko mundu mailako erantzun globala antolatu beharra da.

Gizarte mugimendu hori aztertu duten gehienek gizarte mugimendu berriak jotzen dituzte globalizazioaren aurkako mugimenduaren aitzindaritzat (FERNANDEZ BUEY,

¹¹ “Informe Lugano” liburuan, printzipioz, bederatzi adituk kapitalismoaren etorkizuna bermatuta egon dadin hartu beharreko neurriak ematen dituzte jakitera, baina egile bakarra Susan George da, eta liburua ironikoa da.

¹² There Is No Alternative.

¹³ Mugimenduaren izenaren gaineko eztabaidatan sartzea alde batera utzita, hona hemen beste deitura batzuk: mugimendu alterglobalizatzailea, neoliberalismoaren aurkako mugimendu globala, kapitalismoaren aurkako erresistentzia sarea, mugimenduen mugimendua, globalizazio kapitalistaren aurkako erresistentzia mugimendua, beheko globalizazioaren aldekoak, transnazionalen aurkako mugimendua, mugimendu ez-globalak...

2005). Gizarte mugimendu berriak feminismoari, ekologismoari eta bakezaletasunari esan ohi zaie. 1968 inguruan sortu ziren, aurretik zetorren ikasleen mugimenduaren arrastotik. Hirurak herrialde garatuetan izan zuten indarra (Europar, Australiar eta AEBetan, nagusiki), eta, gizarte kapitalistak hiru esparru horietan eragindako kalteak salatzeaz gain, gizarte eredu alternatiboa aldarrikatu dute. Besteak beste, militarismoaren, patriarkalismoaren eta inperialismoaren kritikatzailerak sutsuenak izan dira XX. mendearan amaierako urteetan.

XXI. mendea hurbildu ahala eta globalizazioaren pertzepzioa indartu ahala, esparru bakarreko gizarte mugimenduak ahulduz joan ziren, eta krisian sartu ziren. Hala ere, egitura eta zirkuitu alternatibo horietatik globalizazioaren aurkako mugimendua sortu zen. Ezaugarri nagusia aniztasuna du; izan ere, bere baitan, pixkanaka-pixkanaka mota askotako pertsonak bildu dira: gazte erakundeak, emakumeen eskubideen aldeko ekintzaileak, ekologistak, gutxiengo etniko eta linguistikoak, banketxe etikoaren aldekoak, anarkistak... Zehatz-mehatz non edo nola jaio zen jakiterik ez dago, baina argi dago duela 10-15 urtetik munduko politikan kontuan hartu beharreko eragilea dela.

Ignacio Ramonet globalizazioaren aurkako buru mediatikoetako bat da, eta, haren ustez, mugimenduaren bilakaerak lau fase izan ditu. Lehenengo, 1995 inguruan, globalizazioaren fenomenoaren identifikatzeko premia zegoen, eta hori behaketan oinarrituta egin zen; hau da, munduan gertatzen ari zenari begiratuta izena jarri behar zitzaion gertatzen ari zen horri, izena jarri gabe ezin baitzen haren aurka borrokatu. Bigarrenik, globalizazioaren ezaugarri nagusiak atzemanda, globalizazioa kritikatu zen, eta mobilizazioaren garrantzia azpimarratu. Hirugarrenik, Seattleko protestek Munduko Merkataritza Erakundearen goi bilera porrotera eramanez, mugimendua handitu egin zen eta protestak eta mobilizazioak ugartu. Gehienak aurkakotasunean oinarritu ziren; batik bat, goi bileren aurka (G8, GATT, ALCA...) eta gerren aurka (Afganistan eta Irak). Laugarren fasean, aurrerapausoak eman zituen, aurka egote hutsetik alternatibak aztertzerara eta lantzerara pasa zen, eta horren adierazpen argiena Porto Alegreko bilera izan zen. Hortik, milaka pertsonak, taldek eta erakundeek Munduko Foroa eratu zuten, elkar ezagutzuz globalizazioari aurre egiteko alternatibak eraikitzeko. Orduz geroztik, Munduko Foroa urtean behin bildu izan da, eta, hortik, Europako Foroa ere sortu da.

Globalizazioaren aurkako mugimenduak egun indarrean dagoen sistemari kritika egiteaz gain, esparruz esparruko aldarrikapenak ditu, tartean hizkuntza aniztasunaren defentsa. Francisco Fernández Buey dekalogo batean bildu ditu aldarrikapenak eta eskaerak (FDEZ BUEY, 2005).

1. Herrialde aberatsek eta transnazionalen herrialde pobretuen kanpo zorra bertan behera uztea
2. Herrialde pobretuei aurrekontuen %0,7 ematea
3. Kapitalen mugimenduei Tobin zerga ezartzea
4. Herritarrei oinarritzako errenta onartzea
5. Jasangarritasunaren aldeko jarrera hartzea
6. Bioaniztasunaren eta hizkuntza aniztasunaren defentsa egitea
7. Elikagai subiranotasunaren alde egitea
8. Hainbat erakunde errotiko aldaketa demokratikoa egitea (G8, MME, NBE, MB...)
9. Demokrazia partehartzailea, barneratzailea eta kulturantza sustatzea

10. Estrategiatzat desobedientzia zibila hautatzea

Dena dela, hizkuntz aniztasunaren alde egitea aipatzen bada ere, hizkuntz erresistentziek toki txikia dute mugimenduan; are gehiago, dekalogoko beste aldarrikapen batzuekin alderatzen bada (adibidez, ekologiarekin).

Paul Bilbao Hizkuntz Eskubideen Euskal Herriko Behatokiko zuzendaria Londreseko Europako Gizarte Foroan izan zen, "Identitatea eta hizkuntz eskubideak Europan" mintegia moderatzen –hizkuntz gutxituei buruz egin zen bakarra–, eta hauxe adierazi zuen foroetan oihartzuna edukitzeko zailtasunez:

Horrelako foro batek hizkuntzaren auzia bere eginez gero, guk aurrera egiteko erraztasun handiagoa izango dugu. Bihar adibidez, dokumentu bat adostuko dute Gizarte Foroko parte-hartzaileek. Han hizkuntza eskubideak aipatuko balira, aurrerapauso handia izango litzateke. Normalean, horrelako foroetan [gizakien arteko] berdintasunari ematen zaio garrantzia, eta gurea bezalako gaiak albo batean geratzen dira. Horregatik du halako garrantzia gaia aipatze soilak.

Aurrerapausoak, beraz, txikiak dira (agiri eta aipamen gutxi batzuk) eta gabeziak handiak: ezjakintasuna eta mespretxua dira nagusi, beste hainbat tokitan bezala. Foroen barne funtzionamenduan ere bada zer hobetua, hizkuntza batzuk baztertu egiten direlako, munduko erakunde nagusiek egiten duten bezalaxe. Nolanahi ere, mugimenduak hizkuntz aniztasunaren alde egin nahi badu, nahitaezkoa izango du bere barruan hizkuntz erresistentziei toki duina ematea, Gabi Basañez Euskal Herrian Euskaraz eta Askapena taldeetako militanteak dioen moduan:

Guk hausnartu nahi duguna da: globalizazioaren aurkako mugimenduak aniztasunaren alde egiten du, hizkuntza aniztasunaren alde egiten du, kultura aniztasunaren alde egiten du, ba, hor ere behar dugula konpromiso erreala gure hizkuntza besteen parean jartzeko ([gatzesarea.net.en](http://gatzesarea.net/en) egindako elkarrizketa).

Ikusteko dago etorkizunean Munduko Foroa ohiko tokietatik ateratzeak eta indigenen aldarrikapenak hartzen ari diren indarrak zer-nolako emaitzak emango dituzten, hizkuntz berdintasunaren diskurtsoa gizarteratzeko. 2008an, adibidez, Bamakon egingo da Munduko Foroa, eta dagoeneko hasiak dira Afrikako hizkuntza nagusietan mintzo diren interpretari sare bat osatzen, antolatzaileak konturatuta baitaude ez dela batere koherentea globalizazioa kritikatzeko globalizazioak bultzatzen duen hizkuntzak erabiltzea (frantsesa, eta, batez ere, ingelesa). Segur aski, beste herrialdeetako eta kontinenteetako kideak globalizazioaren aurkako mugimenduan sartzearen ondorioz gertatu da hori.

Azken batean, TINari aurrez eginez, esan dezakegu ez dagoela atzera bueltarik gabeko patu aldaezinik. Gizakion sinesmenek, iritziek, jarrerak eta borrokek bilakaera hori zuzendu eta goitik behera aldaraz dezakete, eta, horretarako, globalizazioak hizkuntza gutxituei egiten dien kaltea zer-nolakoa den ahalik eta toki eta buru gehienetara iristeko, aurrerapauso garrantzitsua litzateke globalizazioaren aurkako mugimenduaren baitan aldarrikapen horrek indar handiagoa hartzea.

6. LABURBILDUZ

Iritzi eta azterketa horietan guztietan oinarrituta, globalizazioa zer den baino lan honetan nola ulertuko dugun laburbildu nahian eta jakinda globalizazioa ulertzeko beste hamaika modu daudela, hona hemen idatzitako guztiaren ideia nagusiak, zazpi puntutan laburbilduta:

1. Globalizazioa ez da fenomeno berria, kapitalismoa bezain zaharra da, gutxienez. Egungo kapitalismoaren aldiak ezaugarri jakin batzuk ditu, eta, gehienbat, horiek lotzen dira globalizazioarekin.
2. Globalizazioa, nagusiki, prozesu ekonomikoa da, baina ez da soilik ekonomiarekin lotutako prozesua, hainbat arloekin ere lotura baitu: politikarekin, kulturarekin, pentsamenduarekin, etikarekin...
3. Globalizazioa ideologia ere bada, eta ideologia horrek globalizazioak ekartzen dituen prozesuak eta ondorioak estali nahi izaten ditu, aldaketak naturalak direla aldarrikatuta eta aldaketen eragileak ezkutuan utzi nahian.
4. Globalizazioak bazterketa, aberastasunaren pilaketa, transnazionalen botere metaketa, nazio-estatuaren gainbehera, kultur uniformizazioa, amerikanizazioa, pentsamendu bakarra dakar, eta, horren ondorioz, norberaren bizitzaren gaineko kontrola beste batzuen esku erortzeko arriskua handitzen ari da.
5. Globalizazioa ez da saihestezina, pentsamendu bakarraren eta ideologia neoliberalaren bozgorailuetatik saihestezina eta onargarria dela sinestarazi nahi badigute ere.
6. Globalizazioaren gehiegikerien aurka mugimendu anitza eta indartsua sortu da, baina hizkuntz erresistentziek ez dute indar askorik bere baitan, eta, gehiegitan, mugimendu kideek ez dute aparteko kezkarik hizkuntzekin lotutako gaiez. Nolanahi ere, hizkuntz berdintasunaren aldekoek aukera paregabea dute mugimenduari esker agenda globalean baztertuta dauden hizkuntz aldarrikapenei tokia egiteko.

HIZKUNTZAK GUTXITZEA ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Hizkuntza gutxitua erabiltzea erabiltzaileen *eskubidea* da. (...) Kasurik onenean, egitura gutxituak aukera ematen du hizkuntza gutxitua erabiltzeko, baina *eragozpenen* ondorioz ezin du hizkuntzaren erabilera *agindu*.

Guillem Calaforra, *Lengua y poder en las situaciones de minorización lingüística*

1. SARRERA. HIZKUNTZA GUTXITUAK ZEHAZTEKO ZAILTASUNAK

Hizkuntza gutxituez hitz egitean, oro har, garai batean baino eremu funtzional gutxiago dituzten hizkuntzez aritzen gara; hau da, bizitzako gero eta esparru gutxiago hartzen dituzten hizkuntzez. Hizkuntza horiek, hainbat arrazoiengatik, garai bateko bizitasuna, trinkotasuna eta hedadura galdu dute edo/eta galtzen ari dira. Gaur egun, zoritxarrez, askoz gehiago dira horrelakoak osasuntsu dauden hizkuntza *normalizatuak* baino.

Irizpideak zehazteko zailtasunetako batek hizkuntzen izendapenarekin du zerikusia. Hizkuntza gehienek izen bat baino gehiago dute: batzuk hiztun komunitatetik kanpo sortuak dira, eta beste batzuk hiztunek beraiek erabiltzen dituzte. Izendapen ugari izateak zaildu egiten du hizkuntza bakarraz edo hizkuntza bat baino gehiagok hitz egiten ari garen jakitea; izan ere, izendapen beraren azpian hainbat hizkuntza egon daitezke, eta, alderantziz, izendapen sorta baten azpian hizkuntza bakarra.

Hizkuntzak definitu eta sailkatzeko, lan ugari egin dira, eta horien artean fidagarriena *Ethnologue* dugu, datu biltzaile ugariaren lanak bere baitan hartzen dituelako eta etengabe eguneratzen delako. *Ethnologue: Munduko hizkuntzak* 1951n jarri zen abian, munduko hizkuntza guztiak katalogon batean sartzeko. Udako Hizkuntz Institutuak argitaratu izan du (*Summer Institute of Linguistics*), eta hizkuntzekin lotura duten datuak ditu bilduta: hizkuntzen izenak, izen alternatiboak, hiru hizkiko identifikazio kodeak hizkuntza bakoitzarentzat, hiztun kopurua (eta, horrekin batera, datuak nork eta noiz lortuak diren), talde etnikoen tamaina, elebakarren ehunekoa... Sortu zenetik, hamalau ale argitaratu dituzte, 2005ean azkena, eta, bertan zehazten denez, 6.809 hizkuntza eta 41.806 izen daude gaur egun (GRIMES, 2005).

Nolanahi ere, katalogoan sakondu duten hizkuntzalari askok salatu dituzte akatsak. Esate baterako, Ricardo Gomez EHUko hizkuntzalariak euskarari dagokion atalean hainbat akats atzeman eta salatu ditu.

- Euskarari ez ezik nafar-lapurterari eta zubererari ere egokitu diete kodea; “bqe” eta “bsz”, hurrenez hurren.
- “Basque” sarreran, hegoaldeko euskalkiak baino ez dituzte aipatzen, eta haien artean “avalan” izeneko bat dago.
- Euskal hiztunek gaztelania eta katalana ere erabiltzen dutela diote.
- Euskararen ezaugarri nagusietakoa preposizioak erabiltzea dela diote.

Herri Katalanetan ere izan da ika-mikarik *Ethnologue* katalogoa dela eta: azkenean, nahiz eta hizkuntzalari ia guztiek valentziera katalanaren dialektotzat jo, zerrendan *katalan-valentziar-balear* izena jarri diote hizkuntzari.

Akatsak akats eta fidagarritasuna fidagarritasun, kasu horiek galdera sorta bat dakarkigu mahai gainera: Nola bereizi dialektoa eta hizkuntza? Nork zehaztu behar du hori? Ba al du inork nahiko indar eta legitimitate hori erabakitzeke, hizkuntz irizpideetan bakarrik oinarrituta?

Argi dago “hizkuntza” kontzeptua aldatu egiten dela hainbat faktoreren arabera: kultura, garaia, koiuntura politikoa, hiztunen egoera psikosoziala, hiztun komunitatearen kanpotiko nahiz barrutiko presioak... Hona hemen polemika iturri izan diren adibide batzuk:

- Hizkuntzalari guztiek ez dute kitxuera berdin ikusten: batzuk hizkuntzatzat dute, beste batzuk hizkuntz familiarizatut eta makrohizkuntzatzat hartzen dutenak ere badaude.
- Balkanetako gerran nor bere estatua sortu arte serbo-kroaziera hizkuntza bakarra zen, aurkako iritziak zeuden arren, besteak beste, hizkuntza bakoitzak bere idazkera zuelako¹⁴. Estatu berriak sortu zirenetik, serbiera eta kroaziera hizkuntza bana dira, ofizialak nor bere estatuan. Kroaziak eta Serbiak, gerraren ezinikusiak tarteko, ahaleginak egin dituzte hizkuntzak elkarrengandik bereizteko¹⁵. Hizkuntzaren ikuspuntutik, hizkuntza beraren bi aldaera estandarizatutaz jo daitezke. Nolanahi ere, kasu horrek argi eta garbi uzten du irizpide politikoak nagusitzen direla hizkuntz irizpideen gainetik.
- Luxenburgera alemanieraren dialektoa izan da orain gutxi arte, baina Luxenburok hizkuntza ofizialaren estatusa eman zion 1983an, frantsesa eta alemanierarekin batera. Beraz, erabaki horren bidez, hizkuntza bat jaio dela esan daiteke.
- The Linguasphere hizkuntzak katalogotzako behatokiaren arabera, dialektotzat jotzen diren hiru hizkuntza daude ingelesaren baitan: Ipar Unbriako eskoziera, anglo-ingelesa eta mundu-mailako ingelesa (ingeles estandarra barne hartzen duena). (2.500 hizkuntza galtzear...). Beste hizkuntzalari batzuek gehiago direla diote, eta gehiagotan zatituko dela iragarri dute (**IKUS INGELESAREN NAGUSITASUNA GAUR EGUN**).

Horrelako kasuak oso ugariak dira, eta kasu bakoitzean hizkuntzen kopurua kalkulatzeko irizpide batzuk edo besteak erabiltzeak berebiziko eragina izaten dute azken emaitzan. Ez da harritzekoa, beraz, munduko hizkuntz kopurua zehaztean, 3.000tik 20.000ra arteko kopuruak ematea.

Peter Mühlhäusler Adelaidako Unibertsitateko hizkuntzalariaren aburuz, “hizkuntza” kontzeptua ez da kultur definizio neutro baten ondorio, eta, hori azaltzeko, Papua Ginea Berria du hizpide:

Ez dago hizkuntzaren kultur definizio neutrorik. Europako kide diren estatuetakoz hizkuntzen esperientziak baldintzatu du Mendebaldean dagoen “hizkuntza” kontzeptua, baita hizkuntzalari profesionalena ere. Independentzia osteko gizarteko kide gazteek ingelesa, hiri motu-a eta tok pisin-a jotzen dituzte Papua Ginea Berriko nazio hizkuntzatzat. Bertan, 800 hizkuntza daudela aitortu da, eta hori hezkuntza sisteman ere ari da islatzen. Hau da azken garapenetatik aurrera sortutako egoera, baina nahiko desberdinak izan dira hizkuntzei buruzko kontzeptu tradizionalak. (MÜHLHÄUSLER, 2005).

¹⁴ Kroazierak alfabeto latindarra du, eta serbierak zirilikoa eta latindarra erabiltzen ditu. Bata edo bestea erabiltzean eragin handia izan du erlijioa: Kroazian kristau katolikoak dira nagusi eta Serbian ortodoxoak.

¹⁵ Bi hizkuntzak oso desberdinak direla agerian utzi nahian, Kroaziako eta Serbiako estatuen ordezkarien bilera batean, interpretariak erabili dituzte, elkar ulertzeko aparteko zailtasunik ez duten arren, soil-soilik bi hizkuntza desberdin direla adierazteko.

Mühlhäuslerrek gabezia hauek zerrendatu ditu; betiere, Papua Ginea Berrian oinarrituta:

- Indigenen ikuspuntua ikertzeko egin diren saiakerak oso gutxi izan dira.
- Izenak eta hizkuntzen arteko mugak etengabe ari dira aldatzen, hizkuntz kateetan gertatu ohi den bezala¹⁶.
- Papua Ginea Berrian 700, 800, 846... hizkuntza daudela esateak ez du ezer zehatzik adierazten, entitate horiek ez baitira elkarren artean konparagarriak.
- Oraindik aztertu gabe dago indigenek zer ikuskera duten hizkuntzari eta kulturari buruz.

Hizkuntza gutxituez ari garenean, ikuspegi etnozentrismoaren ondorioz sustatutako puntu horiek guztiak hartu behar dira kontuan, eta, gainera, globalizazioak etnozentrismoa bultzatzen duen heinean, gero eta bazterrago geratuko dira kultura periferikoetatik hizkuntzaz eta kulturaz iristen zaizkigun ikuskerak eta hausnarketak.

Horrez gain, hizkuntzen hedadura zenbatekoa den zehazteko, elkar ulertzea izan da askotan aipatu den irizpidea, baina horrek ez du beti balio hizkuntzen autonomia definitzeko. Izan ere, nahikoa al da hiztun batzuek beste hiztun batzuei ez ulertzea beste hizkuntza batean ari direla esateko? Zubereraz eta bizkaieraz mintzo diren hiztun askok ez diote elkarri ulertuko. Beraz, bi hizkuntzatan ari dira? Adibide ugari daude, hizkuntza gutxituetan nahiz nagusietan: AEBetako ingeles hiztun batzuek ez diete ulertzen Eskoziako ingeles hiztunei, Hego Kurdistango kurduerazko hiztunek ere ez Ipar Kurdistangoei... Eta alderantziz ere gertatzen da: danieraz, suedieraz eta norvegieraz mintzo direnek ez dute aparteko arazorik elkarrekin komunikatzeko, ez eta katalanez eta gaztelaniaz mintzo direnek ere. Elkarri ez ulertzeko zailtasunez harago, bi faktore izan behar ditugu kontuan: hiztunek hizkuntza estandarraz baliatzeko duten gaitasuna eta hiztunek hartutako aldeko edo aurkako jarrera, ez baitago gauza zailagorik ulertu nahi izan gabe ezer ulertzea baino. Beraz, ulergarritasuna kontuan hartu behar bada ere, hainbat ñabardura aintzat hartuta aztertu behar da.

Lehen adierazi bezala, ez da ahaztu behar “hizkuntza” kontzeptu sozio-politiko delako eta egoera edo borondate politikoek moldatzen dutela. Izan ere, “hizkuntza” mailara iristeko bestelako presioak izan behar ditugu gogoan: estatu batek “hizkuntzak” sortzen ditu, Luxenburgo eta Balkanetako kasuetan ikusi dugunez. Estatuak, askotan, indarrez ezartzen du kontzeptua onartzea: atzetik presio egiten duen indar bat dago, eta horrek garamatza hizkuntza dela onartzera. Mekanismo asko ageri zaizkigu horri lotuta: legezko indarra, prestijiotze prozesuak, hizkuntz estandarizazioak, estatu barneko kultur eta hizkuntz uniformizazioa... Harald Weinrich Alemaniako hizkuntz adituak esana da hizkuntza armada duen dialektoa dela, eta gehiegikeria da hark esandakoa itsu-itsuan onartzea: munduan 272 estatu badaude, printzipioz armada kopurua ere antzekoa izango dela ondoriozta dezakegu, eta 6.000-7.000 hizkuntza inguru daude. Gehiegikeriak eta

¹⁶ Nazio-estatuaren eta kolonizazioaren sorrera baino lehen, munduko leku askotan ez zegoen hizkuntz mugarik, eta, gaur egun ere, ez dago halakorik estatuaren presentzia txikia izan den lurraldeetan. Izan ere, hizkuntzek edo dialektoek kate moduko bat eratzen dute, eta, horren ondorioz, elkarren ondoko aldaerak ulergarriak dira hiztun batzuentzat zein besteentzat, eta ez dute komunikatzeko inolako arazorik, baina urrundu ahala gero eta zailtasun handiagoak izaten dituzte beste hiztun talde batzuekin komunikatzeko.

esaldi arranditsuak alde batera utzita, zalantzarik ez da horrek ere eragina duela hizkuntza eratzeke prozesuan.

Munduko hizkuntz kopurua zehazteko arazo horiez gain, hizkuntzalarien ezintasunarekin zerikusi zuzena duen beste ezaugarri bat hartu behar da kontuan: hizkuntza asko *aurkitu* gabe ditugu. Hori, nagusiki, isolamendurako aukera gehien dituzten eskualdeetan gertatzen da; besteak beste, Papua Ginea Berriko eskualdeetan, Indonesiako uharteetan eta Hego Amerikako gunetropikaletan. Amazonian, adibidez, badaude gizaki zuriarekin ia harremanik izan nahi ez duten etniak, beste etniekiko harremanek ekarri dituzten arazoengatik, eta ezer gutxi dakigu haien hizkuntzei/hizkuntzari buruz (**IKUS GERRAK ETA GATAZKAK**).

Gainera, badira gugandik gertu edo urrun, ezkutuan gorde nahi izaten diren hizkuntzak, eta ez da erraza hizkuntza horiek behar bezala aztertzea. Jargoiak, argotak eta munduko ezkutuko hizkuntza guztiek bi ezaugarri komun dituzte: batetik, erabat osatu gabe daudenez, beste hizkuntza batzuetatik hartzen dituzte gramatika eta hitzak, eta, bestetik, hizkuntza horiek ez dira inoiz inoren ama-hizkuntza izan. Bi ezaugarri horiek arazoak sortzen dituzte hizkuntza den ala ez erabakitzean.

Horren adibide da Ingalaterra, Frantzia, Espainia edo Euskal Herriko lapur, arlote, kontrabandista eta eskaleek erabilitako hizkuntza berezia –beren jargoi edo argot berezia–. Hizkuntza hori erromaneraren eta beste hizkuntzen arteko nahasketa zen, eta hitz zaharren erabilera agortu ahala hitz berriekin osatzen zuten. XVI. mendeaz geroztik dago hizkuntza/sasihizkuntza horren berri, baina ez dago jakiterik noiztik erabiltzen zen, ezta hizkuntzak diren ere.

Gaur egun ere badaude halako kasuak: erromanera erabiltzen ez duten zenbait ijito ingelesek ingelesaren eta erromaneraren arteko jargoia erabiltzen dute lanean. *Posh'n'posh* (erdia eta erdia) deritzo jargoi horri (zenbait hizkuntzalarik angloerromanera izenez ezagutarazi dute). Ez da umetan ikasten den ama-hizkuntza bat; gizonek erabiltzen dute gehienbat, eta umetan ikasten da mutikoak aitarekin lanean hastean. Transmisio moduetan, antza handia du emakumezkoek bakarrik hitz egiten duten azken hizkuntzarekin –nushuerarekin–. (**IKUS HIZKUNTZAK GUTXITZEA ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK. HIZTUN KOPURUA**)

Beste adibide asko ditugu: Alsaziako ganadu-tratuari juduen *loshlekoydesh* hizkera. Zeilango ukiezinen *rodiya* izeneko ezkutuko hizkuntza edo Munsterreko eskulangileek duela gutxi arte zerabilten “harginen hizkuntza”. Azken hori irlanderrako hitz asmatu edo eraldatuekin eta irlanderrako gramatikarekin osatutako hizkuntza zen.

Aurkitzeko daudenak ez ezik, galduz doazenak ere hartu behar dira kontuan: batez beste, bi astean behin hizkuntza bat desagertu egiten da. Aurkitzen ditugunak berez sortzen direnak baino gutxiago direnez, begien bistakoa da kopurua beheraka doala, munduko hizkuntzen kopuruaz egin diren azken urteotako azterketa guztietatik ondorioztatzen denez.

Arazoak arazo eta akatsak akats, hizkuntzalari gehienak ontzat hartzen dituzten datuak izango ditugu oinarri lan honetan: gaur egun, hizkuntzalari gehienek munduan 5.000 eta 7.000 hizkuntza inguru daudela diote (Crystal, Nettle, Krauss, Grimes eta Hagège,

batzuk aipatzearen). Tarteko kopurua aintzat hartuta –6.000–, honako sailkapen hauek ditugu:

- Kontinenteen araberako sailkapena: Afrikan 1.900 (%32), Asian 1.900 (%32), Pazifikokoan 1.100 (%18), Amerikan (%15) eta Europan 200 (%3).
- Estatuaren araberako sailkapena: 22 estatutan 100 hizkuntzatik gora hitz egiten dira; hau da, 22 estatu horietan munduko hizkuntzen %90 inguru hitz egiten da.
- Hiztun kopuruaren araberako sailkapena: 70 hizkuntza inguruk 10 milioi hiztunetik gora dute (bakoitzak). Beraz, hizkuntzen %1,3k munduko biztanleriaren hiru laurden biltzen dute. Aitzitik, hizkuntzen %55,5ek 10.000 hiztunetik behera dituzte.

Datu hutsak interpretatzean, arazoak sortzen zaizkigu hizkuntza gutxituak zein diren definitzeko. Esate baterako, katalanera hizkuntza gutxitua da? Zergatik ez da hizkuntza gutxitua? Hiztun kopuru handia duelako, Kataluniako Autonomia Erkidegoan ofiziala delako...? Gauza bera esan al dezakegu Quebecoko frantsesari buruz? Egon al liteke frantsesera, munduko hizkuntza indartsuenetako bat izanda, hizkuntza gutxituen zerrendan, Quebecoko egoerarengatik? Orokortuz, zenbat dira gutxituak? Denak egoera berean al daude?

Zalantzak ez ezik terminologia ere oso ugari da: hizkuntza gutxituak, hizkuntza minoritarioak, mehatxupear dauden hizkuntzak, galtzar dauden hizkuntzak... Eta, gainera, horiei guztiei migrazioen bidez iritsitako hizkuntzei egokitutako terminologia gehitu behar zaie. Gainera, hizkuntzak bizi-bizi daude, batzuk desagertu eta beste batzuk sortu egiten diren bezalaxe, pentsatzekoa da hizkuntza batzuk gutxitu izatetik hizkuntza ez-gutxitu izatera pasako direla batzuk, eta, hori bezalaxe, alderantziz ere bai; hau da, aurretik hizkuntza gutxituak ez direnak hizkuntza gutxitu izatera pasatzea.

Iluntasunean argi izpien bila hasteko, garrantzitsua izan zen Tapani SImin-en ekarpena. Würmek mundu osoko hizkuntzei buruz egindako lanean, Europako ardurak izan zuen Salminek. Lan hartan, Würmek hizkuntzaren arrisku mailaketa proposatu zuen, eta, orduz geroztik, erreferentzia nagusietako bat izatera iritsi da hizkuntzalaritzan. Honako hau da sailkapena (BARREÑA eta beste batzuk, 2005).

- (I) *Desagertutako hizkuntzak*
- (II) *Ia desagertutako hizkuntzak*; gehienez hamar hiztun
- (III) *Arrisku larrian dauden hizkuntzak*; hiztun gehiagorekin baina umerik ez hiztunen artean
- (IV) *Arriskupear dauden hizkuntzak*; hiztunen artean umeak ere badira, baina kopurua beherantz doa
- (V) *Balitzko arriskupear dauden hizkuntzak*, ume askok hitz egiten dute, baina ez dute babes ofizialik
- (VI) *Arrisku gabeko hizkuntzak*; gutxienez bi belaunalditan, hizkuntzaren transmisioa betetzen da

Ikusten denez, bi faktore nagusi hartu zituen kontuan: hiztun kopurua eta transmisioa. Lan honetan, lehenengo, bi faktore horiez gain, ofizialtasunak eta administrazioak duten garrantzia azalduko dugu, adierazpen absolutu eta kategorikoetatik urrundu nahian.

2. HIZTUN KOPURUA

Pentsa daiteke hizkuntza gutxituak hiztun gutxi dituzten hizkuntzak direla, eta, neurri batean, egia da hori, baina apur bat sakonduz gero konturatuko gara hiztun kopuru handia izateagatik bakarrik hizkuntza ez dagoela gutxitzeko arriskuz kanpo.

Dena dela, kopuruak ateratzeko moduari dagokionez, zenbait herrialde edo estatutako erroldetan oso kopuru zehatzak azaltzen dira, baina zenbaki horietara iristeko irizpideen gainean galdera asko sortzen dira: Zer-nolako galderei erantzun behar diete herritarrek? Egiten al dituzte lurraldean hitz egiten diren hizkuntza guztiei buruzko galderak? Estatuak ez al dituzte galdetegiak beren interes ideologiko, politiko eta kulturaletara egokitzen, berek nahi dituzten egoerak eta aurreiritziak isla daitezen? Herritarrek beren buruaz diotenak eta errealitatea bat al datoz? Erantzuna sinplea da, baina arazo askoren iturri: errolda guztiak desberdinak dira, ez daude bi berdinak direnik. Ez du ematen, beraz, globalizazioaren joera uniformizatzaileak estatuen errolda irizpideetan aparteko eraginik eduki duenik.

Adibidez, nazionalismo linguistiko sutsua duten herrialdeetan, nazio hizkuntza hitz egitea harrotasunez adierazteko moduko kontua denez, hiztun kopurua puztuta ateratzen da (Irlandan, Grezian edo Turkian, adibidez). Aldiz, hizkuntz zapalkuntza handia dagoen herrialdeetan, galdetu ere ez da egiten hizkuntza gutxituari buruz, edota, galdetzen bada ere, administrazioaren aurrean nabarmen ez geratzeko, hiztunek ez dute egia erantzuten. Belgikan eta Frantzian, adibidez, erroldatik kanpo uzten dira hizkuntz kontuak, eta, horren ondorioz, ezinezkoa da errolden bidez bretoierako, okzitanierako edo euskarako hiztunak zenbat diren jakitea, hizkuntza gutxituen arazoa konpontzeko modurik onena hizkuntza gutxituak erroldetan ez agertzea delakoan-edo¹⁷. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka, gero eta estatu gehiagok, nola edo hala, bere gain hartu dute lan hori.

Estatuen interes politikoak, ideologikoak edo kulturalak tarteko, kontu handiz hartu behar dira hiztunen inguruko kopuru guztiak. Asiako eta Europako zenbait herritako gutxiengo handi samar batzuk existitu ere ez dira egiten errolden arabera. Halakoetan, administrazioaren ardura bere gain hartuz, hizkuntzalariek beren behaketa pertsonalak edo zenbait azterketatako laginen estrapolazioak egiten dituzte, eta hiztun kopurua kalkuluen arabera zehaztu. Esan gabe doa kalkulu horiek ateratzeko erabiltzen diren irizpideen arabera, kopuruaren fidagarritasuna handia edo txikia izango dela.

Hiztun kopurua erabakigarritzat jotzen da askotan, hizkuntzak etorkizunean izan dezakeen bilakaerak onera edo txarrera egingo duen zehazteko. Hiztun kopuruak duen garrantzia ez da erabatekoa, faktore horrekin batera hamaika ñabardura egin behar baitira. Akats hori egin du, besteak beste, Nettle hizkuntzalariak(?): autore horrek 10.000 hiztunetan jarri du muga, eta hortik behera hizkuntzak arazoak izan ditzakeela ondorioztatu. Agerikoa denez, kopuru hutsaz harago beste ezaugarri batzuk hartu behar dira kontuan; besteak beste, gizarte egituraketa eta elebkarren kopurua. Izan ere, gerta daiteke, eta, izatez, gertatzen da, hiztun gutxiko komunitate bateko hizkuntzak aparteko arriskurik ez izatea; konparazio batera, Brasilgo nambikwarerak 1.000 hiztun inguru

¹⁷ Belgika izan zen hizkuntzei buruzko galderak erroldan sartzen lehenengo estatuetako bat, India eta Kanadarekin batera. Gero, ordea, Frantziako joerari jarraiki, bertan behera utzi zuen erroldako galdera horiek egitea.

ditu, %95 elebakarrak dira eta ez dute desagertzeko aparteko arriskurik, ez hiztunek, ez hizkuntzak. Munduan halako egoeretan dauden hiztun komunitateak gero eta gutxiago dira; izan ere, azken mendeotan euren kultur identitateari, bizimodu tradizionalari eta isolamenduari lotuta bizi izan dira, eta gero eta zailagoa da globalizazioaren garaian ezaugarri horiei eustea.

Aitzitik, 10.000 baino hiztun askoz gehiago dituzten hizkuntza batzuk arrisku gorrian daude, hiztun asko izanik ere, hiztun galera handia delako. Galera hori seinale arriskutsutzat hartzen dute aditu guztiek. Bretoiera da horren adibide garbienetakoa: 300.000 hiztun dituen arren, adin tartekako estatistikek hiztun kopurua nabarmen txikitzen ari dela adierazten dute. Bilakaera, osotasunean ez ezik, tokiz toki eta xehetasunez ere aztertu behar da, horrek hizkuntzaren hedaduran duen eraginagatik. Esate batera, Joshua Fishman AEBetako hizkuntzalariaren arabera, Heerenveen udalerrian 1950eko hamarkadan %95ek hitz egiten zuten frisieraz, eta, gaur egun, %71ek. Gainera, auzo berrietan, %42k baino ez du frisieraz egiten, eta senar-emazte mistoen seme-alabetatik %25ek bakarrik. Bi adibide horietan, hizkuntza ahultzeko prozesua handia eta etengabea da, eta ondorio hori kopuruetan baino bilakaera xehatueta dago oinarrituta (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Nolanahi ere, hiztunen datuak benetakoak diren ala ez jakiteko, bi gauza jakin behar dira: hiztunak zein irizpideren arabera definitzen ditugun, eta irizpide horiek berak al diren hizkuntza guztietan. Izan ere, badira hiztun oso izatera iristen ez diren asko. Claude Hagege hizkuntzalari frantziarrak, adibidez, hizkuntzaren *azpierzailtzaileak* kontzeptua darabil, berezko gaitasunik gabe toki edo esparru jakin batzuetan hizkuntza erabiltzen dutenak definitzeko, eta *erdihiztunak* zokoratzen du, nahiz eta hizkuntzalari askok hori erabili, beren jatorrizko hizkuntzetan erabateko gaitasuna ez dutenak definitzeko. Hiztun osoak ez direnak (hiztun pasiboak, hartzaileak...) asko izan daitezke hizkuntza batean, eta, horregatik, hiztunak zein diren zehaztu ezean, hiztunen kopurua benetako datuetatik urrun egon daiteke.

Esan gabe doa, oro har, zenbat eta hiztun gutxiago izan orduan eta arrisku handiagoan daudela hizkuntzak, eta etorkizun beltza duten hizkuntza gehienek hiztun gutxi dituztela: 10.000 biztanletik beherakoak milaka batzuk dira, eta 1.000 hiztunetik beherakoak 1.600 inguru. Hizkuntza horietako batzuk, indarrean dagoen joerari buelta eman ezinik, hiztun bakan batzuk baino ez dituztenez, haiek hiltzean hizkuntza desagertuen *zakuan* sartuko dira. Horixe gertatu zen 2004an nushuerekin Txinan. Yang Huanyi nushuerako azken hiztuna zen, eta 90 urte zituela hil egin zen. Nushuerak ezaugarri bereziak zituen: emakumezkoek bakarrik hitz egiten zuten, eta gutxienez 400 urtez emakumeen artean (batez ere, ahizpen artean) sekretuak partekatzeke erabili izan zen, gizonezkoen jakin-mina saihesteko. Yang Huanyik ezkondu aurretik ikasi zuen hizkuntza, baina alabek eta bilobek ez zuten ikasi nahi izan, eta berarekin eraman zuen hizkuntza mundutik.

Azken hiztunak tragedia kolektiboak tragedia pertsonal bihurtutako kasuak dira. Hizkuntzalariak harribitxitzat jotzen dituzte azken hiztunak, literatur generoaren barruan sartzen dute ia, kasu hauetan sumatzen denez.

Marie Smith izena du, 87 urte ditu, Anchorage-n bizi da (Alaskan) eta eyakeraz jarioasunez hitz egiten duen azken pertsona da. Garai batean herri oso batek hitz egiten zuen, eta, gaur egun, iraungitzeko zorian dago.

Duela urte batzuk, ingelesez, hauxe esan zion Associated Press-eko kazetari bati: «Ikaragarria da bakarrik egotea». Ahizpa hil ondoren, Mariek pertsona bakar batekin hitz egin dezake eyakeraz: Michael Krauss hizkuntzalariarekin, 60ko hamarkadan Alaskako jatorrizko hizkuntza horren gainean lan egiten ari zela eyakera ikasi baitzuen, hizkuntzak bizirik iraun zezan.¹⁸

Kawéskqar etnia dagoen tokitik hegoaldera [Txile hegoaldean], yaganeraz mintzo den azken hiztuna dago: Cristina Calderón. Berehala konturatu nintzen “azken hiztun” hori ohituta dagoela itsasoz astero iristen diren turistei dirua eskatzen, argazki bat ateratzearen edota bere jatorrizko hizkuntza bitxian hitz batzuk botatzearen truke. (...) Zurrumurruen arabera, yaganeraz mintzo den beste hiztun bat ere bazegoen, Emelinda izenekoa. Emelindari galdetu nionean zer egin zitekeen yaganerak bizirik irauteko berak esan zidan ahalegintzen ari zela. “Neure buruari yaganeraz hitz egiten diot” azaldu zuen gaztelaniaz. Galdetu nion ea noizbait Cristina Calderónek hitz egin zuen, hura baitzen hizkuntza hori erraztasunez hitz egiten zuen beste pertsona, eta hau esan zidan: “Gu biok ez diogu elkarri hitz egiten”. (RPC, 2004)

Natalamaleraz hitz egiten duen hiru hiztunetako bat ezagutu dut, Malekula hegoaldeko indigena bat. Munduan izaki bakarra izateaz beldurrak egoteaz gaindi, ez zuen ezer ulertzen munduaz. Herritik atera, jantzi eta Port Vilara eramane zuten, Vanuatuko hiriburura, emaztea hiltzeaz leporatuta. Berak emakumea hil zuen lantzaz. Ez al zen hori, bada, kastom tribuaren antzinako erritua?¹⁹

Ole Stig Andersen hizkuntzalariaren arabera, ubykh hizkuntza “1992ko urriaren 8ko egunsentian hil zen, Tevfik Esenç izeneko azken hiztuna orduan zendu baitzen. Egun hartan bertan iritsi nintzen haren herrixkara, hitzordurik jarri gabe, azken hiztun ezagun hari elkarrizketa egiteko asmoz, baina ni iritsi baino bi ordu lehenago hil zela jakinarazi zidaten. Egun hartan bertan lurperatu zuten.” (Egile asko, 2003)

Crystalen azterketaren arabera, munduan 51 hizkuntza daude hiztun bakarrarekin eta 181 bat baino gehiago baina hamar baino gutxiagorekin. Egoerarik larrienak Australian eta Papua Ginea Berrian bizi dira: Australian, 26 hizkuntza dira hiztun bakarrarekin eta beste 71 bi eta hamar hiztun artekoak, eta, Papua Ginea Berrian, 16 eta 77, hurrenez hurren (BARREÑA, 2007).

Batez beste bi astez behin hizkuntza bat desagertzen dela kontuan hartuta, pentsatzekoa da desagertzen hurrengoak horiek izango direla, baita 1.000 hiztunetik beherako ehunka hizkuntzak bide berean doazela ere. Joera nagusia hori izanagatik ere, badira desagertzeko arrisku larritik atera diren hizkuntzak ere. Ezagunena eta mitoak elikatuta gehien zabaldu dena hebraieraren berreskuratze prozesua da. Hebraiera erlijioan bakarrik erabiltzen zen, eta inork ez zuen ama hizkuntzatzat. Eliézer Ben Yahudaren itzelezko lanari esker, hezkuntzan erabiltzen hasi zen, eta pixkanaka-pixkanaka Israelera

¹⁸ Babelwords-en web gunetik aterata,

http://www.benettontalk.com/opencms/opencms/benettontalk/es/min_0001/con_0006/art_0006.html

¹⁹ Masdeviajes.com web gunetik, http://www.masdeviajes.com/art_destino?item=2316

joandako judutarren identitate berriaren adierazpen bihurtu zen, gaur egun Israelgo hizkuntza ofiziala izatera iritsi arte. Desagertu ondoren sortutako hizkuntzatzat badute ere, horrek zerikusi handiagoa du Israelgo historiaren ikuspegi mitiko batekin errealitatearekin baino.

Desagertzeko zorian egotetik osasuntsu egotera pasa diren hizkuntzak baino deigarriagoa da manxera edo manera, azken hiztuna hil ondoren berpiztu egin baita hizkuntza.

Manera **Man** uharteko hizkuntza izan da, 1974an Ned Maddrell izeneko azken hiztuna zendu zen arte. **Man** uhartea Britainia Handiaren eta Irlandaren artean dago, eta bertan 77.000 lagun inguru bizi dira. Wurmen liburuan hiltzat jotzen da hizkuntza hau. UNESCOk agindutako *Europako arriskupeko hizkuntzen liburu gorria* (Salminen, Tapani (2005, 1999)) izeneko txostenean ere gauza bera esaten da. Gaur egun, [Man uharteko biztanle batzuk] ahaleginak egiten ari dira *manera* berreskuratzeko, eta ehunka batzuek ikasi dute (BARREÑA eta beste batzuk, 2005).

Anekdotatzat hartu baino, kasu horiek lan honetara ekarri izanak arrazoi hau du: hiztun kopurua edozein delarik ere –baita zero hiztun dutenak ere; manera kasu–, aukera dago hizkuntza desagertzeko arriskua txikitzeko, baita desagertzeko arriskutik ateratzeko ere. Egia da horretarako oso baldintza bereziak behar direla, hizkuntza gehienek ez dituztela betetzen baldintza horiek eta hiztun kopurua oso faktore garrantzitsua dela, baina horrek ez gaitu eraman behar hiztun kopuruaren garrantzia modu absolutuan ulertzera.

3. ESTATUSA EDO OFIALTASUNA

Estatuak hizkuntza bat ofiziala dela aitortzeak eragin handia du hizkuntzaren bilakaeran. Estatuetakoa hizkuntza ofizialak, berez, bere jardun eremu guztietan erabiltzea ekarri beharko luke –aurrerago ikusiko dugu hori ez dela beti gertatzen–, eta horrek hedadura eta prestigio handia ematen dio. Aldiz, ofizialtasunik ez dutenek aukera handiagoa dute hizkuntza gutxituen multzoan egoteko.

Nolabaiteko ofizialtasuna duten hizkuntzei azaleko begiratua botata, argi ikusten da hizkuntz aniztasuna ez dela ofizialtasunean islatzen. Michael Kraussen arabera, munduko estatuak eta estatuen barruko eskualde autonomoak kontuan hartuta, 250 hizkuntza soilik dira ofizialak edo koofizialak. Jauzi handia dago, beraz, hizkuntz kopuruaren (± 6.000) eta hizkuntza ofizialen eta koofizialen kopuruaren artean (250), baina oso antzekoak dira estatuen eta hizkuntza ofizial eta koofizialen kopuruak (224 eta 250, hurrenez hurren).

Lotuta daude, beraz, estatuak eta aitorten gorena duten hizkuntzak, eta egoera hori bilakaera historiko baten ondorioa da: estatu-nazioak izan dira beren muga politikoen baitan hizkuntzak jagon dituzten eragile politiko garrantzitsuenak, baina estatuak naziotasun eta hizkuntza jakin batekiko identifikazioa bultzatu dutenez, hizkuntza asko zokoratu egin dituzte, bortizki edo modu “zibilizatuan”. Ikusi besterik ez daude desagertzeko zorian dauden hizkuntzen zerrendak: oso hizkuntza gutxi daude estatuaren babesa izanik desagertu direnak edo desagertzeko zorian daudenak.

Ofizialtasuna hizkuntz aitortzaren goreneko maila da, eta hortik behera, asko dira konstituzioetan hizkuntzei buruz dauden aipamenak. Horren ondorioz, terminologia ugari sortu da, eta horrek hierarkia bat adierazten du. 1993an egindako azterketa batean, 172 estatuetakoko 130 konstituzioetakoko datuak bildu zituzten (ANTONI MILIAN I MASSANA, 2004). Datuon arabera, estatuen %75ek hizkuntzaren gaineko zehaztapenak sartzen zituzten konstituzioetan. Hizkuntza gutxituei buruzko datu orokorrik ematen ez bazen ere, agerikoa da aipamen asko hori baino ez direla, aipamen formal hutsak, eta horien atzean hierarkia bat dagoela.

Horrenbestez, ingelesari, frantsesari edo gaztelaniari ezartzen zaizkien kalifikatzaileek –nazioarteko hizkuntza edo mundu mailakoa, hizkuntza osagarria, komunikaziorako hizkuntza, hizkuntza neutrala, topaketarako hizkuntza, kulturarako hizkuntza, zientziarako hizkuntza...– ondorio argi bat dute: ezaugarri gutxiesgarriak lotzen zaizkie gainerako hizkuntzei; hau da, hizkuntza lokalak, tribalak, eskualdekoak dira, edota dialekto edo hizkera lokal edo tribalak, bazterkeriaren hizkuntzak, nazionalistak, ezjakintasunaren hizkuntzak, pobreziaren hizkuntzak, inkomunikazioarenak, sineskeriarenak... Horrek hizkuntz arrazakeria edo linguizismoa adierazten du, munduko hizkuntza guztiak baitira komunikazioaren, kulturaren, elkar ulertzearen, jakinduriaren eta gorentasunaren hizkuntzak. Hizkuntza batzuek beste batzuek baino abantaila gehiago edo zabalkunde handiagoa izatea ez dago horren esku. Gizarte, politika edo ekonomi baldintzek ekartzen dute, besteak beste, komunitate batzuek beste batzuek onura gehiago izatea esparru batean edo batzuetan (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Hizkuntz mailaketa hizkuntza ofizialetan ere nabaritzen da, hizkuntza ofizial guztiak ez baitaude maila berean. Hurrengo paragrafoetan, ofizialtasunean oinarrituta, onetik txarrerako ibilbidea egingo dugu, adibide batzuen bidez.

Ofizialtasunak hizkuntza gutxituei ekarri dien aurrerapenaren adibiderik onenetakoa maoriera da. Mende askoz baztertuta egon ondoren, maoriera ofiziala da 1987tik eta aurrerapen handia egin du, maorieraz mintzo direnen jarreragatik eta Zeelanda Berriko administrazioak legez eta diruz emandako babesagatik –segur aski, bata bestearen ondorioa izan da– (MARTI eta beste batzuk, 2005). Kanadan ere aurrerapen handia ekarri du ofizialtasunak: Ipar-mendebaldeko Lurraldeetako probintziak bere lurraldean koofizial aitortu zituen sei hizkuntza, eta horrek aukera eman du hezkuntzan nahiz administrazioan eskubide osoz erabiltzeko. Datu guzti-guztiak onak ez badira ere, indarberritu egin dira (MARTI eta beste batzuk, 2005). Itxura batean, ematen du halako hizkuntzak indartsu(ago) daudela globalizazioaren erronkei aurre egiteko.

Ofizialtasuna onartu barik koofizialtasuna aitortuta duten hizkuntza gutxituen artean, alde onak eta txarrak daude. Kasuz kasu ikusiko behar da zertan egin den aurrera eta zertan atzera. Dena dela, kasu askotan, oraindik puska handi samarra dago hizkuntzaren legezko babes maila gorena lortzeraino. Koofizialak diren hizkuntzak edota lurraldearen zati batean bakarrik ofizialak direnak (Europar, adibidez, euskara, katalana, samiera, frisiara, ladinera...) hizkuntza ofizial nagusien azpitik daude, eta, egoeratik egoerara alde handia badago ere, intentsitate handiko edo txikiko hizkuntz zapalkuntza islatzen dute. Etorkizunera begira, zapalkuntza horri globalizazioak dakarren bazterketa gehitu beharko zaio, eta horrek ataka gaiztoan jarriko ditu hizkuntzak.

Aldiz, beste toki batzuetan ofizialtasuna paperean ageri den hitz bat baino ez da, eta lupaz aztertuta ere ez da sumatzen inongo aurrerapenik. Are gehiago, zenbait kasutan, ofizialtasun formala onartzeak ofizialtasunaren aldeko aldarria indargabetu du, asko baitira pentsatzen dutenak ofizialtasuna legez onartzearen ondorioz hizkuntza eraso guztietatik babestuta dagoela. Jakina, ofizialtasuna eduki arren protestan darraiten hiztun komunitateak ez daude ofizialtasunaren aurka, baizik eta egiatzko ofizialtasunaren alde, eta ofizialtasuna gauzatzeko nahikoa baliabide erabiltzearen alde. Globalizazioaren arriskuen aurrean, benetako ofizialtasunaren aldeko dinamikak indartzeak berebiziko garrantzia izango du.

Beste toki batzuetan, Galesen adibidez, hizkuntza gutxitua ez da ofiziala, baina agintariak neurri eraginkorrek hartu dituzte hizkuntza biziberritzeko. Horri esker, okerrera zihoan egoera egonkortu egin da. Galeseraren kasuan, berebiziko garrantzia izan dute galeseraren aldeko herri eta gizarte mugimendu indartsuek (MARTI eta beste batzuk, 2005). Ikusteko dago etorkizunera begira nola egingo dion aurre galeserako hiztun komunitateak XXI. mendeko erronkei: batetik, gizarte globalizatueta, ordea, desmobilizaziorako joera handituz doa eta horrek hizkuntzaren aldeko mugimendua ahultzea ere eragin dezake, eta, bestetik, ofizialtasunik aitortuta ez izateak unean uneko gobernuaren borondatearen esku utz dezake hizkuntza biziberritzearen aldeko erabakiak hartzeko ardura, gaur aldeko eta bihar aurkako izateko arriskuarekin.

Beste kasu batzuetan, aldiz, aldarrikapenak ez dute aldeko erantzunik izan. Frantzian, adibidez, Parisko agintariak oso jarrera itxia izan dute okzitaniarekin, katalanerarekin, euskararekin, bretoierarekin, korsikerarekin eta abarrekin, eta, hiztun komunitate horien aldarrikapenak gero eta indartsuagoak badira ere, ez dute jarrera aldatzeko zantzurik erakusten. Claude Hagège-ren ustez, Frantziak beldurra dio ofizialtasuna onartzeari:

Ofizialtasuna ukatzeko arrazoia Frantziaren beldur politikoa da. Beldur politikoa duen bitartean, Frantziak lege bermea ukatuko die hizkuntza gutxituei, politikoki arriskutsua delako (Berria, 2007-06-16).

Beldurraz gain, mespretxuzko jarrerak ere badaude ofizialtasunaren aldeko aldarrikapenaren aurrean, eta, horren atzean, ezjakintasuna edota linguizidioa bururaino eramateko borondatea sumatzen dira. Ezjakintasunaren adibide lazgarria dugu Aljerian: amazighera estatuko hizkuntza ofiziala onartzeko berbereek egindako eskaerei erantzuteko, Buteflika presidentea honako hau *bota* zuen: “Ez dago munduan estaturik bi hizkuntza ofizial dituenik”.

Hori bezain larria edo larriagoa da Asturiasko Printzerriko Aholku Batzordeak bablea/asturiera²⁰ ofizial izateko eskaerari emandako erantzuna: Aholku Batzordearen arabera, ofizialtasunak alde txarrak baino ez lituzke ekarriko, eta, horrez gain, eransten du Asturiasko gizartearentzat ez dela *auzi baketsua*. Hori gutxi balitz bezala, argudioaren absurdua asturiera hizkuntza den ere zalantzan jartzeraino eramaten dute. Kasu horiek adierazten dutenez, ofizialtasuna ez onartzea linguizidioaren parte bat besterik ez da, eta lehendik ere arrisku bizian zeuden hizkuntzak desagertzeko amildegirantz bultzatzea ekarriko du globalizazioak.

²⁰ Kasu honetan, ez da argi eta garbi nagusitu bi izendapenetako bat.

Nolanahi ere, badira horiek baino okerrago dauden hiztun komunitateak. Turkian eta Botswanan debekatuta dago ofizialak ez diren hizkuntzak eremu batzuetan erabiltzea, kurduera eta boskimanoen hizkuntza, adibidez. Alegia, hizkuntza horietan hitz egitea edota hizkuntza horiekin lotutako ekimenak delitu dira, eta zigorra kartzelan sartzea ere izan liteke kasu batean baino gehiagotan. Ataka horietatik onik ateratzeaz gaindi, egoera lazgarri horiek agenda politiko globalean sartzea eta nazioarteko iritzi publikoa alde jartzea dira hiztun komunitate horien helburu nagusia globalizazioaren garaian. Esan beharra dago, neurri batean, lortu dute zigorrak arintzea eta beren arazoa nazioartean jakinaraztea.

Ofizialtasunarekin lotuta, lurraldetasunaren auzia dago. Izan ere, hizkuntza batzuk beren jatorrizko hizkuntz eremuaren zati batean bakarrik dira ofizialak edo koofizialak, eta horrek hizkuntz komunitate barruko zatiketa dakar, hiztun batzuek beste batzuek baino hizkuntz eskubide gehiago dituztelako. Hala dio Robert Dunbar Europako Kontseiluko hizkuntza gutxituei buruzko aholkulariak, euskararen egoerari buruz galdetuta:

Egoera zaila du. Hiru politika ezberdin daude hizkuntza batentzat, eta hori guztiz bidegabea da. Loteria bat da: non jaiotako eta non bizi den, eskubide ezberdinak izango ditu euskal hiztunak. Desberdintasun hori oso zaila da ulertzea, eta ez da bidezkoa. Euskaldun guztiek eskubide eta babes berak behar dituzte lurralde osoan, eta hemen dagoen egoerak erakusten du nazioarteko eta Europako politikak duten ahulezia, haiek bermatu beharko luketelako hiztun guztiek eskubide berak izatea estatu batean zein bestean (Berria, 2007-02-10).

Samieraren kasuan, epe luzean, onerako izan da hiztunen zatiketa, hizkuntza hori Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiar Federakuntzaren ipar-mendebaldean hitz egiten delako, eta aurrena Norvegiak, gero Finlandiak eta azkenik Suediak onarpen maila bat eman diotelako, *mimetismoz-edo*. Oraingoz, Errusiak ez dio onarpenik eman, baina begien bistakoa da zailagoa duela Errusiak samieraz mintzo direnen aurrean jarrera berari eustea beste herrialdeetan gertatutakoa ikusita.

Hizkuntzen ofizialtasunaren auzian, beraz, hamaika kasu daude: batzuek ofizialtasuna izan dute hizkuntza berreskuratzeko bultzatzaile; beste batzuek ofizialtasun hutsala dute, onerako baino txarrerako dena; eta ofizialtasunik gabekoen artean, hizkuntza gutxituaren aldeko jarreretatik debekuetarainoko zerrenda aurki dezakegu. Horrek, ordea, ez digu ofizialtasunaren garrantzia gutxiestea eragin behar, Joan-Lluís Lluís Generalitateko Ipar Kataluniako hizkuntz teknikariak dionez.

Esperientziak erakusten du hizkuntza berreskuratzeko ez dela aski prestigioa edo gizartearen gogoa. Legea funtsezkoa da hizkuntzaren normalizazio prozesuan. Irlandako adibidean ikusi denez, legea ez da aski hizkuntza berreskuratzeko, baina beharrezkoa da normalizazioa lortu nahi bada. Lege babesik gabe moteldu daiteke galera, baina ezinezkoa da abian ezartzea behar den dinamika eraginkorra (Berria, 2007-01-03).

Ofizialtasunaren garrantziaren gaineko eztabaidak legeen garrantziaren gaineko eztabaidak dira gehienbat: legeek benetako balioa izateko, betearazi egin behar dira, eta betearazteko dirua eta bestelako baliabideak behar dira. Horiek gabe, ofizialtasuna hutsal-hutsala izango da, eta ez dio inondik inora balio izango hiztun komunitateari, ez

bere hizkuntzaren alde egiteko, ez hizkuntza desagertzeko arrastotik ateratzeko; are gutxiago, globalizazioak dakartzan arriskuak zein diren ikusita.

4. ADMINISTRAZIOA

Ofizialtasunarekin hertsiki lotuta, administrazioak hizkuntza gutxitua erabiltzea dago. Administrazioan erabiltzeak prestigioa ematen du, hizkuntz erabilera botereari lotuta agertzen zaigulako. Gainera, administrazio erabileraren ondorioz, funtzio administratiboak betetzeko, erregistro eta idazkera bereziak sortzen dira, eta horrek, salbuespenak salbuespen, hizkuntza garatzea ekartzen du.

Hizkuntzen mundua txostenerako, hizkuntzetako informatzaileei administrazioan hizkuntzak erabiltzen ziren galdetu zieten, eta erantzunetik ateratako ondorioak ez dira ero-ero txaloka egiten hasteko modukoak²¹.

Administrazioko harremanetan hizkuntza erabiltzen ote den galdetuta, informatzaileen %13k diote arazo handirik gabe erabil daitekeela beren hizkuntza, bai ahoz, bai idatziz; %5ek diote erabilera ahozkoa mugatzen dela, baina hasi berri direla idatziz erabiltzen, eta %23k diote ahoz bakarrik erabiltzen dela. Gainerako hizkuntzak –%59– inola ere dira erabiltzen administrazio publikoan (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Administrazioko erabileraz gain, ofizialtasuna eta administrazioko erabilera alderatu dituzte eta honek ematen du atentzioa: gehiago dira hizkuntza ofizialak eta koofizialak –lagineko %26– administrazioan erabiltzen direnak baino –lagineko %13-18–. Horrek, beste behin, agerian uzten du ofizialtasuna edota koofizialtasuna hutsala dela kasu askotan, ez baitago legez onartutako mailaren pareko erabilerarik administrazioan bertan. Administrazioan idatziz erabiltzen diren hizkuntza ofizialak eta koofizialak kontuan hartzen baditugu, are txikiagoa da ehunekoa. Horixe gertatzen da guaranierarekin Paraguain, nahiz eta bi aldiz izan ofiziala: Paraguain ofiziala izateaz gain, Mercosurreko hizkuntza ofizial ere bada²². “Hizkuntza nazionalak” ere ez daude galbahe horretatik kanpo (urdua, bielorrusiera, maltera...). Aldiz, ofizialtasunik izan ez baina administrazioan erabiltzen direnak %1 baino ez dira. Ugandan, adibidez, nahiz eta ofiziala izan ez, acholiera erabiltzen da administrazioko idatzizko jardunean, jende gehienak ez baitaki ingelesez.

Txostenaren egileak ondorio orokor hauetara iritsi ziren:

- Administrazioan ahoz eta idatziz erabiltzen direnak hizkuntza ofizialak eta koofizialak dira, acholiera eta antzeko kasuak kenduta.
- Administrazioan ahoz bakarrik erabiltzen diren hizkuntza asko ez dira erabiltzen administrazioak bultzatuta. Hizkuntza erabiltzeko arrazoia administratuak eskatzea izan liteke, besteak beste.

²¹ Datuak laginketa bidez atera dira. Munduko hizkuntzen %10 sartu dira laginketan.

²² Mercosur Hego Amerikako estatu batzuek (Brasil, Paraguai, Venezuela, Argentina eta Uruguai) osatutako blokea da, eta helburu hauek ditu: ondasunak, pertsona eta kapitalak euren artean mugarik gabe ibiltzea eta integrazio politiko eta kultural handiagoa lortzea.

- Hizkuntza gehienak –lagineko %59– ez dira erabiltzen administrazioan, ez idatziz, ez ahoz.

Administrazioek hizkuntza gutxitua ez erabiltzera bultzatzea baino larriagoa da administrazioa bera hizkuntza erabiltzearen aurka jarri eta hizkuntz eskubideen urratzaile izatea. Administrazioak egindako hizkuntz urraketez milaka liburu idazteko nahikoa adibide daude, eta ikaragarrikeriaz ikaragarrikeria ez joateko, nahikoa da hizkuntza indigenak baztertzen dituen justizia administrazioaren lekukotasun bat ematea, Benedicto Ayala Mexikoko Hizkuntza indigenetako itzultzaile, kultuarterkotasunaren interpretari eta kudeatzaileen erakundeko abokatu eta koordinatzailearen eskutik:

Indigena den edo etnia batekoa den galdetzen diote, bakoitzak bere izena badu ere, eta izen hori herriarena izanik identifikaziorako balio badu ere, eta izen hori esaten ez bada edota auziperatuak gaztelania ulertzen ez badu edo gutxi ulertzen badu, ezetz esango du, ez duelako egoera ulertzen. Beste batzuetan, ezaugarri txarrak atxikitzen zaizkiolako edota bazterkeriagatik, indigenek beraiek jatorria ezkutatu eta eskubideen berri eman dezakeen itzultzaile batengana joateko aukerarik izan gabe, auziperatu eta zigortu egiten dituzte, hiltzeraino batzuetan. Horregatik, kartzeletako agintariek ez dakite zehatz-mehatz zenbat indigena dauden preso herrialdean (GONZALEZ, 2006).

Ukazio horren haritik, administrazioak hizkuntza nagusia bakarrik erabiltzen duela salatzeke, hizkuntza hori jakingo ez balute bezala jokatzeko deialdiak egin dituzte hainbat herrialdetan: Galesen, Euskal Herrian... Justizia administrazioaren hizkuntza ezagutu arren (galesdar eta euskaldun elebakarrik ez baitago apenas), ulertuko ez balute bezala jokatu dute hainbat herritarrek, administrazioaren hizkuntz ukazioa salatzeke eta beren hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko. Batzuetan, kanpaina kolektiboak izan dira horren bultzatzaile (Euskal Herrian, Gernikako epaitegietako intsumisio kanpaina eta Demoen aurkako epaiketak; Galesen, desobedientzia zibileko kanpainak...), eta, beste batzuetan, aldez aurretik prestatu gabeko estrategiak, herritarrek beren kabuz hartu baitituzte erabakiak, interpretarik gabe beren hizkuntzan hitz eginez eta soilik beren hizkuntzan hitz egiten dietenei kasu eginez. Halako ekintzetan, modu kontzientean edo inkontzientean, globalizazioaren aurkako mugimenduak bere egin dituen ekintza motak sumatzen dira.

Legebiltzarrak ere, *demokraziaren bihotzak*, hizkuntz eskubideen ukazio eremu izan dira, Europar Batasuneko Legebiltzarra, tartean, legebiltzarrean ezin baita hitz egin EBn ofiziala ez den beste hizkuntza batean²³. Debekuei aurre egin dietenen kasuistika ugaria denez, Peruko Legebiltzarrean gertatutakoa ekarriko dugu hona, oso esanguratsua baita: María Sumire kongresuko kideak, ketxuerari balio handiagoa emateko kanpaina baten barruan, ketxueraz mintzatu zen Peruko legebiltzarrean. Martha Paz Hildebrandt hizkuntzalari eta Peruko Hizkuntz Akademiako kideak, Sumireren jarrera gaitzesteaz gain, gaineratu zion euskaldun, katalan edota galiziar batek ere ez duela inoiz eskatu Espainiako Kongresuan beren hizkuntza erabiltzeko, eta Ingalaterrako Parlamentuan Galeseko diputatuak ez zirela ausartzen galeseraz mintzatzen.

²³ EBko hizkuntza ofizialak hauek dira: alemanera, gaztelania, frantsesa, greziera, hungariera, ingelesa, italiera, nederlandera, poloniera, portugesa eta txekiera.

Parlamentariak hizkuntzaren prestigioan duten garrantziaz ari garelarik, oso esanguratsua da Jose Luis Álvarez Enparantza *Txilladegik* gogora ekarritako pasadizo hau:

Eta William Mackey kanadar soziolinguista ospetsuaren oharrak oititzen naiz.

Orain dela 20 bat urte Euskal Herrira egindako bisitaldi batean ari ginela solasean. Eta galdera hau egin zidan: «Zein hizkuntzaz hitz egiten da Euskal Parlamentuan?».

«Salbuespen batzuk salbu - erantzun nion- espainiera hutsez».

Mementu horretan hizkeraren tonua aldatuz, sekula ahantziko ez ditudan hitz hauek esan zizkidan: «Alors vous êtes mal partis» («gaizki abiatu zarete», alegia) (TXILLARDEGI, 2007a).

Administrazioak hizkuntz urraketa sistematikoak egiteari uzteko, hainbat gomendio zerrendatu dituzte “Hizkuntzen mundua” txosteneko egileek:

- Administrazioarekiko harremanetan hizkuntza autoktonoak erabiltzeko eskubidea bermatzea
- Hitzunek zerbitzu administratiboari ahozko eta idatzizko eskakizunak beren hizkuntzan egiteko aukera ematea.
- Administrazioaren inprimakietan eta oinarrizko agirietan bertsio elebidunak edota eleanitzak sartzea.
- Leku eta toki izenak jatorrizko hizkuntzetan jartzea.
- Administrazioaren oinarrizko zerbitzuetan herritarrak beren hizkuntza hartzea.
- Administrazioak bere ardurapeko langileek tokiko hizkuntza jakin dezatela sustatzea.
- Biztanle erroldetan hizkuntzei buruzko datuak jasotzea, egoera linguistikoa zein den jakiteko eta hizkuntz eskubiderik ez urratzeko.

Gomendioak gomendio, administrazioa indartsuagoa da gaur egun hizkuntzei buruzko txostenak egiten dituen hizkuntzalari talde bat baino, nahiz eta txostena UNESCOren eskariz egin. Erantzun globalen premia dugun garai honetan, garrantzitsua litzateke nazioartean hizkuntza berdintasunaren alde lan egingo duen erakunde bat sortzea, gomendioak gomendio huts izatetik onartu beharreko zerbait izatera igarotzeko. Hizkuntzalari askoren aldarrikapena izan da hori historian, eta egun premia handiagoa duela ematen du, hizkuntzak desagertzeko erritmoa zein den kontuan hartuta. Balizko erakunde horren antzekoena Survival erakundea dugu, indigenen aldeko erakundea, eta gaur egun kili-kolo dago. Beraz, zaila dirudi horrelakorik sortzea, daudenak arriskuan badaude.

5. TRANSMISIOA

Transmisioa etetea da, hizkuntzalari askoren ustez, hizkuntza galbidean jartzeko modurik ohikoena. Horregatik, hizkuntzak bizirik irauteko ezinbestekoa du belaunaldiz belaunaldiko transmisioa. Transmisioa familiaren, hiztun komunitatearen eta eskolaren bidez egiten da, nagusiki, baina, globalizazioaren ondorioz, nabarmen aldatu da hizkuntz transmisioaren prozesua, pixkanaka-pixkanaka elementu berriak hartu baitute hizkuntzaren transmisio mekanismoetan; hedabideek, adibidez. Komunitate batek, familiaren barruan edo kanpoan, umeei/gazteei beren hizkuntza irakasten ez badiete, higadura dagoela esaten da, eta, higadura erabatekoa izatera iristen da, transmisioa erabat eteten bada. Hizkuntz berdintasunaren aldeko diskurtsoa ahalik eta toki eta buru gehienetara zabaltzen saiatu arren, oraindik asko dira transmisioa etetea bultzatzen duten faktoreak. Hori dela eta, asko dira transmisio katea etenda duten hizkuntzak. Barbara Grimes Ethnologue katalogoaren arduradunaren datuen arabera, 2.000 hizkuntzatik gora dira transmititzen ez direnak –beraz, belaunaldi bat edo biren buruan galdu egingo dira–. Hizkuntzen mundua txosteneko datuen arabera, hizkuntzen erdiak baino gehixeagok dute ziurtatuta transmisioa (MARTI eta beste batzuk, 2005)

- Transmisio orokorra %53
- Transmisio partzialki etena %23
- Transmisio ia etena %8
- Transmisio erabat etena %12
- Ez daki /Ez du erantzun %4

Gehienbat, prestigio handiko hizkuntzekin ukipenean dauden hizkuntzak dira transmisioa eteteko arrisku handiagoan daudenak, eta kanpotiko eragin txikiagoa dutenak –iragazgaitzenak– arrisku txikiagoak dituztenak. Lan honetako hainbat ataletan ikusiko dugunez, transmisio joera aldatzeko abiadurak ez dira berdinak toki guztietan: batzuetan, bat-batean alda daiteke, bat-bateko gertakizunen ondorioz (gerrak, natur hondamendiak, migrazio handiak...), eta, beste batzuetan, abiadura motelagoa da, hizkuntza nagusiak pixkanaka, baina geratu gabe, bereganatzen baititu aurretik hizkuntza gutxituak bere zituen esparruak (dominazioa, eremu ofizial edo formaletatik hasita, lan harremanetara joaten da, eta, gero, familiara).

Transmisioak ikaragarriko pisua du kultur identitatean; izan ere, oro har, familia hizkuntzaren bidez garatzen da kultur identitatea, sinbologia eta talde bateko kide izateko sentimendua. Gizakiaren aurreneko harremanek belaunaldien arteko harremana sendotu eta norbanakoaren eta komunitatearen arteko lotura indartzen dituzte. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da hizkuntza transmititzeak, berez, ez duela bermatzen hizkuntza horretan aritzeko gaitasun eta ezagutza nahikorik. Horregatik, hizkuntzalariek oso garrantzitsu deritzote familiaren kanpotiko faktoreek ere ama hizkuntza indartzea bai eskolan, bai lan munduan, bai eremu ofizialetan. Bestela, hizkuntz bazterketan erortzen gara.

Horretaz jabeturik, hizkuntzak eta hizkuntzen bidez zabaltzen den kultur identitateak suntsitzeko asmoa duten botereek aparteko ahalegina egiten dute ama hizkuntzak suntsitzeko. Horren adibide ezin gordinagoa dugu Ngugi wa Thiong keniar idazleak kontatutakoa:

Esperientziarik iraingarrietako bat eskola inguruan gikuyueraz mintzaten ginenean gertatzen zitzaigun. Errudunari zigor fisiko bat ezartzen zitzaion, arropa jaitsi eta ipurdian hirutik boatera aldiz jotzen zitzaion idizil batez, edo, bestela, MEMELO HUTSA NAIZ edo ASTAKIRTENA NAIZ idatzita zuen kartel bat zintzilikatzen zitzaion lepotik. Batzuetan, isunak jartzen zizkieten errudunei, nahiz eta apenas izan baliabiderik isunak ordaintzeko. Eta nola harrapatzen zituzten irakasleek errudunak? Ikasle batek botoi bat eman behar zion beren ama hizkuntzan mintzaten ari zen adiskideari. Egunaren bukaeran botoia soinean zuenak nork eman zion aitortu beharra zeukan, eta, horrela, atzera eta atzera eginez eguneko errudun guztiak agerian geratzen ziren. Horrenbestez, haurrak sorgin ehiztari bilakatzen ziren, eta komunitateko kideak salatzeak mesede egiten ziela ikasten zuten (CRYSTAL, 2001).

Halako salaketak egitea ere larrutik ordaindu zituen Ngugi wa Thiongek. Izan ere, Keniako gobernua kolonizatzaileen aurrean izandako saldukeria salatzeagatik kartzelan sartu zuten, eta, horren ondoren, 27 urtez erbesteratuta bizi behar izan zuen AEBetan; gero, Keniara hilabeterako itzuli, baina ez zuen harrera onik izan: ezezagun batzuk etxean sartu, emaztea bortxatu, bera jipoitu eta dirua eta ordenagailua lapurtu zieten. Orduz geroztik Keniatik kanpo bizi da, AEBetan, eta han ere arazoak izan ditu arrazakeria jasan duelako.

Aurrekoa muturreko adibide bat baino ez da, baina historian eta gaur egun ere ama hizkuntza suntsitzeko milaka adibide daude. Bortizkeriaz bereganatutako botere guztiek eskola dute jomuga, kultur bortizkeriaren bidez beren balio eta identitate berriak ezartzeko eta etsaiarenak desagerrarazteko (IKUS GERRAK ETA GATAZKAK). Halako presioen ondorioz, gurasoek kanpoko hizkuntza nagusia hautatu dute seme-alabekin hitz egiteko, eta horrek, askotan, hizkuntzen heriotza ekarri du. Nolanahi ere, badira egoerarik zailenetan ere aurrera atera diren hiztun komunitateak; esate baterako, mokobiarrena Argentinan.

Gu [mokobiarrak] 70.000 inguru gara, eta Santa Fe probintzian bizi gara, probintziako departamentutan sakabanatuta. Oso historia berria dugu. Oraintsu ehun urte bete dira mokobiarrak azken aldiz matxinatu eta San Javierren sarraskitu gintuztenetik. Hori zela eta, gurasoek hizkuntza ezkutatu ziguten, genozidio eta sarraskietatik libre gera gintezen. Baina hizkuntzari eutsi diogu gure aitona-amonei esker, eta, gaur egun, bidea egiten ari gara eskola elebidunetan (anred.org, 2004-11-22).

Kontrako muturrean, itxuraz hain gordina ez den ingurune batean gertatutako kasuak daude: ez dago hizkuntzaren aurkako ageriko jazarpenik, eskolan hizkuntza gutxitua hitz egiteko aukera dago, hizkuntzak nolabaiteko ofizialtasun maila ere badu... Baina, hala ere, gurasoek ez diete euren ama hizkuntza transmititzen. Joxe Manuel Odriozola euskara irakasleak kritika garratza egin die artikulu batean bi euskal pilotariri, euren seme-alabei euskara ez transmititzeagatik, nahiz eta aitek umetan euskaldun elebakarrak izanik gaztelania gerora ikasi zuten. Odriozola *auto-etnizidioaz* eta *hizkuntz harakiriaz* mintzo da.

[Gurasoen] Mentalitate horren ezaugarria da noski kolonizatzaile linguistikoaren eta kulturalaren erduetara makurtzekoa, hura gurtzekoa,

eta nork bere herriko mintzaira eta identitatea gutxiestekoa eta baztertzekoa. Nork bere nortasun linguistikoari eta kulturalari uko egiten dion gizakia herabe da bere herriaren identitateari eta duintasunari eusteko. Hori gertatzen da mendeko herri eta herritar askoren mentalitatean eta ideologian, esan berri dugunez: alderdi honetatik begiratuta, egia da, Garateren arrazoibidea ez dabilena hain oker, ustezko gizaki modernoaren atzean gutxiespenaren konplexuak taxututako gizaseme koitadua besterik ez dagoelako sarri askotan (ODRIOZOLA, 2007a).

Ikusten denez, hizkuntz transmisioa eteteko, eraginkorragoa da beste kultura baten presio *baketsuaz* hitzunik lotsatzea edota administrazioak hizkuntza nagusiak baino ez bultzatzea (harreman ofizialetan, eskolan...).

Horrek, ziurrenik, zerikusi zuzena du globalizazioak bultzatzen duen errepresio ikusezinarekin; hau da, bortizkeria fisikoa baino *bortizkeria zuria* izeneko erabiltzearekin.

Hizkuntz berreskurapenean, transmisioari lotu-lotuta, garrantzi handia du hezkuntzak, UNESCOk bultzatutako Kultur Aniztasunaren deklarazio Unibertsalak zehazten duenez: (2001eko azaroaren 2ko deklarazioa)

- **Gizarteriaren hizkuntz ondarea zaintzea, eta adierazpena, sorkuntza eta hedapena ahalik eta hizkuntza gehienetan sustatzea.**
- **Hizkuntza aniztasuna hezkuntzako maila guztietan, ahal den leku guztuetan, bultzatzea –ama hizkuntza errespetatuz-, eta haurrek ahalik eta gazteen direla hainbat hizkuntza ikastea sustatzea.**

Hezkuntzan merkatuaren legeak ezartzeak kalte baino ez dio egin helburu horiek lortzearen alde lanean ari diren guztiei. Izan ere, hezkuntzaren merkantilizazioaren ondorioz, herrialde garatu gehienetan, hezkuntza sistemak bereizi eta errealtatean “bi abiadurako sistemak” ditugu: pribatua eta publikoa. Gainerako herrialdeetan, are okerrago dago hezkuntza: haurrak eskolatzeko dirua ezin ordaindurik geratu direnek hezkuntza sistematik alde egin behar izan dute, haur horiek hezkuntza zerbitzuetatik at utziz. Koichiro Matsuura UNESCOko zuzendariaren ustez, izen-ematea ordaindu behar ez izateak eskolatzeko ikaragarri handituko luke, eta, horrekin batera, haurren osasuna ere hobea litzateke, hainbat eskolatan doan jateko aukera izango luketelako. Aldarrikapen horri, hezkuntza sistemak haurren ama hizkuntza babestea gehitu behar zaio, hainbat esperientziak erakusten duenez.

Esate baterako, Burkina Fason, Komunitatea Garatzeko Fundazioaren eskutik, abeltzaintzan eta nekazaritzan oinarritutako hezkuntza sistema jarri dute abian, etorkizunean teknika berriak eta eraginkorragoak ikas ditzaten. Eskolatzeko ordaintzeko, plater bat babarrun, lau plater arto, bi plater “gombo” eta plater bat artatxiki behar izaten dituzte, eta, dirutan ez ordaintzea aurrerapena bada ere, ez da makala izaten hori guztia biltzea, hango egoera zein den kontuan hartuta. Hezkuntza moreraz, haien ama hizkuntzaz, jasotzen dute, eta eskola porrota frantsesarekin baino dezente txikiagoa da, nahiz eta han frantsesa izan hizkuntza ofiziala. Azken helburua 2010ean alfabetizazioa %70era iristea da (PERUCA, 2003).

Hizkuntza askok –Munduen hizkuntzaren arabera hizkuntzen %33k– ez dute sarbiderik hezkuntza sisteman, eta beste askok ez dute toki duinik haurren ikasketa prozesuan, folklore adierazpenetarako baino ez baita erabiltzen, kasu hautena ikusten denez:

Hezkuntza formalaren baitan ez da gure hizkuntza irakasten, eta material idatzirik ere ez da. Indigenen komunitateetako maisuek nahuatlerako hitzei buruzko lanak agintzen dizkiete ikasleei etxerako; ikasleek hiztunak dauden lekuetara jotzen dute, eta haiek ahoz eta idatziz irakasten diete (nahuatlera, Mexiko).

Haurrek kantak eta esaldiak ikastez dituzte, komunitatearen kultur ekintzetako zentroetan (cupanera, AEB).

Mon komunitateak Hezkuntza Batzorde bat dauka, bere komunitatean monera hizkuntza irakasteko. Baina ez da lortu estatuaren eskoletan irakasterik, ez eta irakasgai gisa ere (monera, Myanmar).

Irakasleei uzten zaie hizkuntza erabiltzen, oinarrizko hezkuntzako lehen mailletako ikasleei azalpenak emateko. Baina heziketarako bitartekoak pilipinera eta ingelesa dira, eta maisu askok ez dute hizkuntza horretan hitz egiten (yakanera, Filipinak) (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Ofizialtasunik gabe ere, herrialde batzuetan hezkuntza sisteman hizkuntza gutxituak bultzatzen dira; adibidez, Ghanan, Indian eta Papua Ginea Berrian. Are gehiago, toki batzuetan, hezkuntza da ia galdua dauden hizkuntzak berreskuratzeko funtsezko baliabidea. Costa Ricako Boruca komunitatean, jatorrizko hizkuntza adineko batzuek baino ez dute hitz egiten, baina kultura eta identitatea berreskuratzeko, Hezkuntza Ministerioak jarritako legezko eskakizun guztiak bete eta herriko eskolara 12 maisu-maistra eraman dituzte (horietako 10 indigenak), gurasoei eta haurrei hizkuntza irakasteko, etxeetan ere haurrek eta helduek erabil dezaten.

Murgiltze ereduak izan dira, zalantzarik gabe, emaitzarik onenak lortu dituzten eskolak. Mohawkerak, adibidez, ez du berreskurapen zantzurik izan belaunaldi askotako haurrak murgiltze sistematik igaro diren arte, eta katalanak aurrerapen handia egin du eredu horri esker. Nolanahi ere, ez da murgiltze sistemaren bizkar utzi behar hizkuntza berreskuratzeko zama guztia. Bi adibide horietan sakonduz gero, hamaika eragozpen dituztela konturatuko gara: haur askok ez dute hizkuntza gutxituarekin inolako loturarik eskolatik kanpo, eskola eredu horiek estatuen gorabehera politikoen baitan daude eta inork ez du ziurtatzen hemendik gutxira lege edo dekreturen batek eskolen jardueri mugak jarriko ez dietenik, haurren artean oraindik ere nagusi da hizkuntza nagusia (Katalunian eginiko ikerketa bateko emaitzen arabera, %62,2 gaztelaniaz mintzo da jolastokietan eta %35,6 katalanez), erdi edo goi mailako irakaskuntzan ez du jarraipenik hizkuntza gutxituari emandako garrantziak...

Etorkizunari begira, hainbat tokitan ari dira legeak aldatzen eta irakasleak prestatzen hizkuntza gutxituek sarbidea izan dezaten hezkuntza sisteman: Brasilen, Papua Ginea Berrian, Txilen... Nolanahi ere, denborak esango du asmoetatik harago nahikoa dedikazio eta baliabide jartzen diren horretarako, aurkako kasuak ere egon badaude-eta: lehen erabiltzen ziren, eta orain ez.

Azken batean, kasuistika ugaria izan arren, ideia bat argi dago: hezkuntza sistemak ez du izan behar ideologia eta politika baztertzailen esparru, horrek oinarrizko askatasun

eta eskubideak urratzen baititu, eta, pertsona guztiek, euren jatorrizko hizkuntza edo ama hizkuntza edozein delarik ere, bermatuta izan beharko lukete bere ezaugarri guztiak ez direla urratuko eta babestu egingo direla, Denis Cunningham Hizkuntza Bizietako Irakasleen Nazioarteko Federazioko kideak dioenari jarraiki.

Hezkuntzak funtsezko eginkizuna du horretan. Politika eta hezkuntza egokiak edo bikainak direnean, hezkuntza bitarteko eraginkorra izan ohi da hizkuntzen aldeko jarduna sustatzeko. Gizartearen funtsezko alderdi hori egokia ez denean, ordea, nahitaez daukagu hobetu beharra, eta, horrekin batera, hizkuntzak ezinbestekoak direlako mezua helarazi beharko genuke, hau da, ezinbestekoak direla mundu osoko gizartearentzat, funtzionamendurako ez ezik kulturarako ere bai, eta, beraz, zaindu, defendatu eta gorde egin behar ditugula (CUNNINGHAM, 2005).

6. HIZKUNTZA GUTXITUAK GENEROAREN IKUSPEGITIK

Askotan, datuen saltsa-maltsan hizkuntza gutxituetan eragiten duten joerak eta sakoneko hausnarketak alde batera uzten ditugu. Horixe gertatzen da, sarritan, hizkuntza kontuetan generoaren ikuspegia lantzean. Datuek emakumezkoen ezagutza eta erabilera halako tokitan handiagoa eta halako tokitan txikiagoa direla esaten digute, eta, joerak neurtzeko adina daturik ez dugunez, hipotesi zahar(kitu)etan oinarritzen ditugu hausnarketak. Okerreko bide hori agerian jartzeko eta bide berriak jorratzen hasteko, interesgarria da, besterik ezean, euskararen erabileraren eta generoaren gainean egindako diskurtso gutxi batzuei erreparatzea; batez ere, globalizazioak generoaren araberrako lan eta zeregin banaketa areagotzen duenean. Genero ikuspegiari atentziorik ez jartzeaz, Jone Miren Hernandezek honako hausnarketa hauek egiten ditu, Euskal Herrian egindako kale neurketez ari delarik²⁴:

[...] 1997an erreparatu zen lehenengo aldiz hiztunen sexuaz (nahiz eta orduan informazio hori adin multzoka ez jaso). Horren ondorioa nabarmena da, konparaketa eta interpretazio sakonagoak egin ahal izateko urte batzuk pasa beharko dute. Azken lau urteetako bilakaera ezagutzen dugu baina, ibilbidearen nondik norakoa ezagutzeko euskarri ahula da oraindik. Horretaz gain, datuak esku artean edukita, ikerlariei kezka larriago bat sortzen zaigula deritzot; izan ere, zenbaki eta portzentaiak alboan izanda, egun euskal soziolinguistikan material enpiriko eta teoriko eskasa dugu sexuen artean ematen diren hizkuntz ezberdintasunak ulertzeko eta azaltzeko.

Bide horretan aurrera egite aldera, Jone Miren Hernandezek generoaren eta hizkuntzaren arteko loturak aztertzen dituzten zenbait teoria eta metodologia azaltzen ditu (HERNANDEZ, 2002 eta HERNANDEZ, 2004).

Egile batzuen arabera, emakumea gizartearen ispilua da, eta, horren ondorioz, hizkuntza gutxituak indar handien duten eremuetan (etxe barruan, familian, senideekiko harremanetan...) emakumezkoen presentzia eta eragina handiagoa denez, hizkuntza

²⁴ Euskal Herrian, euskararen kale erabilera neurtzeko aldirian behingo behaketak egiten dira, eta horien emaitzen berri ematen da, bai herriz herri, bai nazio mailan.

gutxituen erabilera *feminizatu* egin da. Ildo horretako egileek bi kontzeptu hauek lotzen dituzte: ama hizkuntza eta prestigioa.

Zenbaitek “ama hizkuntza” kontzeptua amaren rolari lotuta ikusten dute, seme-alabek amarengandik jasotzen baitute ama hizkuntza. Hizkuntzaren ezagupenaz gain, hizkuntzarekiko afektibitatea ere transmititzen da. Azterketa ugari adierazten dutenez, euskara ama hizkuntza dutenek atxikimendu edo leialtasun handiagoa diote hizkuntzari. Gehienetan, hizkuntzaren ondorengotaratzeari amaren esku uzten da, eta horren ardura amei zamaratzen. Gaur egun, globalizazioak dakarren lan banaketarekin, nahiz eta emakume asko lan merkatura sartu, haien ordez etxeko lanak egiten geratzen direnak emakumezkoak dira ia beti, beti ez esatearren. Euskal Herria, eta antzeko garapen sozio-ekonomikoa duten herrialdeetan, gero eta bereziago ageri dira amatasun biologikoa eta amatasun soziala.

Hernandezen ustez, transmisioa amaren esku uztearen defendatzaileek emakumezkoen jokaera hauskortasunarekin eta aldakortasunarekin lotzen dute, eta gizonezkoarena irmotasunarekin eta tinkotasunarekin. Gizonezkoen jarrera aldatzen ez denez, emakumezkoen jarrerak baino ez dira aztertzen, eta horrek botere harremanarekin du zerikusia: aztertzen dena emakumezkoaren jokabidea da, ez gizonarena, eta, are gutxiago, gizartearena. Hori, Hernandezen ustez, ikuspegi murriztua izatea da, gabezia asko baitituzte printzipio horietan oinarritutako hipotesiek edo teoriak. Gabezia horiek hainbat planteamendutan antzeman ditu.

Lehenik, ikerlari batzuek ez dituzte bereizten ama hizkuntza eta lehen hizkuntza, etxean ikasitako lehen hizkuntzaz ari baikara bata edo bestea esatean. Eta etxea diogunean, globalizazioaren ondorioz gero eta elementu gehiagok eragiten duten esparru batez ari gara. Izan ere, lehen, etxeko transmisio mekanismoa oso zurruna zen, norabide bakarrekoa eta amek eta seme-alabek baino ez zuten parte hartzen, aitzak eremu horretatik kanpo egoten baitziren ia egun osoz. Orain, aldiz, transmisio mekanismoa malguagoa da, norabide anitzekoa eta gurasoen gain, beste elementu batzuk eragiten dute; adibidez, hedabideak, batez ere, telebistak.

Bigarrenik, ikerlari batzuek ama hizkuntza ama biologikoarekin eta zaintzailearekin lotzen dituzte. Hartara, ama biologikoak eta zaintzaileak (pertsonek bera izan liteke ala ez) umearekiko harreman afektiboan erabiltzen du(t)en hizkuntza lehenengoa ez ezik garrantzitsuena ere bada.

Hernandezek Peio Jauregiren bi aipamen dakartza horren harira:

Ama hizkuntza kontzeptua ere argi erabili beharko genuke, gogoan izateko ‘euskara amaren ahotik eta jaiotzetik bertatik jaso duten’ pertsonak eta ez besterik.

[...] Hizkuntzazko jokaera ‘ama’ aldagaiarekin lotuz gero, honako hauek ikusi ditugu: 1) aitzak baino askoz ere gehiago eragiten duela amak umeen hizkuntzako jokaeran; 2) ama euskaldunek leialtasun handia diotela euskarari, bai bederen beste euskal hiztunek adinekoa; 3) gazteek lagunekin erakusten duten euskarazko jokaera eta etxean amarekin erakusten dutena elkarrengandik oso gertukoak direla (JAUREGI, 2003).

Hernandezen ustez, ikuspuntu horren defendatzaileek ez dute onartzen haurren zaintza soziala dela; hau da, amatasun biologikoa amari dagokio eta amatasun soziala ez derrigorrean, nahiz eta egungo sistema kapitalista globalaren lan banaketan emakumezkoari dagokion ardura hori bere gain hartzea, gizonezkoa salbuetsiz. Beraz, gehienetan amak egiten duen arren, denok dugu horren ardura, eta, horren ondorioz, transmisioaren gaineko ardura ere denona da, edo izan beharko luke, globalizazioak aurkako aldera tira egiten badigu ere. Hartara, ez da zilegi ardura hori emakumezkoari/amari zamaratzea, eta teoria guztietan hori “janda edukitzea”.

Horrez gain, galdera hau egiten du Hernandezek: hizkuntz ezagupena eta jokaera amari lotuta badaude, nola ulertu ama baten semeak eta alabak etorkizunean jarrera ezberdinak hartzea? Ba al du zerikusirik generoen araberrako gizarte banaketa globalak horretan? Hernandezek emandako erantzuna hau da: amaren funtzioa ez da biologikoa/naturala, soziala baizik; beraz, ama hizkuntza, beraz, gizarte antolaketari lotuta dago. Hori oso argi ikusten da gizonezkoek etxeko zereginak bere gain hartzen dituzten kultura aborigenetan, kasu horietan gizonezkoak arduratzen baitira ondorengotaratzeari.

Prestigioaren teoriararen ustez, gizonezkoak botere esparruak bereganatzen dituzte, eta, horren ondorioz, prestigioaren gaineko aldaketek ez dute eragin handirik haiengan. Hartara, gizonek joera handiagoa dute daukatenari eusteko kanpoko faktore batengatik aldatzeko baino. Emakumeak, aldiz, prestigioaren pean jasotzen dutela ikusten dute. Eta, ziurrenik, globalizazioak bultzatutako prestigio irizpideak zein diren ikusita, joera hori are gehiago bultzatuko da etorkizunean.

Egia esateko, nahiko susmagarria da horrelako azalpenak ematen dituzten gehienak, ia denak, gizonezkoak izatea, eta, demagogiak demagogia, horrek ere izango du pisua gaia jorratzean.

Hernandezen ustez, gaia behar bezain sakon aztertzeko, emakumeek eta gizonek gaztaroan beren identitatea eraikitzeke prozesuan erabiltzen dituzten tresnak eta baliabideak hartu behar dira kontuan. Horretarako, *Community of Practice (CofP)* teoriaren gainean Penelope Eckert-ek egindako lana hartu du erreferentziazat. Eckertek gazteen mundua ikertu du, Daniel Maltz eta Ruth Brokerren hipotesietan oinarrituta. Horren arabera, gaztaroan, neskek eta mutilek estatusa lortzeko berezko tresnak garatzen dituzte, eta beren sexuko taldeetako erreferentziak hartzen dituzte: mutilek ezberdintasun objektiboak dituzte oinarri beren arteko lehian (indarra edota abilezia erakutsi nahi izaten dute), eta neskek adiera sinbolikoak (itxura fisikoa, arropa edo hizkuntz erabilera). Laburbilduz, mutilek *zer egiteko gai* diren erakusten dute, eta neskek *beren izaera zertan datzan*. Eta hori, globalizazioarekin aldatu ez, indartu egin da, kultur eredu jendetsu eta asimilatzaileen eskutik.

Kike Amonarrizek, berriz, hiru arrazoi ematen ditu emakumezkoek euskararen erabilera handiagoa izateko, euskara aintzat hartuta:

1. Batetik, kontuan hartuta hizkuntz normalizazioaren baitan ondorengotaratzeari ahalegin handia egin dela eta haurren heziketarekin lotutako esparruetan emakumeak gizonak baino gehiago direla, emakumeek inplikazio linguistiko handiagoa garatzen dute.

2. Bigarrenik, lanbideei dagokienez, emakumeek bete ohi dituzten lanpostuetan eskaera eta erabilera handiagoak dira. Adibide esanguratsu bat ematen du, M. José Molinak eta Itziar Zuriarrainek Zamalbide Lanbide Heziketa Institutuan egindako ikerketatik aterata:

(...) mutilek Teknologia bezalako gaiak hautatzen dituzte eta Hizkuntzak erdeinatzen. Nesketan ez da hizkuntzenganako erdeinu hori gertatzen, eta Teknologia, harrera ona egiten dioten arren, eta hortxe dago kontraesana, ez da sartzan haien asmotan lanbide aukerabide gisa (inolako teknologiarik) eta nesken nahimenak errealizazio profesionalaren arlo zabalean beste eremu batean kokatzen dira, batez ere "Lana besteei laguntzeko egitea" bezalakoetan.

3. Hirugarrenik, eskolaz kanpo aukeratutako jardueretan mutilek aukeratutakoek zerikusi handiagoa dute erdararekin: mutilek kiroletara jotzen dute, eta neskek ludoteketara, aisialdi taldeetara, dantza taldeetara...

Amonarrizen artikulutik atera daitekeen beste ondorio bat, zeharka-edo, honako hau da: sexuen araberako rol banaketak lotura handiagoa du hizkuntza gutxituekin bestelako hizkuntzekin baino.

Hizkuntz gutxituen ezaugarriak aipatu gabe, Patxi Juaristik ere antzeko irakurketa egin du Bizkaiko 2001eko kale neurketen harira (JUARISTI, 2002). Haren ustez, oraindik ere emakumea gizonezkoa baino lotuagoa dago etxeari edo esparru pribatuari, eta arlo pribatuak publikoak baino erabilera handiagoa duenez logikoa da pentsatzea emakumeak gehiago erabiliko duela euskara gizonezkoak baino. Ildo nagusi horren joera ikusteko, adin taldekako datuei erreparatu beharko litzateke, besteak beste globalizazioaren eragin zuzenetik desplazatuago daudenen kasuak ikusteko.

Gazteei dagokienez, *Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara* ikerketan azaldutakoa dakarkigu Juaristik:

...badirudi tradizioz emakumezkoek ardura handiagoa izan ohi dutela hizkuntza ezberdinekiko -are gehiago hizkuntza minorizatu eta gutxituen kasuan-. Era berean, jarrera baikorragoa agertu ohi dute bai hizkuntza ikaskuntzan sakontzeko, bai hizkuntzek adierazten duten kultura ezagutu eta lantzeko garaian. (...) Orokorrean, beraz, neskatoek hizkuntzarekiko identifikazio handiagoa erakutsi eta euskararen aldeko jarrera sendoagoa azaldu dute (JUARISTI, 2002)

Euskara hizpide izanik, Iñaki Martínez de Lunak ere ildo beretik jotzen du, nahiz eta berak ere aitortu duen beharbada ausartegia dela hipotesi hau azaltzean, eta hau dio:

Horregatik, eta Euskal Herriko Iparralde eta Hegoaldeko oraintsu arte euskara ondorengotaratzeko zein jarrera eta portaera ezberdinak nagusitu diren ikusita, ez dirudi astakeri bat ondoko hipotesia luzatzea -tentu handiz bada ere-: kulturalki emakumezkoek garai eta hizkuntz exijentzia berriei egokitzeko gaitasun handiagoa erakusten dute eta gizonezkoek, aldiz, ohitura eta usadioei eusteko joera sendoagoa.

Idea horren arabera, euskararen transmisio eta berreskurapenerako interes eta ahalegin handiak agertu diren gizarte eremuetan (Hegoaldeko askotan) emakumezkoak aitzindari dira gizonezkoen aurretik, batetik; eta, bestetik, ospe eta balio sozialik handiena duen hizkuntza erdara (frantsesa) izan denean, emakumezkoek gehiago jo dute horren alde, hizkuntz aldaketaren aurrean gizonezkoek portaera zurrunagoa dela medio, euskarari estuago lotuz. Ideia ausarta, dudarik gabe, geroak berretsi edo gaitzetsi beharko duena (MARTINEZ DE LUNA, 2002).

Horretarako, Hernandezen ustez, sexuen arteko ezberdintasunen atzean sexu bakoitzari egokitutako arauak, funtzioak, rolak, aurreikuspenak... hartu behar dira kontuan; bereziki, adina, maila sozioekonomikoa eta arraza, globalizazioak arlo horietan duen eragina baztertu gabe.

Hernandezek interesgarritzat jotzen ditu emakumearen rolari lotutako hausnarketak, baina aldaketen eragileak beti emakumezkoak direla dio, eta kexu hau mahaigaineratzen du: eta gizonekin, zer gertatzen da?

Etorkizunera begira, emakumeak bistaratu behar direla aldarrikatzen du; alegia, ezinbestekoa dela ikusezin direnak ikus ditzagun, beste eragile eta prozesu askorekin gertatzen den legez. Hori bistaratuta, eta datu kuantitatiboak eta kualitatiboak kontuan hartuta, hizkuntzarekin duten harremana aztertu eta azaldu beharko litzateke, egungo teoriak eta hipotesiak ahalik eta gehien garatzeko eta zuzentzeko.

**GLOBALIZAZIOA ETA HIZKUNTZA
GUTXITUAK. ARRISKUAK ETA
AUKERAK**

**Gerra da hiltzen gaituztenean,
eta bakez bizitzen uzten ez digutenean**

Iheslari bat

GERRAK ETA GATAZKA ARMATUAK

c. Gerra eta globalizazioa

Globalizazioa, sarreran argi gertatu denez, ibilbide handiago baten zati bat baino ez da; bizimodu mota jakin bat ezartzeko ibilbidearen zatia bat, hain zuzen. Nolanahi ere, sinplifikatzeko *made in USA* izendatuko dugun ereduko pentsamendu bakarrak ez du lortu munduan nagusitzea; izan ere, gogotik saiatzen badira ere, AEBetako ekonomiaren ustezko arrakastak ez ditu estaltzen gizarte eredu horren alde txarrak, AEBetako jatorrizko nazioen kasuan ikusten denez: krimena, kartzelatze adierazlea, desberdintasun sozio-ekonomiko itzelak, heriotza zigorra, arrazan eta etnian oinarritutako gatazkak, familia eta komunitate hausturak...

Merkatu librearen ideologia amu hutsa dela geratu da agerian. Merkatuan ideiak, proiektuak, kalitate produktiboa eta zerbitzuen erabilgarritasuna baldintza berdintasunean lehian arituko direla pentsatzea baztertuta geratu da ikusi dugunean gerra gorria nagusitu dela; izan ere, monopolioek gerra egin dute beren buruei enplegua eman dieten langile askoren aurka eta mikroakzionisten masa negargarri samarraren aurka. Bizirik irauteko borrokan ez du irabazi eraginkorrenak, ezta onenak ere, baizik eta kainoi gehien atera dituenak (BIFO, 2002).

Bifok ez du esan nahi Huntingtonen zibilizazioen arteko gerra abian jarri denik: ez da terrorismoaren aurkako gerra globalaz ari, ez Irakeko eta Afganistango gerrez, ezta New York, London, Madril edo Baliko atentatuez ere. Sistema kapitalistak eta globalizazioak bazterketa, aberastasunaren pilaketa, botere metaketa eta kultur uniformizazioa betikotzeko eta areagotzeko ezartzen duen gerraren logikaz ari da. Globalizazioak bere egin duen gerraren logikak izendapen ugari izan ditu: planeta barruko gerra zibila, terrorismo neoliberal, neoliberalismo armatua, inperialismo terrorista... Askok dira deiturak, baina gehien nagusitu direnak bi izan dira, globalizazioaren aurkako mugimenduko kide eta taldeek bultzatuta: Etengabeko gerra globala eta IV. Mundu Gerra.

[Globala zergatik den] Gerrari ezaugarri berriak gehitu zaizkio. Munduko benetako lehenengo gerra da, herrialde guztiei dei egin baitzaie alde batekin edo bestearekin bat egiteko (“Gaur egun, nazio guztiek bi hautu dituzte: gure alde edo gure aurka”. G. W. Bush) [...] [gerra zergatik den] Bestetik, “terrorismoaren aurkako gerraren baitan”, askatasun zibilak eta giza eskubideak urratzen dituzten nazioarteko legedi eta neurri bereziak onartu dira; horren ikur da Guantamoko preso talibanen egoera. [...] [Etengabekoa²⁵ zergatik den] “gure bizitzak baino luzeagoa izango da” diote, eta ongiaren eta gaizkiaren borroka “eternalaz” mintzo dira; beraz, pentsatzekoa da gerraren premia betikotu egin nahi dutela (K., 2002).

IV. Mundu Gerra [Gerra Hotzari deitzen dio III. Mundu Gerra] konkistatzeko gerra da, mundu gerra, erabat-erabatekoa. [...] Jarraibideak honako hauek dira: suntsitu eta biztanleak kanporatu, gero berreraiki eta biztanleak bueltan eramateko (MARCOS, 2007).

²⁵ “Etengabeko gerra globala” kontzeptua nagusitu bada ere, gerrak luzaroan iraungo duela adierazteko, agian zuzenagoa litzateke “behin betiko gerra globala” esatea.

Lehenengo definizioaren arabera, gerra berriak lotura hertsia du 2001eko irailaren 11n abian jarri zen “Terrorismoaren aurkako gerrarekin”, ia parez pare jartzen baititu, baina Biforen eta Marcosen definizioek gerra zabalago bat hartzen dute beren baitan: transnazionalen mendeko munduko gobernu edo sasigobernuek erresistentzia ororen aurka egiten duten gerraz ari dira, eta horrek lotura estua du betidanik datorren gerrarekin. Marcosek gerraren zazpi ezaugarri nagusi zehaztu ditu.

Lehenengoa aberastasuna eta pobrezia munduko gizartearen bi muturretan pilatzea da. Bigarena, mundu osoaren ustiaketa. Hirugarrena, gizaki askoren amesgaizto ibiltaria. Laugarrena, krimenaren eta boterearen arteko harreman okagarria. Bosgarrena, estatuaren indarkeria. Seigarrena, megapolitikaren misterioa. Zazpigarrena, neoliberalismoaren aurkako forma askotako erresistentzia poltsak (MARCOS, 1997).

Bistan da horrek hiztunei eta hizkuntzei ere eragiten diela, hizkuntz erresistentziako talde eta kide ugari, bai eta hiztun arruntak ere, gerra egoeran jarri baitituzte munduko hainbat bazterretan, egungo sistema ekonomikoak soberan baititu. Toni Negri filosofo italiarra harago doa, eta dio egungo gerra ez dela menderatzeko sistema soila, botere berri bat eratzeko aurreneko urratsa baizik.

Gerra, gaur egun aurkezten zaigun moduan, ez da soilik boterea zilegiztatzea. Gerra, barrurakoa nahiz kanporakoa, boterearen jarduera guztiak garatzeko eta boterea mundu mailan eratzeko modua da. Gerra txertatuta dago boterean –munduko boterean, botere globalean– [...] Gerra eratzaillea eta biopolitiko da, bizitza, bizitza produkzioa eta bizitza ugalketa goitik behera ordenatzen baita (NEGRI, 2003)

Gerrak, beraz, eragin zuzena du pertsona ororen bizitzan (hortik dator *biobotere* kontzeptua, Foucault-engandik hartua), goitik beherako botere bat eratzeko bultzatzen baitu, bizimodu eta gizarte ereduak boterearen mende jarritz. Ezaugarri horrek, bistan da, lotura handia du kultur suntsipenarekin eta hiztun komunitate ahulduak jasaten duten jazarpenarekin.

Transnazionalen eta gerren arteko loturari buruz asko idatzi da. Lan honen helburua ez da gai horretan sakontzea, baina interesgarria da hona ekartzea, transnazionalen eta gerrak duten lotura azaltzeko, Thomas Friedman AEBetako nazioarteko adituak 1999an botatako esaldi ezaguna.

Merkatuaren esku ikusezinak ez du funtzionatuko ezkutuko ukabilik gabe; beraz, McDonald's ezin da indartu McDonnell Douglas gabe, AEBetako Airezko Indarraren F-15 hegazkina diseinatu eta fabrikatu gabe.²⁶

Ildo horretakoak dira Naomi Klein, Ariandhati Roy, Ignacio Ramonet, Noam Chomsky, Antton Mendizabal eta beste asko. Beste batzuk, aldiz, transnazionalen eta munduko estatu indartsuenen artean desberdintasun sakonak daudela uste dute.

²⁶ Madeleine Albright AEBetako estatu idazkariaren aholkularia zen garaian egin zituen adierazpenok Friedmanek.

Gerraren logika globala denez, mugez gain egiten du; hau da, estatuen mugez kanpo ez ezik estatu barruan ere zabaltzen da, eta, gerra hori aurrera eramateko, “industria” oso bat sortu da: errepresioa, kontrol soziala, giza eskubideak urratzen dituzten legediak, adierazpen askatasunaren aurkakoak... eta horiek guztiak ez dira soilik makropolitikan eragiten duten faktoreak, horiek jendearen, hiztunen, eguneroko bizitzan txertatuta dauden kontuak dira, lan honetan hamaika aldiz ikusiko dugunez. Eduardo Galeano idazle uruguaiarrak dioenez, norbanakoei eta herriei beldurra ezartzea da errepresio globalaren ezaugarri nagusia.

Botereak beldurra jaten du. Berak sortzen dituen deabruak kenduta, justifikazio, zigorgabetasun eta aberastasun iturriak galduko lituzke. Satanak –Bin Laden, Saddam Hussein edo etorkizunean agertuko direnak– urrezko arrautzak jartzen dituzten oiloak bezalakoak dira: beldurra erruten dute. Zer komeni da hara bidaltzea? Haiek hilko dituzten borrhoroak edo haien zaintzaile izango diren medikuak? Beldurrak arreta galtzea eta atentzioa desbideratzea dakar. Ematen dituen zerbitzuengatik ez balitz, agerikoa agerian geratuko litzateke: egiatan, botereak ispiluari begiratu eta ikusten duena kontatuz beldurtu egiten gaitu. Arriskua, arriskua, oihukatzen du arriskutsuak (GALEANO, 2005).

Beldurra da, hain zuzen ere, Amnesty Internationalek 2007ko maiatzean argitaratutako txostenean nabarmentzen duen eragilea. Giza eskubideak urratzeko, beldurra baliatzea egotzi die AIK gobernuei, eta mundua Gerra Hotzaren unerik txarrenetan bezain polarizatua dagoela dio; horren adierazpen, heriotza zigorren, torturatuen, epaiketarik gabe dauden presoek eta eraso bortitzak jasan dituzten emakumeen kopuruak. Zoritxarrez, hizkuntz jazarpenari eta hiztunek beren hizkuntzetan hitz egiteagatik jasandako kriminalizazioari buruzko aipamenik ez da falta txostenean.

Horrenbestez, gerraren logika hedatuz doanez, ez da harritzekoa “lehiakortasunaren estrategian” gerra hizkera nagusitzea: horrek gerraren logika hitzetara iritsi dela adierazten du, besterik gabe, batzuetan gerrari ezaugarri ekonomiko eta politikoak ezabatu eta guztia ordena publikoko arazotzat jotzen baita. Logika horren arabera, ez dago arazo politikorik edo kulturalik navajoekin, boskimanoekin, aimarekin edo dena delakoekin; ordena publikoko arazoak baino ez dira. Jazarpena, kriminalizazioa, giza eskubideen urraketak eta zigorrak naturalizatu egiten dira, eta gerra zantzurik ez duen gertakizunez mozorrotu.

Egile batzuk gerra zaharrak eta berriak bereizten ahalegintzen dira. Haien ustez, gatazka militar klasikoak gutxitzen ari dira, eta terrorismoaren aurkakoak eta lehiakortasun ekonomikoan oinarritutakoak ugaritzen. Hartara, lehen, historia, lurraldea, erlijioa, politika/ideologia ziren gerra eragiten zuten faktoreak; orain, baliabideen ustiapenak, botere globalen eskuhartzeak, munduko geoestrategiak... Aurretik iradoki dugunez, ez dago bat-bateko aldatetarik: globalizazioa bilakaera historiko baten ondorio den bezalaxe, gerrek ere bilakaera bat izan dute, baina ez dago tupusteko aldatetarik, eta gerra berriek gerra zaharren ezaugarriak dituzte, baita gerra zaharrek gerra berrienak ere. Beraz, kategoria horiek, *berriak* eta *zaharrak*, ez dute balio. Zer berrikuntza ekarri dute, bada, egungo gerrek, haien oinarrian munduko gatazka etnikoak, ankerkerian oinarritutako erregimenak, erlijio fundamentalismoak edota inperio kolonialen aurkako jarrera bortitzak badaude? Ezaugarri horiek berri-berriak al dira?

Kontuan hartuta gerrak arrazoi berrien edo zaharren arabera bereizi ezinak direla, nolabaiteko sailkapena egin dugu, gerrek eragindako sufrimenduaren arabera. Horrenbestez, lehenengo, hildako eta desplazamendu gehien eragin duten gerrak hartu ditugu kontuan, horiek baitira, printzipioz, hiztun komunitate gehien suntsitu dituztenak.

d. Gerra zaharberrituak

Sailkapenaren aurreneko mailan, duela mende askotatik datozkigun gerrak sartu ditugu, gerra zaharberrituak nolabait esateko, nahiz eta gaur egun, globalizazioak burututako estaldura ideologikoari esker, gerratzat ere ez hartu.

Mendez mende eta hamarkadaz hamarkada gerraren logika eten ez dela ikusteko, lehenengo eta behin, ijitoek jasandako jazarpenaren historia ekarriko dugu gogora. Ijitoak, historian, zikintzat, lapurtzat edota, okerrago, hiltzaitzat hartu izan ditugu europarrok, eta ezjakintasun krudel hori zientziaz ere mozorrotu nahi izan dugu. Horrek sarraskitzeko bidea eman du, Asier Santillan Kosovoko giza eskubideen behatzaileak dioenez:

1905. urtean adibidez, Ijitoen Arazoaren Guneak, *Zigeunerbuch* delako liburua atera zuen, non Erdialdeko Europako psikiatrak, antropologoak eta biologoak ijitoak zergatik ziren gutxiago eta gizartearentzat kaltegarriak azaltzen zuten; 1922. urtean gerrateen arteko Alemania demokratikoan, ijitoentzat agiri antropometriko berezi bat asmatu zuten ohiko famili liburua ordezkatzan zuena; eta 1939. urtean, II. Mundu Gerraren hasieran, naziek erromaniak *lebensunwert* gisa katalogatu zituzten: bizitzea ez zutela merezi esan nahi zuen (SANTILLAN, 2007).

Esan eta egin, nazien kontzentrazio guneetan milioi erdi erromani hil baitzituzten. Gainerakoentzat gerra amaituta bazegoen ere, ijitoentzat gerra ez zela amaitu argi geratu zen: bloke komunistako gobernuek naziek egindakoaren bidetik jarraitu eta, ijitoen ohitura nomadak langileriaren klase interesen aurka zihoazelakoan, ehunka emakume esterilizatu zituzten Txekoslovakian, Errumanian eta Jugoslavian. Eta hori gutxi balitz bezala, gerraren logika eten ezinik, Balkanetako gerran ere biktima izan ziren. Etorkizunean ere ez du ematen aukera hobeak izango dituztenik, Santillanek dioenez.

1998. urtean serbiarren basakerietatik ihes egin behar izan zuten, eta gerratea bukatu ahala itzultzerik ezin izan zuten, albaniarrek kolaboratzailetzat hartu baitzituzten. Baina erromani batzuek Serbiako armadarekin kolaboratu bazuten ere, egiak erakusten digu gehienek ez zutela inongo alderik hartu, eta beraien itzulera galarazten zutenek betiko arrazakeria zaharrak dakarren aurreiritzietan oinarritzen zituztela jarrera horiek. [Gaur egun] Europako beste lekuetan gertatzen den bezala, inork ez ditu aintzat hartzen ijitoak Kosovon, eta marjinazioan jarraituko dute, besteak beste Kosovoren etorkizunaren inguruan aurrera eraman diren elkarrizketetan beraien ikuspegia eta interesak ez baitira kontuan hartuak izan, Kosovoko garapen ekonomikoaren inguruko konferentzian hartu ez ziren bezala (SANTILLAN, 2007).

Europar *arrunten* begietatik, ez gara gai izan, eta ez gara gai, haien arteko desberdintasunak ikusteko, ezta jazarritako hiztun komunitatez osatutako kolektiboa

direla konturatzeko ere. Izan ere, Kosovon bakarrik hiru motatako ijitoak daude: erromaniak, jatorriz indiarrek eta erromanieraz edo kaloz hitz egiten dutenak; ashkaliak, jatorriz pertsiarrak, ama hizkuntza albaniera dutenak, eta, egiptoarrak, garai batean Afrikako iparraldetik hartu eta Balkanetara esklabo izateko eramanak.

Hiztun komunitate askoren ikuspegitik, ijitoen ikuspuntutik bezalaxe, globalizazioa mende luzez iraun duen sarraskitze gerraren azken atala da, desagertzea eramango dituzten *bidaia* baten azken zatia. Munduko herri indigena gehienak egoera horretan daude: kolonizazio/ustiakuntza/jazarpen forma ugari jasan dituzte, guzti-guztiak *asimilatu ala hil* lelopean. Atal honetan, Ipar Amerikako (bereziki, AEBetako) eta Australiako kasuei erreparatuko diegu bereziki, oso esanguratsuak baitira bi arrazoiengatik: batetik, sarraskitze gerra ikaragarri aurreratua dutelako, komunitateak ia suntsitzeraino, eta, bestetik, sarraskitzea kultura anglosaxoi nagusiaren eta ingelesaren inposaketaren bidez egin delako, eta, hain zuzen ere, horiek dira globalizazioan inposatzen ari diren kultur eta identitate ereduak.

XX. mendearen bukaeran, hiztun komunitate gutxituak desagerrarazteko mendez mendeko estrategia oso aurreratuta zegoen. Izan ere, Ipar Amerikan 210 hizkuntza indigena hitz egiten ziren, 1992an Michael Kraussek AEBetako Senatuko batzorde baten aurrean aurkeztutako datuen arabera (Egile asko, 2003)

- Oso hiztun gutxi eta oso zaharrak zituztenak 57 ziren.
- Aiton-amonek eta oso adineko jendeak bakarrik erabiltzen zituztenak 84.
- Gurasoek eta adineko helduek erabiltzen zituztenak 35.

Egoera hori larriagoa zen AEBetan. Han, 210 hizkuntza horietako 155 hitz egiten ziren.

- Adineko gutxi batzuek bakarrik erabiltzen zituztenak 55 ziren.
- Aiton-amonek eta adineko jendeak bakarrik erabiltzen zituztenak 70.
- Adin guztietako helduek zituztenak 30.
- Adin guztietako hiztunak zituztenak 20.

Kalkulu negargarri hori jatorrizko amerikarrak hizkuntzaren zein kulturaren aldetik asimilatzeke gutxienez mende eta erdian jorrotutako politikaren emaitza dira, baina ez emaitza bakarra; izan ere, europarren kolonizazioa hasi aurretik, egun AEBetakoak eta Kanadakoak diren lurretan 300-400 hizkuntza hitz egiten ziren, eta asko desagertuta daude jada.

Ipar Amerikako jatorrizko nazioen hizkuntzen mapak aztertuz gero, hutsik dauden eremu asko ikusiko ditugu. Izan ere, ez dago eremu horiei buruzko dokumentaziorik, eta pentsatzekoa da desagertutako hizkuntzak are gehiago direla. Appalacheak mendien eta Mississippi ibaiaren artean gertatzen da hori bereziki, hego-ekialdean oro har, eta Mexiko iparraldean.

Hizkuntza horien gainbehera europarrak Ipar Amerikara iritsi zirenean hasi zen, euren lurretatik kanporatu eta hil baitzituzten. XIX. mende amaieran, estrategia aldatu egin zen: mendebaldeko tribu asko beren jatorrizko lurretatik egotzi eta haietzako barnetegiak zabaltzen hasi ziren, haurrak eskoletara joatera derrigortzeko eta “indiarren hizkuntza barbaroak” ezabatu eta haien orde z ingelesa ezartzeko. Jatorrizko nazioen

aurkako politika horren isla dira J. D. Atkins Indiar Arazoetako batzordeburuak 1887an egindako adierazpenak:

Indiarrak ingelesez egiten den herri batean daudenez, hizkuntza hori ikasi behar dute, herri horretako jendearekiko harremanetan hizkuntza hori erabiltzeko. Indiarrei beren jatorrizko hizkuntza irakastea alferrikakoa da haientzat, eta indiarrei hezkuntza eta zibilizazioa emateko xedea oztopatu egiten du, gainera. Hortaz, erreserbetan ez da ingeles hutsez irakasten ez duen eskolarik baimenduko (Egile asko, 2003).

1879tik aurrera, Indiar Arazoetarako Bulegoak sortutako barnetegiek kultura indigenak ahal bezain azkar suntsitzeari ekin zioten, eta haurrak beren senideengandik zazpi bat urte zituztela bereizi eta barnetegietan sartzen zituzten beste jatorri batzuetako indigenekin batera, eta ingelesa ezarri ama hizkuntzak galbidean jartzea zuten helburu. Eskolaren helburua haurren aurreko bizimoduarekin zerikusia zuen oro gutxiestea zen: mundu ikuskera, erlijioa, hizkuntza, kantuak, janzkerak... Izenak ere ingelesez jartzen zizkieten, beren jatorrizko izena behin betiko ezabatzeko. Eskolaren oinarria sistema militarra zen, eta, ingelesa ez beste hizkuntza batean hitz egiten harrapatuz gero, zigor gogorak jasotzen zituzten. Zigortzaileak, gainera, euren tribuetako kideak izaten ziren askotan; adibidez, navajoak ziren navajoen zigortzaile eta zanpatzaile.

Michael Kraussen iritziz, tratu hori umeen aurkako abusu ankertzat joko genukeen gaur egun. Izan ere, barnetegiek ondorio larriak utzi zituzten: haurrek beren hizkuntza gutxiestea, hizkuntza indigenak lotsaizun ziren ustea zabaltzea... Horren ondorioz, seme-alabei ingelesez besterik ez zieten egiten. Botereak lortua zuen, neurri handi batean, helburu suntsitzailea: jatorrizko nazioetako kide askok amerikar gizarteak beren hizkuntzaz zuen iritzia barneratu zuten azkenean, eta ingeles hitzun eta amerikar zintzo izan nahi zuten.

Egoera hori, ordea, ez zuten denek onartzen, eta hasiera-hasieratik eztabaida sutuak eta borroka gordinak izan ziren sistema bidegabe horren aurka. Salaketen ondorioz, barnetegiaren sistemari muzin egin eta eskola elebidunak sortzen hasi ziren; lehena, Rough Rock izenekoa, 1966an eraikia. Horrelako eskoletan hasi ziren jatorrizko nazioetako kide asko beren hizkuntzak eta kulturak berreskuratzen. Hala ere, hamarkada askotako zigor politikak desagertzeko amildegia ertzean utzi ditu hainbat eta hainbat nazio, eta, ghettoetatik ezin atera daudela, globalizazioaren garai berriak azken bultzada baino ez die emango. Hauxe dio Edorta Jimenez idazle bizkaitarrak Ni mi Pui herriko kideekin bizi izandako esperientziaren ondoren²⁷:

Inperioaren jabeek indigenei lurraldeak lapurtu zizkieten, eta orain ghettoetan daukate. Nola da hau posible? Oso traumatikoa da. [...] Desagertu egingo dira! [...] Historiak utzitako arrastoa da, baina hain da bidegabea! Nire galdera da: hau al da demokrazia? Inperioaren zain nagusian dagoen odolbildua da hori, eta inperioa gaixorik dago errotik (Berria, 2007-02-25).

AEBetako eta beste herrialde batzuetako egoerak alderatuta, ikusten dugu ankerkeria are basatiagoa jasan behar izan dutela jatorrizko nazioetako kideek AEBetan, mundu

²⁷ Ni Mi Pui herrian 3.000 indigena geratzen dira, eta euren hizkuntza dakiten 117 baino ez daude.

osora demokrazia eredugarria *saltzen* badute ere. Kanadan edo beste herrialde batzuetan baino. Halaxe dio *Iatiku* gal zorian dauden hizkuntzei buruzko berripaperak:

“Estatu Batuak jaun eta jabe ditugu munduan hizkuntz galera geldiarazteko ahaleginetan, baina, aldi berean, hizkuntz galeraren fenomeno hantxe dago hedatuen eta hantxe ari da bizkorren gertatzen gaur egun.” (Egile asko, 2003)

Konparazio batera, Artikoko beste herrialde batzuen aldean (Eskandinavia, Errusia iparraldea, Siberia eta Groenlandia), Alaska da hizkuntza indigena gehien hil diren eremua. Gaur egun, Alaskan, hogeitazko hizkuntza indigena daude bizirik, eta horietatik bi bakarrik erabiltzen dira haurren artean (bata, St. Lawrence uharterako yupik hizkuntza, eta bestea, erdialdeko yupik hizkuntza). Groenlandian, aldiz, arrakasta handia izan dute hango jatorrizko hizkuntzaren gainbehera geldiarazteko ahaleginek, eta, gaur egun, hango jatorrizko biztanleen %99 elebiduna da, eta inuitez eta danieraz mintzo dira.

Iritzi berekoa da Krauss ere, etorkizuna beltza iragartzen baitie hizkuntza horiei eta hiztunei; besteak beste, egoera iraultzeko iritzi publiko indartsurik eta erresistentzia mugimendu kementsurik ez delako sumatzen. 2010. urterako, oso hiztun gutxi eta zaharrak dituzten hizkuntzak desagertu egingo dira, eta gainerakoek bide berari jarraituko diote, halabeharrez. Ezustekoren bat gertatu ezean, 2070ean Ipar Amerikan 34 hizkuntza indigena baino ez dira geldituko, horietatik 20 AEBetan; hau da, europarrak iritsi aurretik zeuden hizkuntzen %10 inguru. Hizkuntza horiek, gainera, berandu baino lehen, desagertzera iritsiko dira, gobernuaren politika suntsitzaileak bultzatuta.

Australian, antzeko egoera edo okerragoa bizi dute hango jatorrizko nazioetako hiztunek eta haien hizkuntzek. Izan ere, Australian, esaldi hau bururaino eraman dute: “Hizkuntza bat ezabatzeko bide bat hizkuntza horretako hiztun guztiak hiltzea da”. Erresuma Batuak Australia inbaditu zuenean, bertako lurrek jaberik ez zutela argudiatuta, hutsik zeudela zioen legea jarri zuen indarrean (*Terra nullius*), eta, beraz, Europatik hara joandakoek lurra ustiatzeko askatasun osoa izan zuten. Milaka indigena hil, baztertu eta ikusezin egin zituzten. Sarraskien ondorioz, hiztun talde askotan ez zen gelditu hurrengo belaunaldiari hizkuntza geroratu zion hiztunik. R. M. W. Dixon hizkuntzalariak Australiako aborigenen zenbait kasuren berri eman du.

- Tarooma inguruan, adibidez, Queensland hego-ekialdean, yeeman izeneko hizkuntza hitz egiten zen, baina hori da dakigun gauza bakarra, haren izena. 1857an, tribu erabat sarraskitu zuten, eta ez zen hizkuntza haren arrastorik geratu.”
- 1880ko hamarkadan, warrgamay tribuko kide gehienak harrapatu eta hil egin zituen urrutiko tribu bateko aborigenez osatutako Queenslandeko poliziako adar batek. Armak eskuetan jarri, hara eraman eta warrgamaytarrei tiro egiteko agindu zieten. Sarraski hartan, ez zituzten warrgamaytar guzti-guztiak hil, baina, gertakari haren ondorioz, Dixon 1970eko hamarkadan haien hizkuntza ikertzen hasi zenerako, beren hizkuntza erabiltzeari utzita zeuden gehienak. Hiru hiztun besterik ez ziren gelditzen, guztiak ere 1900. urtea baino lehenago jaiok.

- Biyaygiri hizkuntza Queenslandeko Cardwell herritik gertu hitz egiten zen garai batean, eta hura ere guztiz galdua zegoen Dixonek ikertu ahal izan zuenerako, zaldizko poliziak biyaygiriz mintzo zen tribua suntsitu baitzuen.

Zorionez, sarraski haietatik bizirik atera direnen ondorengoak ez dituzte zuzenean hiltzen, baina ez diete bizitzen uzten, eta hori okerragoa da batzuetan. 60ko eta 70eko hamarkadetan, hainbat gizarte eta politika aldaketa egon ziren Australian, eta, haien eraginez, milaka indigena mendeetan euren ogibide izan ziren lurak uztera derrigortu zituzten. Hirietan, ordea, ez zuten haien egoera hobetzeko bitartekorik aurkitu. Azkenean, ghettoetan bizitzea egokitu zitzaizen gehienei, pobreziari, langabeziari, osasun zerbitzu eskasei eta hezkuntza sistematik kanpo egoteari aurre egin ezinik, eta askok, gizonzkoek batez ere, alkoholera jo dute ihesbide bila. Australiako Droga Ikerketa Institutuak egin berri duen azterketa baten arabera, 38 orduz behin aborigen bat hiltzen da alkoholaren eraginez. Ikerketaren ondorioetan ageri denez, etxebizitzarik ezak, langabeziak eta etorkizun hoberako itxaropenik ez izateak utzikeria eta apatia eragiten dituzte, eta alkohola gehiegi kontsumitzea ekarri duela ondorioztatu du, baita delituak eta liskarrak gehitzea ere.

Gutxiengo indigena askorentzat, modernizatorako trantsizioak honako hauek ekarri ditu: txirotzea, arrazakeria, biolentzia, alkoholismoa, droga mendekotasuna, suizidioa eta desintegrazio soziala. Egiaz, substantzia toxikoak kontsumitzeko joera auto-suntsiketarako nahi inkontzientearen seinale izan daiteke, baita antzinako balioak etetearen kontrako protesta isila ere. Ekonomiari dagokionez marjinalak diren hainbat talderentzat (pigmeoak, sanak, negritoak, inuitak...) bizimodua aldatu da jadanik, eta laster aldatuko da, ingurumenaren aldaketak eraginda, hala nola, ehiza agortzea eta beste ekonomi mota batzuk lortzeko lehia (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Horrenbestez, kasurik onenean, bazterketarekin lotutako egoera horiei aurre egitea da aborigenen elkartearen lehentasuna, kultur eta hizkuntz aldarrikapenak baztertuta, eta horren adibide esanguratsua dugu Australian bardieraz hitz egiten dutenena:

Batzuek ez dute, nonbait, kezka handirik [hizkuntzaren egoeraz]. Beste batzuek, berriz, helduenen taldeko batzu-batzuek, hizkuntza transmititu nahi dute. Niri iruditzen zait bardi kultura bat baden artean, hizkuntzak ez duela garrantzirik; baina litekeena da iritzi hori ez etortzea ikuspuntu zabalduenekin bat. Nire ustez, drogarekin, alkoholarekin eta suizidioaren prebentzioarekin, langabeziarekin eta beste gai sozial batzuekin kezkatuta dago “one Arm point community”; hizkuntzak ez du lehentasunik kezken zerrendan, hizkuntza erabiltzen ez duten belaunaldi bat edo bi badirelako eta beste kezka batzuk daudelako (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Egoera hori izanik, ematen du berandu iritsi direla indigenen aldeko erabakiak; hala nola, gobernuak eta indigenek adostuta, Hegoaldeko Gales Berrian lurra ustiatzearen gaineko erabakia. Zantzu guztien arabera, Australiako egoera AEBetako baino larriagoa da, gutxiago falta baitaie aborigenaren erabateko suntsipenera edo asimilaziora iristeko. Egoeraren larritasunaz jabetzeko, hona hemen pare bat datu: Australiako aborigenaren %90 dagoeneko ez da mintzatzen hizkuntza tradizionala (MARTI eta

beste batzuk, 2005) eta Ableyren arabera, munduan dauden 417 hizkuntza ia galduetatik 138 Australian daude (ABLEY, 2006).

Azken batean, etengabeko gerrak –betitik betira irauten duten gerrak– esanahirik ankerrena du hizkuntza gutxitu horietako hiztunentzat: alderik ez dago globalizazioaren garaian bizi, edo Alexander Handiaren garaian bizi. Zoritxarrez, gauza bera esan dezakegu mende askotan sarraskitu dituzten hiztun komunitate asko eta askori buruz:

- Kanadan ere desagerrarazterainoko gerra bizi izan dute jatorrizko nazioek aspalditik. Suntsipen neurriak AEBetan eta Australian baino leunagoak izan badira ere, giza talde batzuen egoera ezin lazgarriagoa da: zenbait komunitatetan, prostituzioan lanean dabilzanetatik %90 aborigenak dira. Hori jakinda, ez da harrizkoa 50 hizkuntza aborigenetatik hiruk bakarrik izatea etorkizuna bermatuta: inuktituiterak, klistenerak eta chipeyak. Mark Ableyren arabera, inuitak ez dituzte inoiz garaitu gerra batean, euren lurraldea ez dute inoiz arpilatu, eta, inguruko hizkuntza indigenak ez bezala, hizkuntza ez dute inolako arriskutan (ABLEY, 2006)
- Brasilen, Amnesty Internationalek salatu duenez, indigenak beren lurretatik botatzeko politikek ez dute etenik izan, eta, azken urteotan, komunitate indigenetatik kanpoko pertsonen 123 kide hil dituzte lur kontuengatik. Zigorgabetasuna ia erabatekoa da: hilketa horiengatik inor gutxi epaitu dute; esaterako, 1988an Amazonaseko ticuna tribuko 14 kide hiltzeagatik eta yanomamien Haximu herrixkan 14 kide hiltzeagatik ez da inor auziperatu. Antzeko hilketek bat-batean hizkuntzak desagertzea ekarriko lukete; izan ere, guztira, 30 hizkuntza daude galtzeko zorian, eta gehienak 40 kideetik beherakoak.

Antzeko egoeren zerrenda oka egiterainokoa denez, ez gara gehiegi luzatuko adibideak eman eta eman. Suntsitze estrategia zein neurrigabea izan den jakiteko, Hego Amerikako indigena kopuruaren bilakaera oso adierazgarria da: aurreneko kolono europarrak iritsi eta 200 urtera, indigenen %90 hilda zegoen, dela hilketen ondorioz, dela gaixotasunen ondorioz. Mexiko, adibidez, 100 milioi biztanle izatera iritsi zen europarrekin harremanetan sartu aurretik, eta, 200 urte geroago, milioi bat indigena baino ez zen geratzen. Toki batzuetan, suntsitze estrategia bururaino eramanez dute; adibidez, Karibeko irletan ez da jatorrizko hizkuntza bakar bat ere geratzen.

Hiztun komunitate horien helburua, zoritxarrez, erabat desagertzera iritsi aurretik ahalik eta denbora gehien irautea da, suizidioari, alkoholismoari eta itxaropen ezari aurre eginez, hizkuntz erresistentzia gutxieneko mailara ere iristen ez dela. Izan ere, mendez mende jasandako etengabeko gerrak desagertzeko amildegitik pauso batera jarri ditu, eta globalizazioak azken bultzada eman eta hizkuntza desagertuen zulora amiltzea baino ez die eragingo, baldin eta indigenismoaren susperraldiak ez badu sakoneko aldaketarik ekartzen (**IKUS IDENTITATEA**).

e. Eskualdeko gerra handiak

Gaur egun, milaka eta milaka hildako eragiten dituzten gerrak ditugu. Horietako batzuek, ordea, ez dute aparteko tokirik hartzen hedabideetan, eta, horren ondorioz, ezta gure kezketan eta hausnarketetan ere. Agenda politiko-mediatikotik at edo barruan baina oso behean dauden gatazkak dira, ez oso zaharrak direlako edo oso urrunekoak

direlako, baizik eta erabaki dutelako pentsamendu bakarraren baitan tokirik ez duela – transnazionalen inplikazioa handiagoa delako, agian?–. Atal honetan estatu bateko mugez gain egin duten gerra handiak hartuko ditugu kontuan, munduko eskualdeetan duten eraginagatik, bai hildakoengatik, bai desplazatuengatik. Hedabideetan, oso tratamendu desberdina dute gerra horiek. Konparazio batera, Irak eta Kongoko gerra sartu ditugu zaku berean, nahiz eta gaixotzeko modukoa den Irakeko gerrari buruz zenbat artikulu, albiste eta liburu dauden ikustea eta Darfurreko edo Kongoko gerraz inork gutxi hitz egiten duela konturatzea.

Kongoko gerrak koltana eskuratzeko irrika du abiapuntu. Koltana ezinbestekoa da telefono mugikorrek funtzionatzeko, eta Kongo da koltan erreserba handienak dituen herrialdea. Adibide ezin hobea da globalizazioa eta gerra lotzeko: 2000. urtean, Brasilgo, Australiako eta Thailandiako koltan erreserbak agortzen hasiak zirenean, Kongoko gerra ikaragarri gaiztotu zen. Arazoa larria zen: Sony transnazionalak Play Stationen bigarren bertsioa kaleratzea atzeratu behar izan zuen!

Gerra horretan, Afrikako hainbat estatu eta mundu mailako transnazionalak ari dira elkarren aurkako borrokan, eta gerraren ondorioak alboko estatuetan ere pairatu dira (hildakoak, desplazamenduak, derrigorrezko erreklutamenduak...). International Rescue Committee erakundearen arabera, 3.800.000 hildako eragin ditu zuzenean Kongoko gerrak. Gerra egoeran dauden bitartean, gerra eremuetan zer gertatzen den jakitea zaila da oso, are gehiago hizkuntzen egoera ezagutzea, baina, atrebentzia handirik egin gabe, esan dezakegu hizkuntzak desagertzen ari direla. Hona hemen ondorio horretara iristeko zantzuak:

- Kongoren eta Angolaren arteko muga, bantu hizkuntzei dagokienez, 19 hizkuntza inguru zeuden, eta gutxienez 12 arriskuan zeuden gerra hasi aurretik. Angolan ere gerran daude, eta batez besteko bizi iraupena 40 urtekoa da.
- Kongoko Errepublika Demokratikoan, Kongon eta Afrika Erdiko Errepublikan, bantu hizkuntzak gutxi gorabehera 70 dira, eta 5.000 hiztunetik beherakoak 35.

Nazioarteko hedabideek Munduko Lehen Gerra Afrikarra deitu diote, gerran parte hartzen duten herrialdeak asko direlako, eta ez bakarrik Afrikakoak, baina urteak behar dira gerra amaitzeko eta ondorioak zenbatekoak diren jakiteko, tartean hizkuntzek pairatutakoak.

Hildakoei dagokienez antzeko kopuruetan dabilen gerra, Sudan hegoaldekoa da, 20 urteko eta bi milioi hildakoko gerra. Ustez, Sudango iparraldekoen eta hegoaldekoen arteko aspaldiko gerra, erlijio gerra eta petrolioa eskuratzeko gerra nahasten dira gatazkan. Kongoko gerrarekin bezalaxe, nazioarteko hedabideek izen arranditsuak jarri dizkiote gerrari: XXI. mendeko genozidioa, urte beltzaren gerra, azken 100 urteotako giza hondamendirik handiena...

Azken hilabeteotan, nazioarteak arreta handiagoa eskaini dio, laguntza humanitaria eskaintzeko parametroen barruan. Eta ez da aurreneko aldia: 1998an, Sudango 29 milioi biztanletik %10ek goseak hiltzeko arriskua zuen; batez ere hegoaldean, gaur egungo gerra tokietan. Hizkuntzen egoerari dagokionez, 1996ko ethnologueren arabera, 132 hizkuntza zeuden Sudanen: 17 hizkuntza 1.000 hiztunetik beherakoak eta 54 hizkuntza

10.000tik beherakoak. Bereziki larria da nubiera hizkuntz familiako hizkuntzek eta nuer etniakoek jasan duten egoera, zenbaitek genozidiotzat baitaukate.

Horrez gain, ez da ahaztu behar, Kongoko gerran gertatu bezala, horrelako gerrek inguruko herrialdeetan ere sekulako eragina dutela, gerra buruek toki horietara jotzen baitute soldaduen bila, eta euren borondatearen aurka, umeak ere eramaten dituzte: azken datuen arabera, munduan, 300.000 ume behartzen dituzte armadan parte hartzera, gehienak Afrikan. Pentsatzekoa da azken urteotako desplazamenduak eta hildakoak tarteko, hizkuntzen egoera okerrera egingo zuela, eta, agian, baten bat desagertu egingo zela²⁸.

Kasu horietan ikusten denez, Afrikak jasandakoa ez dira kolonizazio berria – neokolonialismoa–, baizik eta kolonizazio berbera, aldian aldiko ezaugarritz bustitzen bada ere. Kolonizazio garaitik gerrak etengabeak dira kontinentean; gaur egun, Kongon, Sudanen, Aljerian, Afrikako Erdialdeko Errepublikan, Somalian, Angolan, Ugandan, Senegalen... bizi dituzte gatazka armatuak, eta horrek eskualde osoetan gizakiak hiltzea eta bititokiz aldatzea dakar.

Askoz toki handiagoa eskaintzen diete hedabideek Terrorismoaren aurkako Gerraren mozorropean gertatzen ari diren gatazkei. Lehen esan bezala, Terrorismoaren aurkako gerra ez da Gerra Globalaren zati bat baino, IV. Mundu Gerraren atal bat, hain zuzen. Are gehiago, arabiarren/musulmanen²⁹ aurkako erasoak horren zati dira, ez osotasuna. Izan ere, sakon-sakonera ere ez da joan behar Kolonbiako gerran eta Afganistango gerran logika inperialista global bera dagoela ikusteko, gatazka horiek tokian tokiko berezitasunak badituzte ere. Izan ere, 2001eko irailaren 11ko atentatuen aurretik, narkoterrorismoaren aurkako gerraren diskurtsoa zebilen bolo-bolo (eta, horren aurretik, komunismoaren aurkakoa), eta, atentatuen ostean, diskurtsoa egokitu egin da, behar den ukitu ideologikoa emanez izena aldatuta, historiaren garai berria datorrela iragarri nahian-edo.

Gerra horietako datuak hotzak bezain ikaragarriak dira. Irakeko kopuruak, horren adierazgarri.

Sadam Hussein boteretik kentzeko gerran eta horren ondorengo okupazio gerran zenbat hildako egon diren jakitea ez da erraza. Informazio iturrien arabera, 45.000tik 656.000ra doa kopurua³⁰. Desplazatuak, aldiz, milaka dira: NBEren arabera, 1.900.000 Irak barruan bizitokiz aldatuak, 1.200.000 Siriara joanak, 750.000 Jordaniara, 200.000 Golkoko estatuetara, 100.000 Egiptora, 54.000 Iranera, 40.000 Jordaniara eta 10.000 Turkiara. Guztira, zortzi irakiarretik batek etxea utzi behar izan du.

Afganistan, Kaxmir, Txetxenia, Filipinas, Palestina eta beste hainbat tokitako terrorismoaren aurkako gerran, ez dago jakiterik zenbateko giza hondamendia gertatu den, eta, are gutxiago, gerrak hiztun komunitateetan zenbateko eragina izan duen. Gerra

²⁸ Ethnologuaren arabera, zortzi hizkuntza daude desagertuta Sudanen, baina datu horiek 1989koak dira.

²⁹ Europarrok eta estatubatuarrek ez ditugu batere ondo bereizten, eta bata zein bestea erabili ohi dugu, askotan zer den zer jakin barik.

³⁰ The lancet mediku aldizkariak eman du orain arteko kopururik handiena (665.000); Txikiena, berriz, Irak Body Count proyekt erakundeak (45.000), baina 2005. urtearen amaierako datuak dira, eta zerraldoak hartzen dituzte kontuan. Beraz, zerraldorik gabe hildakorik ez dute zenbatzen.

aurretik ere, datuak oso lausoak eta orokorregiak ziren, eta bake urte asko etorri beharko dute, behar bezalako azterketak egiteko.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da gerraren logika globala denez, mugez gain egiten duela eta hiztun komunitateek mugaz gain ere jasaten dutela jazarpena, hizkuntza jakin batean hitz egiteagatik. Adibidez, arabieraz mintzo direnak ez daude ondo ikusita hainbat herrialdeetan, terroristen hizkuntzaz mintzo direlako. Hori beste kultur/ohitura adierazpen batzuekin ere gertatzen da; beloarekin, adibidez. Jarrera horiek zabaldu egin dira herrialde garatuetan, eta badu eraginik haien hizkuntz eskubideekiko estatu boteretsuek hartzen duten jarreran. **(IKUS GIZA DESPLAZAMENDUAK (I) MIGRAZIOAK)**

f. Gerra nazionalak

Nazionalismoak estatu barruko kultur uniformizazioa eta indarkeria bidezko asimilazioa bultzatu izan du mendez mendez, eta hainbat nazio gatazka gaurdaino iritsi dira, ehunka urteko borroken ondoren. Ricardo de La Encina soziologo espainiarrak adibidez, dio globalizazioak nazionalismoa indartu egin duela, eta, horren ondorioz, estatuen nazionalismoaren eta estaturik gabeko nazionalismoen arteko ezin ikusia handitu egin da.

[Nazionalismoa] birsortu baino gehiago, fenomeno ziklikoa da. Zenbait garaitan, baldintzak direla eta, nazionalismoa lokartuta dago. Baina, gero, berriz esnatzen da. Hori etengabea izan da. Eta, egun, globalizazioarekin, nazionalismoa ez da lokartu, ez dago zaharkituta, batzuek esaten duten gisara. Guztiz alderantzizkoa da, berpiztu egin da. **ELKARRIZKETA BERRIAN**

De La Encinaren ustez, nonahi ikusten da herriak matxinatzen ari direla (Tibeten, Afrikan, Hego Amerikan, Europan), eta hori globalizazioak beste herri batzuk ezagutzeko aukera ematearen ondorio da. Izan ere, soziologoaren ustez, ezberdintasunak aztertuz, norberaren ezaugarriak balioesten dira, eta horrek kontzientzia globala indartzea dakar.

Estatuek, aspalditik egin duten bezala, herrien matxinadari aurre egin diete, eta, horretarako, terrorismoaren aurkako mundu gurutzadaren diskurtsoa baliatu dute, beren mugez barruan estrategia suntsitzaileak gauzatzen jarraitzeko. Estatu barruetako gerren adibide hauetan ikusiko dugu gerra horiek duten jarraikortasun historikoa:

- Errusian, oroks etniaren aurkako suntsitze politikak ez du etenik izan azken mendean, eta etnia galtzear dago, 200 lagun inguruk osatzen baitute. Sobiet Batasuna eratzean, lurrak kendu zizkieten, industria eta enpresa handiei tokia egiteko, eta, gero, SB desagertzean, egoerak ez du onera egin: estatuak indigenen hizkuntza, kultura eta bizimodua debekatuta du oraindik, eta familia osoak etxeetatik atera, euren lurretatik aldendu eta hirietako auzo pobreetara eramaten dituzte. Haurrak AEBetan ikusi dugun ereduaren antzeko eskoletara sartzen dituzte.
- Kurdistanen, globalizazioaren garaian, historiaren hastapenetik datorren sarraskiari segizioa eman diote. Turkiaren aldean, bi oinarri izan ditu suntsitze

estrategiak: herri kurduak jendez hustea eta hilketak. 1987tik aurrera, armadak 4.000 herri inguru hustu ditu eta 3.500.000 lagun kanporatu. Horrez gain, lehenbiziko herri kurdua hustu zutenez geroztik, 70.000 pertsona hil dira, giza eskubideen urraketen ondorioz, eta, 1993tik 1998ra bitartean, Estatuko segurtasun indarrek eta hainbat talde parapolizialek 5.000 lagun hil dituzte. Beste estatu batzuen mende bizi diren kurduak ere badute zer hobetua: Siriako aldean bizi diren kurduak arabiartzeko masiboa jasan dute, Irangoei autonomia ukatu diete behin eta berriz, eta Irakekoak, autonomia izan arren, gerra gorrian bizi dira. Errusiakoak, aldiz, 350.000 inguru dira, baina ez dira lurralde jakin batean bizi, eta nahiko nahasirik daude azeriarrekin eta armeniarrekin. Kurdua da estaturik gabeko nazio handiena munduan, eta hiztun gehien duen hizkuntza gutxituetako bat, baina, adibide gordin honetan ikusi dugunez, hiztun asko edukitzeak ez du esan nahi etorkizuna bizirik irautea bermatuta dutenik, nahiz eta etengabeak diren kurdueraren aldeko ekimenak hedabideetan, kurduen mendeko udaletan...

- Indian, Naga herriak Asiako gatazkarik zaharrena pairatzen ari da, nahiz eta 1997tik erabat gauzaten ez den su-eten egoeran egon: 200.000 hildako izan ondoren, 2.000.000 lagunek osatzen dute herria. 1950eko hamarkadan, desobedientzia zibilaren bidez, zergak ordaindu ez, Indiako estatu eskoletara joateari muzin egin eta Gobernuaren instituzioak erabiltzeari uko egin zieten, eta Indiako hauteskundearen eta konstituzioaren aurkako boikota jarri zuten abian, eta Indiak milaka hildako eraginez *ezarri* zuen bakea. Nagako jatorrizko hizkuntza angamia da, eta 60 dialekto baino gehiago ditu.
- Myanmarren (garai bateko Birmanian), KNLA Karen Askapen Nazionalerako Armadak hogeitaz urteko borroka darama armadaren aurka, militarren gobernuaren eta shan etniaren eta beste hainbat sarraskitzen ari delako, estatu berrian arraza bakarra sortzeko. Gerraren ondorioz eta Thailandiaren utzikeriaren ondorioz, 50.000 eta 200.000 lagun inguru bizi dira bi estatuen arteko mugan – iturrien arabera aldatzen da kopurua –, naziotasunik eta nortasunik gabe, inork ez baitu haien ardura bere gain hartu nahi. Horietako asko etnia gutxituetakoak dira, tartean karen hizkuntz familiarako hiztunak. Karen hizkuntzen %50ek 10.000 hiztun baino gutxiago zituen azken azterketen arabera, eta pentsatzekoa da arrisku larrian daudela.
- Boskimanoek ere badakite mendez mendeko gerra zer den. Afrikako herririk zaharrena dira, garai batean milioika ziren arren, gaur egun 100.000ren bueltan daude. 20.000 urtez Kalahari basamortuan bizi izan dira, 2002an Botswanako gobernuak han erreserba bat egitea erabaki eta joateko agindu zien arte. Beren borrokari eta nazioarteko iritzi publikoaren presioari esker, Botswanako Auzitegi Gorenak beren lurretara itzultzeko eskubidea eman zien, baina beldurratetik, zazpitik bat bakarrik itzuli da. Izan ere, errepresioa latza da: epailearen agindurik gabeko atxiloketak eguneroko ogia dira. Egoera irauli ezean, boskimanoak apurka-apurka bizidun izatetik iraungitako giza talde izatera pasako dira.

Zerrenda amaigabea da, horiek bezalako nazio gatazkak dozenaka baitaude munduko hamaika batzerretan: Aljerian (tamazighak), Butanen (Nepal), Indonesian (Papua),

Txinan (Sin-Kiangeko Uigur eskualde autonomoa eta Tibet), Argentinan (wichiak), Sri Lanka (tamilak)...

Gatazka horietan globalizazioak ekarri duen berrikuntza bakarra estatuez gaindiko erakundeen esku hartzea da. Izan ere, globalizazioaren ondorioz estatuak indargabetuz joan direnez, estatuez gorako erakundeek estatuaren boterea bereganatu dute, eta gerretako alderdi bilakatu dira, batzuetan gerrak euren eta tokiko komunitateen artekoak izateraino; betiere, estatu euren alde dutelarik (**IKUS BOTERE ALDAKETA ETA ENPRESAK**).

Kasurik ezagunena Nigerreko ogoni herriarena izan zen. 1950etik Shellek 30 mila milioi dolar atera zituen petroliotatik ogonien lurretatik. Baina ogoni herriak ez zuen aberastasun hori usaindu ere egin: iturriko urik eta argindarrak gabe bizi ziren. 1995ean, enpresak egindako arpilatzearen aurka egiteko, Ogoni Herriak Bizirik Irauteko Mugimendua sortu zen eta kanpaina bat jarri zuen abian, Shell petrolio konpainiaren aurka, Ken Saro-Wiwa idazlea buru zelarik. Amnesty International erakundearen arabera, protestei aurre egiteko, Shell transnazionalak nahierara erabili zuen Nigerreko armada, eta zuzenean ordaindu zien soldaduei herritarren protestak zapaltzeko. Azkenean, Saro-Wiwa eta mugimenduko beste buruak preso hartu, epaitu eta hil egin zituzten nazioarteko iritzi publikoa eta estatu batzuk (Kanada, Australia, Frantzia, Alemania...) aurka bazituzten ere (KLEIN, 2005)

Gatazka hura mugarri izan zen, transnazionalen esku hartzea agerian geratu baitzen mundu osoaren begien aurrean, eta, hortik aurrera, hainbatek transnazionalak gerra sortzaile eta bultzatzailetzat hartu dituzte. Transnazionalen helburua natura baliabideak eskuratzea da (gasa, petrolio, ura, lurrak...)³¹, eta, horretarako, estatuaren ahulezia gero eta handiagoa denez, zuzenean hartzen dute parte errepresioan, bitartekaririk gabe edo estatua euren interesen mende jarritz. Amnesty Internationalen arabera, India hizpide duela, garapena giza eskubideen bizkar ari da lortzen, eta estatua interes horien mende dago.

Kasu horiek erakusten dute zenbateraino dauden Indiako estatuko eta nazioetako agintariak estatuaren indarra erabiltzeko, garapen proiektuen alde, askatasunen aurka (asoziazio askatasuna, adierazpen askatasuna edota elkartzeko askatasuna). Indiako zonalde askotan, ekonomia liberalizatzeko eta industriak eta azpiegiturak garatzeko neurriek komunitateak tokiz aldatzea ekarri du, baita giza eskubideen urraketa gehiago ere (KLEIN, 2005).

g. Gerraren logika eta hizkuntz aniztasuna

Globalizazioaren garaiko gerrei eta gatazkei buruzko atalka bukatu aurretik, ezinbesteko deritzot bi ñabardura egiteari, gaizki ulertuak alde batera gera daitezten.

Batetik, ezaugarrien araberako sailkapena egin badugu ere, gehienetan ezaugarri guztiak nahastuta agertzen dira. Kolonbiako U'wa herriaren aurkako gerran, adibidez, ezaugarri horietako asko biltzen dira: europarrek abian jarritako sarraskitze gerra da, natur baliabideak eskuratzeko gerra da, petrolio transnazionalek esku hartze zuzena dute,

³¹ "Informe Lugano" liburuan, halako gatazkei *ekogatazka* deitu die Susan Georgek (GEORGE, 2001).

Kolonbiako estatuaren asimilazio gerra ere badago... Gauza bera esan daiteke hizpide izan ditugun eta sailkapenetik kanpo geratu diren gerrez.

Bestetik, inork pentsatzen badu, bereziki hizkuntza gutxituen egoerari erreparatu diogulako gatazkak hizkuntz aniztasunarekin lotuta daudela edota gatazkak hizkuntz ukipenak eragiten dituela, oker dago. Hau da, eremu jakin batean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiteak ez du berez gatazkarik sortzen, eta, alderantziz, hizkuntza bakarreko herrietan ez dago bakea “ziurtatuta”. Vanuatu da munduan hizkuntz dentsitate handiena duen estatua: 150.000 biztanle ditu eta 100 hizkuntza inguru. Horrek ez du sortu inolako gatazkarik edo gerrarik herrialdean. Aldiz, azken hamarkadetan ezagutu ditugun gerra ugari eremu elebakarretan izan dira: Yugoslavian, hizkuntza bakarra zegoen (serbo-kroaziera), eta estatu berrien sorrerak ekarri du hizkuntza gehiago sortzea (serbiera, kroaziera, bosniera); Ruandan tutsien eta hutuen arteko liskarrean ez dago hizkuntz motiborik, bi talde etnikoek hizkuntza bera hitz egiten baitute; Somaliako gerran, etnia, erlijio eta hizkuntza bakarra dute, eta klanak dira elkarren aurkako gerran dabiltzanak; Ipar Kaukaso herrialdeetan hizkuntz aniztasun handia dago, Txetxenian izan ezik, eta, hain zuzen ere, hantxe dute gerrarik handiena. Izatekotan, gerrarako edo gatazkarako arrazoiak ez da eremu berean hizkuntza bat baino gehiago egotea (ez eta erlijio, ideologia edo etnia ugari egotea ere), baizik eta hizkuntza bat bestearen gainetik ezarri nahi izatea (erlijioarekin, etniekin edota ideologiekin gertatzen den bezalaxe).

h. Bestelako “gerrak”

Nolanahi ere, gerra eta gatazkei buruzko atala ezin da amaitutzat eman, bestelako gerrei buruzko aipamenik egin gabe. Berthold Brechek esan bezala, hiltzeko era ugari dago, eta ez dirudi astakeria denik esatea globalizazioaren baitan hainbat esparrutarako diseinatutako politikak gerraren logika daramatela. Gosea, gaixotasunak, mediku falta, krisi ekonomikoak... Datuetan okagarrienak gosearen gainekoak dira: 850 milioi lagun goseak bizi da munduan, horietatik 300 milioi haurrak, 28.000 haur hiltzen dira egunero... Angel Olanar misiolaria Etiopian aritu da pobreziaren aurka lanean, eta, haren ustez, gosetea ez da gertaera naturala.

Gosea erabat planifikatuta dagoen genozidioa da. Gosea amaitzen ez bada, interesik ez dagoelako da. Nazioarteko sistema ekonomikoa kriminala eta hiltzailea da. [...] Multinazionalen filosofia hau da: mozkinak ateratzea. kosta ahala kosta. Multinazionalak garatu gabeko herrialdeetan ezartzen dituzte langileak, eta lau txanponen truke, baldintza ezin okerragoetan, emakumeak eta haurrak kontratatzen dituzte, eta ezin garestiago saldu. Sistema hau da pobreziaren erantzulea. Ez dago mugarik. Afrikaren goseak ez du kezkatzen nazioartea. Ekonomia eta segurtasuna dira Lehenengo Munduaren kezkak: boterea, alegia. Hegoaldean gertatzen ari dena alde batera utzita bizi gara Iparraldean (Berria, 2006-10-22).

Gosearekin batera, beste gaitz batzuk sar ditzakegu azalpen horren baitan: gaixotasunak (hiesa, tuberkulosia, diabetesa, gripea, malaria, kolera, sukar horia, hepatitis, sukar tifoidea...), hondamendi ekologikoak (lurrikarak, uholdeak, tsunamiak, desertifikazioa, lehorteak...), zapalkuntza (esklabotza, gizakien trafikoa...) eta abar. Horregatik, hizkuntzen egoera, gutxituak izan ala ez, hiztunen egoeraren mende dago gehienbat, eta, hiztunak ondo ez badaude, jai dute hizkuntza suspertzeko ahalegin guztiek. Ideia

horrekin bat egiten dute hizkuntzalari gehienek. Hona hemen zer dioten Matthew McDaniel Tailandia eta Laoseko akha tribuarekin lan egin duen giza eskubideen aldeko ekintzaileak eta Marie Rhydwen hizkuntzalariak, hurrenez hurren.

Jende honek betiko laguntza behar du, seme-alabak bizirik iraun ahal izateko, hizkuntza bat ikasi ahal izateko nahikoa denbora bizi daitezen. Hementxe gaude haurrak zer azkar hiltzen diren jakin nahian [...] eta neure buruari galdetzen diot hizkuntza baten inbentarioa egiteak zerbaiterako balio ote duen, txabola bazter batean hiru hileko neskatxo bati begiratu behar diozunean, behin eta berriro erabat alferrikakoa sentitzen zaren bitartean.

Oinarrizko premiak bete gabe (hotzetik babesteko ezer gabe, eta elikagairik, segurtasunik eta garbitasunik gabe), ematen du hizkuntza kontserbatzea edota suspertzea azaleko luxua dela (CRYSTAL, 2001).

GIZAKIEN DESPLAZAMENDUAK

Hizkuntzetan eragin zuzena duten faktore garrantzitsuenetako bat gizakien desplazamendua da, desplazamenduak edozein motatakoak direlarik ere. Atal honetan, bi desplazamendu mota nagusiak aztertuko ditugu, hizkuntzetan –eta, bereziki, hizkuntza gutxituetan– duten eragina zer-nolakoa den ikusteko.

Sarri askotan aparte ageri badira ere, migrazioak eta turismoak oso lotura estua dute. Izan ere, turismoa eta migrazioa, espazioan mugitzeko bi desplazamendu mota baino gehiago, desplazamendu mota beraren bi aldaera dira: botere hierarkian, goitik behera egiten du desplazamendua “turistak”, eta behetik gora “etorkinak”. Botere hierarkia mundu mailan nagusi den ustiaketa prozesuen arabera eratuta dago, eta hor, zalantzarik gabe, eragina dute hizkuntza nagusiak ezartzeko mekanismoek. Desplazamenduek hierarkiaren arabera kokapena duten bi giza elementu –gizabanakoak, giza taldeak, komunitateak...– harremanetan jartzen dituzenez, ezinbestekoa izango da hizkuntz ukipeneko kasu horietan botere harreman hori kontuan hartzea. Botere harreman horretan, hainbat ezaugarri hartu behar dira kontuan, zuzenean eta zeharka hizkuntzarekin zerikusia dutenak: desplazatuaren jatorria, gizarte hartzailea, desplazatuak jasandako jazarpen edo errepresio egoerak, hizkuntza batean hitz egiteko aukerak, hizkuntz subiranotasuna...

Globalizazioak bi desplazamendu motak indartu ditu; gero eta gehiago dira herrialde batetik bestera edo herrialde baten barruan batetik bestera doazenak, bai “etorkinak”, bai “turistak”. Migratzaileek, behetik gorako desplazamendua egitean, tokian tokiko botereek edota botere globalek mugak, hesiak eta arrisku biziko egoerak pairatzen dituzte; turistei, aldiz, bidea errazten diete bisitan ezagutu nahi duten tokira iristeko, turisten aurkako jarrerak mundu osoan indar handia hartzen ari badira ere. Mugak eta hesiak bi motatakoak izan daitezke: fisikoak (harresiak, herrialdeen edota kontinenteen arteko mugak...) eta bestelakoak (kulturalak, psikosozialak...). Hain zuzen ere, hizkuntza da bestelako horien arteko muga nagusienetakoa, eta atal honetan horixe landuko dugu.

GIZAKIEN DESPLAZAMENDUAK (I) MIGRAZIOAK

Egia bada *homo sapiens* Afrikan duela milaka eta milaka urte sortu zela dioen teoria –eta azken aurkikuntzek hori indartu dute– denok gara etorkinak; denok gara afrikarrak. Batzuk lehen edo bigarren belaunaldiko afrikarrak gara; beste batzuk, 60, 250, edo 14.200. belaunaldikoak.

Jose Mari Pastor, *Denok gara afrikar kirastuak*

i. Sarrera

Gizakiaren historia migrazioen historia da neurri handi batean. Herrialde guztiek eta historiako aldi guztiek jasan dituzte migrazio fenomenoen ondorioak, bai herrialde hartzaileak izan direlako, bai herrialde igorleak izan direlako. Gaur egun, munduko sistema ekonomiko desorekatuaren ondorioz, *Hirugarren munduko* herrialdeak dira migratzaile gehien igortzen dutenak, baina beste garai batzuetan europarrak izan ziren beren herrialdea utzi eta bizitza hobea baten bila beste nazio batzuetara joaten zirenak.

Gaur egun migrazioa eta migrazioari lotutako gaiak gizateriak dituen arazorik larrienetakoak dira; batez ere, migratzaileek dituzten bizi baldintzengatik eta horrek sortzen duen gizarte desorekarengatik. Gainera, migratzeko arrazoiek sufrimendu handia eragiten duten fenomeno historikoekin dute lotura: gerrekin, konkista eta aurkikundeekin, kolonizazioarekin, esklabotza eta esklaboen trafikoarekin, arrazakeriarekin... Nolanahi ere, migrazio fenomenoak gero eta konplexuagoa da, Josu Oskoz eta Arantza Chacon SEADekin solidarioak taldeko kideek diotenez:

Gaur egun, globalizazio neoliberal betean, migrazioak gero eta konplexuagoak bihurtzen ari dira; gatazka armatuetatik edo giza eskubideen urraketa masiboetatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuei, edo herrialdean bertan lekuz aldatuei, beste pertsona batzuk gehitu behar zaizkie, Mendebaldetik egitez edo egin ezaz sortzen lagundu dugun miseriatik ihesi, bizimodua hobetzeko aukera ekonomikoen bila, beren lurraldeetatik urrunera migratzera behartuta daudenak, hain zuzen ere (OSKOZ eta CHACON, 2007).

Nazioarteko migratzaileen kopuruetan, alde handia dago batzuen eta besteen kalkuluen arabera; izan ere, migratzaile asko prekaritatean eta legez kanpo mugitzen direnez, ez dago datu zehatzik ematerik. Nolanahi ere, migrazioaren fenomenoaren atzean ez dago bakarrik herrialde hartzaileetako lanpostu kaskarren bila datozen migratzaileen fenomenoak –nahiz eta, hedaturaz, hori bakarrik hartzen dugun kontuan–; beste fenomeno batzuk ere badaude: “garun ihesak” –pertsona argienek jatorrizko herrialdeak uztea eta herrialde garatuetara jotzea–, kultur migrazioak –euren bizitzen parte diren migrazioak; nomadenak, adibidez–, hondamendien ondoriozko migrazioak... Horiek guztiek eragin zuzena dute hizkuntzetan, nagusietan zein gutxituetan.

Hizkuntza aniztasunaren historiak erakusten du hizkuntza-lurraldea loturan gertatzen diren aldaketak funtsezkoak direla hizkuntzen bizitzan: halako eragina dute, non, adibidez, herri nomadak sedentario bihurtzeak hizkuntz aldaketa baitakar askotan; halaxe gertatu da, esaterako, Errumaniako ijitoen kasuan, eta Nigeria iparraldeko fulani-enean, eta Amazonas oihaneko maku-enean, besteak beste (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Hain zuzen ere, globalizazioak ekarri duen ondorioetako bat herri nomada gero eta gutxiago izatea da, eta horrek berebiziko paradoxa jartzen du agerian: kapitalak eta salgaiak gero eta libreago mugitzen dira munduan, eta gizakiak, migrazio fenomenoaren baitan desplazatzen direnak behintzat, gero eta murriztapen gehiago dituzte.

Zenbait adituk diotenez, mundu osoan migrazioaren aurkako trabak kentzea, onuragarria izango litzateke denontzat epe luzean. Beste batzuk, aldiz, ez daude planteamendu horrekin ados: egoera horrek soldatek behera egitea eragingo luke, baita langileen lan eskubideetan ere okerrera egitea ere. Azken horien iritzia indartzen du garapen teknologikoak gero eta lanpostu gehiago suntsitzeko duen joerak.

XIX. eta XX. mendeetako migrazio fluxuak alderatuz, migrazio joerak aldatu egin direla konturatuko gara³².

XIX. eta XX. mendeetan:

- Europatik Amerikarako migrazioa:
 - Espainiatik Txile, Argentina, Uruguai, Kuba, Venezuela eta Mexikora
 - Italiatik Argentina, Uruguai, Venezuela eta AEBetara
 - Alemaniatik Argentina, Uruguai, Txile eta AEBetara
 - Irlandatik AEBetara
 - Erresuma Batutik AEBetara
- Judutarren migrazioa, Europa, Asia eta Afrikatik Amerikara
- Libanoko diaspora, Amerikara eta Europara
- Txinatik eta Japoniatik Perura

XXI mendean:

- Latinoamerikatik AEBetara
- Saharaz azpiko Afrika, Maroko, Ekuador, Peru, Argentina, Kolonbia, Errumania eta Txiletik Espainiara
- Albanatik eta Saharaz azpiko Afrikatik Italiara (Libia eta Tunisiatik barrena)
- Marokotik eta Saharaz azpiko Afrikatik Frantziara
- Pakistan eta Indiatik Erresuma Batura
- Txina eta Filipinetatik Japoniara
- Turkiatik Alemaniara

Lan honen aztergaia hizkuntzak direnez, eta, bereziki, hizkuntza gutxituak, garrantzitsua da ikustea herrialdetik herrialderako migrazioak hiztun multzo handien migrazioak ere badirela neurri handi batean. Horren ondorioz, AEBetako bigarren hizkuntza gaztelania da, Frantzia arabiera, Alemanian turkiera, Erresuma Batuan hindia...

Fernando Garrido Espainiako Madrilgo Complutense Unibertsitateko soziologiako irakaslearen ustez, datuon atzean bi errealitate daude:

- Ikuspuntu geografikotik, migrazioak inoiz baino hedatuago daude, sekula baino toki gehiagotara iritsi direlako, baina kopuruz ez dira inoizko handienak, joan den mendeetan biztanleen %16k alde egiten baitzuen zenbait herrialdetatik. Fenomeno horri “migrazioen globalizazio” esaten dio Garridok.
- Migrazioak ez dira soilik Hirugarren Mundutik Lehenengo Mundura egiten, Hirugarren eta Lehen Munduko herrialdeen barruan ere egiten dira. Horregatik,

³² Datuok wikipediatik aterata.

Hegoaldetik Iparrerako edo Periferiatik Zentrorako migrazioez hitz egitea kontzeptu zaharrak erabiltzea da. Ignacio Ramonetek dio artxipelagoen ereduaren arabera egituratutako munduan bizi garela (**IKUS GLOBALIZAZIOA DEFINITZEN**), eta horrek antza handiagoa du egungo egoperarekin.

ii. Urbanizazioa

Aurreko paragrafoan iradoki denez, askotan, migrazio fluxu globalek ez digute uzten nekazal guneetatik hirietarako migrazio fluxuak ikusten; nolabait esateko, basoak ez digu zuhaitzak ikusten uzten. Hiriranzko migrazioari buruz aritzean, adituek “Erakarpen-aldentze teoriak”³³ mintzo dira: batetik, nekazal eremuetatik alde egiteko arrazoiak daude, eta, bestetik, hirira joatekoak. Zein baino zein indartsuagoak dira, eta errealitatean nahasturik ageri bazaizkigu ere, bitan sailkatu ditugu.

Nekazal eremuetatik alde egiteko arrazoi nagusiak:

- Enplegua lortzeko aukera gutxi edo beste aukerarik ez izatea
- Hezkuntzarako aukera nahikorik ez izatea, zerbitzu gutxi edukitzea
- Nekazaritzaren garapen teknologikoaren ondorioz lanpostuak gutxitzea

Hirietara joateko arrazoiak nagusiak:

- Aukeran lanpostu gehiago egotea
- Zerbitzu gehiago eta hobeak izatea
- Prestakuntza txikiko lanpostuak eskuratzeko aukera gehiago izatea

Horiek guztiak, egia izan ala ez, bizimodu berri batekiko lilura dakar, lanpostu eta bizitza hobeak lortzeko itxaropena, eta horrek, askotan, jatorrizko kultura eta hizkuntza baztertzea dakar (MARTI eta beste batzuk, 2005)

Fernandez Duranen aburuz, argi dago urbanizazioa ez dela prozesu naturala izan, botereak bultzatutakoa baizik.

Gero eta jende gehiago hirietan kontzentratzea botere egituretatik bultzatutako prozesu historiko askoren ondorioa da (besteak beste, lur eta natur baliabide komunalez jabetzea), eta, horren ondorioz, giza komunitateak inguruarekin zuten aspaldi-aspaldiko lotura galduz joan (KUCCHARZ, 2004).

Hizkuntzari dagokionez, eta orokorrean hitz egiteak dauzkan arriskuen jabe, honako hau esan dezakegu, hanka-sartze handirik egiteko beldurrik gabe: zenbat eta hurbilago egon hiritik, orduan eta aukera handiagoa hizkuntz aldaketarako, adibide hauek erakusten dutenez (MARTI eta beste batzuk, 2005)

Bistakoa da hizkuntza hau gurasoengandik seme-alabengana transmititzen dela. Dena dela, hiri handietan –adibidez, Pucallpan edo Yarinacochan– bizi den jende askok, 2.000 biztanle inguruk, dagoeneko ez dute bere

³³ *The push-pull theory*, ingelesez.

hizkuntza transmititzen; gaztelaniak ordezkatu du haien hizkuntza (shipiboera, Perun).

Hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, bereziki landa inguruneetako biztanleen artean. Aldiz, hiriguneetan bizi direnek swahilia edo ingelesa transmititzen dute, beren hizkuntzaren ordezkari (logooli, Kenia).

Oro har, bai [transmititzen da hizkuntza], baina hiri askotan familiak seme-alabei Magrebeko arabieraz hitz egiten hasi dira, haurrei eskolatzeko prozesua horrela errazagoa izango zaielakoan. Indarrezko arabiarren prozesu horren ordezkari, hispanizazioa gertatzen da Melillan bizi diren berbere familietan (tamazight, Maroko).

Hizkuntzak iraun egiten du familietan, baldin eta hiri handietan bizi ez badira edo etnia desberdinetako kideen arteko ezkontzarik ez bada (songorong, Txina).

Batzuetan, hiri eremuetarako migrazioaren ordezkari urbanizazioa bertaratu egiten da, Fredi Paia adibide honetan azaltzen duenez.

Bizkaian gertatutako tragedia greziarra. Lemoizko Andreaka auzo erabat euskaldunetan, etxebizitzarik eraikitzeko baimenik ez zuen izan berrogeita hamargarren hamarkada osteko belaunaldiak. Ondorioz, herritik kanpora bizitzera joan behar izan zuten; gehienak Mungia joan ziren eta gainontzekoak Getxo ingurura. Orain urte gutxi txaletak eraikitzen hasi zen Bilbo eta Getxo inguruko jendea. Bertako aitite-amamekin batera, ospa egin behar izan zuen belaunaldiaren lekua hartu eta, biologiak agintzen duenean, Andreakako biztanle bakar bihurtuko dira.

Adibide bat baino ez da, baina gure geografiako leku askotan jazotzen dabilen anomalia kulturala islatzen du. Ordezkari horrek sortzen dituen ondorio ugarietatik, bakarrean zentratu gura nuke (PAIA, 2007).

Etengabeko urbanizazio prozesua dela-eta, zenbait adituk –Ibon Sarasola euskaltzainak, adibidez– diote hizkuntza gutxitua hiri eremuetan berreskuratu behar dela. Neurri batean egia da hori, baina ez da ahaztu behar eutsi lanada eremuetan eutsi behar zaiola, eta hiri eremuetan ahaleginak eginagatik ez dela beste eremurik ahaztu behar. Izan ere, urbanizazio prozesuek desoreka itzela eragiten dute bi eremuen artean, bai biztanle kopuruan, bai zerbitzu aldetik, baita mentalitate aldetik ere, gauza edo prozesu garrantzitsuak hirietan bakarrik gertatzen direla pentsatzera bultzatzen baikaituzte pentsamenduan eragiteko zabaltzen diren mekanismo ideologiko global nagusiek.

iii. Makrohiriak eta eleaniztasuna

Egun indarrean dagoen sistema ekonomikoaren ondorioz, hiri mota berri bat ari da nagusitzen mundu osoan: makrohiriak, miloika eta milioika biztanle dituzten metropoli erraldoiak. Pobreziari lotuta, jaiotza tasa ikaragarri handitu da –batez ere, herrialde azpiaratuak–, eta gizaki horietako gehienek hiri handiek *xurgatu* dituzte. Aurreneko aldiz historian, XXI. mendearen hasieran, jende gehiago bizi da hirietan nekazal eremuetan baino, baina hori ez da guztia: NBERen kalkuluen arabera, 1.000 milioi lagun makrohiritako bazter auzoetan bizi dira, pila-pila eginda, ur edangarririk gabe,

argindarrrik gabe, oinarrizko osasun baldintzarik gabe... Afrikan bakarrik 332 milioi lagun bizi dira txabolatan. XXI. mendeko *hondakin humanoak* dira, Joseba Azkarraga Etxegibelen hitzetan (AZKARRAGA, 2007b). Munduko toki guztietan izen bereziak hartzen dituzte auzo horiek: *slums*, *bidonvilles*, *ranchitos*, *villas-miseria*, *desakotas*, *geçekondus*, *favelas*...

Hizkuntzez ari garelarik, makrohirien fenomenoak garrantzi handia du; izan ere, makrohirien egiturak botere egoera bat islatzen du, zentro eta periferia bat, bazterketa sozial bat, hierarkia ekonomiko-sozial bat... Bazter auzoak, migratzaileak bereganatzen dituzten heinean, gune eleanitz bilakatzen ari dira, bertan pilatzen baitira kanpotik makrohiritara iristen diren beste hizkuntza batzuetako hiztunak. Horren ondorioz sortutako hizkuntz egoerak bi ezaugarri nagusi ditu: batetik, hizkuntza eta hiztun ugari pilatzen dira oso eremu txikian, inguru eleanitzak sortuz, eta, bestetik, globalizazioaren arabera hierarkia ekonomiko-sozialean maila berean edo bertsuan daudenez, parez pareko harremanen bidez hizkuntza mistoak sortzen dira. Fenomeno hori, beraz, eleanitzasun horizontalaren adibiderik onenetakoa dugu, eta oso gai interesgarria globalizazioak hizkuntzetan dituen ondorioak aztertzeko.

Hirietako antolaketaz eta gune eleanitzez ari garelarik, makrohiria izatera iritsi gabe, adibide adierazgarria dugu Bilbon, San Frantzisko auzoan. Segur aski, ez da Euskal Herri osoan beste gunerik izango Bilboko auzo horretan adina hizkuntza hitz egiten denik, ezta makrohirien ezaugarrietara hainbeste hurbiltzen denik ere. Hizkuntz aniztasuna zenbaterainokoa den ikusteko, mintzaleku bateko egoeraren berri ematen digu Beatriz Diazek:

Telefono kabinaren barruan, nork bere hizkuntza darabil. Kanpotik, elkarriketen oihartzunak entzuten dira, eta hamar hizkuntza dira: gaztelania (Kolonbiako emakumezko gazte bat), kitxua (Ekuadorreko emakume bat), wolofera (Senegaleko gizonezko gazte bat), sererea (Senegaleko beste mutil bat), ingelesa (Liberiako mutil gazte bat), Nigeriako pidgina (Nigeriako emakume bat), Marokoko arabiera (Marokoko andre bat), txinera mandarina (Txinako gizon bat), errusiera (Errusiako emakume bat) eta euskara (agure bat) (DIAZ, 2004).

Egoera eleanitz hori ez da goitik behera ezarria, ez da estatuen edota autonomia erkidegoen hizkuntza politika jakin baten ondorioa, ezta kulturartekotasunean oinarritutako kultur politika baten ondorioa ere, baizik eta migrazioen globalizazioen ondorioa, eta edozeinek ikusteko moduko irakaspena uzten digu agerian: migrazioen globalizazioaren fenomenoak erakunde publikoen hizkuntz politikaren logikaren gainetik dago. Baina kontua ez da soilik hizkuntza asko egotea, baizik eta hizkuntza horiek elkarrekin harremanetan daudela, eta auzoan bizi direnak hizkuntza horiekin kontaktuan sartzen direla eguneroko bizitzan, Momodu senegaldarraren kasuak erakusten digunez.

Zer hizkuntza ulertzen ditu Momoduk?

Esnatu bezain azkar, Momoduk arabiera klasikoan –Koranaren hizkuntzan– otoitz egiten du. Ateratzeko prestatzen den bitartean, pisukideekin wolofera hitz egiten du, bere ama hizkuntzan.

Etxebeko tabernan kafea eskatzeko, gaztelania erabiltzen du

Azokan, gaztelania erabiltzen du jende gehienarekin. Batzuetan, euskarazko hitzak erabiltzen ditu, bezeroen arabera. Saltzaile

marokoarrekin eta aljeriarrekin frantsesez hitz egiten du, tarteka hitz eta esaldi batzuk arabieraz sartuz. Gaztelaniaz nahikoa erraztasunik ez duten afrikar batzuekin, frantsesez hitz egiten du; betiere, haien jatorrizko herrialdeetan frantsesa hitz egiten badute.

Eguerdian, Momoduk eguneroko “*tiép bu dieng*” platera jaten du (arroza arrainarekin) senideekin. Jan bitartean, gaztelaniazko albistegietako albisteei buruz jarduten dute woloferaz.

Arratsaldeko bostak aldera berriro egiten du otoitz.

Gero, kalera jaisten da urtaroko generorik onena aurkitzeko eta auzoko merkatariekin harremanetan sartzeko. Orduan, wolofera, frantsesa edo gaztelania erabiltzen du, ulertzeko zailtasunen arabera. Une batean merkataria bat baino gehiagorekin elkartzen bada (eta marokoarrak, senegaldarrak eta ijitoak badira), gaztelaniaz mintzatzen dira.

Gauean, futbol partidarik badago, tabernan geratzen da. Partidaren gora-beherak euskaraz edo gaztelaniaz entzungo dituzte, emanaldia ematen duen telebista katearen arabera (DIAZ, 2004)

Ikusten denez, hizkuntza ugari eta komunikazio baliabide ugari erabiltzen dira auzo horietan, bai senideekin eta jatorrizko herrialde berekoekin komunikatzeko, bai harreman sareko beste hizkuntza batzuetako hiztunekin komunikatzeko. Horrenbestez, eleaniztasunean oinarritutako harreman sare bat eratzen da, eta hizkuntz ukipeneko egoera hori oso aproposa da hizkuntzen ezaugarriak aldatzeko.

Aldaketa horien artean, hiru nabarmenduko ditugu: hizkuntz chauvinismoa, hizkuntz ordezkapena, eta hizkuntza mistoen sorrera.

- Hizkuntz chauvinismoa: hizkuntzaren *purutasuna* ez galtzeko, inguruko hizkuntzek norberarena ez *kutsatzeko* eta norberaren hizkuntzaren berezitasuna agerian geratzeko, joera puristak sortzen dira hizkuntzetan. Bi hitzetan esateko, honako jarrera hau hartzen dute puristek: gainerako hizkuntzekin eta, bereziki, aldameneko hizkuntzekin antza izan dezaketen ezaugarriak ezabatu eta berriak sortzea (lexikoan, adibidez). Hizkuntza guztiek dituzte joera puristak, ezinbestean, baina hizkuntzalari gehienak bat datoz ideia honetan: hizkuntza batean jarrera puristak nagusitzen badira, hizkuntza desagertzeko arrisku handiagoan uzten da, besteak beste, hizkuntza purua hiztun askoren hizkeratik gehiegi aldentzen delako.
- Hizkuntz ordezkapenak: hirietarako migrazioak eta horrekin lotuta doan landa/hiri dikotomiak aurreiritzi ugari sortzen ditu, eta aurreiritziek ordezkapen prozesuak indartzen dituzte, gizarteratzea, egokitzea edota asimilatzea hizkuntza nagusiak bere egitearekin lotuta baitaude.
- Nork bere hizkuntza neurritz gabe babestu nahi izatearen (hizkuntz chauvinismoa) eta hizkuntza nagusien boterepean desagertzearen artean (hizkuntz ordezkapena), hizkuntz mistoen fenomeno dago (pidginak, kreolerak eta koineak, adibidez). Fenomeno horien gainean, elkarren aurkako bi jarrera nagusitu dira: batetik, batzuek diote prozesu horiek historian zehar askotan gertatu direla, aberasgarriak direla eta horren ondorio direla ingelesa, gaztelania eta beste hizkuntza asko ere; eta, bestetik, beste batzuek uste dute halako

hizkuntzen zabalkundea galarazi beharko litzatekeela uste dute –spainglisharen edo euskañolaren aurkako borroka, horren isla da–.

iv. Migrazioak eta jatorrizko herrialdeak

Migrazioez eta hizkuntzez hitz egitean, ezinbestekoa da migratzaileek jatorrizko herrialdeetan bizi duten egoerari begiratzea. Honako hau dio Beatriz Diazek:

Eta jendeak hizkuntzak nola bizi dituen ulertzeko, ezinbestekoa da beren [migratzaileen] historian atzera begiratzea. Denek dute iragana, historia; ezezaguna edo iragazgaitza iruditzen bazaigu ere. Lurrean honetan denbora gehixeago daramagunontzat urrutikoak iruditzen zaizkigun tokietan eta kulturetan dago haien jatorria, eta hori hor dago eta haien orainaldiaren oinarria da.

Zein da, orduan, haien jatorrizko kultura? Zer hizkuntza hitz egiten dituzte beren herrietan? Nolakoak dira haien herri eta hiriak? (DIAZ, 2004)

Ez dugu hemen migratzaileen jatorriari buruzko azalpen edo azterketa xehaturik egingo, ezinezkoa baita hain gai zabala lerro batzuetan laburbiltzea, baina badaude azpimarratzea merezi duten kontu batzuk.

Lehenik eta behin, jatorrizko herrialdeetako hizkuntz egoeren jakitun ez direnez, herrialde hartzaileetako biztanleek erabateko ezjakintzat hartzen dituzte migratzaileak. Herrialde hartzaileetako hizkuntza (nagusia) ezagutzen ez badute, “ez daki ezer” etiketa egokitzen zaie, eta etiketa hori jartzeko arrazoia, ezjakintasunaz aparte, arrazakeria eta herrialde garatuetakoko ustezko nagusitasuna baino ez da. Izan ere, migratzaileek jatorrizko herrialde askotan errealitate eleanitzak dituzte, eta egoera horietatik ikasita asko dakite. Beatriz Diazek oso adibide esanguratsua eman digu (DIAZ, 2004): Ali ganbiarrak soninkea du ama hizkuntza, ondoko bi herrietako beste bi hizkuntza ere hitz egiten ditu, eskolan arabiera ikasi zuen eta huraxe erabiltzen du idatzizko harreman gehienetan, eta ingelesez ere mintzatzen zen, herritik gertu ezagutu zuen Alemaniako ikasle batekin komunikatzeko. Errealitate hori bazterrean utzita, “ez daki ezer” esaten dute Aliri buruz Bilbon, herrialde hartzaileko hizkuntza nagusia ez dakielako (gaztelania). Jatorrizko lurreetako egoera eleanitzen ondorioz, makrohiritako bazter auzoetako errealitate eleanitza naturaltasunez barneratzen dute, eta ezin hobe moldatzen dira, harremanetarako hizkuntzak jatorrizko herrialdeen arau inkontziente bertsuen arabera izaten baitira. Aldiz, herrialde hartzaileetako biztanleak elebakartasunari lotuagoak bizi dira, batez ere, hizkuntza hegemonikoetako elebakarrak badira.

Bigarrenik, Crystalek dioenez, landa eremuetan bizitzen jarraitzen dutenek ere ez dute ihesbiderik izaten hiriek sortutako eragina saihesteko. Nekazariak hirietara joateko erabiltzen dituzten garraiobide berak dira komunitateetara kontsumo produktuak eta horiei lotutako iragarkiak helarazten dizkietenak. Horren ondorioz, metropoliek komunitateetan gero eta gehiago eragiteko boterea dute, komunitateen hizkuntz autonomia txikituz eta sarri askotan alienazioa bultzatuz. Beren etorkizunaren jabe ez direla eta beren premiei jaramonik egiten ez dietela konturatuta, kultura nagusiaren hizkuntza gero eta toki gehiagotan sartzen da, hedabideen bidez eta, batez ere, telebistaren bidez, merkatuaren legearen eraginpean (CRYSTAL, 2001).

Hirugarrenik, hizkuntzari begira ere, azpimarratzekoa da migrazioen ondorioz jatorrizko herrialdeetako hizkuntzek trinkotasuna galtzen dutela: kate itxiko hizkuntzak gutxitu egiten dira, eta kate irekikoak ugari. Hirietako, gizarteko eta geografiako mugikortasunak eta informazioaren teknologiak kate irekiak bultzatzen dituzte, eta horrek hizkuntza nagusiak bultzatu eta hizkuntza gutxituak baztertzen ditu. Izan ere, bizimodu tradizionala ardatz duten herrietan, jende gehiena hiztun komunitate bereko jendearekin jartzen da harremanetan, horien artean ezkontzen dira, eta bizimodua hiztun komunitate horren baitan dauden baliabideetatik ateratzen du (MARTI eta beste batzuk, 2005). Ildo horretan, kate itxiko hizkuntza izatetik kate irekiko hizkuntza izateko prozesuan erabilera eremurik ez galtzea da hizkuntza gutxituen arronka nagusia; hori lortu ezean, ahulduz joango da eta desagertzeko arrisku handiagoa izango du.

Laugarrenik, baldintza sozio-ekonomiko hobe baten bila doazen pertsonak asko izanik ere, ez dugu alde batera utzi behar kultur ezaugarrietan oinarritutako migrazioaren eragina. Jatorrizko lurraldeetan lan duin samarra duten askok herrialde boteretsuetara alde egiten dute kultur nagusitasunaren ondorioz. Jatorrizko herrialdeetan nazioarteko hizkuntza (ingeleza, frantsesa, gaztelania) ezarri eta bertakoek hizkuntza hori eta hizkuntzaren bidez transmititzen den kultura bere egiten badute, hizkuntz mugarik ez dute izango herrialde batzuetara joateko, eta hori faktore erabakigarria izango da herrialde horretara migratzeko, XXI. mendeko migrazio fluxuek adierazten dutenez.

Bosgarrenik, migratzailearen eta jatorrizko herrialdeen arteko lotura dagokionez, alde handia dago hiztun talde batzuetatik besteetara. Askok, aukera badute, seme-alabak bidaltzen dituzte jatorrizko herrialdeetara, hango kultura eta hizkuntza(k) ikastera, beren arbasoekiko lotura gal ez dezaten. Erabaki horretan, eragin handia du migratzaileek jatorrizko herrialdeetako komunitatearekin duten lotura sendotu nahi izana. Esate baterako, Ingalaterran, pakistandarrak euren jatorri berekoez inguratuta bizi dira, eta talde presio handia izaten dute, haurrak/gazteak Pakistanera bidali eta jatorrizko kultura eta hizkuntza ikas dezaten. Gauza bera gertatzen da Frantzia herrialde arabiarretako gazte askorekin. Hartara, pentsa daiteke aukera gutxitxo dagoela hizkuntza gutxituetako hiztun komunitate jendetsuak osatzeko eta komunitate horien baitan hizkuntza osasuntsu mantentzeko, eta hala da, neurri handi batean. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da gero eta gehiago direla migratzen duten familia osoak, eta, kasu horietan, errazagoa da jatorrizko herrialdeetako hizkuntz ohiturei eustea, familia barruan behintzat, baita hizkuntza gutxitua erabiltzen den kasuetan ere.

Azken batean, gero ikusiko denez, jatorrizko lurraldeak arrastoa uzten du joandako pertsonarengan eta joandako pertsonak lurraldea barru-barruan izango du betiko edo denbora luze baterako, behintzat, eta gauza bera esan dezakegu hizkuntzaz: hiztun hutsunea dago jatorrizko lurraldean eta hizkuntza bat lekuz aldatuta.

v. Migratzaileak eta bidaia

Migratzaile askorentzat jatorrizko herrialdetik herrialde hartzailearainoko bidaia sufrimenduz betetako desplazamendua da. Ikusi besterik ez dago migrazio fluxu handienak geratzeko estatu edo estatu talde boteretsuek jarritako neurriak zein diren: hesiak, mugen militarizazioa... Eta horiek, jakina, hizkuntz muga ere badira. Horren adibide garbiak dira AEBen eta Mexikoren artean eraikitako harresia edota Gibraltarreko itsasarte hartutako neurriak. Migratzeko mugen eta errepresio neurrien ondorioz, bidaian hildakoak asko dira: Mediterraneoan, gutxienez 7.000 bat lagun hil

dira itota; Mediterraneora iritsi aurretik, Sahara basamortua zeharkatzen, 1.000tik gora; EBrA errepidez sartu nahian, 200dik gora, kamioietan ezkutatuta zeudela istripuz edo kargak zanpatuta; Mexikotik AEBetara joateko asmoz, 500 hildako izaten dira urtean; Adengo Golkoan, Somaliatik Yemenerako bidean, ehunka dira hildakoak... Zerrenda luzea bezain mingarria da; batez ere, kontuan hartzen badugu hildakoen kopurua askoz handiagoa izan daitekeela, asko eta asko inork jakin barik geratzen direlako.

Zenbat eta beherago egon globalizazioak eraturako mundu hierarkian eta zenbat eta gorago iritsi nahi izan, orduan eta arrisku handiagoa du migratzaileak hiltzeko. Baina, askotan, bidaia ez da mingarriena, Abdelhamid Beyuki Espainiako Langile Etorkein Marokoarren Elkarteko lehendakariak adierazten duenez.

Hainbat arrazoi dago sorterrria uzteko: gosea eta miseriatik hasi eta askatasun goseraino. Hitz xumeetan, aberastasunean (ongizatean) eta aberastasunik ezean laburtzen da bizitza: gure herrialdeetara aberastasuna iristen ez bada (oso luze joko luke egoera horren zergatiak aztertzeak), dagoen lekura joan beharko dugu aberastasun bila. Alde egiten dugunean, gure inguruetik indarrez atera gaituzten sentimendua izaten dugu, bizipen eta sentsazioz beteriko inguruetik atera egin gaituztela, gure herrialdeetan (Kamerun, Senegal, Maroko...) osasun segurtasunik, gizarte segurtasunik, segurtasun politikorik... ez izan arren; baina hala ere haren mira dugu. Baina mingarriena gero iristen da: sorterrikoa ez zarela eta orain bizi zaren lekukoa ere sekula ez zarela izango konturatzea. Bizi guztian emigrante izango zara.³⁴

Betiko migratzaile sentitze horrek eta migratzailearen sorterrriaren eta bizitokiaren arteko etengabeko bidaia hori –bidaia fisikoa amaitutakoan ere amaitu gabe dagoen buruko bidaia– uko egiteen prozesua da batzuetan, eta hori hizkuntz aldaketan islatzen da. Adibidez, Honaniara (Salomon Uharteetan), Bangira (Afrika Erdiko Errepublikan), edo Hararera (Zinbadwen) migratutakoek beren hizkuntza baztertu eta Salomoneko pidgina, sangoera eta hiriko bembera erabiltzen hasten dira, hurrenez hurren (MARTI eta beste batzuk, 2005). Hizkuntz errealitate berriei egokitu ahala, ama hizkuntzarekiko lotura ahulduz joaten da, eta horrek gutxitan izaten du atzera bueltarik. Herrialde hartzailean hizkuntza gutxitu baten egoera ezagutzeak, ordea, norberaren ama hizkuntzarekiko atxikimendua berpiztu dezake, Garbiñe Garmendia Euskal Herriko bazterketa gaietako adituak dioenez.

Euskal Herrira etorritako Boliviako emakume bati harrera egitean bere ama-hizkuntzaz galdetu eta gaztelania zela erantzun zuen. Egun batzuetara berriro galdetu eta erantzun bera eman zuen. Hilabete batzuk gurean igarota berriro galdetu zioten eta orduan bere benetako ama-hizkuntza gaztelania ez zela onartu zuen. Euskerari esker konturatu zen bazuela gaztelania ez zen ama hizkuntza: aimara.

Ekuadortik etorritako beste emakume batek, bere ahizpekin kitxuaz hitz egiten zuen, baina ez bere 8 urteko semearekin. Semeari ez zion kitxua irakatsi, gutxietsi egiten baitzuen; baina, aldiz, hemengo berezko hizkuntza ikastera bidali zuen, euskara ikastera (UEMAren BERRIPAPER, 2006ko abendua).

³⁴ Consumer Eroski aldizkaritik, <http://revista.consumer.es/web/es/20010201/entrevista/28167.php>

Azken batean, kasu horiek adierazten dute migratzaileek jarrerak eta hizkuntz ohiturak aldatu egiten dituztela errealitate berrietara egokitzeko. Hartara, beren ibilbide pertsonalean, izaera mutaturaz joaten da, eta, neurri handi batean, zubi batean gainean ibiltzen bezala doaz, abiapuntutik aldentzen baina helmugara ailegatu gabe. Migratzaile askori entzuna da honako hau: “Ahoskeragatik-eta, ez naiz inoiz bizi naizen tokiko hitun *normala* izatera iritsiko, baina, aldi berean, bizi naizen tokiko ezaugarriak (kulturalak, ideologikoak...) neureganatu ditudalako, ez naiz jatorrizko herrialdeko kide *normala* ere”.

Bikoiztasun hori nola bizi duten oso garrantzitsua da, migratzaileen eta haien ondorengoen hizkuntz jarreran, beren bizipenek eta esperientziek prestigio handiagoa edo txikiagoa ematen baitiete jatorrizko eta bertako hizkuntzei, horren arabera aukeratzen baitute hizkuntza bata ala bestea.

vi. Herrialde hartzaileak

Gaur egun, herrialde hartzaileetan migrazio fenomenoek sortzen dituzten arazoak/erronkak pil-pilean daude: lan arlokoak (legeztatze prozesuak, legeria bereziak etorkinentzat, baimen eskaerak, baztertuak izateko arriskua...), ongizate gizarteari dagozkionak (hezkuntzarako eskubidea, gizarte segurantzaren estaldura...), mundu ikuskera desberdinek eragindakoak (adiskidetasuna, komunitatea, gizartea, familia, bikotea, sexua... ulertzeko modu desberdinak) edota kulturalak (folklore, janari ohiturak...). Ez dira falta, zoritxarrez, migrazioak segurtasun ezarekin lotzen dituzten ahotsak, eskuin muturreko ideiei lotuak gehienetan.

Migratzaileak ezin dira denak *zaku berean* sartu: jatorriaren eta egoera sozio-ekonomikoaren arabera, migratzailea gorago edo beherago egongo da mundu mailako botere hierarkian, eta hori herrialde hartzaileak emango dion tratuan islatzen da. Gainerakoei bidegurutzeak irekitzen dizkiete, eta horrek “garun ihesa2 dakar batzuetan. Behe mailakoek pairatzen dute herrialde hartzaileen alderik bortitzena: lehenengo harremana herrialde *demokratikoen* aurpegi errepresiboa izaten da (polizia, armada, atxiloteta saioak, legez kanpo uztea...), eta, egoera horien aurrean, migratzaileek, askotan, ez dituzte beren eskubideak ezagutu ere egiten, eta, horren ondorioz, ez dituzte beren eskubideak berma daitezkeen eskatzen ere. Herrialdean bizitzen hasten direnean ere jarraitu egiten du eskubide ukazioak, eskubideak modu integralean ukatzen baitzaizkio: eskubide zibil eta politikoak, eskubide ekonomikoak eta, jakina, hizkuntz eskubideak.

Migratzaileak gero eta joera handiagoa dute bertan geratzeko, eta, horren ondorioz, gutxika-gutxika jatorri, erlijio edo hizkuntza berekoak elkartu egiten dira. Erlijioa, adibidez, kohesio faktore garrantzitsua da, eta jatorrizko hizkuntzari eustearen alde indar handia egiten du; izan ere, erlijio errituetan erabiltzen diren hizkuntzak hortik kanpoko bizitzan ere erabiltzen direlako, arabierarekin gertatzen denez (MARTI eta beste batzuk, 2005). Nolanahi ere, egoera eta komunitate guztiak ez dira berdinak. Ingrid Gogolin eta Hans Reichek azterketa bat egin zuten, Alemaniako Errepublikan Federalean bizi ziren hiru komunitatek hizkuntzarekin zuten atxikimenduz, eta ondorio hauetara iritsi ziren (DIAZ, 2003).

- Turkiarrak Alemaniako etorkinen %30 ziren, eta jaiotze tasa alemaniarren bikoitza zuten. Eskolan sartu aurretik, Turkiako haurrek adinako gaitasuna

garatzen zuten turkieraz hitz egiteko. Horren arrazoia komunitate handiak izatea eta hizkuntzarekiko atxikimendu pertsonal handia ziren.

- Jugoslaviatik iritsitakoak ikasketa eta ekonomi maila altukoak ziren, eta, hasieran, etorkinen %10 ziren eta talde kontzientzia handia zuten. Jugoslaviako gerrak, aldiz, joera hori hautsi zuen. Errefuxiatuak oso egoera txarrean iristen ziren, eta nazio identitatearen arabera banandu ziren. Jaiotze tasa turkiarrena baino askoz txikiagoa izan zen, eta gazteenak jatorrizko hizkuntzak baztertzeko hasi ziren.
- Italiarrak etorkinen %8,5 ziren, eta Alemanian denbora gehien zeramatenak ziren, nahiz eta gizarte errekonozimendu handirik ez zuten. Italiara Europar Batasuneko hizkuntza ofiziala da, baina Italiako gobernuak ahalegin handiagoa egiten du alemaniarrek italiara ikasteko Italiatik joandako langile etorkinek italiarari eusteko baino, eta, horren ondorioz, italiarrek joera handiagoa dute alemanera erabiltzeko.

Argi dago hizkuntza gutxituetako hiztunek oso aukera gutxi dituztela komunitate horien aldean: gehienetan, ez dago hizkuntzaren alde egiten duen gobernu edo estaturik, hiztun komunitate txikiak dira, ez dute kultur ekintzetarako baliabide ekonomikorik... Hartara, oso zaila da hiztun komunitate trinko bat osatzea. Nolanahi ere, gutxi izanda ere, beti dago hizkuntza bera mintzatzen dutenekiko halako erakarpen indar bat. Horren adierazgarri da Idir aljeriarraren jarrera Bilbon (DIAZ, 2003).

Bilbon bizi izandako aurreneko urteetan, Idirrek bazekien aljeriar asko zeudela, horietako batzuk Kabiliakoak. Nahiago izan zuen bolada batean haiengandik urrun bizi, asilo politikoari aldeko erantzuna emango ziotela bermatzeko. Geroago, haiekin harremanetan hasi zen, Idirrek honako hau dio bere eskualdeko jendearekin, Idir bezala kabilieraz mintzo direnekin, harremanetan egoteaz, nahiz eta lagun minak ez izan: “Nolabait, gure artean anaien arteko moduko konfiantza dago, denetarako irekia zaude, ez dakit nola esan. Haiekin berrikeretan aritu eta nire estiloko txantxak egin ditzaket, arinkeriaz. Eta nire hizkuntzan egin. Nahi dutenean etortzen dira, kafea hartzen dugu. Eta gauza txikietan elkar laguntzen dugu. Esate baterako, egoitza baimenarekin, erroldatzearekin, IMIren paperekin. Batak mediku arazo bat zeukan, harekin joan, interpretari lanak egin, eta artatzea lortzen duzu. Gauza txikiak dira, baina ondo egoten laguntzen didate, ondo uzten naute (DIAZ, 1999).

Interpretariaren edo itzultzailearen funtzioa oso garrantzitsua da komunitate horietan, ez soilik administrazioarekiko harremanetarako bakarrik, baizik eta bestelako zubigintza lanetarako. Askotan, interpretari lanak egiten dituen herrialdean denbora gehien daramanetakoa izaten da, eta lidergo handia bereganatzen dute horri esker.

Komunitate horiek ugaritu eta trinkotu ahala, hainbat pertsonak ez dute beharrezko izaten herrialde hartzaileetako hizkuntza ikastea, beren bizimoduetako esparru guztietan nahikoa izaten baitute migratzaileen jatorrizko hizkuntza mintzatzea. Beren komunitateko kideez inguratuta bizi direnez (lanean, etxean, adiskide taldean...), nahikoa dute ataka gaiztoetatik ateratzeko lau hitz jakitea.

Hor arazo bat sortu da, biztanle batzuek hizkuntza nagusia ez jakitea eta estatuek beren mugen baitan hizkuntza nagusia biztanleen ehuneko ehunei ezartzeko joera elkarren aurka baitaude. Horren aurrean, estatuek hartutako neurriak oso desberdinak izan dira.

Batzuek neurri zigortzaileen bidetik jo dute: AEBek ez die naziotasunik ematen ingelesezko nahikoa maila ez duten etorkinei, Erresuma Batuan langabezia kobratzeko hizkuntz maila jakin bat eduki behar da... Frantzian, bazter auzoetan izandako matxinadaren ostean, frantsesez nahikoa maila ez izatea eta bortizkeria erabiltzea lotu zituen gobernuak agindutako txosten batek (Benisti txostena), eta Frantziako familia guztietan frantsesa hitz egitea lortzeko neurriak proposatu ziren, eta horrek migratzaileen hizkuntz ohituretan ez ezik hizkuntza gutxituetan ere badu eragina. Ildo horretan, xelebrea da zenbateraino hedatu zen Frantzian bigarren edo hirugarren belaunaldiko etorkinez hitz egiteko joera, “etorkinari” jatorri etimologia kendu eta bazterketarako etiketa moduan erabiltzeko.

Gizarte ongizate indartsua duten estatuek, aldiz, bestelako neurriak lehenetsi dituzte. Suedian, adibidez, Integrazioarako Nazio Bulegoa sortu zuten 1998an, etorkinei eta errefuxiatuei laguntza emateko programa bat garatzeko. Programa horren baitan, lehenetsun handiko gaia da hizkuntza ikastea: bi urtez irakasten zaie, lanarekin lotutako ikastaro batekin batera, eta lanpostuetan sartzean banakako segimendua egiten zaie. Gainera, ikastaroan dauden bitartean diru sarrera bat izaten dute hilero. Programa horretan, udalak eta enplegu zerbitzuek hartzen dute parte. Danimarkan, 1999an sartu zen indarrean atzeritarrak integratzeko legea. Legearen bi ardatzak hizkuntza ikastea eta lanpostuak eskuratzea dira. Herbeheretan, 1998an sartu zen indarrean Etorkin Iritsiberriak Gizarteratzeko Legea, eta, bertan, nederlandera irakasteko ikastaroak sartzen dira. Finlandian, Austrian eta beste herrialde batzuetan ere, hizkuntza ikastea da ardatz nagusietako bat (PARAJES, 2003).

Ikusten denez, zenbat eta garatuago izan etorriberrientzako legeak, orduan eta toki handiagoa hartzen du hizkuntza ikasteko baliabideak eskaintzeak. Baina, estatuen babesik gabeko hiztun komunitateek zer egin dezakete bertako hizkuntza ez dakiten gero eta etorkin gehiago iristen badira? Zer irtenbide dute hizkuntzaren trinkotasunari eusteko eta migratzaileek hizkuntza nagusietara jo ez dezaten?

Migratzaileak jatorrizko hizkuntzetara erakartzeko, hiru erantzun mota daude hizkuntza gutxituetako hiztun komunitateen aldetik:

- Hizkuntza gutxituetako hiztunek ameto eman eta migratzaileen hizkuntz ohiturak hartu dituzte, alderantzizko asimilazio prozesu baten ondorioz. Hori gertatzeko, oso garrantzitsua da bertako eta kanpoko biztanle kopuruaren arteko desoreka: kanpotik etorritakoak bertakoak baino askoz gehiago badira, hizkuntza gutxitua desagertzeko arriskuan dago. Euskal Herrian eta Galesen, adibidez, aurreko hamarkadetan izandako migrazioak berebiziko eragina izan du hizkuntzaren galera prozesuan, eta horrek desagertzeko arrisku handiagoa ekarri die.
- Hizkuntza gutxitua ahalik eta esparru gehienetan nagusi izateko, identitatean oinarritutako estrategiak jarri dituzte abian hiztun komunitate batzuk, modu kontzientean edo inkontzientean. Beren hizkuntzen alde egingo duen administrazioerik edo antzeko eragilerik ez dutenez, hizkuntza gutxitu askok

ahalik eta egoera gehienetan berari eustea beste erremediorik ez dute aurreko kasuko arriskuak txikitze aldera.

- Hizkuntza gutxitua hezkuntza sisteman integratuta duten hiztun komunitateak migratzaileen seme-alabak hezkuntza sistemaren bidez hizkuntza gutxitua ikastera begirako estrategiak jarri dituzte abian. Gazteek eta haurrek hizkuntza gutxituaren nolabaiteko ezagutza izango dutela bermatuko da horrela, bestela, betikotu egiten baita hizkuntz banaketa, baina helduak kanpo geratuko dira. Horixe gertatu da, besteak beste, Quebecen eta Euskal Herrian.
- Hizkuntza gutxituak babesteko autonomia maila handia duten hiztun komunitateek indar handia jarri dute helduei hizkuntza irakasteko ikastaroetan; Katalunian, adibidez, immigrazio plan pilotuetan berebiziko garrantzia du helduak bertako hizkuntza bereganatzeak.

Helduentzako ikastaroen arrakasta izateko, zailtasun asko gainditu behar dituzte; besteak beste, etorkinen ikastaro horiei buruz duten aurreiritzia. Migratzaile batzuen ustez, ikastaroetan parte hartzeko “konpromisoa” estatuak emandako baliabide batzuen ordaina dira, administrazioaren aurrean indar txikia izatearen ondorioz onartu beharreko zigor moduko zerbait, eta ez die beren benetako premiei erantzuten. Gainera, hizkuntzak ikasteko ikastaroak alfabetatuentzat eta hizkuntza nagusian trebatuta daudenentzat prestaturik daude, eta horrek arazo handiak ekartzen dizkio alfabetatu gabeari edota bertako hizkuntza nagusia behar bezala menderatzen ez duenari.

Hizkuntza irakasteko eskolen ereduak aldatu ezean, arrisku handia dago ikastaroak hasi orduko bertan behera uzteko, edozein arrazoi dela medio. Hona hemen Beatriz Diazek ikastaro horiei buruz jasotako iritziak³⁵:

Beste batzuek joateari utzi diote, jatorrizko herrian ez zirelako eskolara joan. Edota aspertzen zirelako, ikaskideek baino ikasketa maila hobea zutelako. Beste arrazoi batzuk ere entzun ditut: ez zeudela gustura taldean, ordutegiak bateraezinak zirela... (DIAZ, 2004).

Hizkuntzak ikastean, kontuan hartu behar dugu nola ikasten dituzten hizkuntzak behe mailako migratzaileek, ez baitituzte ikasten bertakoek atzerriko hizkuntza ikasten duten bezala, ikasgela batean sartuta eta ordutegi finko batekin. Beraz, zailtasun horiei aurre egiteko, migratzaileen egoerari eta beren inguruari egokitutako ikastaroak eskaini behar dira, hizkuntzak ikasteko eredu klasikotik urrunduta.

vii. Ondorioak

Argi dago, beraz, migratzaileak akulturizazio prozesu bat duela aurretik herrialde berri batera iristean. Akulturizazioa norabide biko da: etorkinak beren egoera kontuan hartu eta egokitze eskatzen dio herrialde hartzaileari, eta, buelta emanda, gizarte hartzaileek etorkinari egokitze eskatzen dio. Aldaketak eremu askotan gertatuko dira: identitatean, jarreretan, hizkuntz ohituretan, kultur balioetan... Horren gain, bien arteko botere harremanaren ondorioz, aldaketak handiagoak edo txikiagoak izango dira.

³⁵ Ikastaroak gaztelania ikasteko diren arren, arazo berberak dituzte hizkuntza gutxituetako ikastaroak.

Aditu guztiek, ordea, ez dute akulturizazioa modu berean ulertzen. Kontzeptua modu batean edo bestean ulertu, akulturizazio estrategiez egindako sailkapenak desberdinak dira. Adibidez, Schumann-ek hiru integrazio estrategia bereizten ditu, eta Berryk lau (ARRATIBEL eta GARCIA, 2004).

Schuman

- Asimilazioa: exotaldean (norberarena ez den taldea) integratzea, exotaldea (norberaren jatorrizko taldea) erreferentzia izateari utzita.
- Adaptazioa: exotaldean integrazio ona lortu baina endotaldearen ezaugarri eta baloreak gordeta.
- Preserbazioa: endotaldearen arauak eta baloreak mantendu eta exotaldea baztertu.

Berry

- Integrazioa: jatorrizko zein harrera-taldearen kulturarekin identifikatzen direnak.
- Asimilazioa: jatorrizko kultura harrera-taldearen kulturarekin ordezkatzeko dutenak.
- Banantzea edo segregazioa: beren kulturari eusten diotenak, segregazioaren kasuan talde menperatzailearen kontrolak bultzatuta eta banatzearen kasuan menpeko taldearen borondatez
- Dekulturazioa: identifikazio kulturalik egiten ez dutenak.

Hizkuntza gutxituen ikuspuntutik, zailtasun nagusia hiztun komunitatea gizarte bateko erreferentzi talde indartsua izatea da. Izan ere, aurretik, hiztun komunitate horiek beren akulturizazio prozesua jasan dute eta jasaten ari dira, eta, horren ondorioz, prestigio, botere eta erakarpen indar handiagoa du hizkuntza nagusia oinarri duen komunitateak. Hartara, hori izango da komunitate nagusia, baita migratzaileentzat integratzeorako edo adaptatzeorako lehentasuna izango duena ere.

Azken batean, migrazioen globalizazioak urrutiko hizkuntzekin eta hizkuntza horietan mintzatzen diren hiztunekin jarri gaitu harremanetan. Frantzia, adibidez, frantsesaren ondoren, migratzaileen hizkuntzak dira hiztun gehien dutenak; arabiera, kasu. Hizkuntza horiek erakunde ofizialetan eta administrazioetan erabiltzen dira, baita polizia etxe, epaitegi, osasun etxe edota gizartegintza zentroetan, eta zer esanik ez familian, adiskideen artean, tabernetan, dendetan, azoketan... Gainera, hiztun askoren identitatea hizkuntza horien oinarrietako bat da, berak izateko modu bat.

Bertako hizkuntza gutxituen iraupena ziurtatuta egon gabe eta arazo hori konponbidean jarri gabe, migratzaileen hizkuntz ohiturak eta horrek ekarritako aldaketak ditugu begien aurrean. Hizkuntz errealitate hori hor dagoenez, ez du zentzurik hori guztia bere baitan hartuko duen hizkuntz politikarik abian ez jartzea, globalizazioaren haizeak dakarren *laissez faire* linguistikoak arazo larriagoak ekarriko baititu. Argi dago, beraz, hizkuntz berdintasunaren ikuspuntutik, hizkuntza guztiei errekonozimendua zor zaiela, bertakoak izan ala kanpotik etorriak, eta politika zehatz eta eraginkorren bidez nork bere hizkuntzaren ezagutza eta erabilera bultzatu behar dela, elkarren ezagutza hizkuntza nagusietan soil-soilik egin ez dezagun eta globalizazioak dakartzan akulturizazio prozesuetatik norberaren hizkuntzak albo batera utz ez ditagun.

GIZAKIEN DESPLAZAMENDUAK (II)
TURISMOA

Inori kuestionatzen entzun ez diodan izurri bilakatu da turismoa. Baina turistak arrazoia berekin daukala sentitzen du. Urte osoa lanean gogor eman du; orain eskubidea du munduaren edozein bazterretara joateko, eskubidea hegaldia puntuan iristeko; kamareroak adeitsuak izateko.

Pako Aristi, Sahatsaren azpian egindako gogoetak

i. Turismoa eta globalizazioa

Turismoa industriarik handienetakoa dugu gaur egun, eta, gainera, gero eta gehiago handitzen ari da. 2004an, adibidez, turismo industriaren etekinak 439 bilioi dolarrekoak izan ziren (PERA eta McLAREN, 2004). Munduko natur paisaiak azkar-azkar suntsitzen ari den bitartean, turismo industria globala gero eta toki gehiagotan ari da nagusitzen, baita herri indigenetan eta hiztun komunitate gutxituetan ere, eta horrek haien ingurumena eta bizimodua mehatxupean jartzen ditu. Turismo mota hori hartzen duten herriak tokiko egituren kontrolpetik kanpora dagoen ekonomia global baten mende geratzen dira, eta, horren ondorioz, tokiko baliabideak gero eta gutxiago erabiltzen dira bertakoen mesedetan, eta gero eta gehiago, beste tokietatik iritsitako turista eta kontsumitzaileen mesedetan.

Horrez gain, “besteen” lepo bizi behar izateak “besteen” balioak, kultura eta hizkuntza bereganatzaeko premia sentitzea dakar, eta, horren ondorioz, “besteenak” diren balioak, kultura eta hizkuntza hartzen dira, hori baita aurrera ateratzeko bide bakarra.

Atal honetan ikusiko dugunez, ingurumenaren ezaugarrietara egokituta kudeatzen ez bada, hizkuntza askoren biziraupenerako arriskurik handienetakoa izan daiteke. Egia da globalizazioaren garaiko garapen ekonomikoak eta teknologikoak hizkuntz politikak aurrera eramateko aukera eman dezaketela, baina, horretarako, ezinbestekoa da globalizazioaren eskutik datorren turismoaren kalteei erantzuteko nahiko indarra edukitzea. Indigenek, adibidez, larrutik ordaintzen ari dira turismoaren eragin kaltegarria, atal honetako hainbat adibidetan ikusiko dugunez. Turismoari lotutako enpresa transnasionalek, askotan gobernuekin elkarlanean, komunitate natibo askoren bizimodua eta kultura suntsitu dute, komunitateak turismo global jendetsuaren interesetara makurtzeko.

Azken batean, turismoak globalizazioaren ideologiak hizkuntzei egokitutako diskurtsoaren alderik ankerrena eta suntsitzaileena gauzatzea dakar, turismoak berezko dituen harreman trukeen ondorioz hizkuntz aniztasuna baztertu eta hizkuntza nagusia ezartzen baita. Turismo mota hori bultzatzen duen sistema ekonomikoa bezalaxe, turismoak aspalditik du lotura kolonizazioarekin eta herrien eta eskualdeen arteko harreman desorekatuarekin. Nolanahi ere, atal onetan ikusiko dugunez, turismoa ez da bakarra –eredu asko daude–, ez du eragin bera lurralde guztietan –tokian tokiko egoerak zein diren aztertu behar da– eta ez da beti kaltegarria –batzuetan hizkuntza gutxituak suspertzeko ere balio du–.

ii. Turismoaren bilakaera historikoa

Turismoa benetan zer den jakiteko, oso erabilgarria da jatorri etimologikora joatea. “Tour” hitza Britainia Handian egin zen ezagun XVIII. mendean, “Grand Tour of Europe”³⁶ delakoa goi mailako britainiar gazte eta aberatsen hezkuntzaren zati bihurtu zenean. Egitasmo horren arabera, hezkuntza sistemaren baitan, beren jatorrizko tokitik atera eta kulturagatik edota estetikagatik interesgarriak ziren tokiak bisitatzen zituzten: Toskana, Alpeak, Europako hiriburuak... Turistak, beraz, oso gutxi ziren, goi mailakoak eta dirudunak eta denak jatorri berekoak.

³⁶ Euskaraz, “Europako txango handia”.

XIX. mendean, ordea, erdiko klaseak indartu ahala eta lan aldarrikapenak garatu ahala (lanaldia murriztea, oporrak...) nazio barruko turismoa garatu zen, eta oporraldietan bidaiatzea gizarte premia bihurtu zen.

Hartara, produkzio bideen jabeak, merkatariak eta erdiko klase berriak bidaiatzen hasi ziren, denbora libre gehiago baitzuten. Hortik aurrera, aisialdiaren eta oporren kultura indartu ahala gero eta gehiago izan dira turismoa egitera batera edo bestera joan direnak, turismo jendetsu globalizatuaren garaira iritsi arte: 1950etik 1998ra, nazioarteko turisten kopurua 25 aldiz handitu zen, 25 milioitik 635 milioira, eta, gaur egun, egunero, bi milioi “turistek” egiten dute estatuen mugetatik bestalde (1950ean 69.000 ziren) (BIFANI-RICHARD, 2004). Horretan, hainbat faktorek eragin dute: automobilaren erabilera hedatzea, bidaien prezioa merkatzea, garrarioa gero eta azkarragoa izatea... Dena dela, ez da ahaztu behar turista ezin daitekeela izan munduko pertsona oro: turismoa lotuta dago erosteko ahalmen handia edo handi samarra duten pertsonekin, eta, horren ondorioz, munduko hierarkia ekonomiko-sozial-kulturalean goi samarrean dauden pertsonekin. Hartara, munduko biztanle gehienak turista izateko mailara ez ailegatzeak asko baldintzatuko du turismo zirkuituetan erabiltzen diren hizkuntzak eta turisten hizkuntz jarrerak ere, munduan nagusi den botere harremana islatzen baitute.

Egungo turismoaren datuei begiratzuz gero, turismoarekin lotutako tauletan, herrialde boteretsuak agertzen dira nonahi.

Turista gehien jasotzen dutenak (2005. urteko datuak)

1. Frantzia, 76 milioi turista
2. Espainia, 55,6 milioi
3. AEB, 49,4 milioi
4. Txina, 46,8 milioi
5. Italia, 36,5 milioi
6. Erresuma Batua, 30 milioi
7. Mexiko, 21,9 milioi
8. Alemania, 21,5 milioi
9. Turkia, 20,3 milioi
10. Austria, 20 milioi

Turismoari esker lortutako dirua (2005. urteko datuak)

1. AEB, 81,7 mila milioi dolar
2. Espainia, 47,9 mila milioi dolar
3. Frantzia, 42,3 mila milioi dolar
4. Italia, 45,4 mila milioi dolar
5. Erresuma Batua, 30,7 mila milioi dolar
6. Txina, 29,3 mila milioi dolar
7. Alemania, 29,2 mila milioi dolar
8. Turkia, 18,2 mila milioi dolar
9. Austria, 15,5 mila milioi dolar
10. Australia, 15 mila milioi dolar

Turismoan egindako gastua (2005. urteko datuak)

1. Alemania, 72,2 mila milioi dolar
2. AEB, 69,2 mila milioi dolar
3. Erresuma Batua, 59,6 mila milioi dolar
4. Japonia, 37,5 mila milioi dolar
5. Frantzia, 31,2 mila milioi dolar
6. Italia, 22,4 mila milioi dolar
7. Txina, 21,8 mila milioi dolar
8. Kanada, 18,4 mila milioi dolar
9. Errusia, 17,8 mila milioi dolar
10. Herbehereak, 16,2 mila milioi dolar

Datuotan turistak eta turisten dirua nondik nora joaten den ikusteaz gain, argi geratzen da turismoan zer hizkuntza nagusitzen diren eta zer herrialdek lortzen duten onura handiena. Hala ere, herrialde garatuen eraginpean, hirugarren munduko herrialde asko turismoaren zurrumbiloan sartu dira, eta horren adierazle ezin hobea dugu Lucía Salazar Turismorako Nikaraguako Institutuaren presidentek esandakoa:

Hirugarren munduko herrialdeak ez gara eraginkorrak gure produkzioen zati handi batean. Beste baliabide batzuk bilatu behar ditugu, lehiakorrak izateko guretzat aproposagoak diren baliabideak. Eta turismoa erantzunetako bat da. Horren harira, On Enrique Bolaños gobernuko presidentek erabaki du nazioarentzat lehentasuna dela turismo industria garatzea (GASCÓN eta CAÑADA, 2005).

Turismoari makurtzen zaizkion herrialdeek turismoari lotutako mitoei itsututa jokatu dute, turismoak alde onak bakarrik dituela sinestuta. Jordi Gascón antropologoak eta Ernest Cañada historialariak turismoaren mitoei banan-banan aztertu eta haien faltsukeria salatu dute “Viajar a todo tren” liburuan (GASCÓN eta CAÑADA, 2005). Horri lotuta, lan honetan, mitoen faltsukeriei turismoak hizkuntz egoeran duen eragina gehitu diegu.

iii. Turismoaren mitoen faltsukeria eta ondorioak hizkuntzatan

1. Turismoak lanpostuak sortzen ditu

Lehenengo mitoaren arabera, turismoak dakarren onuretako bat lanpostuak sortzea da, hala zuzenekoak (hoteletan, apartamentuetan, jatetxeetan...), nola zeharkakoak (turistentzako egituretan: eraikuntzan, garraioan, bidaiari agentzietan, segurtasunean...). Hori horrela izanik ere, mito horretan sakonduta arazo ugari azaltzen dira; izan ere, nolako eta zeinentzako lanpostuak diren ikusi behar da. Prestakuntza txikiko lanpostuetarako, eskualdeko langileak iristen dira –gehienetan landa eremuetakoak– beren ohiko bizimoduak eta lanpostuak utzita (nekazaritza, meatzaritza...). Hartara, turismoak nekazal guneen hustuketa eta urbanizazioa eragiten ditu, eta horrek, aurretik ikusi dugunez, mesede baino kalte handiagoak ekartzen dizkio hizkuntza gutxituari. **(IKUS GIZA DESPLAZAMENDUAK (I) MIGRAZIOAK. URBANIZAZIOA)**. Beste batzuetan, kanpotiko migrazioak behe mailako lanpostuak eskuratzen ditu, eta bertako gizartearekiko loturarik gabe –hizkuntz loturarik edota gizarte sareko loturarik gabe, besteak beste– bizi den jende multzo handi samar bat sortzen da. Lanpostu

gehienak aldi baterakoak direnez eta bertan denbora luzean geratzeko asmorik eta baliabiderik ez dutenez, ez dute atxikimendu handirik izaten bertako gizartearekin eta bertako hizkuntzekin, eta are gutxiago, gizarte presentzia txikia duten hizkuntza gutxituekin. Prestakuntza handiko lanpostuetarako (goi mailako titulazioetakoak, hizkuntza nagusiak menderatzen dituztenak), aldiz, eskualdetik edo herrialdetik kanpokoak etortzen dira –migrazio mota bat da hori ere–, eta, horren ondorioz, gizarte egitura konplexuagoa eta anitzagoa izaten da, eta horrek *lingua franca*k edukitzeko premia areagotzen du, hizkuntza gutxituen kaltetan.

Horrez gain, bertako jendea trebatzeko egiturak sortzen dira, administrazioaren bizkar: sukaldaritza eskolak, turismo fakultateak, hizkuntza akademiak... Administrazioaren lehenetsuna jende hori trebatzea izaten da, eta, trebakuntza horren barruan, hizkuntza nagusiek erdi-erdiko tokia dute. Bitxia da nola hizkuntz premia berak nagusitzen diren turistei begira bizi diren guneetan, nahiz elkarrengandik urrun egon, bai fisikoki, bai kulturaz. Esate baterako, atzerritarrekin komunikatzeko ingelesa beharrezkoa delakoan, Mondragon Lingua hizkuntz akademia Donostiako taxi gidariei ingeleseko eskolak ematen hastekotan da (Berria, 2007-05-03) eta, arrazoi bera argudiatuta, 2008ko Olinpiar Jokoak Beijingen egingo zirela jakinarazi bezain azkar, taxi gidari, merkataritza eta gobernuko funtzionarioei ingeleseko oinarrizko maila lortzeko ikastaroak emango zizkiela jakinarazi zuen Txinako gobernuak (ABLEY, 2006). Modu batean edo bestean, gutxiago edo gehiago behartuta, kanpoko hizkuntzak ikasi behar diren premia barneratzen dute bertako biztanleek, eta hor hizkuntza gutxituak presentzia eta prestigioa galdu besterik ez du egiten.

Nolanahi ere, turismoak sustatutako lanpostuez ari garelark, kontuan hartu behar da turismoaren bizi zikloa nahiko laburra dela. Oro har, hauek dira faseak: egoera aztertzea, agintarien inplikazioa, turismo jarduera garatzea, jarduera sendotzea, geldotzea eta krisia, eta, krisiaren ondorioz, giza soberakinak, migrazioa eta bertako gizartearen eta hiztun komunitatearen desegituratzea. Horren adibide dugu Narok barrutian gertatutakoa (Kenia): 1960tik 1990era, turista kopurua 50.000tik milioi batera handitu zen, eta, horren ondorioz, 140.000 lanpostu zuzen eta 350.000 zeharkako sortu zituen; hau da, 400.000 lagun inguru bizi ziren turismoaren bizkar. 1993tik aurrera, sektorea gainbehera joan zen, nagusiki krisi finantziarioetatik: bizi kalitateak behera egin zuen, eskualde osoan pairatu zuten gainbehera, eta migrazioa ikaragarri handitu zen, bai hiriguneetarako, bai abeltzaintzako latifundioetarako. Azkenean, oinarrizko premiak betetzeko ere nahiko lan izan dute bertakoek, eta hiztun komunitatearen desegituraketa ikaragarria izan da.

2. Turismoak beste jarduera batzuk bultzatzen ditu

Bigarren mitoaren arabera, turismoarekin zeharkako zerikusia duten beste ekonomi jarduera batzuk bultzatzen ditu turismoak, eta horrek garapen ekonomikoa dakar. Horren atzean, gastu publikoaren joera aldatu izana dago askotan, eta horrek bertako lehentasunak baztertu (etxebizitza, ura eta argindarra, zabor politika, ingurumena zaintzea...), eta kanpoko premiak lehenesteko arriskua handitzen du (aisialdiaren industria, hotelak...). Kontua da turismoaren inguruan eratzen den ekonomia turisten jatorrizko herrialdeen irizpideen arabera eratzen dela, merkataritza kanpoko begira jartzen dela, kanpoko premiak asetzea lehenesten dela...

Toki batzuetan, hain handia da kanpoko turistek eta kanpoko kapitalak izandako eragina, non herrialdeen subiranotasuna ere zalantzan jartzen den. Jarduera ekonomiko berriak kanpoko kapitalaz, kanpoko langileez, kanpoko irizpideen arabera, kanpoko hizkuntzetan... egiten dira, herrialdetik atera gabe dagoena ere etxean kanpotar sentitzeraino. Egoera horretan, kanpoko hizkuntza eremuak bereganatuz doa, eta bertakoa galduz; batez ere, hizkuntza gutxitua bada. Oso kasu argia eta lazgarria dugu Balear uharteetako. Turismoaren ondorioz, prozesu hau bizi izan dute bertakoek: lehenengo, kanpoko turistentzako turismo jarduerak garatu ziren; gero, bestelako jarduera ekonomikoak jartzen hasi ziren (merkataritza, enpresa txikiak...); eta, azkenik, euren jatorrizko herrialdeen antzeko egitura ekonomiko eta kulturalak sortu dituzte (elkarrekin egoteko espazioak, kultur taldeek, hedabideak...). Azkenean, gero eta esparru gehiagotan nagusitzen ari da alemaneraren edota ingelesaren erabilera, gaztelaniaren eta katalanaren kaltetan, eta, batez ere, katalanaren kaltetan, hizkuntza globalek desplazaturako hizkuntza izateaz gain estatuak gutxitutako hizkuntza baita.

3. Turismoak azpiegiturak modernizatzen ditu

Hirugarren mitoaren arabera, turismoari esker errepideak, aireportuak eta portuak hobetzen dira, eta, neurri batean egia bada ere, kontuan hartu behar da turistek bakarrik erabili behar dituztenak hobetzen direla, eta besteak bere horretan edo okerrago uzten direla. Beste toki turistikoek aurkako lehian, errepiderik onenak, aireporturik handienak eta abar lortu nahi izateak kalte ekologikoa dakar, lurrari balio espekulatiboa emanez eta bestelako balioak baztertuz. Esate baterako, Tanzanian eta Kenian, turisten olde handiegiak abereen bazkarako lurak suntsitu zituen, eta horrek bertako abere eta landareak hiltzera eraman zituen. Hartara, masai tribuko kideak jarduera ekonomikoetatik eta ohiturazko jardueretatik at geratu ziren, eta, gainera, gobernua ez zien laguntzarik eman, ezta gizarte zerbitzurik ere. Ataka horretan, migrazioa, komertzialismoa eta norbanakotzea areagotu eta euren balio tradizionalak baztertu zituzten (elkartasuna, bizitza sinplea...), hizkuntz aldaketarako egoera ezin aproposagoa sortuz.

Kalte ekologikoaren gaitik atera gabe, Britainia Handiko World Wide Fund taldeak eta hainbat ikerlarik "opor aztarna" adierazlea sortu dute. Adierazle horrek eskaintza turistikoek ingurumenean eragiten duten kaltea neurtzeko eta kalte ekologikoak murrizteko aukerak atzemateko balio du. Kalkulua egiteko, hainbat faktore izaten dira kontuan: nazioarteko bidaiak, energi kontsumoa, hotelek botatzen dituzten hondakinak... Hori guztia kontuan hartuta, Txiprerako eta Mallorcarako bidaien opor aztarna atera zuten, eta Txiprekoak dezente kaltegarriagoak zirela ondorioztatu: Txiprek 0,07 hektarea gau eta pertsona bakoitzeko, eta Mallorcak 0,03. Ez litzateke txarra izango formula matematiko bat ateratzea hizkuntz eta kultur kontuetan eragiten den kaltea zenbatekoa den kalkulatzeko –oso zaila deritzot, ia ezinezkoa; izan ere, kultur adierazpenak matematikaren bidez neur al daitezke?-. Baina, ildo horretatik, interesgarria da Balear uharteetako gobernuak ezarritako ekozeraren ideia: Balear uharteetara joaten den orok 3 euro inguruko zerga ordaindu behar du eragingo dituen kalte ekologikoen ordainetan, eta, gero, diru hori helburu ekologikoetarako erabiliko da. Ekozeraren bidetik, *hizkuntz zerga* edo *kultur zerga* ezartzea proposatu izan dute zenbaitek, turismo jendetsu globalak eremu batzuetan eragindako kaltea konpontzeko diru baliabideak biltze aldera.

Batzuetan, kalte ekologikoen gaineko diskurtso hegemonikoan, alderantziz azaltzen dira gauzak: kalte ekologiko handia egiten dutenak bertakoak dira. Izan ere, globalizazioko ildo neokontserbazionista batzuek neokolonialismoa ekarri dute (DOWI, 2007); izan ere, bertakoek eragiten omen dituzten kalteak direla-eta, ingurumena kontserbatzeko biztanleak desplazatu eta parke nazionaletara eraman dituzte, eta batzuetan sakabanatuta, gainera, hizkuntz trinkotasun zantzu oro desagerraraziz.

Herrialde garatuetan eta globalizazioaren zirimolan sartuta dauden hiztun komunitate gutxituek ere badute kezkatzeko motiborik, ez baitaude arrisku horietatik salbu, Roberto Manjón Euskal Herriko hizkuntz teknikariak dioenez.

Izan ere, hizkuntzaren inguruko alderdi erabakigarrienak aldaketa soziala eta kulturala eragiten duten faktoreen ikuspegitik aztertu behar dira. Hiztun-komunitate oro biziki baldintzatzen dute antolamendu eta sare sozio-politikoek eta ekonomiko-finantzarioek eta, beraz, teknologiek, azpiegiturek eta lurralde-antolamenduek. Hori kontuan hartzen ez duten hizkuntza politikek zainketa paliatiboak dirudite.

[...]Euskarak dislokazio demografiko eta kultural handia jasan du azken mendean eta, gizartean gero eta arinago geratu diren aldaketen zurrumbiloi, dislokazio horiek ere mugimendu uniformeki azeleratuaz jazo dira. Gure Erakundeen oinarritzko politikek euskara kolapsora eraman duten ohiko politiken ildotik datoz, garapen-eredu berarekin, uniformeki azeleratuz hizkuntz ordezkapena. Nola gorpuzten ari dira ordezkapen horren oinarri materialak? tsunami urbanistikoaz gainera, Bilbo inguruko eta Donostialdeko supersurrez, Jaizkibelgo portuaz eta, nola ez!, abiadura handiko trenaz (AHT)? Agintariek ekonomia dinamizatu nahi dute, bertoko eta kanpoko interes jakinei mozkin ederrak irabazteko aukera emanaz. Merkatu-gune indartsuak lortu nahi dituzte hiriburuetan, eta, orobat, erraz lotu Europako eta mundu osoko merkatu-gune eta botere politiko-ekonomikoaren egoitzekin. Azken finean, beren burua arrakastaz kokatu nahi dute ekonomiaren etengabeko hazkundera, librea ez den merkatu globalizatu batean (MANJÓN, 2006).

4. Turismoak bertako baliabideen balioa handitzea eragiten du

Laugarren mitoaren arabera, turismoaren garapenerako ondo kokatuta dauden lurren eta bestelako baliabideen jabeek irabaziak lortzen dituzte, baina apur bat sakonduz gero bi arazo aurkitzen ditugu: neurritz kanpoko urbanizazioa eta etxebizitzak garestitzea. Horrek, jakina, bertako biztanleek migratzera behartzen ditu.

Urbanizazioari eta etxebizitzaren prezioa garestitzeari dagokienez, hona hemen adibide esanguratsua: Hawaiko bertako biztanleen %80 etxebizitza ordaindu ezinik dabil, eta askok etxebizitza batean sartu ahal izateko migratu egin behar izaten dute. Hurbilago ere badugu zer aztertzea: Ipar Euskal Herria turismoari begirako urbanizazio prozesu batean buru-belarri sartuta dabil, etxebizitzaren salneurriak etengabe garestitu eta prezioak Frantziako estatuko beste eskualdeetatik joaten diren hirugarren adineko frantses hiztunen erosteko ahalmenari egokitzen baitzaizkie. Horren ondorioz, bertakoek beren jatorrizko lurraldeetan bizitzetik ezin eta desplazatu beharrean dira. Hartara, eskualde gero eta frantsesagoa da eta euskarak gero eta toki txikiagoa du.

Gainerako baliabideei dagokienez, ura izaten da garestitze prozesu ezin bizkorrago batean murgiltzen den baliabidea. Izan ere, bertako ura erabiltzeko lehentasunak aldatu egiten dira: ura, lehenengo, turismora bideratzen da, eta, gero, bertako ekonomietarako (esate baterako, nekazal guneetarako). Azkenean, turistek dute lehentasuna, eta baliabide ekonomiko guztiak horretara makurtzen dira, bertako biztanleak bigarren mailako herritar bihurtuz. Horren ondorioz, haien kultura eta hizkuntzak ere bigarren mailan geratzen dira, komunitateek garapen sozio-ekonomikoa funtsezkoa baitute euren kultura eta hizkuntza ere garatzeko.

Txarrerako adibideak gehiago badira ere, hona turismoa hiztun komunitate gutxituaren aldeko izan diren adibide bat ekarriko dugu:

Ayas bailara, Italiako Aosta eskualde autonomoan, nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako ekonomiatik bizi zen. Baina turismoan eta eskian oinarritutako ekonomiak aurrerapena eraman die, eta, horri esker, 3 eta 5 urte arteko haurrentzako hezkuntzan hiru hizkuntzatarako eskola programa finantzatu dute. Programa horretan, frankoprobenztal dialektoak italierarekin eta frantsesarekin bat egiten du (HAGEGE, 2002).

5. Dirua ekartzen du, eta hori onuragarria da turismoa jasotzen duen herrialdearentzat

Bosgarren mitoaren arabera, turismoak dirua ekartzen du, eta hori ona dela itsu-itsuan onartzen da. Kontua, ordea, ez da hori: dena diruaren mende jartzeak ekar ditzakeen kalteak alde batera utzita, garrantzitsuena ez da dirua iristen dela, baizik eta dirua poltsiko batzuetara joaten dela, eta ez beti bertako biztanleen poltsikoetara. Izan ere, turismo industriako transnazionalak merkatuaren zatirik handiena eta errentagarriena dute beren esku, datu hauek adierazten dutenez: batez beste, Hegoaldeko herrialde batera joaten den turistaren gastuaren %55 Iparraldera itzultzen da, Mediterraneoko turismoaren diru sarreren bi herenak Ipar Europako “touroperadoreentzat” dira, eta Afrikan %75era iristen dira. Galdera, beraz, ez da dirua ekartzen ote duten edo zenbat diru ekartzen duten, baizik eta dirua nondik nora joaten den eta zertarako erabiltzen den, jakina. Horrek bertakoen pobrezia ekar dezake; izan ere, bertako biztanleak turismo zirkuitutik at geratzen dira. Eta horrek, besteak beste, hizkuntz ataka berezi bat dakar: dirua lortzeko bideak hizkuntz eta kultur irizpide jakin batzuei lotuta daude, eta hizkuntza gutxituek ez dute toki duinik egoera horietan.

Gainera, turismorako erakargarriak izateko, lurraldeko egiturek nazioarteko merkatura egokitu behar dute, eta ez bakarrik ekonomia egiturek, baita gizarte egiturek eta kultur egiturek ere, besteak beste. Hartara, kasu askotan, turismorako guneen arrakasta kanpoko faktoreek baldintzatzen dute: nazioarteko merkatuaren prezioek, arrisku egoerek –eragin itzela dute arriskuen araberrako sailkapenek, turistek erreferentziatzen hartzen baitituzte–, botere globalekiko harremanek... Bertako turismoa saltzeko sortzen diren argitalpenek adierazten dute hori ondo baino hobeto, turisten begiradari eta ulermenari egokitutako materiala izaten da.

Kanpoko faktoreei dagokienez, gakoetako bat operadore turistikoekiko harremana izan daiteke: haiekiko botere harremana oso desorekatua da, inondik ere, argi baitago zeinek moldatu behar duen zeinen irizpideetara. Operadore turistikoekiko harremanak oso garrantzitsuak direnez, bertakoen artean kanpoko hizkuntza nagusietan mintzo direnen

eta mintzo ez direnen arteko aldea handitu egiten da, batzuk gai direlako kanpoko botereekin euren hizkuntzan hitz egiteko eta besteek ezin dutelako hori egin. Azkenean, gizarte hierarkian bakoitzak hartzen duen tokia ikaragarri baldintzatzen du kanpoko harremanetarako eta, zehazkiago, operadoreekiko harremanetarako gai izateak.

6. Jatorri askotako jendea jartzen du harremanetan, eta hori onuragarria da bertako gizartearentzat eta gizakientzat

Seigarren mitoaren arabera, jende asko bisitan etortzea onuragarria da bertako biztanleentzat, jatorri askotako jendearekin harremanetan jartzen baitira. Nolanahi ere, mitoaz harago, lurralde batera iritsitako turista kopurua zenbatekoa den hartu behar da kontuan. Izan ere, turismo oldeak egungo inbasioen bertsioa izateraino irits daitezke. Mark Abley, adibidez, honako deskribapen hau egin du Galeseko eskualde bati buruz:

Galeseko mendebaldean, udako bisitariak bertakoak baino lau aldiz gehiago dira. Umeak turista aberats eta ziurrak ikusten hezten dira, eta turisten balioak eta kultura arnasten hasten dira. Baita haien hizkuntza ere. (MARK ABLEY)

Turismoak, hartara, bertakoa kanpokoak asimilatzea ekar dezake –migrazioaren alderantzizko prozesua, migrazioaren ondorioz bertakoak asimilatzen baitu kanpotarra–, bai aldi jakin batean (udan, turisten herrialdeetako oporraldietan...), bai denbora luzean (turistak etxeak erosi eta bertan bizitzen geratzen badira...).

Gizartean nagusitzen diren balioak kanpotarrek ekarritakoak dira, aurreko beste garai batzuetan bestelako inbasioek egiten zuten bezala. Izan ere, Roland Terborg eta Virna Velázquez Vilchisek adierazi dutenez kanpoko hizkuntza batzuk hiztun komunitate batean sartzean, hiztunen jokatzeko moduak aldatzen dira, botere harremanak aldatzearen ondorioz,. Bi egile horiek Milroyren ideia honetan oinarritu dira, kanpoko hizkuntzek hizkuntz ekologian duten eragina aztertzeko.

Oinarrian, suposizio hau dugu: botere harremana aldatzea hizkuntza indigenak ahultzeko beste faktore bat da. Gure ustez, boterea ekintzari dagokion askatasun erlatiboa da, eta horren iturria presioa da. Harreman horiek nola gertatzen diren ulertzeko, botere harremanak eta ekintzara daramaten presioak nola sortzen diren azaldu behar da. Izan ere, erabiltzen den hizkuntzak ideologia jakin bat islatzen du (TERBORG eta VILCHIS, 2005).

Presioa, interesa eta boterea honela ulertzen dute bi egileek:

Presioa sortzeko, derrigorrezkoa da interesa egotea. Pertsona bat goseak badago eta elikagai bat eskuratu nahi badu, hori lortzeko presioa ere sentitzen du. (...) Interes handiena duten pertsonak, beraz, presio handiagoa dute eta gauza gehiagotan amore eman dezakete, beren helburuak lortzeko. (...) Interesak eta presioak munduaren egoeraren araberekoak dira, eta horrek guztiak botere harremana eratzen du (TERBORG eta VILCHIS, 2005).

Hori guztia kontuan hartuta, bi pertsonaren arteko harremanetan faktore horiek nola eragiten duten azaldu dute.

Pertsona batek gizarte ekintza bat egiteko presioa sentitzen badu, boterea murrizten zaio. Esate baterako, B pertsonak A pertsonak baino presio handiagoa sentitzen badu, A pertsonak botere handiagoa izango du, A eta B pertsonen arteko desorekaren ondorioz. (...) A pertsonak B pertsonak salgai duen produktu bat nahi baldin badu, B pertsonak saltzeko presioa sentitzen du eta A pertsonak erosteko presioa; orduan, presioak orekatuta daude; betiere, A-k nahiko diru badu eta B-k zehaztutako prezioa ordaintzeko prest badago. Nolanahi ere, egoera aldatu egin daiteke, munduaren egoeraren arabera; hau da, testuinguruaren eta bestelako kanpoko faktoreen arabera. B-k saltzen dituen produktu berak beste batzuek ere saltzen badituzte, baina prezio merkeagoan, A-k abantaila izango du. (...) Horrenbestez, A-k eta B-k sentitzen dituzten presioak interesen eta munduko egoeraren araberakoak dira (TERBORG eta VILCHIS, 2005).

Merkatuari buruzko adibide hori hizkuntz ekologiarekin lotzen dute egileek; izan ere, kultura eta hizkuntza saldu eta erosi egiten den salgai bihurtzen da. Hartara, hizkuntza batzuk boteretsuagoak dira besteak baino, baina ez berez boteretsuagoak direlako, baizik eta hiztunak boteretsuagoak direlako, eta hori batzuk eta besteek sentitzen duten presioaren ondorio da. Botere harreman orotan, presioak elkarrekiko gatazkan daude, eta, jakina, alde bat ahulagoa da, eta ahuldade hori ideologiak ezarritakoa da.

iv. Turismoaren izaera asimetrikoa

Globalizazioaren mundu mailako hierarkia ekonomiko-politiko-kulturaletako kideak turismoari esker elkarrekin harremanetan jartzen direnean, beren arteko aldeak agerikoak izaten dira: batzuk beste batzuk baino indartsuagoak dira kulturalki, politikoki, ekonomikoki... Ez, noski, nagusitasun hori berezkoa dutelako, baizik eta besteak makurrarazteko botere eta dominazio mekanismo batzuek historian egindako bideagatik. Horrekin lotuta, eta Roland Terborg eta Virna Velázquez Vilchisek emandako adibide zehaztetara jo aurretik, komeni da zenbait kontzeptu azaltzea:

- **Kultur burbuila.** Botere handiena duten hiztunek beren jatorrizko kulturaren parametroetatik atera gabe jarduten dute beren herrialdetik kanpo ere. Munduko egoera desorekatuari esker, ez dute beren kultur jarduerarik aldatu behar, eta besteak behartzen dituzte –bertakoak– beren ohituretara, hizkuntzetara, jarreretara eta abarretara moldatzea. Horrek lotura hertsia du inperialismo linguistikoarekin, bestea makurtzen baita turistaren hizkuntzara. Horren harira, hona hemen Maloufek Mediterraneoari buruz botatzen duen hausnarketa: nola *sal* daiteke Mediterranioko herrialdeen arteko harremana berdinen artekoa dela, elkarrekin hitz egiteko Afrikako aldekoek beren hizkuntza baztertu eta Europakoek hizkuntzak erabili behar izan badituzte? (MAALOUF, 1999)
- **Zabor linguistikoa.** Globalizazioak bultzatutako turismo ereduak hainbat tokitan zabor pilatzeak eragin dituen bezala, gune turistiko batzuetan *zabor linguistikoa* deritzogun fenomenoak ezagutu dugu. Hori zer den azaltzeko, Senegalgo Iwol tribuan gertatutakoa hartuko dugu oinarri: tribuak ez du kontakturik izan kanpotarrekin orain dela gutxi arte, baina, kanpotarrak iritsi ahala, bertako

umeeek esaldi hau ikasi dute, turistengandik opariak jasotzeko: “Toubab, cadeau”³⁷. Esaldi horren bidez lortzen dituzten oparien eraginagatik, gazte askorengan objektu materialekiko desioa piztu da, eta asko beren herrialde utzi eta bizimodu hobe baten bila joateko desiatzen daude, beste herrialdeetan denak beraiek ezagutu dituzten turistak bezalakoak direlakoan –dirudunak–. Hartara, garai bateko kolonoen eta egungo turisten hizkuntza –frantsesa– eta Senegaleko gobernuak bultzatzen dutena –wolofera– neurritz kanpo goraiatu eta beren ama hizkuntza baztertzen hasi dira. Esaldiak, beraz, natur paisaia batean zabor poltsa batek duen eragin bera du bertako kulturaren eta bizimoduan: ingurunea kutsatu eta usteltzen dute.

- **Estereotipazioa/folklorizazioa:** Turista-bertakoa dikotomian, turistak oso informazio partziala du bertakoari buruz, eta hor oso erraza da folklorizazioaren erortzea: bestea da arraroa, tribala, folklorikoa... Rapa Nuiko jatorrizko biztanleei buruz hitz egitean, Espainiatik joandako kazetari batek dio basatiak, edukazio txarrekoak, lotsagabeak, alferrak... direla, baita hizkuntza arraroak hitz egiten dituztela eta beren etniakoekin ezkontzen ez direnak bortizki baztertzen dituztela ere. Kontuan hartuta Rapa Nuin 3.500 biztanle direla eta urtean 20.000 turista pasatxo jasotzen dituztela eta batzuk ikuspegi hori barne-barneraino sartzen dutela, folklorizaziorako joera gero eta handiagoa dute bertakoek, kanpotarren ideologiaren eraginez. Hawain, adibidez, folklorizazioak hawaierari eustea eragin du; izan ere, hizkuntza hori turistentzako erritualetan erabiltzen da, ez beste inon.

Roland Terborg eta Virna Velázquez Vilchisek beren ideiak toki jakin batzuetan behatutako egoeretan oinarritu zituzten. Hizkuntza indigenak zituzten Mexikoko bi herri aztertu zituzten: Dzites, 5.000 biztanle inguruko eskualde hiriburua, eta Xocen 1.000tik gorako herrixka bat. Bi herri horietako biztanle asko, batez ere gazteak, Karibeko turismo guneetara joaten dira lan egitera: maya bakarrik hitz egiten zutenek oso zail zuten lanposturik lortzea eta gaztelaniaz nahiz ingelesaz moldatzen zirenak dezente errazago. Haiei maya hizkuntzaz eta ingelesaz galdetzean, maya hizkuntza sinplea eta ingelesa hizkuntza konplexua zela erantzun zuten askok, ziur aski hizkuntzei atxikitzen zieten prestigioak eraginda: ingelesak du prestigio handiena, eta horregatik da konplexua, eta maya alderantzizkoa. Gainera, turisten aurrean maya ezkutatze joera zuten, maya hiztun askok euren artean hitz egitean gaztelaniara jotzen baitzuten turista bat inguratzean. Bertakoen artean, ingelesa ikasteko joera nagusitzen ari zen; izan ere, beldur ziren ingelesez mintzo zirenek beren seme-alabei iruzur egingo ziretela.

Aurkako jarreretan, sakonean, turismo eredu suntsitzaile jakin bat mugatzeko premia atzematen da, herriek turismoari edo turismo eredu jakin bati ezetz esateko eskubidea, euren kultura, balioak, mundu ikuskera eta hizkuntza defendatze aldera. Harreman desorekatu horren aurrean, badira turismo eredu globaletik atera eta bestelako turismo jarduerak garatu dituzten komunitateak, turismo jasangarriaren eta ekoturismoaren bidetik adibidez.

Turismo jasangarria bertako gizartean eta ingurumenean kalterik eragin gabe turistak jasotzeko gaitasunarekin lotuta dago, eta ekoturismoa ingurune naturaletara joatearekin, han kalterik eragin gabe. Izen horiek daramatzaten turismo jarduera interesgarriak

³⁷ *Toubab* gizaki zuriari esaten diote, eta *cadeau* oparia da, frantsesez.

badaude ere, oso zaila da turismo eredu bat jasangarria edo jasangaitza den zehaztea; izan ere, non kokatzen da kalte onargarrien muga? Are gehiago, kulturaren eta hizkuntzaren defentsa abiapuntutzat hartuta, zenbaterainoko kaltea da onargarria? Gainera, turismo industria suntsitzailearen ildoko enpresa asko izen horiek erabiltzen hasi da aspaldiko turismo eredu suntsitzaile bera mantentzeko. Hitz bitan esateko, izena aldatu bai baina izenari eutsi diote.

Nolanahi ere, globalizazioari lotutako turismo eredu jendetsuaren aurrean, alternatibarik interesgarrienak formato txikiko turismo jardueretan daude, ezaugarri hauek betetzen dituztelako.

- **Turismo komunitarioa:** turismo komunitarioa formato txikiko turismo mota bat da, eta Amerika Latinoko herri indigena eta nekazari talde batzuek edukia ematen saiatu dira. Abiapuntu teorikoa bi deklaraziotan dago: “Identitatea duen turismo komunitario, jasangarri, lehiakorraren aldeko Otavaloko deklarazioa” eta “Landa turismo komunitarioari buruzko San Joseko deklarazioa”. Deklarazio horietan oinarrituta, Ekuador, Bolivia, Costa Rica, Guatemala eta Peruko herri indigena eta nekazari taldeek turismoak euren bizi kalitatea hobetzea nahi zutela aldarrikatu dute. Kulturaren aldetik aberasgarria eta ekonomikoki bideragarria den turismo eredu baten alde egin dute, eta horrek, jakina, etekinen banaketarekin zerikusi zuzena du. Hartara, turismo komunitarioak autogestioa dakar; hau da, komunitateek turismoarekin zerikusia duten esparruen gaineko kontrola edukitzea. Hartara, turismotik sortutako garapen sozio-ekonomikoa komunitatearen onerako izaten da, eta, horri esker, kulutr ondarea mantentzen dute.
- **Turismotik ateratako etekinak bertako biztanle pobrenei ematea:** PPT Pro Poor Tourism estrategiak, adibidez, pobrezia murriztea du helburu, baina horrek ez du esan nahi etekin gehienak kanpoko enpresek eskuratzen ez dituztenik. Beraz, PPTren lan eremua oso zabala da: turismo komunitarioko proiektuak finantzatzetik turismo enpresa handien jarduerak finantzatzeraino, baldintza bakarra bertakoek etekinaren zati bat –handia edo txikia– eskuratzea baita. Beste faktore batzuk (desoreka sozioekonomikoetan eta etekinen banaketan duen eragina, adibidez) bigarren mailakotzat hartzen dute
- **Kanpotarra bertakoen ohituretara moldatzea:** Thailandiako gobernuak, Mirror fundazioak sustatuta, *True home stay* ekimena jarri du abian: turismo mota horrek benetako herrixketan ostatu hartzeko aukera ematen die bisitariei, tokian tokikoen baldintza berberetan, eta batik bat gazte jende independente eta kontzientziatuentzat izan ohi da. Helburuak bi dira: batetik, gutxiengo etnikoen kultura mendebaldeko kulturetara hurbiltzea, eta, bestetik, bertakoen bizitzak nekazaritza ustiapenari, prostituzioari eta giza trafikoari lotutako mehatxupetik atera ahal izatea. Japonian *True home stay* jarduera oso zabalduta dago graduatu berrien artean, heziketa akademikoaren osagarri gisa. Azken batean, diru etekinak eskuratzen dira, eta ez dago kultur kalte handirik, turismo olderik ez dagoelako eta bertara iristen diren abenturazaleek –?– bertakoen parametroen baitan jokatzeko dutelako
- **Segurtasuna eskaintzea:** turismo ereduak aurkako jarrera asko sortzen duenez eta turistek beldur handia diotenez haiek aurkako erasoei, komunitate batzuek

segurtasuna eskaintzen dute zirkuitu turistiko jendetsuetatik urrun dauden tokitan. Sinai hegoaldeko beduinoek, adibidez, beren bizitza aurrera ateratzeko, turistak Sinai mendira eramaten dituzte basamortuan aste betetik gora pasatzeko, eta han bidaiak eta trekkingak antolatzen dituzte; betiere, eurak bezalako bizitza egiten. Haien diru sarrera bakarra, beldur globalaren garaian beldurrari aurre egiteko baliabideak eskaintzean datza.

- **Turismo industriarentzako jokabide kodea.** Alemaniako Ekologia eta Garapen Zentroa-KATE gobernuz kanpoko erakundeak 2000tik 2003ra *Turismo Vision* izeneko kanpaina egin zuen, iritzi publikoari jakinarazteko turismoak oso eragin kaltegarria zuela Amerika Latinan. Hori garatzeko, turismo industriarekin harremanetan jarri ziren, haiei informazioa ere helarazteko. Gaur egun, proiektu hori indarberitu egin da, turismo industriak gizarte erantzukizunaren premia bereganatzeko ahaleginean baitabiltza. Nolanahi ere, ez da horren gaineko arau edo planteamendu zehatzik gauzatu.

v. Ondorioak

Argi dago mitoak orokortzea mitoen faltsukeria orokortzea bezain kaltegarria dela; izan ere, mitoz mito azaldutako prozesuak ez dira egokitzen hizkuntza gutxituen egoera guztietara. Tokian tokiko azterketetan hainbat faktore hartu beharko lirateke kontuan: turismoaren bolumena, bertako biztanleek turismo industrian duten parte hartzea, gainerako ekonomi sektoreekiko orekak eta desorekak, estatuak edo bestelako administrazio mailek beren subiranotasunari eusteko duten gaitasuna, garapen eredia nolakoa den eta zeinek baldintzatzen duen... Eta, horietaz gain, arreta handiagoa merezi dute hizkuntzarekin lotura handiagoa dutenak: hizkuntza gutxituen egoera, bertakoen eta kanpokoen artean komunikatzeko *lingua franca* zein diren, identitateari lotutako jarrerak, kultur desberdintasunak...

Azken batean, ulertu behar da turismoaren ondorioak ezin daitezkeela ikuspegi ekonomiko hertsitik ikusi. Turismoaren alde onak eta txarrak aztertu nahi izanez gero, beste arlo batzuk ere hartu behar dira kontuan: kultura, balioak, gizarte egituraketa, botere politikoa... eta, nola ez, hizkuntzak ere bai. Ez du ematen, ordea, horiei erreparatzen zaienik, eta horren adierazgarri da IVAPen aldizkariak Euskal Herriko turismoari buruz egindako inkestatxoak. Aldizkariak lau turismo adituri³⁸ galdera hau egin zien: “Euskal Herria prest al dago turistak hartzeko?”. (Administrazioan euskaraz. 57. zenbakia. 2007ko uztaila). Erantzunetan, bakar batek ere ez zuen aipatu turismoak dakartzan kalteei buruzko ezer –turismoaren mitoen liluragatik–, ez eta turismoak dakartzan hizkuntz aldaketei buruzko ezer ere –arlu horietako aldaketak fisikoki ikusten ez direlako edo ikusi nahi ez direlako–.

³⁸ Aitor Apraiz *Itsas Lehor* turismo enpresako gerentea, Rafael Ugarte Arabako Ostalaritza Elkarteko gerentea, Koro Garmendia Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuordea eta Santiago Olarreaga Donostiako campuseko turismo irakaslea Deustuko Unibertsitatean.

**HIZKUNTZAREN GAINEKO
DISKURTSOA GLOBALIZAZIOAN.
PRINTZPIOAK**

Gatiriak Keniako jende ikasi askok bezala hitz egiten zuen gikuyeraz. Pertsona horiek umeak bezala, hitz totalka, hitz egiten dute euren nazio hizkuntzetan, baina elkarrizketa bizi-bizirik izaten dituzte atzerriko hizkuntzetan. Desberdintasun bakarra hau da: Gatiriak ederki asko zekien hizkuntz esklabotza buru esklabotza dela, eta hori ez dela harro egoteko arrazoi inorentzat.

Ngugi wa Thiong'o, *El diablo en la cruz*

**i. Hizkuntzaren gaineko diskurtso globalizatzailearen
printzipioak**

Globalizazioak, hiztunen aurkako eraso fisikoez (**IKUS GERRAK ETA GATAZKAK**) eta hiztunen desplazamenduez eta horrek berez dakarren botere desorekaz gain, hizkuntzetan ere aldaketak ekartzen ditu: batetik, nazioartean hedadura handiko hizkuntzak erabiltzeko joera handitzen du –eta, horrekin batera, *lingua franca(k)* eratzekoa–, eta, bestetik, hizkuntza hegemonikoak hizkuntza gutxitu ugariarekin ukipen egoeretan jartzean, haietako asko ahultzen ditu. Prozesu horiek historian dominatzaileek taxututako diskurtso batek indartuta iristen dira. Lan honetan, diskurtso horri globalizazioak dakarren hizkuntzen gaineko diskurtsoa deitu diogu. Diskurtso hori globalizazioak dakarren ideologiaren zati bat da, eta ezin hobe uztartzen da beste alorretarako (ekonomiarako, kulturarako, politikarako...) zabaltzen ari den diskurtsoekin, baita hizkuntz eskubideen gainean nagusitzen ari den jarrerarekin ere.

Hizkuntzen gaineko diskurtsoetan, askotan entzuten ditugu kulturartekotasuna eta eleaniztasuna, elebitasuna, kulturantzatasuna... Besteen hizkuntzak errespetatzeko eta haien esparruak errespetatzeko diskurtsoa etengabe entzuten badugu ere, egunerokotasunean oso bestelako diskurtsoa nagusitzen da; hedabideetan eta adituaren esanetan gutxitan, oso gutxitan, entzuten dugun diskurtsoa. Kulturartekotasuna edo eleaniztasuna bezalako hitzen atzean, batzuetan, hizkuntz aniztasunaren eta hizkuntz berdintasunaren aurkako diskurtso suntsitzaile bat ezkututzen da, eta, beste batzuetan, ez dago ezkutuan, ageri-agerian baizik.

Atal honetan, diskurtso horren printzipioak ikusiko ditugu, baita printzipio horien aurkako iritziak ere, diskurtsoa desegituratze aldera. Horretarako, batez ere, Juan Carlos Moreno Cabrera hizkuntz adituaren “La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística” liburua izan dugu oinarri (MORENO CABRERA, 2000).

1. Hizkuntza batzuk garatuago daude beste batzuk baino, modernoagoak baitira

Printzipio horren atzean, beti, hizkuntza nagusien aldeko jarrera sumatzen da; izan ere, globalizazioaren bidez ez digute sinetsarazi nahi galesera ingelesa baino modernoagoa dela, alderantziz baizik: herrialde garatueto hizkuntza nagusiak dira herrialde “basatietakoek” baino garapen handiagoa izan dutenak, eta logika horren arabera, basatiek hizkuntza basatiak hitz egiten dituzte, sinpleak, egungo egoerari egokitu gabeak, behar adina garatu gabeak.

Moreno Cabrerak dio ez dagoela arrazoirik esateko bizimodu tradizionaleri lotutako komunitateek hizkuntzak garatu gabe dituztela. Hori frogatzeko, ia isolaturik bizi izan diren komunitateen adibideak hartzen ditu: Amazoniako tribuak, Papua Ginea Berriko Sepik ibaiaren inguruko komunitateak, Afrikako hizkuntza zaharrenak mintzatzen dituzten komunitateak... Kasu horietan ez zen aurkitu hizkuntza basatiren edo behar bezala garatu gabeko hizkuntzen zantzurik. Moreno Cabreraren hitzetan, ez dago Tarzanen moduko hizkuntzarik.

Azken batean, Francisco Fernandez Bueyk kultura unibertsalez eta tokian tokiko kulturei buruz esandakoa goitik behera betetzen da. Kulturak bezala, hizkuntzak

hierarkia batean jartzen ditugu: batzuk behar bezala garatuta daude, eta egungo bizitza modernorako balio dute, eta beste batzuk gizarte atzeratu eta basatietarako.

Printzipio horretan sakonduz gero, konturatuko gara etnozentrismoa eta arrazakeria dariela bazter guztietatik, *besteen* hizkuntzak jotzen baititugu basatitzat edo atzeratutzat, ez gureak. Europarrak beste hiztun komunitate batzuekin harremanetan hasi zireneko aurreiritziak barneratu eta zabaldu baino ez dugu egiten gaur egun. Ezjakintasunean oinarrituta, *besteak* gure irizpideen arabera sailkatu ditugu, orain duela 500 urte bezalaxe. Hizkuntza nagusien mailatik urrun daudela sinesten dugu, futbolaz edo fisika nuklearraz ezin baita hizkuntza horietan hitz egin, eta horixe da, hain zuzen, hizkuntza basatiak direla frogatzen duena. Ez gara konturatzen, antza, hizkuntza bat eginkizun jakin baterako erabilgarri izateko, erabiltzeko premia izan behar dela. Esate baterako, hizkuntza bat ez badugu erabiltzen fisika nuklearrari buruz hitz egiteko, ez da modurik izango hizkuntza fisika nuklearrerako erabilgarri izan dadin, edo, bestela esanda, hiztun komunitate batek fisika nuklearrak ez badu hitz egiten, horretarako premiarik sortu ez delako da.

2. Hizkuntza batzuek gramatika osoagoa edo lexiko aberatsagoa dute beste batzuek baino

Printzipio horri jarraiki, ematen du nahastu egiten dela hizkuntza nagusi batek gramatika liburu edota hiztegi asko izatea hizkuntza baten barne egituren aberastasun mailarekin.

Lehenengo eta behin, esan beharra dago hizkuntza guztiek dituztela letrak, silabak, hitzak, hitz berriak sortzeko mekanismoak eta esaldiak osatzeko arauak. Ez dago hizkuntza bakar bat elementu horiek ez dituenik, ezta horiek baino elementu gehiago dituenik ere. Beraz, alde horretatik, guztiak dira berdinak.

Adibidez, lexikoari dagokionez, ezin da horrelako ondorioz atera: funtsean, hizkuntza oro beren hiztunen premien ondorio denez, hiztunek gehiago edo gutxiago garatutako esparru lexikalak izango dituzte hizkuntzek. Herri basatiei lexiko pobrea dutela diotenei aurre egiteko, Hymes-ek esandakoa erabiltzen da askotan: “Ez dugu ezagutzen hiztegi murriztuegia izateagatik keinuz baino komunikatzen ez den hizkuntza naturalik (CRYSTAL, 2001).

Lexiko ugariagoa du inuiterak beren ingurumenaren gainean ingelesak baino. Beste adibide esanguratsu bat ematearren, Australiako arrenterazko hiztegiak 750 orrialde ditu (MORENO CABRERA, 2000), gaztelaniak, txinerak edota ingelesak baino gehiago, segur aski. Hortaz, ba al dago esaterik hizkuntza horiek hobeak direla, lexiko ugariagoa dutelako? Horrez gain, zalantzarria da pentsatzea hiztun batek hobeto hitz egiten duela lexiko ugaria duelako. Are gehiago, hitz gutxiko hizkuntzetan, luzeagoak dira esaldiak, kontzeptua zehatz-mehatz deskribatzen duen hitzen faltan, azalpen gehiago ematen direlako, eta horrek sintaxia gehiago garatzea dakar. Beraz, lexikoan gutxiago duenak sintaxian gehiago du, eta alderantziz.

Lexikoarekin lotutako beste kontu bat maileguena da: pentsa daiteke –eta hala dago zabaldua– mailegu asko dituen hizkuntza pobregoa dela, ez duelako berez hitz horren baliokiderik sortzen. Egia da mailegu azkar eta ugariak arriskuan jar dezaketela hizkuntza bat –batez ere, hizkuntzak hitzak sortzeko dituen berezko baliabideak albo

batera uzten baditu–, baina zer hizkuntzak ez du mailegurik? Zer izango litzateke frantsesa edo gaztelania mailegurik gabe? Maileguak dituelako, zilegi al da esatea hizkuntza pobreako dela?

Azken batean, hizkuntzaren gramatikaren gaineko liburu gehiago egoteak ez du esan nahi konplexuagoa edo osoagoa denik, baizik eta hizkuntza horien gramatika gehiago aztertu dela, eta horren arrazoia, ziurrenik, hizkuntza hegemonikoa izatea da.

3. Estandarizatutako hizkuntzak hobeak dira estandarizatu gabeak baino

“Hizkuntza estandarra”, oro har, ezaugarri mesedegarriekin lotu izan da: egonkortasuna ematen dio, lexikoa, morfologikoa, ortografikoa, semantika eta abar bateratu egiten baitira; eta hori onuragarritzat hartzen da, batez ere, idatziari begira. Nolanahi ere, Moreno Cabreraren ustez, forma estandarren garrantzia *puztuta* dago.

Hizkuntza bat edo aldaera linguistiko multzo bat estandarizatzek ez du funtsean hizkuntza horren kalitatea aldatzen, eta estandarra ez da hizkuntza horiek baino hobea (MORENO CABRERA, 2005).

Estandarizazioak ez dira prozesu neutralak; izan ere, hizkuntzaren barruan eta hizkuntza hitz egiten den eremuaren barruan dagoen botere desoreka adierazten du: prestigio sozial, politiko edo ekonomikoa duen botere gune batek bultzatutako hizkuntz aldaera bat nagusitzen da. Estandarizazio prozesuan, tira-bira asko egoten dira, eta, askotan, estandarera iristeko traba dira. Esate baterako, mapuzunguneran ez da forma estandarrik adostu, hiruzpalau alfabetoren defendatzaileak elkarri mokoka ari baitira³⁹.

Sektarismo politikoan eta irizpide politiko zatikatzaileetan oinarritutako jarrerak erabat baztergarriak dira Jean-Paul Bronckart Genevako Unibertsitateko irakaslearen ustez.

Ikuspegi honetatik, eta hemen azaldutako datuetan oinarrituta, komenigarria da zalantzan jartzea, eta baita baztertzea ere, alde aurretik pentsatutako ideia sinplistetan oinarritzen diren iritziak, eta baita “interesen bat duten” proiektu kultural, filosofiko, zientifiko edo politikoetatik eratorriak direnak ere (BRONCKART, 2005).

Horrez gain, Bronckartek beste hau ere salatzen du: hizkuntza estandarra ezartzeak aldaeren aurkako neurri kanpoko jarrera eragin du zenbait tokitan.

[...] ez da komeni hizkuntza estandarrek aniztasunaren eta aldaketaren aurkako tresna gisa erabiltzea; alegia, gehiengoaren jokabide desberdinen aurka erabiltzea. Hizkuntza horiek funtzio demokratikoa betetzea nahi bada –hau da, komunitate baten gehiengoak erabiltzea–, kontuan hartu behar dute benetako jarduera, eta, beraz, aldaketa eta aniztasuna onartzeko prest ere egon behar dute; beste hitz batzuetan esanda, etengabe jo behar dute oreka bila: elkar ulertzeko behar orokorra, batetik, eta gizakien azpitaldeek hori lortzeko erabiltzen dituzten hizkuntz irtenbideen

³⁹ Hauek dira alfabetoak: grafemario bateratua, Ranguileoko bertsoia (oso gutxi erabiltzen dute), CONADI Indigenen Garapenerako Nazio Korporazioak eta Txileko Hezkuntza Ministerioak onartua eta, Temucoko Unibertsitate Katolikoaren Wirilzugunwe grafemarioa, aurreko guztiak bateratzeko asmoz sortua (BELLIDO, 2005).

aniztasun eta aberastasuna, bestetik, orekatzearen bila (BRONCKART, 2005).

Laburbilduz, hizkuntza batek bertsio estandarra izateak adierazten du beren baitako aldaera bat, aldaera batzuk edota aldaera batzuen nahasketak beste aldaeren gainetik jarri d(ir)ela. Hori besterik ez, eta horrek ez du esan nahi estandarrik ez dutenak literatur tradizioz gabeak direla, hedabideetarako hizkuntza aproposik ez dutela eta abar. Hori guztia pentsatzea, beste behin, hizkuntza hobeak eta okerragoak daudela pentsatzearen parekoa da, eta ez du kontuan hartzen hiztun komunitate batzuk ez dutela zertan aldaera estandarrik eduki.

4. Pidginak eta kreolerak ez dute hizkuntza izateko nahiko mailarik

Pidginak eta kreolerak hizkuntz ukipenetik sortutako premiazko irtenbideak dira, eta berdinen arteko harremanetik hurbilago daude hizkuntz zapalkuntzatik baino; izan ere, bi hiztunen hizkuntzen ezaugarriak hartzen ditu, bi hiztunek komunikatu ahal izan daitezen, eta, batzuetan, garapenaren garapenez, jatorrizko hizkuntza izatera ere iristen dira.

R. Holme adituaren ustez, hizkuntza *puruen* defendatzaileek beti mespretxatu izan dituzte hizkuntza horiek, eta izen iraingarriak ezarri dizkiete: ingeles *hautsia*, portugesera *bastardoa*, frantses *beltza*... Hori dela eta, hizkuntza kreoleraz mintzo zirenei beren hizkera akastuna zela sinetsarazi zieten, estandarera gerturatzeraz bultzatzea nahi izan dute. Hona hemen ingelesezko kreoleran interpretari lanak egiten dituen pertsona baten adierazpena.

“Ez da erraz ulertzen kultura anglosaxoiaren aldetik; nolabait, tristea da, baliteke gure herri osoak bere jatorrizko hizkuntza galdu izana. Esan nahi dut nahasketa bat hitz egiten duela” (ABLEY, 2006).

Nolanahi ere, Holmek egindako azterketen arabera, horrelako hizkuntzen ezaugarri nagusiak (fonologikoak, morfologikoak, sintaktikoak, lexikoak eta semantikoak) hizkuntza *puruetan* ere aurki ditzakegu. Beraz, hizkuntz irizpideei soilik begiratuta, ingelesa edota gaztelania hizkuntza kreolerak direla esan dezakegu, baina, jakina, horrelako izendapen itsusiak ez dira hizkuntz irizpideen arabera egiten, irizpide politiko-ideologikoen arabera baizik.

Egun hizkuntza kreolerak izan baina etorkizunean hizkuntza *puruak* izango direnen zerrenda ugaritu egingo da hurrengo urteetan: Sierra Leonan, Ginea Berrian, Haitin, Surinamen, Curaçaoan, Aruban eta Bonairen, besteak beste, presio handia egiten ari dira hiztunak beren hizkuntzak onar ditzaten. Vanuatun, adibidez, antzera gertatu zen: bitxelamarrera pidgin izatetik estatuko harremanetarako hizkuntza ofizial izatera pasa da (HAGEGE, 2002).

5. Hizkuntz ugaritasuna kaltegarria eta anabasa sortzailea da

Printzipio horretan, zalantzarik gabe, Babelgo Dorrearen mitoaren eragina nabari da. Horren arabera, hizkuntza askok ezin dute elkarren ondoan bizi, anabasa, kaos eta batzuetan gatazka armatuak sortu gabe. Egoera gatazkatsu hori gainditzeko, hizkuntza bakar bat izatearen alde onak nabarmentzen dira; hori bai, hori defendatzen dutenak

hizkuntza nagusietako elebakarrak izan ohi dira, eta anabasaren aurretik lehenengo hizkuntza bat zegoelako mitoa elikatzen dute. Horren lekuko, Voltairek esandakoa: “Lastima da Babelgo Dorreko istiluengatik hizkuntza guztiak nahastea; hori gertatu ezean, denok frantsesez hitz egingo genuke” (CRYSTAL, 2001).

Eta zergatik frantsesa, eta ez euskara, mantxuera edota arabiera? Ba al dago lehen hizkuntza zein izan zen zehazterik? Egon al da inoiz lehen hizkuntzarik, pertsona askoren irudimenetik kanpo?

Hizkuntz aniztasunaren aurkako diskurtsoa mutur-muturrera eraman eta hizkuntz aniztasuna gerrak eta gatazkak sortzeko faktore dela ere esan izaten da. XX. eta XXI. mendeko gerrei begiratuta, argi geratzen da ideia horrek ez duela oinarri finkorik: gerrak herrialde eleanitzak zein elebakarrak izan dituzte (**IKUS GERRAK ETA GATAZKAK. GERRAREN LOGIKA ETA HIZKUNTZ ANIZTASUNA**).

Makropolitikari lotutako diskurtsoetatik ihesi eta hizkuntzaren gaiari hertsiki lotuta, Crystalek aldarrikatu du hizkuntzek berezko balioa dutela, eta hizkuntz aniztasunaren aldeko arrazoiak zerrendatu ditu (**CRYSTAL, 2001**):

- Aniztasuna behar dugulako, ekosistema guztiok eratzen dugulako eta nahitaez mundua anitza delako.
- Hizkuntzen identitatea adierazten dutelako (**IKUS IDENTITATEA**)
- Hizkuntzetan historia gordetzen delako
- Hizkuntzen bidez giza ezagutza guztia eskura daitekeelako
- Hizkuntzak berez direlako interesgarriak

6. Hizkuntza batzuk errazago ikasten dira beste batzuk baino

Askotan entzun dugu euskara katalana baino zailagoa dela, edota hiztun batzuek beren jatorrizko hizkuntzagatik erraztasun handiagoak dituztela hizkuntzak ikasteko. Horren ondorioz, hizkuntza jakin bat ikastea zaila denez, ideia hau nagusitzen da: “Hobe da besteek norberarena ikastea, norberarena askoz errazagoa baita ikasteko”. Moreno Cabrerak dioenez, hori ideia arrazista erabilerraza da: hizkuntza batzuk ikasteko jarrera itxia ezkutatu nahi du. Crystalen ustez, aitzakia merkea baino ez da.

Ez naiz trebea hizkuntzak ikasten da, ziurrenik, gehien entzuten den aitzakia hizkuntza berri batetik oinarri-oinarrizkoa ere ez ikasteko. Gehienetan, nork bere buruari egokitutako gutxiespen hori eskolako ikaskuntza prozesu kaltegarri baten ondorio izaten da. [...] Nolanahi ere, jarrera horretatik ez da honelako ondoriorik ateratzen: “Britainiarrak (edo amerikarrak) ez dira hizkuntzak ikasteko gai”. (MORENO CABRERA, 2000)

Jarrera horren atzean, hainbat faktore daude:

- Lehenengo eta behin, bigarren hizkuntza ikasteko prozesua ez da izaten lehenengo hizkuntza ikasteko prozesuaren antzekoa, lehen hizkuntzaren ikaskuntza naturala eta inkontzientea baita. Ahalegin kontzientea eta etengabekoa egin behar izaten da, eta horren bultzatzailea motibazioa da. Motibaziorik gabe, jai dugu bigarren hizkuntza ikasten.

- Toki askotan, ez da hizkuntz aniztasunarekiko gutxieneko arretarik ere jartzen; batez ere, munduko hizkuntza nagusietako elebakar asko dauden tokietan. AEBetako, Espainiako, Frantziako eta Ingalaterrako eskualde askotan, hizkuntz aniztasuna alboratu eta besteak hizkuntza nagusietan hitz egitera behartzearen aldeko kultura sustatu da.
- Hizkuntzak ikasteko erraztasuna norberaren hizkuntzaren eta ikasi beharreko hizkuntzaren arteko antzekotasunean datza: gaztelania jakinda errazagoa da portugesera, italiara edo katalana ikastea, edota errusiera jakinda bieloerrusiera jakitea. Hortik, ordea, ezin daiteke ondorioztatu batzuk besteak baino errazagoak direla, baizik eta errazagoak zaizkiela hizkuntza jakin batzuetako hiztunei.

Hizkuntzaren barne egiturei dagokienez (sintaxia, morfologia, semantika...), euskara ikastea gaztelania ikastea baino zailagoa ote den jakin nahian. Antonio Tovar filologo, historialari eta hizkuntzalari espainiarrak biak alderatu zituen 1954an, J. Greenberg hizkuntzalari estatubatuarrak proposatutako sailkapenari jarraiki. Sailkapen horren arabera, hizkuntzari zegozkion ezaugarriak bakarrik hartzen ziren kontuan, hizkuntzen ezaugarri morfologikoak. Emaizten ondorioak honako hauek izan ziren: hamar ezaugarrietatik, gaztelania errazagoa da bostetan (sintesia, aglutinazioa, flexioa, aurrizkiak eta inflexio purua) eta euskara beste bostetan (konposizioa, deribazioa, atzizkiak, konmuztadura eta isolatzea) (MORENO CABRERA, 2000).

7. Hitzun kopuru handia duten hizkuntzak hobeak dira hitzun kopuru txikikoak baino

Hitzun kopuru handiak dituzten hizkuntzak hobetzat hartzen dira hitzun kopuru txikikoak baino, eta, askotan, hitzun kopuru handia horrexegatik lortzen dela esaten da, hobeak direlako. Horren ildokoa da Gregorio Salvador Espainiako Hizkuntz Akademiako zuzendariordea.

Zenbat eta hitzun gehiago, orduan eta hobeak izango dira erabilerak, sistemaren mekanismoak, lexiko aldetik aberatsak diren espresioak, hautaketa konnotatiboak, eta, azken batean, literatur produktuak (MORENO CABRERA, 2000).

Berriro ere kantitatea eta kalitatea nahasten dira printzipio horren arabera. Izan ere, hitzun kopurua itsu-itsuan balio bakartzat onartuta, txinera gaztelania baino hobe dela esango genuke, eta, matematikako formula baten bidez, zenbat hobe den ere zehaztu dezakegu. Bistan denez, globalizazioak hizkuntzei buruz duen diskurtsoak ez luke inoiz onartuko txinera gaztelania baino x aldiz hobe dela, baina, agian, onartuko luke frantsesa bretoiera baino x aldiz hobe dela hitzun kopuru gehiago dituelako. Beraz, hizkuntzei buruzko aurreiritziekin egiten dugu topo berriro.

Dena den, kopuruaren logikatik urrun, Moreno Cabrerak hau dio, hitzun kopuruaren garrantziari buruz:

Hitzun gutxi izateagatik edota idazketarik ez edukitzeagatik, Sepikeko edo munduko beste bazter bateko tribu baten kultura edo hizkuntza mespretxatzen dugunean, gizakiaz eta bere kulturaz honako hau adierazten dugu: mespretxu handia, gizakiaren izaeraren errotiko ezjakintasuna, eta

intelektualki eta espirituz pobretu egiten gaituen berekoikeria nahiz etnozentrismo kulturala (MORENO CABRERA, 2000).

Hizkuntza gutxituen atalean hiztun kopuruaren garrantziaz aritzean esan bezala, hiztun kopurua balio absolututzat hartzen dute askok, hiztun kopuruak hizkuntzaren balioa zehazten duela pentsatuta, baina errealitateak adierazten du erabiltzaile askoko hizkuntzak ez direla gutxikoak baino hobekak, eta, are gehiago, kasu batzuetan, bizirik irauteko aukera handiagoa dute hizkuntza txikiek handiek baino (**IKUS HIZKUNTZA GUTXITUAK. HIZTUN KOPURUA**).

8. Hizkuntza bereko hiztun batzuek ondo hitz egiten dute eta beste batzuek gaizki

Oso barneratua dugu batzuek ondo hitz egin eta beste batzuek gaizki hitz egiten dutelako ideia. Gehienetan, ondo hitz egitea bat dator hizkuntz arauak betetzearekin, eta gaizki mintzatzen direnak estigmatizatu egiten ditugu, txarrak baino okerragoak diren ezaugarriak atxikiz.

Izan ere, arauekin bat datorren hizkera goraiatzean bestelako hizkerak estigmatizatu, mespretxatu eta baztertu egiten dira, eta ez hizkuntz irizpideetan oinarrituta, ideologian oinarrituta baizik. Borrego Nieto soziolinguistika aditu espainiarraren ustez, hizkuntzalaritzaren ikuspegitik ez dago ezer forma batzuk hobekak eta beste batzuk okerragoak izatea eragiten duenik (MORENO CABRERA, 2000), forma okerra eta zuzena erabat ulergarriak direlako eta gauza bera adierazten dutelako. Hala ere, joera horren aurkakoak dira eskola eredu gehienak.

Horren ondorioz, hizkuntza barruko diglosia egoerak sortzen dira. Adibiderik garbiena arabiera dugu. Eskolan arabiera eredu bat irakasten da (klasikoa edo koranikoa), eta eredu hori erabiltzen da hedabideetan, liburuetan, literaturan... Nolanahi ere, arabierako hiztunek ez dute arabiera hori erabiltzen familia barruan, adiskideekin, ahozko harremanetan... Eta arabiera klasikoaz egiten dutenek mespretxatu egiten dituzte, besteak beste hizkuntz erabilera oinarritutako bi gizarte paralelo osatzeraino: batetik, arabiera zuzenaz hitz egiten dutenak, eta, bestetik, arabiera *kaletarra* edo dialektala hitz egiten dutenak. Azken urteetan, Mubarak Egiptoko presidentek behin baino ez die arabiera *kaletarraz* hitz egin egiptoarrei: AEBekin bat egin eta Golkoko gerran zergatik sartuko ziren azaldu eta kale protestak baretzeko. Pasadizo horrek, azken batean, bi gauza esan nahi ditu: Mubarak, ordura arte beti arabiera klasikoaz mintzatzen bazen ere, arabiera kaletarrez hitz egiteko gaitasuna baduela, eta hizkera bat edo beste erabiltzeko irizpidea politiko-ideologikoa dela.

Nolanahi ere, zuzentasunaz harago, egokitasuna da egoera gehienetan kontuan hartu behar dena. Izan ere, hiztun batek gramatikako akatsik gabe hitz egiten badu, ezin hobe ahoskatuz eta unean-unean hiztegiak onartzen dituen formak bakarrik erabiliz, oso hizkera egokia erabiliko du tesia aurkezteko, baina ez lagunaren artean egoteko. Zuzentasunaren kaltetan, beraz, *hobea* da egokitasuna.

9. Idazketa sistema duten hizkuntzak hobekak dira ez dutenak baino

Miquel Siguan hizkuntz aditu katalanak adierazten duenez, desagertzeko arrisku handiena duten hizkuntza gehienak orain arte isolatuta eta idazketarik gabe bizi izan

direnak dira. Nolanahi ere, desagertzeko arrisku handiagoan egoteak ez du esan nahi hobeak direnik, baizik eta faktore gehiago eta indartsuagoak izan dituztela aurka.

Argi dago idazketak alde on asko dituela: idazketa prestigioarekin lotuta dago, eta hiztunen jarrera positiboa dakar; hizkuntza idatziak pentsaera ordenatua eta logikoa eragiten du, idazketari esker gaitasun metalinguistikoak garatzen dira eta zaila litzateke –ezinezkoa?– idazketarik gabe hizkuntzaren gaineko azterketak egitea, idazketa oroimenean gordetzeko eta erregistratzeko fidagarriagoa da ahozkoa baino, administrazioak idazketa behar du gutxieneko funtzionamendurako ere, idazketa hiztun komunitatearen lorpen handia da, haien premiagatik sortua bada eta ez kanpoko eragile batek ezarria...

Nolanahi ere, alde onek ez gaituzte itsutu behar, idazketarik ez edukitzeak ez baitu esan nahi hizkuntzarako edo hizkuntzaren bidez helarazten den kulturarako gabezia dagoenik. Idazketaren garrantzia gutxietsi gabe, aintzat hartu behar da idazketarik gabeko hiztun komunitateek beren bizi funtzio guztiak bete ditzaketela forma idatzirik gabe, beren bizitzetan komunikazio, pentsaera eta identitate funtzio guztiak forma idatzirik gabe bermatuta baitituzte. Kasu horietan, beraz, idazketa ez izatea ez da ezintasun baten ondorioa, premia faltaren ondorioa baizik. Txinako de`angera, quiqiongera eta namuyiera hizkuntzek, adibidez, literatur aberastasun ikaragarria dute, eta ahoz transmititu dute belaunaldiz belaunaldi (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Zoritxarrez, etnozentrismoaren ondorioz, garapen teknologiko handia izan duten herrialdeetan mespretxatu egin dira idazketarik gabeko hizkuntzak. Kontrako muturrera joan gabe, argi utzi behar da idazketa ez dela ezinbesteko baldintza hizkuntza baten *osasun egoera* balioesteko, testuingurua eta bilakaera historikoa hartu behar baitira kontuan, beste faktore askoz gain, tartean honako hauek:

- Batzuetan, idazketarik gabeko hizkuntzak eta idazten ez dakiten hiztunak nahasten ditugu, hiztun batek idaztea ez jakitetik hizkuntza hori ez dela idazten ondorioztatzen baitugu. Zoritxarrez, munduan 771 milioi heldu daude idazmenerako eta irakurmenerako oinarritzko gaitasunik gabe⁴⁰, hau da, ahoz darabilten hizkuntza idazteko edo irakurtzeko gaitasunik gabe.
- Hiztun askok ez dakite euren hizkuntza idazten denik ere. Kopuru zehatzik ateratzerik ez badago ere, nahikoa adierazgarria da woloferaz mintzo den emakume batek esandakoa: “Wolofera esan egiten da, eta ez idatzi, istorioak kontatzeko eta irudikatzeko erabiltzen baita”. Idazten jakin badaki emakumeak, baina ez daki woloferaz idazterik dagoenik ere.
- Hizkuntza askotan idazketa sortu berria da, kolonizazio garaian iritsia. Azken mendean, idazketaz baliatzen hasi diren hizkuntzak asko dira: besteak beste, zhuangera eta jingphoera Txinan, eta bamananka hizkuntza eta somaliera Afrikan. Pentsatzekoa da gero eta hiztun komunitate gehiago sartuko direla idazketa sistema erabiltzeko prozesuetan (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Azken batean, idazketa edukitzeak ez du eraginik izan behar hizkuntzari buruzko iritzian. Honako faktore hauek hartu behar dira kontuan: hizkuntza idatzi ororen aurretik

⁴⁰ Guztientzako Hezkuntza segimendurako txostenaren laugarren argitalpeneko datuetan oinarrituta.

beti ahozkoa egon da, ahozkoak dira hizkuntza guztiak, eta hizkuntza idatziak ez dira denak, gizarte garatuetan ere ahozkoatasuna da erabilera hedatu duena, hizkuntz transmisioa ahoz egiten da nagusiki eta hizkuntza idazten ikasi aurretik ikasten dute haurrek.

Gainera, Miquel Siguanen iritziaren aurka, Moreno Cabrerak ez du uste idazketa identifikazio adierazpen denik eta horrek hizkuntzarekiko atxikipena handitu duenik. Hizkuntzarekiko identifikazio iturria beste bat da (**IKUS IDENTITATEA**); batez ere, beste hizkuntzarekiko harremanak bultzatutakoa.

Idazketaren gehiegizko garrantzia ematearen arrastotik, kultura batzuek beste batzuk menderatzeko idazketa erabili izana salatu behar da. Idazketaren bidez hizkuntza bat ezarri eta bestea ahaztera behartu dituzte komunitate asko historian: AEBetako eskola elebakarretan, jatorrizko nazioetako kideen aurka; Hego Amerikan, indigenen aurka; Sobiet Batasunean, errusiera ez beste hizkuntzen aurka... Atzean, beti, hizkuntza idatzien nagusitasunaren ideia ustela dago.

10. Hezkuntzan sarbidea duten hizkuntzek ziurtatuta dute etorkizuna

Estatu batzuek, hizkuntz aniztasunarekiko nolabaiteko sentiberatasuna dutelako edota hizkuntza gutxituetako hiztunek presio handia egin dutelako, sarbidea eman diete hizkuntza gutxituei hezkuntzan, hizkuntza nagusian ikasgai gehienak emanda eta hizkuntza gutxituari ordu gutxi batzuk eskainita, bi hizkuntzak behar bezala ikastea ekarriko zuelakoan eta, hartara, hizkuntz berdintasuna bermatuko zelakoan. Azken batean, bertako hizkuntza gutxitua bigarren hizkuntzat hartzen duten ereduak hizkuntz zapalkuntza areagotu besterik ez dute egin; elebakartasun erabatekoa helburua, elebitasun asimetrikoa bultzatu dute, nahiz eta maila diskurtsiboan aldarrikatu hezkuntzan tokia eskaintzea hizkuntz arazo guztien konponbide izango zela.

Izan ere, hizkuntza gutxituak gutxitu ez izateko bidean jartzeko ezinbestekoa da hezkuntza hiztun komunitatearen hizkuntzan egitea. Bestela, hizkuntza gutxitua bigarren mailako gaietan edota ordu gutxi batzuetan erabiltzen bada, ez da aukerarik geratuko hizkuntza gutxituen aurkako iritziei buelta emateko, ez EBn, ez Botswanan, ez Perun.

Hizkuntz aniztasunari eustea lotuta dago hizkuntza gutxituak ikasteari denbora gehiago eta dedikazio handiagoa eskaintzearekin, baita hizkuntza gutxitua hezkuntzaren ardatz bilakatzearekin ere.

Beraz, kontua ez da bazterreko tokia eskaintzea, erdiko tokia baizik. Eta, jakina, horrek arazoak ekarriko ditu, aurretik toki pribilegiatuan egon direnek beren hizkuntzaren aurkako jarrera sustatzen ari direla esango baitute, normala baita nork bere pribilegioei eutsi nahi izatea –are gehiago, urte askoan besteen gaineratik, besteen eskubideak aintzat hartu gabe, egon badira–. Beste kontu bat aldarrikapen horien zilegitasuna da. Izan ere, zilegi al da askatasunaren printzipio unibertsalaren izenean pribilegio egoera bidegabe bati eutsi nahi izatea?

ii. Ondorioak

Printzipio horiek guztiak barne hartzen dituen diskurtsoaren bidez, globalizazioak mundu osora hedatu du aurreko mendeetan nazio estatu askoren mugen barruan hedatu den diskurtsoa. Hizkuntzetarako diskurtso horrek, ekonomiarako, politikarako eta kulturarako diskurtsoekin uztartuta, ideologia neoliberalak eratu du; hitz bitan laburbiltzeko, bazterketa eta hierarkia prozesu naturalez mozorrotzen duen ideologia da. Batzuetan, errealtatea ukatzeraino iristen dira agintariak, globalizazioak abian jarritako mekanismo intelektualek den-dena ezkutupean uzten dutelakoan-edo. Horren ondorioz, hizkuntza gutxituen aldekoen lehentasunezko zeregina arazo bat dagoela ikusaraztea da. Izan ere, Frantziar adibidez, Nicolas Sarkozy Frantziako egungo presidentearen adierazpenen arabera, ez dago hizkuntza gutxiturik, eta halako zerbait baldin badago, ez dago haien aurkako zapalkuntzarik.

Azken batean, demokraziaren eta berdintasunaren mozorroaren azpian, hizkuntz berdintasunaren eta hizkuntz aniztasunaren aurkako jarrerak bultzatzen dira, herri askoren historian aspalditik indarrez ezarri nahi izan diren printzipioak mundu osoan ezar daitezkeen. Izan ere, globalizazioaren diskurtso *berria* hizkuntzekiko begirune ezan oinarritutako diskurtso *zaharra* baino ez da, Salvadorren esaldi honek adierazten duenez.

Berdintasuna gizakiei bakarrik ezar dakieke, inola ere ez hizkuntzei. Hizkuntzak, berez, objektu desberdinak dira, neurritz erabiltzeko tresnak, eta hizkuntzen arteko talkei ezin dakieke ezarri inoiz pertsonen arteko gatazkei ezartzen zaizkien irizpide berak (MORENO CABRERA, 2000).

Moreno Cabrerak aurre egin dio jarrera horri, eta aldarrikatu du berdintasuna ez dela uniformizazioa, eta biak uztargarriak direla. Pertsonen arteko desberdintasunen adibideari jarraiki, Moreno Cabrerak dio, gizakiok nork bere sexua, altuera, ile kolorea, aurpegia, sudurra edota pisua ditugula, baina hortik ezin dela ondorioztatu espezie bakarrekoak ez garenik. Hartara, diskurtso hori hizkuntzen egoerara eramanda, nahiz eta hizkuntzek ere beren ezaugarriak izan, ezin daiteke esan erabat desberdinak direnik, hizkuntza guztiak komunikazio sistema bakarraren aldaerak baitira.

Hizkuntz aniztasunaren aurkako diskurtso horri aurre egitea da, beraz, hizkuntzalari askoren borroka. R. M. Dixon hizkuntzalariak, adibidez, Australiako eta munduko beste toki batzuetako hizkuntza indigenak aztertu ditu, eta, haren ustez, hizkuntz aniztasuna desagertzeko arriskuan dagoela jakinaraztean, gehienetan honelako erantzunak eta jaso ditu:

Herri ezdeusek hitz egiten dituzten hizkuntza ezdeusak dira, eta munduko nazio zibilizatu handiek komunitate global baterantz ematen dituzten urratsei esker besterik gabe desagertuko dira. Zer interes du sugandilen belar hazien bila basamortuko harea beroa zapaltzen igarotzen duen ehiztari edo biltzaile talde baten hizkuntzak? [...] Zer esan dakiguke hizkuntza horrek, frantsesaren, alemaneraren, espainieraren (sic), ingelesaren edota errusieraren baliabide aberatsak aztertuz jakin ez dezakegunik? [...] Onena hizkuntza horiek ahaztea da, inork trabarik jarri gabe. Agian, hizkuntza batzuetako grabazioak egin beharko liriateke, lagin

moduan, baina denbora eta baliabideak galtzea da beste ezer egitea.
(MORENO CABRERA, 2000)

Jarrera horren aurrean, Dixonek hausnarketa hau egiten du: hizkuntza horiek ikasteko, hizkuntzalariak Amazoniako oihanean barrena sartu izan ez balira, hizkuntza nagusietan aurkitu ez ditugun hainbat ezaugarri betiko galduko ziren. Eta, etorkizunean, hizkuntzekin batera, zenbat ezaugarri galduko dira hizkuntza desagertu aurretik hizkuntzalariek ez badute nahikoa denborarik izan hizkuntza horiek aztertzeko?

Hizkuntz aniztasunaren aurkako jarrerak, gainera, ezjakintasun handia dakar eskutik hartuta. Hitzun gutxiko hizkuntzei buruz hitz egitean, askotan esaten da ez dagoela alderatzerik milioika hitzun, mende askotako idatzizko literatur tradizio distiratsua, lurralde zabal bat, botere ekonomiko, politiko, sozial eta kulturean ikaragarritzko eragina eta zientziarako baliabideak dituen hizkuntza bat Aurrehistorian bizi den komunitate txiki batekin. Hori diotenek ez dakite, antza, gaztelania, frantsesa edota ingelesa komunitate txiki batzuek lurralde txiki batean hitz egiten zuten hizkuntzak zirela orain dela mende gutxi batzuk. Berriro ere agerian geratzen da, beraz, globalizazioak dakarren diskurtso ideologikoak historia ez duela aintzat hartzen.

INGELESAREN NAGUSITASUNA
GAUR EGUN

Gaur egun hizkuntzen %90en etsai nagusia ingelesa da.

Mark Abley

i. Sarrera

Globalizazioak hizkuntz aldaketa handia ekarri du munduan –Crystalek, adibidez, “iraultza” esaten dio hizkuntzek azken 10-15 urteetan bizi izandako aldaketei–. Aldaketa nagusia, hizkuntzak desagertzeko erritmoa bizkortzeaz gain, ingelesaren nagusitasuna da: globalizazioaren diskurtsoaren printzipio teorikoak, aurreko atalean ikusi ditugunak, ingelesaren bidez gauzatu dira. Globalizazio ekonomikoa munduaren *anglosaxoitzearekin* lotuta ageri zaigu, batzuei askorik axola ez zaien arren: horien aburuz, mundua hizkuntz ezaugarrietan ere gero eta berdinagoa denez, gero eta hizkuntz zailtasun gutxiago izango ditugu elkarrekin komunikatzeko. Gainera, ildo horretatik jarraituz, ingelesa nagusitzeak aurrerapen handia ekarriko luke, itzulpenak ezabatuta, kultur trukeak sinpleagoak izango lirakeelako.

Sinplekeria horietaz harago ez ikustea munduaren nagusitasuna eskuratzeko mekanismoez ez jabetzea da: globalizazio kulturala –inperialismo kulturala?– globalizazio ekonomikoa edota politiko-militarra baino gaitzagoa da atzematen, bestek beste, beste globalizazio horiek estali egiten dutelako (BRETON, 2000).

Gaur egun, hizkuntz aniztasunaren etsai handiena ingelesa da; izan ere, ingelesaren nagusitasuna akulturizaziorako eredu elebakar basatian oinarrituta dago, eta prozesu horren adarrak gero eta bazter gehiagotara ari dira iristen, hizkuntzen %90en etsai nagusia izateraino, arestian aipatu denez. Crystalek dioenez, gaur arte historian ez da egon dozena bat estatu baino gehiagotan nagusitu den hizkuntzarik. Horrenbestez, ingelesak lekutan utzi du marka hori⁴¹: ingelesa ofiziala da 70etik gora estatutan, nazioarteko erakundeen hizkuntza nagusia eta batzuetan bakarra da, hedabide gehienek jabeak anglosaxoiak dira (**IKUS BOTERE ALDAKETA ETA ENPRESAK. HEDABIDEAK**), atzerriko hizkuntza ikasteko gehienek ingelesera jotzen dute... Azken batean, ingelesa nazioarteko *lingua franca* izatera iritsi da.

Nagusitasunaren hazia noiz landatu zen jakiteko, historian murgildu behar dugu, eta, gutxienez, 1780ra joan. Data hartan, John Adamsek, AEBetako presidente izan aurretik, adierazpen hauek egin zituen:

Ingelesaren patua datorren mendean eta hurrengoetan munduko hizkuntza izatea da, garai batean latinak lortu zuenaren gainetik edota gaur egun frantsesak duenaren gainetik (CRYSTAL, 2004).

Asmo hori gauzatu egin da pixkanaka-pixkanaka, hizkuntzaz kanpoko faktoreek bultzatuta: kolonizazioak, negozio munduko nagusitasuna, komunikazio teknologien eragina eta kontrola, kultur adierazpenak (musika, zinea...) eta abar. Dударik ez da, Mayk dioenez, elkarren segidako bi inperiok ingelesa erabiltzeak zerikusi handia izan duela hedadura prozesuan (MARTI eta beste batzuk, 2005). Canagarajah eta Pennycook hizkuntzalariek diotenez, hizkuntzak ez du berez egoera hori ekartzen, baizik eta hizkuntzaren atzean dagoen egiturak (GONZALEZ, 2005). Egile horien eta beste askoren ustez (Hagege, Crystal, Phillipson, Siguán, Fisher, Abley...), oso kezagarria da egoera. Batetik, ingelesa, gainerako hizkuntzak bezalaxe, ez da neutrala, mundu ikuskera jakin batekin lotuta dagoelako, eta mundu ikuskera hori ari da nagusitzen. Horrek, Siguñanen ustez, hizkuntzaren bidez transmititzen diren kultura asko suntsi

⁴¹ Baita gaztelaniak eta frantsesak ere.

ditzake, nahiz eta hizkuntza formalki ez desagertu. Bestetik, ingelesa orain arte hizkuntza gutxituek bere zituen esparruak bereganatzen ari da, eta horrek arrisku bizian jartzen ditu ehunka hizkuntza munduan.

Robert Phillipson Danimarkako hizkuntz aditua eta ingelesaren nagusitasunaren etsai porrokatuak ingelesa hedatzeko prozesua hasieratik erabat planifikatuta dagoela aldarrikatu du, Commonwealth-ek 1961ean Ugandan egindako kongresuan ingelesa zabaltzeko oinarriak finkatu baitziren: ingelesaren irakaskuntzan elebakartasuna ezartzea, ingelesaren irakasle ideala hiztun natiboa izatea, ingelesa ahalik eta gazteen ikastea, ingelesaren irakaskuntzak ahalik eta eremu gehien hartzea eta ingelesaren irakaskuntzak beste hizkuntzen irakaskuntzari tokia kentzea (MARTI eta beste batzuk, 2005). Phillipsonen ustez, mundu mailako erakundeek bat egin dute irizpide horiekin (NBE, Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Funtsa...), eta etengabeko ahalegina ari dira egiten ingelesa munduko hizkuntza bakarra izan dadin (PHILLIPSON, 2002).

Horrenbestez, hizkuntzei dagokienez, elkarren aurkako bi diskurtso ditugu: batetik, ingelesaren nagusitasunaren aldekoa, eta, bestetik, hizkuntz ekologiarena. Bien arteko desberdintasun nagusiak argi ikusteko, oso erabilgarria da Yukio Tsuda komunikazio aditu japoniarrek egindako paradigma bikoitza (PHILLIPSON, 2002).

Paradigma: ingelesaren hedapena

Paradigma: hizkuntz ekologia

Kapitalismoa

a. Giza eskubideen aldeko ikuspuntua

Zientzia eta teknologia

b. Komunikazio berdintasuna

Modernizazioa

c. Eleaniztasuna

Elebakartasuna

d. Hizkuntzak eta kulturak kontserbatzea

Globalizazioa eta nazioartekotze ideologikoa

e. Nazio subiranotasuna babestea

Transnazioanalismoa

f. Atzerriko hizkuntzak ikasteko motibatzea

Munduko kulturalren estatubatuartzea eta homogenizazioa

Inperialismo linguistikoa, kulturala eta mediatikoa

ii. Hiru zirkuluen teoria

Ingelesa zer modutan eta zer-nolako abiaduran nagusitzen ari den azaltzeko, Phillipsonen eta Crystalen eskemak –Crystalena Kachru Indiako hizkuntzalariarenean onarrituta– hartu ditugu oinarri. Phillipsonek bi zirkuluko eskema erabiltzen du, eta Kachruk hirukoa, eta guk ere hirukoa hartuko dugu oinarri.

Lehen zirkulua

Lehen zirkuluari *Inner circle*⁴² esaten dio Kachruk eta *core English-speaking countries*⁴³ Phillipsonek. Zirkulua esparru guztietarako ingelesa erabiltzen duten herrialdeek osatzen dute: Britainia Handiak, Australiak, AEB, Kanadak, Zeelanda Berriak... Zirkulu horretan, beste hizkuntzen aurkako akulturizazio prozesua oso garatuta dago, eta elebakartasuna ia erabatekoa izateko bidean doa, tokian tokiko egoerak berdin-berdinak ez badira ere.

Herrialde barruko biztanleei presio politikoa, ekonomikoa eta soziala egiten zaie, hizkuntza nagusia bere egiteko. Presio horrekin batera, beste prozesu batzuk ere atzematen dira hizkuntza gutxituetako hiztunengan: kultur identitatearen galera, gizarte bazterkeria, bizimodu tradizionalaren mespretxua... Itzelezko presio horri aurre egin eta oraindik bizirik irautea lortu duten hizkuntzak badira, ordea. Hortxe ditugu azken urteetan aurrera egin duten bi hizkuntza, adibidez: maoriera Zeelanda Berrian eta galesera Britainia Handian.

Nolanahi ere, herrialde horien barruan etengabeko tentsioan daude erabateko elebakartasunaren aldeko diskurtsoa eta elebitasunaren aldekoa. AEBetan, esate baterako, gaztelaniaz mintzo diren migratzaile asko daudenez, haien ama hizkuntza eskoletan ikasteko aukera ematearen ganean eztabaida sutsua piztu da: batetik, eskubide hori onartzearen aldekoak daude, eta bestetik, AEBetan ingelesa bakarrik ikasi behar dela diotenak (*English only*, *US english* eta *English for the children* mugimendukoak, adibidez⁴⁴).

Azken batean, ingelesaren alde, elebakartasunaren aldeko jarrera sustatzen da, eta eleanitzak baztertu, azpigarapenarekin eta atzerapen historikoarekin lotzen baitira. Horri lotuta, hona hemen James Crawford AEBetako hizkuntzalariak esandakoa:

Modernizaziorantz ematen den urrats bakoitzak areago kaltetzen ditu hizkuntza indigenak. Hizkuntza horien erabilera-eremua familiara eta sutondora, errito erlijiosoetara eta zeremonia tradizionaletara mugatzen ari da pixkana-pixkana (Egile asko, 2003).

Hartara, botereak ingelesez bakarrik mintzo direnen defentsa egiten du, haiek inongo atakan ez baititu jartzen: ez dute beste hizkuntzarik ikasi behar, den-dena ingelesez egin dezakete.

⁴² Euskaraz, barruko zirkulua.

⁴³ Ingelesez mintzo direnen herrialdeen nukleoa.

⁴⁴ Mugimenduon helburua AEBetako estatuetan ingelesa hizkuntza ofizial izendatzea eta eskolako eredu elebidunak bertan behera uztea da, ingelesa legez ere nagusi izan dadin. Esan beharra dago AEBetako konstituzioak ez duela hizkuntza ofizialei buruzko aipamenik.

Bigarren zirkulua

Bigarren zirkulari *outer circle*⁴⁵ esaten dio Kachruk eta *periphery-English countries*⁴⁶ Phillipsonek. Zirkulu hori beste hizkuntza batzuk izan arren ingelesa hizkuntza ofizialtzat duten herrialdeek osatzen dute. Guztira, Crystalen arabera, 70 inguru dira, eta askok eta askok kolonizazio garaitik dute ingelesa hizkuntza ofizial (MARTI eta beste batzuk, 2005) Ghanak, Nigeriak, Hegoafrikak, Singapurrek... Nigeriako gobernuaren politikak, ahal duen neurrian behintzat, hango hiru hizkuntza nagusietara (Imusa, yoruba eta igbo hizkuntza “nazional” edo “federalak”) eta ingelesera murrizten ditu hezkuntza-baliabide eta diru-laguntza guztiak, beste guztiak baztertuz (Egile asko, 2003).

Herrialde horietako askotan, elebitasun/eleaniztasun desorekatua edo asimetrikoa ari da nagusitzen; hau da, hiztunek gero eta gaitasun eskasagoa dute beren jatorrizko hizkuntzak esparru batzuetan erabiltzeko, eta gero eta gaitasun handiagoa esparru horietan ingelesez mintzatzeko. Ingelesa prestigiotsua, erabilerraza eta modernoa denez, jatorrizko hizkuntzari aurkako ezaugarriak atxikitzen zaizkio. Elebitasun/eleaniztasun asimetrikotik jatorrizko hizkuntza erabat galtzeraino prozesua gerta daiteke, eta gertatzen ari da, hizkuntza gutxituak familia giroetan kontzentratuz baitoaz, eremu sozialak galdua. Adibideak nonahi daude: Fiji uharteetan ingelesa batasun soziokulturalaren bultzatzaile izan da (MARTI eta beste batzuk, 2005). Indiako kasta baxuko batzuentzat ingelesa demokraziaren hizkuntzat hartu dute, Nigerian 400 hizkuntza dituzte eta ingelesa hartu dute hizkuntza nagusi... (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Aurreko zirkuluan ez bezala, bigarren zirkuluko herrialdeetan ez da bultzatzen elebakartasuna, elebitasun/eleaniztasun asimetrikoa baizik, elebakartasunerako zubi moduan. Izan ere, prestigio eta erabilgarritasun pragmatikoaren ikuspuntutik, argi dago ingelesak aurrera egiteko aukera guztiak dituela, gainerako hizkuntzen kaltetan.

Hirugarren zirkulua

Hirugarren zirkulari *expanding circle*⁴⁷ esaten dio Kachruk. Hirugarren zirkuluan nazioarteko harremanetarako ingelesa hautatzen duten herrialdeak daude: Japonia, Eskandinaviako herrialdeak eta, hedaduraz, globalizazioaren zurrumbilatik gertu dauden herrialde guztiak (Espainia, Frantzia, Alemania...). Guztira, Crystalen arabera, ehundik gora dira.

Bereziki, belaunaldi gazteei begirako estrategia gauzatzen da zirkulu horretan: ikaskuntza prozesuan atzerriko hizkuntza ingelesa izatea du helburu, ingelesarekiko identifikazioa handitu dadin. Estrategia horri lotuta honako ideia hau dago: belaunaldi berriek ingelesaren beharra izango dute mundu globalizatuan, nork bere jatorrizko hizkuntzarekin ezin baitu arrakastarik lortu. Helduengan ere nolabaiteko presioa egiten da, egoeraren arabera handiagoa edo txikiagoa, ingelesa ikastera behartzerainokoa kasu batzuetan. Helduei hizkuntzak irakasteko esparruan, gero eta diru gehiago mugitzen ari da: hizkuntz akademiak, ingelesa on-line ikasteko zerbitzuak, ingelesa ikasteko txangoak eta egonaldiak... Fishmanen arabera, 1992an munduan atzerrira joan ziren milioi bat ikasletik erdiak baino gehiago ingelesa hizkuntza nagusi den herrialdeetara

⁴⁵ Euskaraz, kanpoko zirkulua

⁴⁶ Periferiako herrialde ingelesak.

⁴⁷ Hedatzen ari den zirkulua

joan zen (Australia, Kanada, Irlanda, Zeelanda Berria, Erresuma Batua eta AEB). (FISHMAN, 2001).

Parametro beraren baitan dago Nafarroako Gobernuak abian jarri nahi duen British eredua. Espainiako Hezkuntza Ministerioak eta British Council erakundeak⁴⁸ sinatutako hitzarmenari esker, ingelesa hizkuntza nagusi izango den ikaskuntza eredua jarriko dute abian Nafarroan. Kalen Astiz Sortzen-Ikasbatuaz ikastolen koordinatzaileak, eredu horren aurka helegitea zergatik jarri duen azaltzen du:

Gure ustez, ez dute gaitasunik hezkuntza eredu berriak sortzeko, ez eta egungo ereduak aldatzeko ere. [...] Nafarroako Gobernuak ez du egia esan ereduak saltzean; esperimintuz hartzen ditu, eta adjektibo politzez eta modernoez edertzen, berritzailea eta aurrerakoia dela esanez. [...] Azken batean, D eredua [euskara hutsezkoa] kopiatzea beste xederik ez du, eta hori behar bezala egitea ezinezkoa da, ikasitako hizkuntza inguruan erabiliz komunikatzea eta bizitzea lortu behar delako, eta horretarako baldintzarik ez dago ingelesarekin (Berria, 2007-05-18).

Ikusten denez, ingelesaren alde, ez da elebakartasuna bultzatzen, ez eta elebitasun asimetrikoa ere, itxuraz behintzat, baizik eta nazioarteko harremanetarako ingelesa beharrezkoa izatea. Toki askotan, ingelesa lehian jartzen da bertako hizkuntzarekin, haren bizi esparruak bereganatu nahian.

iii. Ingelesaren nagusitasunaren mugak

Ingelesaren hedapena zenbaterainokoa den ikusita, ausartenek ingelesa munduko hizkuntza bakarra izatera iritsiko dela iragarri dute. Hizkuntzalari gehienak, ordea, ez datoz bat ideia horrekin, nahiz eta onartzen duten ingelesari lotuta ikaragarritzko gehiegikeriak egiten ari direla.

Ez da aurreneko aldia hizkuntza bakarraren mamua ateratzen dela: Barère goi politikariak Frantziako Iraultzaren garaian esan zuen frantsesa mundu osoan nagusituko zela, eta Horazio idazleak, berriz, latina mundu osora zabalduko zela iragarri zuen ia 2.000 urte lehenago, Erromatar Inperioaren garaian. Pentsalari horiek zein gaur egun ingelesa hizkuntza bakarra izango dela iragartzen dutenak ere indartsuenaren alde ari ziren eta dira, faktore hauek kontuan hartu gabe: gainerako hizkuntza nagusien boterea, ingelesa zatitzeko arriskua (latina bezala) eta bestelako *lingua franca*k sortzeko aukerak.

Ingelesa hizkuntza bakarra izateko bidean doala esaten dutenek ez dute kontuan hartzen, besteak beste, oraindik orain hizkuntza nagusia ingelesa bada ere beste hizkuntza boteretsu batzuk daudela munduan, eta hizkuntza horiek bi norabideko presioa egiten dutela: batetik, ingelesaren nagusitasunaren aurkako presioa, eta, bestetik, hizkuntza gutxituekiko presioa. Izan ere, Afrikako eskualde askotan ez da ingelesa hizkuntza gutxituak arriskuan jartzen dituen, swahiliera edo wolofera baizik. Hizkuntza horiek eta beren atzean dauden egiturak ere hilgarriak dira, hizkuntza gutxituetako hiztunen ikuspuntutik, baina atal honetan ingelesa ez beste hizkuntza nagusiez ariko gara: gaztelaniaz, frantsesaz, arabieraz, txineraz.

⁴⁸ Erakundeak nazioartean ingeles hizkuntza eta kultura zabaltzea du helburu

Hizkuntza horiek ere hiru zirkuluen estrategiari jarraitzen diote hizkuntza gutxituarekiko harremanean. Zertzelada xume batzuen bidez, hiru zirkuluen estrategia nola gauzatzen den ikusiko dugu gainera.

Gaztelania

Inner circle: Espainiaren kasuan ere, etengabeko tentsioan dabilta gaztelaniako elebakartasunaren aldeko joera eta elebitasunerako joera. Katalanari, euskarari eta galegoari koofizialtasuna aitortzeak aurrerapenik ekarri badu ere, oraindik badira inolako ofizialtasunik ez duten hizkuntzak (asturiera edo kaloa, adibidez). Gainera, konstituzioaz egiten ari den berrirakurketetan gaztelaniaren aldeko iritziak ari dira nagusitzen: Euskararen legearen puntu batzuk bertan behera uztea, euskararen udal ordenantzen aurkako neurriak... Kataluniako murgiltze ereduaren aurkako kritikak ere etengabeak izan dira azken urteotan, eta, hainbat eremutan, katalanaren aurkako jarrerak sustatzen ari dira: ildo politikoetan (Ciudadans), hedabideetan...

Outer circle: Espainiak gaztelania ama hizkuntza duten herrialdeekiko loturari eutsi nahi izan dio beti; esate baterako, naziotasuna eskuratzeko gaztelaniarik gabeko herrialdeei baino erraztasun handiagoa eman die gaztelaniaz mintzo direnei. Cervantes institutuari eta antzeko erakundeei esker, gaztelaniaren aldeko presioa mantendu du gaztelania hizkuntza ofizial den 20 herrialdeetan.

Expanding circle: egun gaztelaniaren eremutik kanpora dauden herrialdeetan zer-nolako hizkuntz politika egiten ari den ikusteko, hona hemen adibide esanguratsu bat: Brasilgo Banco de Santanderrek Cervantes institutuarekin sinatutako hitzarmenari esker, Sao Paulon gaztelania irakasteko 45.000 irakasle trebatuko dira, Brasilgo hezkuntza publikoan gaztelania irakats dadin.

Frantsesa

Inner circle: Frantziak bi erronka nagusi ditu lehen zirkuluan: batetik, oraindik ez die aitortu inolako ofizialtasunik bretoierari, korsikerari, okzitanierari, euskarari..., nahiz eta EBko erakundeek ofizialtasunaren aldeko neurriak hartzeko eskatu; eta, bestetik, kolonia ohietatik ama hizkuntza frantsesa duten asko eta asko iritsi badira ere, Espainian ez bezala, horietako askok beste hizkuntza bat ere badakite, eta horrek Frantziaren elebakartasuna zalantzan jarri du. Elebakartasun-elebitasun tentsio horretan, joera jakobinistak oso agerian geratzen dira: bazter auzoetan gertatutako istiluen ondoren, frantsesa ezartzeko indar handiagoa egin du gobernuak (Benisti txostena, Gaiztaginen aurkako legea...), beste ama hizkuntza batzuen aurka familia barruko eremuan sartzearaino.

Outer circle: frantsesa ofiziala da 30 herrialdeetan, baina, nazioarteko erakundeetan bezalaxe, ingelesaren mesedetan indarra galtzen ari da. Nolanahi ere, Frantzia izan zen bere hizkuntza nazioartean zabaltzeko erakundeak sortu zituen lehenengo herrialdea, eta oraindik botere handia du frantsesa ofiziala den herrialdeetan, gehienbat Afrikan.

Expanding circle: nazioarteko erakundeetan (NBE, EB...) hizkuntza ofiziala bada ere, gero eta indar gutxiago du eta ingelesa bihurtu da benetako lan hizkuntza. Nahiko esanguratsua da honako pasadizo hau: Frantziako eta Alemaniako gobernuburuak azken bileretan ingelesa erabili dute.

Txinera

Inner circle: Amnesty International eta giza eskubideen nazioarteko beste erakunde askok salatu dutenez, Txinak gutxiengo etnikoak eta hizkuntza gutxituak zapaltzen jarraitzen du modurik basatienean (uigurrak, adibidez). Txinera mandarina indarrez ezartzeko, errepresio zuzena erabiltzen du, Txinako Eremu Urriko Hizkuntzen Elkarte Akademikoa errepresio hori ezkutatu eta kanpoan jakin ez dezaten saiatzeko bada ere. Bestalde, irekiera ekonomikoaren ondorioz, ingelesa gero eta txinatar gehiagok ikasi dute.

Outer circle: Txinako inguruko herrialde batzuek, Singapurrek adibidez, txinera hartu du hizkuntza ofizial, baina, bestela, ez du ematen txinera hizkuntza globala denik, hizkuntza nazional hedatua baizik, nahiz eta alde handiz txinera izan hiztun gehien dituen hizkuntza.

Expanding circle: Ikusteko dago Txinak Afrikan eta Asiako lurraldeetan egin dituen esku hartze ekonomikoek zenbateraino baldintzatuko duten txinera hizkuntza nazional izatetik hizkuntza global izatera pasatzea. Batzuen ustez, etorkizunean ingelesa ordezkatu dezake nazioarteko *lingua franca* izateko, baina, gaur egun, ematen du hori esatea gehiegi dela.

Arabiera

Inner circle: arabiera nagusi duten herrialdeen ezaugarri nagusia barne diglosia da (**IKUS HIZKUNTZEN GAINEKO DISKURTSOA GLOBALIZAZIOAN. HIZKUNTZEN GAINEKO DISKURTSOAREN PRINTZIPIOAK**). Herrialde batetik bestera, baita herrialde bereko eskualde batetik bestera ere, izugarritzko aldaketak ditu arabierak, elkar ezin ulertzeraino, baina, panarabismoaren eta islamismoaren presioa oso handia denez, inor gutxik planteatzen du hizkuntza bat baino gehiago direnik eta arabiera hizkuntza gutxitu asko estaltzen eta zaplatzen dituen aterki moduko bat dela.

Outer circle: arabiartzeko prozesu basatiak egin dira hainbat eskualdetan; adibidez, Aljeria iparraldean, berbereak nagusi diren eskualdeetan, eta Siriaren mendeko Kurdistanen, kurdueraz mintzo direnen aurka⁴⁹.

Expanding circle: arabieraz mintzo diren hedabideak dira munduan zabalduenak daudenak ingelesezkoak, frantsesezkoak eta gaztelaniazkoak kenduta. Europako metropoli handietan, arabiar asko biltzen diren guneetan, satelite bidezko telebista ikusten dute, arabiarrez, eta horrek belaunaldien arteko hizkuntz galera geldotu egiten du, eta, zenbait kasutan, ezagutza eta erabilera indartu. Kontuan hartu behar da arabiera Europako herrialde askotan migratzaileen hizkuntza erabiliena dela, eta, zenbait guneetan, bizi funtzio asko bereganatu dituela.

⁴⁹ Nahiz eta herrialde arabiarren barruan egon, *outer circle* zirkuluan sartu ditugu, eskualde horiek historikoki autonomia handia izan dutelako.

iv. Hiru zirkuluen teoria eta hizkuntza gutxituak

Teoria hori hizkuntza gutxietan nola gauzatzen den ikustea oso proba argigarria da hizkuntza horien osasun egoera nolakoa den jakiteko. Izan ere, hizkuntza gutxituek, gehienetan, ez dute *inner circle* deritzon gunean erabilera ezartzeko nahikoa boteririk, egoera gutxituan egotearen ondorioz. Hori dela eta, hizkuntza gutxitu askok ez dute hiztun elebakarrik, edota horien kopuru oso txikia dute. Ere horretako hiztunak elebidunak edo eleanitzak dira, eta hizkuntza nagusiekiko botere korrelazioaren arabera elebitasun/eleanitzasun simetrikoa edo asimetrikoa bizi izango dute. Esate baterako, euskarak ez du ia elebakarrik: euskaldun ia guztiak elebidunak edo eleanitzak dira.

Hiztun komunitate batean elebakarrek duten garrantziaz asko eztabaidatu bada ere, elebakarrekiko jarrerak asko esaten digu globalizazioan hizkuntzen gaineko diskurtsoak hartu duen indarrak; izan ere, karikatura bat eginez, Massachusetts-eko nekazari batek ez du inolako presiorik sentitzen beste hizkuntza bat ikasteko, baina Leitzako nekazariak ezinbestekoa izango du gaztelania bere bizitza aurrera eramateko, eta horren presioa sentituko du txiki-txikitatik. Azken batean, kasuistikaz harago, elebakarren aurrean diskurtsoa aldatu egiten da, elebakar horien hizkuntzaren arabera: batzuek lasai segitzeko gomendioa jasoko dute, eta beste batzuek hizkuntza nagusia/hegemonikoa ikasteko presioa.

Esan beharra dago hizkuntzen zirkuluen artean etengabeko gatazka dagoela. Adibidez, euskararen *inner circle* gaztelaniaren *expanding circle* da, eta, nahiko hizkuntz erresistentziarik egiten ez bazaio, gaztelaniaren *inner circle* bilaka daiteke.

Horrez gain, bi hizkuntza hegemonikoren arteko hizkuntz tentsioak ere eragina izaten du hizkuntza gutxietan. Horixe ari da gertatzen AEBetan, kasu. Ingelesaren *inner circle* eremua gaztelaniaren *expanding circle* eremua ere bada, hegoaldeko iparraldera doazen gaztelaniadun migratzaileen ondorioz. Gaztelaniadunei hizkuntz eskubideak aitortzeak edo ez aitortzeak AEBetako jatorrizko hizkuntzetako hiztunei ere eskubideak aitortzea edo ez aitortzea dakar; esate baterako, hezkuntzan ingelesa ez beste hizkuntzak sartzeko aukera eztabaidagai da gaur egun AEBetan. Printzipioz, eztabaida gaztelaniaren presentziak eragin du, baina, jakina, araua edo legea ezartzeak ingelesa ez beste hizkuntza guztiei egingo die mesede edo kalte.

v. Ingelesa zatitzeko arriskua

Ingelesak azken ehun urteetan izandako bilakaeran, daturik harrigarriena ez da ingelesa jatorrizko hizkuntza modura duten hiztunen kopuruak izan duen gorakada, baizik eta ingelesa bigarren/hirugarren/... hizkuntza dutenen kopuruak izan duen hazkunde izugarria. Menckenek 20.000.000 hiztun zeudela kalkulatu zuen 1936an, eta ondorengo 50 urteetan hogeitaz handitu da kopuru hori; Kachru zuzen badabil, behintzat: ingelesa atzerriko hizkuntza gisa edo bigarren hizkuntza modura darabilten hiztunen kopurua 300-400 milioi ingurukoa da (Egile asko, 2003). David Crystalek beste kopuru hauek eman zituen: 700 milioi hiztun ingelesez ederki zekitenak, eta, guztira, 1.800 milioi ingelesez nahiko ondo edo ondo moldatzen zirenak (CRYSTAL, 2004).

Hiztun kopuruaz gain, bada oso kontuan hartu behar den faktore bat: ingelesak hedadura handia izan du mundu osoan, Hego Amerikan izan ezik. Kontinentez kontinente bidaiatzeko hizkuntza erabilgarriena, zalantzarik gabe, ingelesa da.

Bi faktore horien ondorioz (hiztun kopurua eta hedadura), ingelesa hitz egiteko moduak elkarrengandik urrunduz joan dira, eta, kasu batzuetan, ia ulertezin bihurtu. Esate baterako, ingeles estandarren hiztunek ez dituzte ulertzen Pazifikoko pidgin ingelesak (Queensland, Ginea Berria, Vanuatu, etab.). izan ere, beren komunikazio arauak garatu dituzte, hizkuntz sinplifikazioko printzipio unibertsalera jotz eta mundu osoko zenbait pidgin eta hizkuntzaren arau batzuk maileguan hartuz (MARTI eta beste batzuk, 2005). Beraz, oker egoteko beldurrik gabe, esan dezakegu ingelesa hedatzeak hizkuntza gutxitu gehiago –ingelesetik edo ingelesa eta bertako hizkuntza nahastetik– sortzea ekarri duela.

Egoera horren aurrean, Crystalek ingelesa eta latina alderatzen ditu, ingelesetik beste hizkuntza batzuk sortu eta ingeles estandarra desagertzeko arriskua zenbatekoa den jakin nahian. Crystalen ondorioen arabera, ingelesak hiru mailatan banatuko dira:

- Familia barruko ingelesaren dialektoak
- Nazioaren ingeles estandarren aldaerak
- Nazioarteko ingeles estandarra

Hizkuntzalariek, etorkizun *triglosiko* horri begira, hausnarketarako gaiak atera dituzte: onartu behar al dira nazio mailako estandar horiek? Estandar horien artean, ba al dago ikasleei irakasteko aproposagoa den aldaerarik? Zein irakatsi behar da eskolan? Toki eta egoera guztietan berbera? Nigerian, adibidez, Britainia Handiko ingeles garbia irakatsi behar da? Egongo al da Nigerian hori irakatsiko duenik? Ez al da komenigarriagoa bertako irakaslearen ingelesa irakastea, inguruari lotuagoa egongo delako? Itxura guztien arabera, nork bere hizkuntza estandarra irakatsiko die: Indiakoak indiar estandarra irakatsiko, Malaysiakoek malaysiar estandarra... (Egile asko, 2003) Horrek guztiak duela 2.000 urte inguru abian jarri zen latinaren hizkuntz zatiketa dakarkigu gogora.

Hortik aurrera, ikusteko dago ingelesaren garapenak zer norabide hartuko duen eta bilakaerak zer-nolako eragina izango duen hizkuntza gutxituetan, hizkuntza gutxituei dagokienez, bi joera baitaude: batetik, ingelesa zatitu eta hizkuntza gutxitu gehiago sortzeko arriskua dago, eta, bestetik, egungo hizkuntza gutxituak suntsitzeko arriskua dago.

vi. Ingelesaren etorkizuna nazioarteko erakundeetan

Ingelesaren etorkizuna baldintza dezakeen beste faktore bat nazioarteko erakundeek jarraitu beharreko hizkuntz irizpidea izango da; batez ere, EBk eta NBEk. Izan ere, ez dirudi zilegi denik ingelesaren hedapenaren ondorioz hiztun asko hizkuntza nazional bati makurtu behar izatea, ez eta ustez giza eskubideen alde eta bakearen alde egon beharko lukeen erakunde batek (Nazio Batuen Erakundeak) aurrekontuaren laurdena itzulpenetan xahutzea. Arazo horiei irtenbidea aurkitzeko, gero eta indar handiagoa hartzen ari da nazioarteko hizkuntza artifical bat erabiltzeko premia.

Ez da auzi hori planteatzen den lehenengo aldia; izan ere, Nazioen Ligak –NBEren aurrekariak– luze eta zabal eztabaidatu zuen, saioak zein hizkuntzatan egingo ziren erabakitzeko. Jakina denez, frantsesa erabiltzen hasi zen, eta, gerora, ingelesa nagusitu zen. Erabaki horrek, aitzitik, aurkako jarrerak izan zituen: 1920an, hamaika estatutako ordezkariak (Brasil, Belgika, Txile, Txina, Kolonia, Txekoslovakia, Haiti, India, Italia,

Pertsia eta Hegoafrika) eskoletan esperantoa irakastea proposatu zuten, nazioartean elkarri ulertzeko baliabide erraza zelako. Esperantoaren aldeko batzuen ideologia bakezaleak beldurra eragiten zien estatu nagusiei, eta, agian, horregatik bota zuten atzera proposamena.

Argi dago hizkuntza artifiziala nagusitzea utopia hutsa dela gaur egun, eta traba handiak dituela; nazio indartsuen interes falta, nagusiki. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar alde onak dituela:

- Komunikazio simetrikoa bultzatzen du, inork ez baitu inoren hizkuntzara makurtu behar.
- Gehiegizko itzulpenen karga arintzen du.
- Hizkuntzak ez du helarazten hizkuntzaz kanpoko botererik.
- Hizkuntz eskubideak bermatzen ditu.

Etorkizunean, globalizazioaren ondorio kaltegarri guztiak gainditzeko mugimenduak indartzen badira eta hizkuntz berdintasunari errotik heldu nahi bazaio, nazioartean hizkuntza artifizial bat erabiltzeko eskaerak gora egin dezake, eta eskaera horren gaineko erabakiak hartzean garaian garaiko botereen arteko indar korrelazioa izango da faktore erabakigarria.

IDENTITATEA

Gure garaiko erronkarik handiena, Beste berriarekin topo egitea, sortu berri den Bestearekin, testuinguru zabal baten barruan ulertu behar da. XX. mendearen bigarren erdia une historiko garrantzitsua da, munduko biztanleen bi heren kolonialismoaren mende egotetik askatu eta Estatu independenteetako herritar bilakatu baitziren, formalki behintzat. Pixkanaka-pixkanaka, pertsona horiek beren iragana, beren mitoak eta kondairak, beren sustraiak eta identitatea aurkitzen hasi dira, eta identitatea aurkitu eta barneratutakoan, harro sentitu dira. Gizonezko eta emakumezko horiek eurek beraiek sentitzen hasi dira, beren patuaren jaun eta jabe, eta gorrotagarria iruditu zaie objektu edo gehigarri gisa har ditzaten, kanpoko antzinako nagusitasun baten biktima pasibo bailiran.

Ryszard Kapuscinski

i. Identitatea zer da?

Identitateari aparteko atal bat egokitu badiogu ere, identitateak lan honetako atal guztiekin lotura du: migrazioekin, hizkuntzen gaineko diskurtsoarekin, gerra eta gatazkekin... Edozein gertaera, gatazka edo zapalkuntza egoera aztertuz gero, hortxe azalduko zaigu identitate hitza, globalizazioa adina aldiz errepikatuta. Globalizazio kontzeptuarekin bezala, batzuetan ematen du bizitzako esparru eta prozesu guztiekin zerikusia duela identitateak. Erabileraren erabileraz ezer ezean geratzeko arriskua du hitzak, Amin Malouf Libanoko idazle eta kazetariaren ustez:

Idazle bizitzak hitzekiko mesfidantza izaten irakatsi dit. Itxuraz argienak direnak dira traidoreenak. Lagun faltsu horietako bat “identitatea” da, hain zuzen ere. Denok uste dugu badakigula zer esan nahi duen hitzak, eta hitzaz fidatzen jarraitzen dugu, baita etengabe aurkakoa esan nahi duenean ere (MAALOUF, 1999).

Craig Calhoun AEBetako New York unibertsitateko gizarte zientzietako irakaslearen ustez, identitate ororen funtzio nagusia gu eta haiek bereiztea da, eta, identitatearen eta hizkuntzaren arteko lotura aurrerago ikusiko badugu ere, ez dago soberan esatea gu eta besteen arteko desberdintasuna hizkuntza dela askotan eta horrek hiztun komunitateen identitate sentimendu berezitua pizten duela. Batzuen ustez, identitate horiek rol batzuk dakartza, bete beharreko funtzio batzuk, baina Castelsek rolak eta identitateak bereizten ditu. Rolak gizarteko instituzio eta erakundeek egituratutako arauen arabera definitzen dira, eta jendearen jarreran eragiteko indar erlatiboa dute, gizabanakoen eta instituzio eta erakundeen arteko adostasunen eta negoziazioen mende baitago. Identitateek, aldiz, zentzua eta esanahia ematen dituzte, eta gizabanakoek eraikitzen dituzte norbanakotze prozesu baten baitan. Identitateak nagusi diren erakundeetan sortu daitezkeen arren, nagusi izateko bide bakarra gizarte eragileek hala barneratzea da.

Michel Maffesoli Frantziako Sorbona unibertsitateko soziologia irakasleak, Castelsek bezala, uste du egungo gizartean (sareetan egituratutako gizartean), esanahia identitate primario baten inguruan eratzen dela, eta identitate primario horri denboran eta espazioan eusten zaiola. Ildo horretatik, Maffesolik gaur egun postmodernitate arkaikoan bizi garela dio; beste hitz batzuekin esanda, postmodernitate garaiko ezaugarri nagusia ez da identitate global lauso eta zehaztugabea, baizik eta identitate primarioa.

“Identitate” hitza pertsona baten ezaugarriekin (arrazarekin, jatorri etnikoarekin, naziotasunarekin, erlijioarekin edo sexu orientazioarekin) lotu zuen lehenengoa Erik Erikson Alemaniako psikologoa izan zen. Haren ustez, norberaren identitatea ezaugarri sozial horiek moldatzen dute (GEORGE eta beste batzuk, 2004). Ildo beretik, Amin Maloufek identitatea osatzen duten elementuen zerrenda bat egin du:

Pertsona baten identitatea elementu askok eratzen dute, eta, jakina, elementu horiek ez dira soil-soilik erregistro ofizialetan daudenak. Jende gehiena erlijio tradizio batekoa da, nazio batekoa –eta batzuetan bitakoa–, talde etniko edo linguistiko batekoa, familia batekoa (zentzu hertsian edo zabalean), lanbide batekoa, erakunde batekoa, gizarte giro batekoa... (MAALOUF, 1999).

Nolanahi ere, Maloufek, beste egile gehienak bezala, identitatea bakarra dela aldarrikatzen du: nork berea du, eta elementu horiek guztiak barneratutako moduaren arabera da. Beraz, bi pertsonak ezin dute identitate berbera izan, nahiz eta identitatea eratzeko elementu berberak izan. Hizkuntzen gaira ekarrita, begien bistakoa da hori, hiztun komunitate bateko bi kidek oso identitate desberdina izan baitezakete, eta horren arabera jokatu dute modu batean edo bestean. Kasu batzuetan, hizkuntza gutxitu askotako kide zaharrenak, adibidez, kezkatuta daude gazteenek ez dutelako hizkuntz kontzientziarik, oso atxikimendu eskasa diotelako hizkuntzari, eta hori lotuta dago identitatearekin.

Egile gehienek, ordea, prozesua azpimarratzen dute identitateaz hitz egitean; hots, ez dute aztertzen identitatea egonkorra eta behin betikoa balitz bezala. Castelsek ere bide horretatik jo du, eta dio identitatea ezaugarri kultural baten arabera zentzua eratzeko duen eraikitze prozesua dela (CASTELS, 1996-97). Hartara, identitatea baino identifikazio prozesuak dira aztergai, identitate guztiak amaierarik gabeko eraikitze prozesuak baitira. Garrantzitsuena da jakitea nola, nondik, nork eta zertarako eraikitzen diren.

Castelsen aburuz, gizabanakoek hainbat elementu prozesatu eta beren zentzumenean ordenatzen dituzte (historia, geografia, biologia, produkzio erakundeak, oroimen kolektiboa eta norberaren fantasiak, botere aparatuak, erlijio agerpenak...). Argi eta garbi ikusten da, beraz, bi esparru daudela identifikazio prozesuetan: esparru kolektiboa eta norberaren esparrua. “La globalización de los derechos humanos” liburuan esaten denez (GEORGE eta beste batzuk, 2004), esparru kolektiboa hizpide izan ditugun elementu horien arteko bidegurutze modukoa da, eta norberaren esparrua beste elementu batzuk osatzen dute: inteligentziak, norberaren xarmak, buru argitasunak, handinahiak... Bi esparru horiek tentsioan daude, identifikazio prozesuetan norabide biko indarrak baitaude: barrutik kanporakoa eta kanpotik barrurakoa.

Antzeko azalpena darabil Maloufek, identitate bertikalaz eta horizontalaz hitz egitean: bertikala arbasoengandik, gure herriko ohituretatik, gure erlijio komunitetik, datorkiguna da, eta horizontala gure garaiaren eta gure garaikideen ondorioa da.

Maloufek garrantzi handiagoa ematen die kanpoko faktoreei: batetik, hurbilekoek (direla senideak, aberkideak, erlijioakideak...) identitate batez jabetu nahi dutelako, eta, bestetik, aurkakoek identitate hori baztertu egiten dutelako. Horren ondorioz, inork erlijioagatik, larruazalaren koloreagatik, janzkeragatik edota hizkuntzagatik irainak eta laidoak jasaten baditu, ez du inoiz ahazten, eta horrek ikaragarriko eragina du identitatean eta laidoztatutako elementuarekiko harremanean. Egile askok “etiketa” dute hizpide, halako kontuez dabilzanean.

Nolanahi ere, Guus Extra irakasleak aldarrikatzen duenez, identitatea definitzeko ez du balio “naziotasun/etnizitatea + hizkuntza = identitatea” formulak, nork bere buruaz egiten duen sailkapena falta baitu (autosailkapena). Hizkuntza, etnizitatea eta naziotasuna egoera batzuetan lauso samarrak izan badaitezke ere, faktore objektibotzat edo nahiko objektibotzat jo ditzakegu. Ez, ordea, autosailkapena, erabat subjektiboa baita. Horren ondorioz, pertsona batek bere burua euskaldun definitzen du, euskararik ez badaki ere. Eta alderantziz ere gerta liteke: beren buruak ingeles definitzen ez dituzten ingeleseko hiztun asko daude.

Argi dago identitateak botere harremanek baldintzatutako testuinguru batean eraikitzen direla. Baieztapen horretan oinarrituta, Castelesek hiru identitate mota bereizten ditu:

- Identitate zilegiztatzailea: gizartean nagusi diren erakundeek bultzatzen dute, gizarte eragileengana beren nagusitasuna hedatzeko eta arrazionalizatzeko. Nazio-estatu gehienek identitate mota hori bultzatu dute, eta horren osagai bat hizkuntza edo hizkera jakin bat da.
- Erresistentzia identitatea: nagusitasunaren logikapean gutxituta edo estigmatizatuta (etiketatuta) bizi diren eragileek bultzatzen dute. Erresistentzia lubakiak sortzen dituzte, bizirik irauteko, eta, horretarako, printzipio desberdinak edo aurkakoak defendatzen dituzte; betiere, autoafirmazioa helburu dutela.
- Proiektu identitatea: gizarte eragileek, eskura dituzten kultur materialetan oinarrituta, identitate berri bat eraikiz eta horren bidez gizartean zuten kokapena aldatu nahian, gizarte egitura osoaren aldaketa nahi dutenek bultzatzen dute.

Sailkapena ez da itxia eta behin betikoa; izan ere, erresistentziako identitatea proiektu identitate bihur daiteke, baita identitate zilegiztatzaile ere. Gainera, identitateak ezin daitezke esentzia izan, identitateek ez baitute testuinguru historikotik kanpoko behin betiko balio finkorik.

ii. Identitate zilegiztatzaileak

Identitate zilegiztatzaileek gizarte zibilak eratzen dituzte; hots, egituratuta eta antolatuta dauden erakunde, instituzio eta eragile multzoak. Gizarte zibilean, egiturazko nagusitasunaren iturriak natural bihurtzen dituzten identitateak eraikitzen dira, edo, beste hitz batzuekin esanda, natural egiten dituzte identitate batzuk; botereak bultzatutakoak, noski. Antonio Gramsci politikari eta ideologo italiarrak –“gizarte zibila” kontzeptuaren aita– dioenez, gizarte zibila eratzen duten “aparatuak” hauek dira: eliza(k), sindikatuak, alderdi politikoak, kooperatibak, gizarte mugimenduak... Horiek guztiek estatuaren dinamika hedatzen dutenez eta jendearekin harreman zuzena dutenez, estatuko aparatuen luzapenak dira nolabait, eta hori guztia antzeko identitate baten arabera egituratzen da. Horri identitate normalizatzaile inposatua eta nagusitasun barneratua esaten diote hainbat egilek (Horheimer, Marcuse, Foucault, Sennet...). XX. mendearen erdian, kolonialismotik ateratzen saiatzen ari ziren estatu askotan hizkuntza bat hautatu zuten, nazio hizkuntza izateko, identitate zilegiztatzaileak indartze aldera (indonesiera, swahilia, pilipinera eta afrikaans). Identitate horiek beste batzuk hiltzeraino zapaltzen dituztenean, *identitate hiltzaileez* hitz egiten hasten gara (MALOUF, 1999).

iii. Erresistentzia identitateak

Amitai Etzioni soziologo israeldarraren ustez, identitate mota honek komunak edo komunitateak eratzea dakar. Gaur egun, identitate mota nagusia da munduan: zapalkuntzaren aurkako erresistentzia moduak sortzen ditu, zapalkuntza jasangaitza ez izateko. Erresistentzia identitateak soilik autoafirmaziora bideratutako ekintzak hartzen ditu bere baitan, egitura juridiko-politikoan aldaketarik egiteko asmorik gabe. Indargunea eta ahuldadea faktore beretik dator: baztertuek baztertzaileak baztertu nahi izatetik. Izan ere, identitate defentsiboak eraikitzean, boteretik datorren joera irauli eta

baztertzalea baztertu eta baztertu baztertzale bihurtzen dira. Identitate baztertuen eta baztertzaleen elkarrekiko komunikagarritasunaren arabera, gizartea gizartea da edo tributan banatzen da. Erresistentzia identitatea bultzatuz, hizkuntzari eustea lortu duten kasuak asko dira (Hegoafrikako zuluak, Rapa Nuiko indigenak, galeserako hiztunak...). Are gehiago, pentsa daiteke hizkuntza gutxitu orok behar dutela nolabaiteko erresistentzia identitatea bizirik irauteko. Izan ere, erresistentzia identitaterik ezean, hiztun komunitateek jai dute hizkuntz zapalkuntzako egoera batean.

iv. Proiektu identitateak

Kasu honetan, identitatea eraikitzearen helburua bizitza ezberdin bat lortzeko proiektuaren baitan dago, proiektu identitateak gizartea eraldatzea baitu helburu. Globalizazioaren garaian, aurrerago ikusiko dugunez, oraindik ere badira gizarte aldaketa orokorra helburu duten identitateak. Castelsen hipotesiaren arabera, subjektuak eraikitze prozesua ez dute oinarritzen gizarte zibiletan, desegituratzen ari baitira, baizik eta sistema komunaletan. Amerika Latinako mugimendu indigenistak, adibidez, erresistentzia identitate izatetik proiektu identitate izatera pasa ziren, aurrerago ikusiko dugunez (**IKUS IDENTITATEA. INDIGENISMOA**).

Gaineko irakurketa baten arabera, ondorioztatu daiteke ingelesa beti-beti identitate zilegiztatzalearekin lotuta dagoela, baita identitate hiltzaileekin ere, eta sekula ez erresistentzia identitatearekin, eta, egia esateko, halaxe da kasu gehienetan, baina ez beti. Indian, adibidez, behe kastako kide batzuek ingelesa aldarrikatzen dute beste hizkuntzen aurrean, ingelesak balio demokratikoak eta, horren ondorioz, berdintzaileak hedatuko dituelakoan. Hartara, kasu horretan, ingelesa proiektu identitatearekin lotuta ageriko zaigu.

v. Identitatea eta hizkuntza

Aurreko paragrafoetan identitatea definitzen ibiltzean, askotan izan dugu hizpide hizkuntza, zuzenean edo zeharka. Izan ere, hizkuntza da identitatean garrantzi handienetakoa duen faktorea. Hizkuntzek bi funtsezko ezaugarri dituzte: batetik, hizkuntzak etengabe moldatzen dira gizarte dinamiketara, komunikazio tresna izaten jarraitzeko, eta, bestetik, identitate adierazle dira. Bi elementu horiei esker, hizkuntzek bizirik irautea lortzen dute; kasu askotan, hiztun komunitateak jasaten dituen erasoen indar suntsitzailea gaindituz. Izan ere, hizkuntza hiztun komunitatearen identifikazio marka ez ezik kohesiorako faktore ere bada.

Hizkuntzaren ezaugarri zoragarriena da aldi berean identitatea eratzeke balio duela eta komunikaziorako baliabide dela. (...) Lehenengo eta behin, esan beharra dago gizaki orok duela identitatearen barruan hizkuntza izateko premia; hizkuntza hori milioika lagunena edo milaka lagunena izango da, eta horrek gutxi axola dio, horren parte den sentimenduak baino axola ez duelako. Denok behar dugu lotura boteretsu eta lasaigarri hori. (...) ez dago gauza arriskutsuagorik gizakiak hizkuntzarekin duen lotura hausten saiatzea baino. Hori eten edota asaldatzen bada, izaera osoan eragin kaltegarria izango du (MAALOUF, 1999).

Hizkuntzak identitatean duen balioa argi ikusten da euskararen kasuan: Eusko Ikaskuntzak eta Euskal Kultur Erakundeak egindako "Euskal identitatea eta kultura

XXI. mendearen hasieran” azterketaren arabera, euskara alboraezinezko erreferentea da euskal identitatea definitzeko, baita euskalduntasunaren aurkakoentzat ere.

Euskararen egoeran oinarrituta, Joxe Manuel Odriozola euskara irakasleak ere hizkuntza eta identitatea lotzearen garrantzia azpimarratu du. Haren ustez, euskal hiztunen artean dagoen identifikazio eza da euskaldunak euskaldun gisa ez jokatzeke arrazoi nagusia.

Dakigunez, erdal identitatea nagusitzen zaio gure herrian elebidunari, euskal elebiduna erdal elebidun bihurtzeraino, hain zuzen: hala, gezurra badirudi ere, hizkuntza nagusira, erdarara, lerratzen dira barne-mintzaira errotuena euskara duten hiztunak ere barne-borroka handirik gabe. Identitate-arazo latza daukagu, hortaz, euskararekin: gainerako bi erdaren erabilerak identitate-efektu indartsuak sortzen dituen arren, euskarazko jardunak ez du halakorik eragiten euskaldun gehienen nortasunean. Hizkuntzaren erabilerari artifizial batek bakarrik esplikatzen ahal izango luke problema hori (ODRIOZOLA, 2007b).

Ez da, ez, euskararen arazoa bakarrik. Munduko hamaika bazterretako hizkuntza gutxitu egoera berean daude: identitate zilegiztatzaileak eraikitzeke erabiltzen diren beste hizkuntza batzuen mende. Odriozolaren ustez, egoera horri buelta emateko, hizkuntzari buruzko definizioan identitateak erdi-erdiko tokia behar luke izan.

Horretarako, hizkuntzaren definizioa bera irauli behar genuke, hizkuntzalaritzatik-eta etorri zaizkigun definizioak biluztuz eta larrutuz. Hizkuntza komunikazio sozialaren ardatzean kokatu behar genuke, gure ingurunearen erreferentzietan eta balioetan sozializatzen gaituen dimentsio psikosozialtzat hartuta. Gure bizimodua eratzeko eta artikulatzeko bidetzat jota. (...) Etxe linguistikoko batean bizi gara, besteak beste, ez soil-soilik etxe ekonomiko edo sexual edo juridiko batean bakarrik, zerbait esate aldera. Gure dimentsio soziolinguistikoko hori izan da hain zuzen gure dimentsio psikosoziala eta kulturala eraiki dituen etxea, ezin baikara bizi etxe linguistikorik gabe: mutu, alegia. Eta eraikuntza prozesu horretan hizkuntza bakoitzak bere testuinguru historikoa dauka, eta testuinguru horren arabera gauzatzen dira identitate-garapenak hiztunaren nortasunean (ODRIOZOLA, 2007b).

Odriozolaren ustez, askotan nahasi egiten dira naziotasunari lotutako identitatea eta hizkuntzari lotutakoa, pare-parean jartzeraino, eta hori akatsa da, ez baitute zertan elkarri estu-estu loturik egon behar. Hori dago “euskaldun” eta “euskal herritar” kontzeptuak nahastearen oinarrian⁵⁰.

Hizkuntzaren erabilerari ezinbestez darion identitate soziolinguistikoa ez da nahitaez, esate baterako, identitate nazionalari darion identitate-mota. Baina, jakina, hitz labainkorra da nonbait identitatearen auzia harrotzen duen gaia, eta hitz hori aditu orduko hizkuntzaren kontua politikarekin, nazioarekin eta ez dakit zerekin lotzen duen jenderik ez da falta. Beraz, behingoz, onar dezagun identitate soziolinguistikokoaren izaera autonomo erlatiboa: hau da, besterik gabe, pertsona baten sozializazioan erabili den

⁵⁰ Printzipioz, euskaldun hizkuntzari dagokio eta euskal herritar naziotasunari. Nolanahi ere, hitz horiekin dagoen anabasa handi samarra da.

hizkuntzari darion identifikazio-mekanismoa, hiztunak hizkuntza horrekiko ehundu duen sentipen-lokarria, testuinguru nazionalaren efektuak gorabehera (ODRIOZOLA, 2007c).

Crystalek, hizkuntza bat desagertzeak dakarren kaltea zenbatekoa den azaltzeko, galdera hau planteatu du: zergatik da garrantzitsua hizkuntza bat ez desagertzea? Erantzunetako bat hizkuntzak identitatearekin duen loturaren garrantzian dago oinarrituta. Are gehiago, haren ustez, hizkuntza da identitatearen elementurik garrantzitsuena, kultur jarduera ororen oinarria baita. Horregatik, Crystalek dio komunitate bat zer den jakiteko ezinbestekoa dela hizkuntzari begiratzea, eta, azalpena bukatzeko, Dixonen esaldi hau ekartzen du gogora: “Hizkuntza da hiztunen ikurra”.

Identitatearen eta hizkuntzaren arteko harremana norabide bikoia dela azaltzeko, Klos hizkuntzalari alemaniarrek bi termino sortu zituen: *ausbau* hizkuntzak eta *abstand* hizkuntzak. *Ausbau* hizkuntzak hizkuntzaren eta horri lotutako identitatearen zabaltze prozesuari dagozkio, eta, historian, estatuaren modernizatzeko prozesuekin lotuta egon da. *Abstand* hizkuntzak beste hizkuntza batekin identifikatu nahi ez eta norberaren hizkuntza beste hizkuntza horretatik urruntzen saiatzen direnean sortzen dira (MARTI eta beste batzuk, 2005). Hizkuntza normalizatu askok bide horri jarraitu diote: India eta urdua elkarrengandik urrunduz joan dira, erlijio sinesmenak tarteko, norvegiara kolonizatzaile daniarren hizkuntzaren aurkako gisa garatu zen eta abar. Hizkuntza gutxitu askok joera horri jarraitu diote: Australiako aborigenek, adibidez, beren jatorrizko hizkuntza galdu edo ia galdu, eta ingeles mota berezi bat garatu dute, ingeles estandarretik urrundua, galdutako hizkuntzari atxikita zegoen identitatea babestu nahian, segur aski.

Identitatea deuseztatzea eta hizkuntz aldaketa ere lotuta daude: gurasoek hizkuntza bat baztertu eta hizkuntza nagusia transmititzen badute, hizkuntza ukatuz identitatea deuseztatzen dute; izan ere, sakonean, gizartean *behar bezala* txertatzeko, hizkuntza bat eragozpena dela barneratu dute, askotan besteek eragindako bazterkeriaren eta lotsaren ondorioz (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Identitatearen eta hizkuntzaren loturaz ari garela, interesgarria da Joshua Fishman hizkuntzalari estatubatuarrek “Zer galtzen dugu gure hizkuntza galtzean?” artikuluan plazaratutako gogoeta. Haren ustez, galerarik handiena kultur identitatearekin lotutakoa da.

Hizkuntza baten eta hari loturiko kulturaren, haren mundu bakar eta benetakoaren, artean dagoen ageriko lotura da kultura batek bere hizkuntza galtzean galtzen duen ezaugarrietako bat. Hizkuntza galtzean, hizkuntza horren hiztun taldea bere burua zehazki nola definitu ez dakien giza talde bihurtzen da. Bigarren hizkuntza erabiltzera behartuta dagoen herriak segurtasun falta izango du belaunaldi oso batean, edo gehiagotan, agian (JOSHUA FISHMAN, 2005).

Hizkuntza galtzean edo hizkuntza galbidean egotean, identitatearen nora eza pairatzen dute hiztun askok, eta, hortik ateratzeko, hizkuntza nagusia eta haren bidez helarazten zaie identitatea barneratzen dituzte, gizartean egoera hobean egongo direlako, erosoago nolabait, identitate erresistentziarik egin behar izan gabe. Beste hiztun batzuek, ordea,

beren hizkuntzari eutsi eta erresistentziaren ikur bihurtzen dute, eta, horri esker, hizkuntzek aukera izaten dute bizirik irauteko.

vi. Globalizazioa eta identitatea

Globalizazioaren indar suntsitzaileak identitateetan zer-nolako eragina duen aztertzean, lehenengo eta behin, Gregor Laschen Alemaniako pentsalariaren esaldi hau ekarri behar da gogora: “Indibidualismoa ere izan daiteke identitate kolektiboaren mota bat”. Baieztapen hori ontzat hartuz gero, hortik sortzen den galdera hau da: globalizazioak bultzatzen duen identitate kolektibo bakarria indibidualismoa al da? Hori nagusitzen al da globalizazioan? Are gehiago, benetako identitate kolektiboak –norbanakoez harago doazenak– desagertzeko zorian al daude?

José Luis Orella Unzué Unibertsitateko senior katedratikoak ez du erabateko aldaketarik aurreikusten, eta Josu Amezaga Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak argi du globalizazioak beldur hori areagotzen duela baina ez dagoela zertan neurritz kanpo kezkatu.

Identitatea: ba al daukagu pentsatzerik mundu globalizatu batean denok herritar uniformatuak izango garela, hizkuntza bakarria hitz egingo dugula, literatura berbera irakurriko dugula, musika bera entzungo dugula, produktu berak jango ditugula, funtzionario unibertsalak bagina bezala *pret a porter* jantziko dugula, kultura eta folklore bera izango ditugula, filosofia, erlijio eta eskubide berak izango ditugula, hau da, identitate berera garatuko dugula?

Globalizazioak ezingo ditu deuseztatu identitate pertsonal eta sozialak (ORELLA, 2007).

Globalizazio prozesuak oro har eta komunikabideen globalizazioa zehazkiago kulturaren aldaketa handiak eragiten ari dira (lanbide, bizimodu, mundu ikuskera, ohitura, ikur eta abar berriak) planeta mailan, kultura desberdinak eredu menperatzaile berberen mende hartzeko joera areagotuz. Euskaldunok, iparramerikarrak eta are txinarrak ere gero eta antzekoagoak gara jokatzeko moduan zein pentsatzeko moduan, ditugun bizi baldintzak zein haiei erantzuteko moduak berdintzen ari zaizkigun neurrian. Gure arbasoen garaian zeuden desberdintasunak lausotzen ari dira erritmo azkarrean. Baina kulturen bateratzeak identitatearen bateratzea esan nahi ote du? Nire iritziz, ez derrigor. Kultura berekoen artean identitate desberdinak izan daitezke, objektiboki desberdina den kulturaren inguruan antolatuta beharrean identitatea beste irizpide batzuen inguruan antolatzen bada (eremu politiko berezitua, gizarteko kokapena, hurbiltasuna, errealitatearen definizio amankomuna, eta abar). Guzti honi, gainera, hizkuntzaren auzia gehitu beharra dago: hedabideek gero eta eduki antzekoagoak barreiatzen dituzte munduan zehar, baina hizkuntzen muga saihesterik ez dute lortu oraindik. Eta hizkuntza, identifikaziorako ikur garrantzitsuenetakoa izateaz gain, taldeen komunikazio esparruen mugatzaile ere bada; alde biotatik identitate kolektiboaren eragileak dira, beraz (AMEZAGA, 2000).

Egile askoren arabera, globalizazioak identitate kolektiboak suntsitu ordez indartu egiten ditu (Malouf, Castels, Maffesoli...): modernitatearen edo globalizazioaren erasopean, batzuek beren esentzia aldarrikatzen dute. Globalizazioak, nahitaez, erreakzioz, identitatea indartzen du, askok mesfidantzaz eta beldurrez begiratzen baitiote globalizazioari, atzean “atzerritar gaiztoen” eskua atzemanda.

Maloufen aburuz, globalizazioaren garaian, hain prozesu azkarra, zorabiagarria, nahastailea izanik, ezinbestekoa eta premiazkoa da identitatea kontzeptua berritzea, kontua ez baita identitateari egoskor eustearen edo erabat galtzearen artean hautatu behar izatea. Izan ere, haren ustez, arrisku bikoitza dugu: batzuek den-dena alboratu eta beren identitatean buru-belarri sartzekoa eta beste batzuek den-dena “irenstekoa”, nor diren, nondik datozen edota nora doazen jakin gabe.

Globalizazioak, azken batean, elkarren aurkako bi errealitate dakartza. Pentsalarien testuak irakurriz, ez dago argi gaur egun bi joera horietatik zein nagusitzen ari den. Batzuek fundamentalismo esistentzialisten garaia dela azpimarratzen dute; beste batzuek mundu ikuskera bakarreko mundura goazela.

Nolanahi ere, identitateak babesteko joera horrekin lotuta, hizkuntzak babesteko joera munduko hamaika tokitan sumatzen da. Crystalek eta beste hizkuntzalari batzuek diotenez, hizkuntz kontzientzia handitzen ari da, nahiz eta oraindik asko falta den gutxieneko mailara iristeko. Hizkuntz kontzientzia, gainera, identitate borroka baten baitan ulertzen dute herri eta hiztun komunitate askok.

vii. Indigenismoa

Lehenengo eta behin, azpimarratu behar da ez dela erraza indigena nor den definitzea. Zailtasun horren adibide esanguratsua Mexikon dugu: Mexikoko Auzitegi Gorenak indigena nor den erabaki behar zuen, legetan-eta horrek izan beharreko ondorioetarako, eta hau ebatzi zuen: beren buruak indigenatzat zituztenak indigenak zirela. Hau da, epaiaren ustez, autosailkapena –nork bere buruz indigenatzat hartzea– nahikoa da ondorio guztietarako indigena izateko. Interpretazio horren arabera, euskaldunok ere indigenak garela onartu beharko luke legediak, geure buruak indigenatzat hartuko bagenitu (PAIA, 2006). Horraino iritsi gabe ere, indigena hitzaren adiera klasikoan oinarrituta, 370 milioi biztanle eta 5.000 hizkuntza indigena daudela diote adituek (MARTI eta beste batzuk). Horiek dira egun globalizazioaren aurkako subjektu politiko nagusia, Roger Rumrill CHIRAPAQ Peruko Kultura Indigenen Zentroko presidentearen ustez.

2007an, herri indigenak gizarte eragile oso garrantzitsuak dira. Duela hamar edo hamabost urte, alderdi politiko marxistak ziren, baina Berlingo Harresia eta sozialismoa erori ostean, alderdi horiek desegin eta boterea galdu dute gure herrialdeetan. Gaur egun, sistemari erantzuteko eta kritika egiteko eta haren aurkako erresistentziaren eta borrokaren buruan herri indigenak daude; esate baterako, Bolivian, boterera iritsi dira (Gara, 2007-03-25).

Sistema ekonomikoaren defendatzaileen aurkako enfrentamenduan, globalizazioaren aldeko diskurtsoak mutur-muturreraino eramanez indigenen aurkako mespretxua: komunitate basatiak dira, egungo fenomenoak baino iraganeko zatiak dira... (IKUS

HIZKUNTZEN GAINENKO DISKURTSOA GLOBALIZAZIOAN) Benetan, etnozentrismoak eta ustezko nagusitasun faltsuak kutsatu gabe, hauxe da egia: komunitate indigenak ez-indigenak baino eleanitzagoak dira. Hizkuntz aniztasun handiko lurraldeetan (Amazonia, Afrika Mendebaldea, Papua Ginea Berria...), indigena taldeak dira nagusi, eta eleanitz kopurua oso handia da. Indian, esate baterako, *tribuetako* elebitasun maila %50 handiagoa da Indiako batez bestekoa baino –Indian *tribu* esaten zaie beste toki batzuetan indigena esaten zaienei–. Gainera, eleanitzasun orekatua dute toki askotan: Melanesian, Vanuatun, Australiako zenbait eskualdetan... Nolanahi ere, boterearen aldeko diskurtsoa beti saiatu da errealitate hori estaltzen. Esate baterako, 1994an zapatisten altxamendua gertatu eta ordu batzuetara, Mexikoko gobernuaren mendeko hedabideek honako albistea zabaldu zuten: “200 lagunek, gehienak elebakarrak, probokazio eta bortizkeria ekintzak egin dituzte...” Segur aski, albistea idatzi eta irakurri zutenetako asko ziren elebakarrak, ez matxinatuak, baina diskurtsoan errealitateari buelta eman eta eleanitzak elebakarrak ziren eta elebakarrak eleanitzak...

Oihana estatu eta errepublika askotako indigenen topaleku bihurtu zen. Kultur elkartrukearen ondorioz, hizkuntz maileguak ugaritu eta desagertzeko zorian zeuden hizkuntza indigena batzuk indartu dira (esate baterako, Chj eta kanjobal hizkuntzak), eta horrek antolaketan ere eragina du. (...) Gizarte subjektu berri horiek, tradizioa baztertu baino tradizio berrasmatu dute. Ez dago, beraz, tzotzila, tzeltala edo tojolabala izateko modu bakarra; hainbat autodefinizio, batzuetan elkarren aurkakoak, elkarrekin bizi dira komunitate indigenen espazioan. Estatua, grina korporatibizatzaileak jota, batzuk zilegiztatzen eta beste batzuk baztertzen saiatu da. (...) Estatuarekiko harremana indigenen posizio ekonomikoaren eta esperientzia historikoen arabera izan da, eta horrek eragina izan du identitate etnikoan eta gatazkaren aurrean hartutako jarrera politikoan (MONTEMAYOR, 1998).

Identitate borrokaren eta horrekin lotutako hizkuntz kontzientziaren adibiderik esanguratsuen Erdi eta Hego Amerikan dugu, indigenismoa izeneko mugimenduan⁵¹. Azken urteetan, indigenismoa erresistentzia identitateak bultzatetik proiektu identitateak bultzatzera pasa da. Evo Morales Boliviako egungo presidentea data ere jarri zion jauzi horri: bost mende luzeko erresistentziaren ondoren, 1992ko urriaren 12an, Colonek Amerika “aurkitu” zueneko 500. urteurrenaren egunean, erresistentzia izatetik proiektu alternatiboa osatzera pasa ziren (Argia, 2006-09-17). Aldaketa diskurtso mailan ere gertatu da, eta lehen erabiltzen ez ziren kontzeptuak hitzetik hortzera erabiltzen hasi dira: autonomia, jasangarritasuna, kulturartekotasuna... Mugimendu horren barruan hizkuntza gutxituen defentsak indar handia hartu du. Raul Lugo Mexikoko Yucatan eskualdeko apaizak dio zapatisten altxamenduak jarrera aldaketa bat ekarri duela eta Isaac Bigio nazioarteko aditu peruarrak aldaketa kontinente osoan sumatzen dela.

Zapatisten altxamenduak identifikazioaren gaia astindu egin du pixka bat; izan ere, duela hogeitun urte arte indigenaren ustez onena zen seme-alabek ikasketak egin eta giro horretatik ateratzea, mayaz hitz egiteari utzi eta mestizo bihurtzea. Ez zituzten euren buruak balioesten, ehunka urtetako

⁵¹ Indigenismoa aspalditik erabili izan den kontzeptua bada ere, lan honetan XX. mendeko azken hamarkadetakoa mugimendua deskribatzeko erabiliko dugu hitza.

laidoak eta gutxiespenak tarteko. Baina zapatisten altxamendutik aurrera, gauzak erabat aldatu dira; esate baterako, orain eztabaida zirkuluak daude, identitateari buruz (Página digital, 2005-11-11).

Txilen ere mugimendu maputxe oso indartsua ari da sortzen. Jatorrizko nazioak autodeterminazioa eskatzen hasi dira, baita lurraldeak itzultzeko eta hizkuntzak ofizial izateko ere. Olatu bat da, eta kontinente guztian nabaritzen da (Semanario XL, 2006-01-15).

Zaila da zehaztea zer faktorek eragin duten fenomenoaren hain indartsua izatea Erdi eta Hego Amerikan. Arrazoiak aurkitzekotan, arlo soziopolitikoan sakondu beharko genuke, baina, kontuak kontu, argi dago 1492tik hitzunen eta hizkuntzen suntsipena ikaragarria izan dela kontinente osoan, eta horren ondorioak gaurdaino iritsi direla. Amerikako hizkuntza gutxitu gehien bizi itxaropena oso urria da, baita hitzun asko dituzten ere (MARTI eta beste batzuk, 2005), baina egoera horren aurkako erresistentzia egon da han-hemenka, handiagoa edo txikiagoa, eta horren oinarrian beti egon da kulturaren, luraren eta hizkuntzaren defentsa. Hortik, *esnatzea* etorri da⁵²: *esnatze* politikoa, soziala eta linguistikoa. Horrekin lotuta, esperientzia interesgarri ugari ari dira garatzen indigenen hizkuntza gutxituekin.

Latinoamerikan, ezin konta ahala esperientzia ari dira garatzen hezkuntzan, hizkuntza autoktonoen alde. Horien ekarriak erabateko iraultza dira hezkuntzaren alorrean, eta itxaropena sortzen dute gainera, bai hizkuntzak mantentzen dituztelako, bai prestigioa ematen dietelako, eta baita hezkuntzan eragiten dituzten berrikuntzengatik ere: irakasleak prestatzen dituzte, ahozotasuna eta testu idatziak elkarren osagarri erabiltzen dira, eta kultur artekotasuna bultzatzen dute (MARTI eta beste batzuk, 2005)

Horren adibide dira, besteak beste, irakasle indigenen eskolak Brasilen, zapatisten kontrolpeko guneetako hezkuntza eredu parte hartzaileak, Boliviako komunitate indigenek lortutako legezko aurrerapenak hezkuntza sisteman euren ama hizkuntzak sartzeko eta han-hemenka Erdi eta Hego Amerikan garatzen ari diren egitasmoak.

Horrekin lotuta, eskubideen arloan ere izan da aurrerapenik: 2007ko irailean, 22 urtez zain egon ondoren, NBE Nazio Batuen Erakundeak onartu du Herri Indigenen Eskubideen Deklarazioa, eta indigenen ordezkari asko eta askok aurrerapen historikotzat dute onarpena –munduko 370 milioi indigenak hartzen ditu kontuan deklarazioak– (Berria, 2007-09-14). Deklarazioaren puntu nagusiak gai hauek dituzte hizpide: berdintasuna, autodeterminazioa, indigenen berezko ezaugarriak, lurrak, segurtasuna, kultura, hizkuntza eta estatuen eginbeharrak. Deklarazioak 143 boto izan zituen alde, eta lau aurka (Australia, AEB, Kanada eta Peru), deklarazioa estatu barruko beren legeen aurkakoak direla argudiatuta. Nolanahi ere, deklarazioa ez da loteslea eta ikusiko da aurrerantzean zer-nolako ibilbidea egiten duen, estatuak ahalik eta konpromiso irmoenak hartzeko indigenen alde. Bien bitartean, Koldo Aldabe Euskal Herriko zutabegileak kontatutako pasadizo hau nahikoa adierazgarria da indigenek jasotzen duten tratua nolakoa den jabetzeko.

⁵² Gaztelaniaz, *el despertar* esaten diote mugimendu indigenek Erdi eta Hego Amerikan izan duten susperraldiari.

[Amazonian petrolio ateratzen ari diren] bi multinazionalen beren langileak babesteko neurriak ere hartuko dituzte –lehendik ere oso ezagunak dira Perun langileak babesteko hartutako neurriak: eskubide sindikalak bortxatzea, bost milatik gora indigena gaixotzea petrolio isurketen ondorioz...–: Arrotzak etsaitzat dauzkaten indigenen balizko erasoetatik defenditzeko, megafonia sistema ezarriko dute.

Indigenak multinazionalen langileen –indigenak berauek ere, hau da, esplotatuak– aurka oldartuz gero, hau esango diete bozgorailutik: «Zenbat egun (eguzki, ilargi) eman duzue hona iristen?», «zuek bezalakoak gara», «enbarazu egiten al dizuegu?», «ez gatoz zuen emazteen bila, geureak geure herriketan dauzkagu, urrun».

Ulertzen ez duten hizkuntza batean orroak entzutean erasotzaileei geratuko zaien aurpegia irudikatzeko ez da imajinazio handirik behar. Neurriak eraginik ez badu, beti egongo da tiroz hiltzerik, haiekin harreman soila izanda kutsatuko dizkieten gaitzek lehenago hiltzen ez badituzte (ALDABE, 2007).

Nolanahi ere, Erdi eta Hego Amerikako mugimendu indigenistak eta beren hizkuntzez egiten duten defentsa izozmendiaren tontorra baino ez da, beren identitateari eta hizkuntzei eusten dieten herriak asko baitira munduan, eta asko indartzen ari dira. Arriskutsua da joera hori mundu osoan zabaltzen ari dela esatea, baina, hala ere, hainbat hizkuntzalarik identitateari lotutako mugimenduen susperraldi bat sumatu dute, baita hizkuntza gutxituekiko atxikimendu handiagoa ere. Horretako gehienak, ordea, erresistentzia identitateen baitan daude, proiektu izatetik oso urrun, nahiko urrun edo pixka bat urrun, kasuan kasuko egoeraren arabera.

Mutur-muturreko kasuetan, identitateen erresistentzia gainerako kulturekiko isolamenduan oinarritu da. Amazonian, adibidez, badira oihanean barrena sartu eta bisitariei geziak botaz jasotzen dituzten komunitateak, gizaki zuriekin izandako harremanak kalte besterik ez baitiete egin: gaixotasunak kutsatu dizkiete, ustiatu egin dituzte, desplazatzaera behartu dituzte, bortizkeriaz tratatu dituzte... Isolamendua azken aukera dute beren hizkuntzari, identitateari eta bizimoduari eusteko ez ezik bizirik jarraitzeko ere. Hain zuzen ere, apartheid sistemaren ondorioz pairatutako isolamenduari esker, Hegoafrikako zuluak beren identitateari eta hizkuntzari eutsi ahal izan dizkiete, eta, gainera, hori aldarrikatzen dute etorkizunerako ere: isolaturik jarraitzea.

Isolamendua eta besteekin harreman gutxi izatea irtenbidea izan daiteke Amazonaseko tribu batzuentzat edo Polinesiako giza talde batzuentzat, eta, gainera, onuragarria da halako giza taldeak isolaturik bizitzea. Baina nola aldarrika daiteke isolamendua bretoierarentzat, sorbierarentzat edota munduko milaka hizkuntza gutxituentzat, hizkuntza indigena izan ala ez? Erantzuna Erdi eta Hego Amerikako indigenismoaren planteamenduaren bidetik etor daiteke: hizkuntz berreskurapena botere politikoari lotutako kontua da, eta, beraz, aldarrikapen politikoeekin lotura du. Zailtasunez betetako bidea du horrek: ikusi besterik ez dago Evo Morales presidente denetik zenbat arazo dauden konstituzio berria eratzeko, hizkuntza gutxituei buruzko aipuak tarteko, edota hainbat tokitan hizkuntza gutxituen artean hierarkiak ezartzeko dagoen joera.

Hurrengo urteei begira, eragozpen horiei nola aurre egin jakiteaz gain, galdera ugari sortzen dira: Amerikatik kanpoko indigenek ere proiektu identitateak defendatzearen

bidetik joko al dute beren identitateei eta hizkuntzei eusteko? Estatuko aparatuek indigenen esku egoteak zer-nolako eragina izan dezake hizkuntza gutxituetan? Mundu mailako botere politiko berriek ba al dute nahiko indarrik hiztun komunitateak zapaldu eta kultur asimilaziora eramateko, estatuak aurka badaude ere? Botere komunalak eratzea al da globalizazioari aurre egiteko modurik eraginkorrena?

Sarreran esan bezala, globalizazioaren etorkizuna ez dago idatzita, ez da derrigorrean bete beharreko gidoi bat. Hartara, indigenen borrokak eta hizkuntza gutxituen aldeko borrokak proiektu identitate erakargarri bihurtzea izango da gakoetako bat etorkizunera begira, eta horrek indigenen definizio zabalagoa ekarri beharko du, segur aski. Gainera, indigenen eskubideen aldeko dinamikak indigenen eskubide formalak onartzea izan dezake abiapuntu, baina ez helmuga, bestela, botere globalen iruzurrean jauziko baita.

BOTERE ALDAKETA ETA ENPRESAK

Gizateriaren historiako botere kontzentratuena duten 200 multinazionalak edozein estaturen jardura gaitasuna gaintu eta beren nagusitasuna gauzatzen dute kultur –eta, beraz, hizkuntz– kolonialismoaren bidez, eta eredu kolonizatzaileak erantzunik aurkitzen ez duenean errepresiora jotzen dute.

Hizkuntz autodeterminaziorako deklarazioa

i. Sarrera

Globalizazioari buruzko definizio bila aritzean ikusi denez, globalizazioak nazio-estatuaren gainbehera dakar: prozesu horretan, antzinatek izan duten boterea galduz joan dira estatuak, eta beste erakunde batzuek bereganatu: transnazionalak, Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtza... Boterea galtzeko prozesuari aurre egiteko eta estatuak beren eskumenei eusteko, estatuaren arteko multzoak osatu dituzte munduko hainbat eskualdeetan: Europan, Asian, Amerikan... Horren ondorioz, elkarren aurkako bi prozesu gertatzen dira: batetik, estatuak gaindikotuen elkartearen bidez (EB, NATO, G8, NBE...) nola edo hala eskumen horiei eustea lortzen dute estatuak, baina, beste alde batetik, boterea gune gutxi batzuetan metatzen denez, transnazionalak askoz errazago dute nazioz gaindikotuen erakunde horietan eragitea; presio taldeek, adibidez, gune jakin batean (Bruselan, New Yorken, Estrasburgon, Washingtonen...) beren boterea erabiliz beren aldeko erabakiak hartzea lortzen dute.

Atal honetan ez gara hasiko estatuak zenbateko boterea duten aztertzen, horren zertzelada batzuk globalizazioa definitzeko atalean eman baititugu (**IKUS GLOBALIZAZIOA DEFINITZEN**). Nolanahi ere, egile ia guztiak bat datoz: prozesua etengabea da, eta botere guneak eremu pribatuetan ari dira pilatzen eta eremu publikoetatik desagertzen. Beste kontu bat izango da botere pilaketa hori erabatekoa den edo oraindik asko falta zaion erabatekoa izateko.

Ofizialtasunaren eta estatuak hizkuntzei atxikitzen dien prestigioaren bidez, estatuak naziotasun eta hizkuntza jakin batekiko identifikazioa bultzatu du, eta beste egitura politiko handiagoek ere bide beretik jo dute (Europako Batasunak, adibidez). Aldaketa bakarra hizkuntza bakarrarekiko baino hizkuntza multzo batekiko identifikazioa bultzatzea eta besteak zokoratzea da (bretoiera, korsikera, euskara, Afrikatik Europara etorritako askoren hizkuntzak...). Teorialari askok aurkakoa esan arren, ematen du estatuak estatuak gaindikotuen egiturak bultzatzeko arrazoia botere politiko gehiago ez galtzea dela; tartean, "hizkuntza nazionala" defendatzeko boterea. Ikusi besterik ez dago zer-nolako neurriak hartzen dituzten AEBek, Britainia Handiak, Frantziak, Espainiak eta beste estatu boteretsu batzuek, beren muga politikoen baitan bizi diren hizkuntzak babesteko eta EBren baitan irizpide horri berari eusteko (**IKUS HIZKUNTZEN GAINIKOTUEN DISKURTSOA**). Azken batean, zaila ematen du estatu-nazioak indartsu ziren garaian beren mugen baitan egin ez zutena (barneko hizkuntza aniztasuna faktore aberasgarria dela onartzea, eta hori babesteko eta garatzeko neurriak hartzea) orain egiten hastea.

Aurreko ataletan, zeharka edo zuzenean, estatuak hizkuntza gutxituen egoeran duten garrantzia azpimarratu dugu, eta haien jarrerak hiztun komunitateak erabat suntsitzetik beren hizkuntzak bultzatzerainokoak direla ikusi dugu. Nolanahi ere, gero eta botere politiko gutxiago izateak eragina du hizkuntza politiken eraginkortasunean, estatuak eta, oro har, erakunde publikoek oso kostata egiten baitiete aurre kanpotik datorkien globalizazioari eta globalizazioarekin lotuta dagoen hizkuntza asimilazioari.

Atal honetan, enpresak izango ditugu hizpide, botere gune berri garrantzitsuena delako, honako bi arrazoi hauen ondorioz: batetik, gero eta botere politiko gehiago eskuratzen ari direlako –hori, garrantzitsuena izanik ere, ez da garrantzitsuena–, eta, bestetik, –eta hauxe da garrantzitsuena– globalizazioan enpresa irizpideak nagusitzen ari direlako, irizpide politiko-kulturalen eta bestelako irizpideen gainetik.

ii. Enpresak eta enpresa irizpideak

Enpresa irizpideen arabera jokatzek sistema ekonomiko globalean hobeto txertatuta egotea dakarrenez, botere guneak globalizazioak eskatzen dituen betekizunak betetzeko asmoz garatzen dituzte politikak, tartean hizkuntz politikak. Hartara, globalizazioak hizkuntzen gainean duen diskurtsoko printzipioak barneratu eta garatzen dira, aurrerapenaren, modernitatearen, garapenaren eta integrazio globalaren diskursoaz mozorrotuta. Hori ere hizkuntz politika da, nahiz eta hizkuntz politika hori naturalizatu egiten den, ikusezin bihurtu, globalizazioa definitzen ibili garen atalean ikusi dugunez (**IKUS GLOBALIZAZIOA DEFINITZEN**).

Hartara, enpresen jarduerak sistema ekonomiko globalean ahalik eta modurik onenean txertatzea dute helburu, ahalik eta denbora gutxienean ahalik eta etekin ekonomiko handiena lortzeko, bestelako *etekinak* albo batera utzita (kultur aniztasuna, hizkuntz aniztasuna, ingurumenarekiko errespetua...). Horrek talka egiten du hiztun komunitate askok mendez mende beren bizimoduak antolatzeko izan dituzten irizpideekin. Sistema kapitalista globalean beren buruak sartu nahi dituzten enpresek eta bizimodu tradizionalei lotutako hiztun komunitateek zeren arabera jokatzeko, euren jardueren irizpideak eskema batera eramane ditugu.

HIZNET 2006-07
Sakontze egitasmoa

Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak.
Arriskuak eta aukerak

Paradigma: hiztun komunitate
tradizionalak

1. Irizpide politikoak, kulturalak eta sozialak ekonomikoen gainerik
2. Arbasoengandiko identitatea
3. Lurraldetasuna
4. Ingurumenarekiko errespetua
5. Mundu ikuskera autozentratuak
6. Tokian tokikoaren lehentasuna
7. Hitztun komunitate trinkoa
8. Benekotasuna
9. Denboraren eta espazioaren ikuskera klasikoa: nor bere denbora eta espazioa
10. Iraganarekiko lotura
11. Erantzukizun soziala
12. Erabakigune asko

Paradigma: enpresak

- a. Irizpide ekonomikoak ororen gainerik
- b. Identitate globalak eta korporatiboak
- c. Lurraldegabekotasuna, deslokalizazioa
- d. Kalte ekologikoak
- e. Mundu ikuskera bakarreranzko joera
- f. Kanpokoaren lehentasuna
- g. Hitztun komunitate desegituratuak
- h. Birtualtasuna
- i. Denboraren eta espazioaren ikuskera modernoa: denbora eta espazio bakar baterantz
- j. Etorkizunarekiko mendekotasuna
- k. Erantzukizun pertsonala
- l. Erabakigune gutxi

Paradigma horiek erabat elkarren aurkakoak direnez, logikoena da pentsatzea biak aurrez aurre daudenean gerra edo gatazka egoera sutuak eragiten direla. Halaxe gertatu da toki hauetan:

- Maputxeen etsai nagusia ez da jada Txileko estatua eta hark legetara eramandako urraketak (hizkuntz eskubideen urraketak tarteko), baizik eta Benetton transnazonala, maputxeen lurralde eskuratzeko politika basatia daramalako. Gatazka lurraldegabetu egin da, jada ez da lurraldetasun mugei lotutako gatazka, mugez gaindikoa baino, hau da, urrunekoaren eta gertukoaren artekoa.
- Siberian, petrolio enpresek etengabe zapaldu dituzte jantiak. Enpresek kolkan jarri dituzte edo guztiz ezinezko bihurtu dituzte giza talde horren biziraupenerako ohiko baliabideak.

Eta hor ere hizkuntza, jakina, borroka gune da: paradigma bakoitzean nagusitzen diren ezaugarriak hizkuntzaren arloa ere eramaten dira, eta bestelako arloetan nagusitzen diren mutur-muturreko dikotomiak hizkuntzan ere pairatzen dira.

Nolanahi ere, enpresen eta tokiko hiztun komunitateen artean badira enfrentamendua eragotzi edo arindu dezaketen eragileak: mundu mailako erakundeak (NBE, GKEak...), iritzi publikoa eta, batez ere, estatuak eta estatuari lotutako erakunde publikoak. Estatuak edo estatuaren baitako administrazio publikoak bi paradigmen artean duten jarreran, bi faktore hartu behar dira kontuan: estatuaren benetako boterea, formalki dagokion subiranotasuna gauzatzeko, eta administrazio publikoa norekin lerratzen den, enpresekin edo hiztun komunitatearekin. Jarrerak, askotan, ez dira gardenak izaten, eta kontraesan bez beteta egoten dira, astoari bultza eta tira aldi berean egin nahi baita baina kontrako norabideetan: batetik, transnazonalen mende jartzen dira administrazioaren baliabideak, eta, bestetik, hiztun komunitate gutxituak babestu nahi izaten dira. Horren adibide da Eusko Jaurlaritza: batetik, Kolonbiako gobernuarekin lankidetzat hitzarmena sinatu du, Kolonbiako 65 hizkuntza indigenak biziberritzen laguntza emateko, EAEn izandako esperientzia aprobetxatuz, eta, bestetik, transnazonalekin elkarlanean dabil, maputxeen bozeramale batek Azkarateri Hizkuntzen II. Kongresuan aurpegiatu zionez.

Gure hizkuntza, gure lurraren kulturari lotuta dago, gure kosmobisioak adierazten digun moduan, ezin dugu iraun gizaki gisa hizkuntza barik. Zure hitzaldia entzun ondoren zalantza bat sortu zait: nola esan dezakezu zuen hizkuntzarentzat munduan leku bat bilatzeko ahaleginetan ari zaretela gurea zuen transnazonalen bidez suntsitzen ari zareten bitartean? (Berria, 2007-07-29)

Estatuek edo administrazioek hiztun komunitate gutxituaren aldeko jarrera hartzen dutenean, alde batean enpresak eta bestean hiztun komunitate gutxitua, administrazio publikoaren laguntzarekin, geratzen dira. Kanpoko botereekiko indar korrelazioaren arabera, hiztun komunitatearen alde egin nahi duen administrazio publikoak hiru bide ditu: hiztun komunitateen aldeko legeak diseinatzea eta betearaztea, konbentzimenduaren bidetik jotzea edo diru laguntzak eskaintzea.

Kataluniako gobernuak, adibidez, lehenengo bidetik jo zuen 1999an ikus-entzunezko transnazionalak beren kultur produktuetan katalanari sarbidea emateko, eta azken emaitzak argi utzi zuen zein den indartsuena horrelako enfrentamenduetan, Aitor Zuberogoiak adibide honetan azaltzen duenez.

Adibidetxo bat: 1999an Kataluniako Generalitateko Gobernuak eta ikus-entzunezko industria transnazionalak (Hollywoodeko *lobby*-ak gidaturik) liskar galanta izan zuten. Zergatik? Generalitateak, 1998an Kataluniako parlamentuan gehiengo zabalez onartu zen Hizkuntza “Politikaren Legeari jarraituz, katalanera bikoizteko kuotak ezarri gura izan zizkielako ikusle gehien biltzen zuten filmei. Sei ekoiztetxe eta banaketa-etxek (EEBBetako Buenavista International, Warner Bros, United International Pictures eta Universal, Japoniako Sonyren mende dagoen Columbia eta Australiako Fox) ez zuten Generalitateak eskatutakoa bete nahi izan. Kontua hobeto kokatze aldera, esan dezagun sei transnazional erraldoi horiek 128.000 milioi dolarreko fakturazioa egin zutela 1997an (Kataluniako BPGa baino diru-kopuru handiagoa dute esku-artean, beraz); eta hala ere, ez zuten kuota ziztrinik ordaindu gura (ZUBEROGOITIA, 2000).

Pentsa daiteke katalanak erabateko ofizialtasuna eduki izan balute edota Katalunia estatu balitz, egoera oso bestelakoa litzatekeela, eta, agian, arrazoi dute hala pentsatzen dutenek, txarrerako baino onerako izango litzatekeelako, baina hortxe dugu Irlandako Gaeltacht eremuen kasua, aurkakoa adierazteko. Irlanderazko hiztun elebarraren eskualdeek osatzen dute Gaeltacht eremua, eta, bertan, XX. mendetik, administrazioa buru-belarri aritu da enpresek bultzatutako hizkuntz aldaketa eragozten, eta emaitzak nahiko desesperagarriak dira, hizkuntza gutxituak aurrera baino atzera egin baitu.

Arduradun politikoek finkatutako helburuen arabera, 1930eko hamarkadarako, edo beranduenez 1940ko hamarkadarako, hezkuntza gehiena irlandera egingo zen Irlandan. Baina ez zen inoiz halakorik gertatu. Era beren, irlandera jatorrizko hizkuntzat zutenen ehunekoa handitu egingo zela uste zuten, baina aurkakoa gertatu zen: 1922an biztanleriaren % 15ek zekiten irlandera, eta 1981ean, berriz, %3k besterik ez. Gaeltachtekin bere hizkuntz homogeneotasunari eutsiko ziola espero zuten, baina ez da halakorik gertatu, garapen ekonomikoak itxuraldatu egin baitu hango egoera: Irlandako gainerako eskualdeetatik iritsitako enpresaburuek eta langileek ingelesez bakarrik dakite. Eta, hala, ingelesa bihurtu da hango laneko hizkuntza. Esan bezala, ez zuten uste Gaeltachten hedadura murriztuko zenik. Baina, gaur egun, 1922an eremu horren barruan sailkatutako eskualdeen herenak baino ez litzuke beteko orduan finkatutako irizpideak. 20.000 irlandera hiztuneko eremu txiki horretan guraso gehienek ingelesez hazten dituzte seme-alabak. Eta gobernuaren babesa eta diru-laguntzak jasotzen dituzten arren, Gaeltachtekin atzerakada nabarmena bizi du gaur egun. Egoera horretaz jabetuta, hango biztanle askok beste zerbaite nahi dute beren seme-alabentzat (Egile asko, 2003).

Kasu horiek, hizkuntzen arloan benetako boterea non dagoen adierazteaz gain, argi uzten dute askotan administrazioaren lorpenik handiena hizkuntz aldaketaren abiadura moteltzea dela, baina ez hizkuntz aldaketaren prozesua etetea edo iraultzea. Hizkuntz eskubideekin lotutako legeak diseinatzean, gainera, ez da neurri zigortzailerik zehazten

(esate baterako, EAEko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Legean), eta horrek aukera are gutxiago ematen dio hizkuntz komunitateari edota haren aldera lerratzen den administrazioari, enpresak hizkuntz berdintasunaren arrastoan sartzeko.

Konbentzimenduaren bidetik egin dutenek tokian tokiko egoera batzuetan emaitza onak lortu dituzte, eta, horretan, administrazioaren jarrera edozein delarik ere, enpresen jarrera izaten da gakoa, nahiz eta hizkuntza gutxituetako kontsumitzaileek egin dezaketen presioa oso garrantzitsua den. Izan ere, kontsumitzaileek produktuetan beren hizkuntza agertzeko eskatzea estu lotuta dago merkatuak hizkuntzari ematen dion balioarekin.

Bide beretik jarraituta, gauzen balioa merkatuak ezarri behar badu, galdera gaiztoak sortzen dira: merkatuaren arabera, zenbat balio dute bi astean behin desagertzen diren hizkuntzek? Merkatuaren arabera, zenbat balio dute hizkuntza bateko azken hiztunek? Zenbat, goseak akabatzen dauden milioika lagunek? Segur aski, neurgailua merkatua bada, horren guztiaren balioa hutsaren hurrena da. Demagogiarako jauzia egiteko arrisku handi samarra hartuta, esan dezakegu argi dagoela merkatuak ezarritako balioa sistema ekonomikoak ezarritako irizpideen mendekoa dela eta etekin ekonomikoa duela abiapuntu eta helburu, beste faktore guztiak at uzten baititu; adibidez, kultura eta hizkuntza baten berezko balioa. Hain zuzen ere, horixe aldarrikatzen du Mixel Berhokoirigoin Euskal Herriko ELB sindikatuko kideak.

[...] Mixel Berhokoirigoin ELBko kideak Garak atera ohi zuen *Karazka* gehigarri desagertuari 1999ko irailaren 22an eginiko adierazpenak: “**Ez gara McDonalds’en aurkako protesta-ekintza soilez hitz egiten ari. Izan ere, saltoki horiek inperialismo amerikarraren ikur baino ez dira, herrien arteko harreman-molde jakin baten ikur, kalitatea aintzat hartzen ez duen elikadura-molde jakin baten ikur, eta baita hiritar arruntarekiko erlazio-molde jakin baten ikur ere, zeinak ez baititu errespetatzen hiritar horren eskubideak**”.

Aurrerago, berriz, honako hau zioen ELBko kideak: (. . .) merkatuaren liberalizazioak ezaugarrituriko erlazio-molde hori elikagaietara ez ezik (orain arte bezala) beste esparru batzuetara ere zabal daiteke, hala nola gure kulturara, hezkuntzara edota gure bizimodura bertara, harik eta gure berezitasunak, herri bat besteetatik bereizten duten ezaugarriak oro, ezabatzeraino, den-dena homogeneousatuz» (ZUBEROGOITIA, 2000).

Merkatuak hizkuntzei eta, bereziki, hizkuntza gutxituei ematen dien balioaren zantzuren bat edukitze aldera, ariketa gomendagarria da enpresek merkaturatzen dituzten etiketajearen hizkuntzek duten espazioa aztertzea. Horri buruz, Martxel Aizpurua Euskal Herriko biologo eta erlezainak hausnarketa interesgarri hau egin du, etiketajearen garrantziaz:

Euskara hutsezko merkatua momentuz EAEko salmenta zuzenarekin edo denda txikiekin loturik ikusten dut batik bat. Merkataritza gune handietara salto egiten duenak arazo handiekin egingo du topo. Horietan produktuak berak saldu behar du bere burua, eta etiketatuak garrantzi handia hartzen du orduan (AIZPURUA, 2007).

Egoera bidegabe horrek, azkenean, hizkuntz hierarkia bat adierazten du, eta kontuan hartu behar da hizkuntza nagusiaren eta hizkuntza zapalduaren arteko aldea handiagoa dela merkatuaren arloan beste arlo batzuetan baino (hezkuntzan, adibidez). Egoerari buelta emateko, euskararekiko atxikimenduak eta militantziak zenbateko garrantzia izan dezaketen hizpide hartuta, bi iritzi kontrajarri ditugu: hurrenez hurren, Martxel Aizpuruak militantziaren aldeko apustua egiten du, eta Jon Goikoetxeak une honetan militantziaz haragoko estrategia planteatzen du:

Batez ere bezeroek altxa beharko dute ahotsa euskaraz egotea nahiko luketela adieraziz: Komunikabideetara eskaerak bidaliz, salaketak baino areago; eskutitzak bidaliz enpresetara bezeroak direla adieraziz; eta abar. Enpresa-munduak, oro har, erdara hutsean funtzionatzen du Euskal Herrian. Ahalegin txalogarriak ugaltzen ari dira, baina merkatuan igartzeko moduan ez oraindik (Berria, 2007-07-14).

Euskararen ohiko ikuspegia militantziarena izan da. Euskalgintzaren meritua eta indar nagusia izan da. Euskararen inguruan lortu den gehiena militantziari esker lortu da. Baina une honek eta gizartearen eskaera berriek beste eredu batzuei leku egitea eskatzen dute (AIZPURUA, 2007).

Militantziaren bidetik joz, kasu lazgarria gertatu zen Katalunian, globalizazioaren garaian terrorismoaren esanahia zein malgua den agerian uzten diguna. Èric Bertran 14 urteko gazte katalanak Kataluniako enpresa eta supermerkatu batzuetara posta elektronikoko mezu batzuk bidali zituen etiketak katalanez jar zitzaten. Handik astebetera, 20 guardia zibiletik gora etxera sartu eta atxilotuta eraman zuten, mehatxu terroristak egiteagatik. Antza denez, terrorismo zantzuak zeuden gazteak bidalitako mezuetan; bertan, “Fenix” izeneko armada aipatzen zen –Harry Potterren abenturetan erabiltzen den izena–, eta polizia ondorioztatu zuen (?) talde armatu bat zegoela mezuen atzean. Anekdotak anekdota, agerikoa da hizkuntz eskubideen aldeko militanteek XXI. mendean orain dela hamarkada batzuk baino arrisku handiagoa dutela terrorismoaren zaku hondorik gabe sar ditzaten.

Hirugarren bidea administrazio publikoak enpresak diruz lagunduz hizkuntza gutxituaren aldeko neurriak hartzera bultzatzea da. Eusko Jaurlaritzak, adibidez, bide horretatik jo du, eta milioika euro bideratu ditu euskara planak edota hizkuntza gutxituekiko konpromisoak hartu dituzten enpresetara. Gaian askorik sakondu gabe, galdera bat sortzen da: zilegi al da hizkuntz suntsipenaren estrategian dabilzan enpresei diru publikoa eskaintzea estrategia horretatik atera gabe ere hizkuntza gutxituaren aldeko neurri batzuk hartzeagatik –neurriak, batzuetan, xume baino xumeagoak izan arren–? Justiziaren eta berdintasunaren ikuspuntutik, ez al litzateke hobea legea betetzen ez dutenei isun bidez dirua kentzea, legeak betetzeaz gain konpromiso gehiago hartu nahi dituztenei emateko?

Sailkapen horretan hiru bide ikusi baditugu ere (hizkuntz eskubideen gaineko legea edota hiztun komunitatearen borondatea betearaztea, konbentzimendua eta jarrera militanteen presioa, eta diru laguntzak), askotan hiru bideak elkarrekin nahasirik agertzen zaizkigu. Esate baterako, Tolosaldeko bi enpresek behin baino gehiagotan euskararen aldeko neurriak hartzeari uko egin ondoren (baita diru laguntzak eskainita ere), Eusko Jaurlaritzarekin adostasun batera heldu dira neurri batzuk hartzeko. Oso kasu bereziak dira biak: lehenengo kasuan, enpresa bat erre egin zen eta, kalteei aurre

egiteko, Jaurlaritzak diru laguntzak eman zizkion, tartean hizkuntz baldintza batzuk sartuta, eta bigarren kasuan, bertako biztanleen presioaren ondorioz, ingurumenean kalte ekologiko txikiagoak eragiteko obrak diruz lagundu zituen Jaurlaritzak, hor ere hizkuntz baldintza batzuk sartuta. Bi kasu horietan, beraz, hiru bideak agertzen zaizkigu: konbentzimendua, neurri batzuk betearazteko indarra eta diru laguntzak.

Salbuespenak salbuespen, lehen aipatu bezala, gakoa enpresen jarreran dago, haien esku baitago horrelako neurriak hartzea edo ez, ez baitago haien gaineko boterea duen eragilerik legeak betearazteko. Botere harreman asimetrikoa beren aldekoa da, eta horrek bi ondorio nagusi ditu: batzuetan, hiztun komunitatearekiko nagusitasuna hainbestekoa da, non hiztun komunitatea existituko ez balitz bezala jokatzaren dute, eta, beste batzuetan, hizkuntza gutxituen alde egin behar dela aitortu baina berdin jarraitzen dute. Bigarren kasuaren adibide ezin hobea dugu publizitatean galiziera erabiltzeari buruz Fernando Ramallo Vigoko unibertsitateko irakasleak egindako txostenean. Hara zer dioen Caixa Galiciako bozeramaleak:

Ez da hobeto saltzen gaztelaniaz, baina egia da gaztelaniaz saltzen dela beti. Enpresek halako inertzia bat dute, eta, horren ondorioz, lehen bezala jarraitzen dute (RAMALLO, 2002).

Inertzia historikoak eta aurkako jarrerak gainditzeko, ezinbestekoa da botereari buruzko hausnarketa egitea. Zein da boterea gero eta toki gutxiagoetan eta gero eta gehiago irizpide ekonomikoetan metatzearen aurkako irtenbidea? Aitor Zuberogoitia erantzuna ematen saiatzen da bi paragrafo hauetan:

Bazter-bideotan barneratzen hasteko Thilo Bode-ren aipu bat hartuko dugu makulu modura; Thilo Bode Greenpeaceko zuzendari duzu, eta Elhuyar aldizkariaren 2000ko otsaileko zenbakian honako hau esan zuen, Beñardo Kortabarriaren itaun bati erantzunez: “(...) Gakoa erabaki politikoak hartzen diren tokietan gero eta indar handiagoa izatean egon daiteke”. Hori, egia esan, lehendik ere bagenekien gehienok; hobe, hortaz, haren esaldia apur bat aldatu eta beste moduzko formulazioa apailatzea: “Gakoa erabaki politikoak geroz eta toki gehiagotan hartzean egon daiteke”.

Ezen lerroan bidez, irakurle, desmetaketa aldarrikatuta *divide et vincas* leloa goratu-guran baikabitza; ez atomizazio-prozesuak berez onak direla sinetsita gaudelako, sukar produktibistak bultzaturiko botere-metaketa erraldoiek ondorio kaltegarriak eragiten dituztela uste dugulako baizik (ZUBEROGOITIA, 2000).

Ikusi denez, enpresen boterea gero eta bizitza esparru gehiagotara zabaldu da; beraz, gero eta eragin handiagoa du hizkuntzetan ere. Printzipio hori beste esparru batzuetan nola gauzaten den ikusteko, hedabideek eta teknologia berriek zer nolako eragina duten aztertuko dugu hurrengo ataletan; betiere, kontuan hartuta bi esparru horietan ere enpresak eta, batez ere, enpresa transnazionalak ari direla nagusitzen.

iii. Hedabideak

Globalizazio kontzeptuari buruzko atalean ikusi denez, bazterketen eta zapalkuntzen naturalizazioaren bidez ideologia neoliberalak eta kultur uniformizazioa goraiatzaren dira,

eta gutxitze prozesuak bultzatzen: botere gutxitzea, baliabide ekonomikoak gutxitzea, hizkuntzak gutxitzea... Ikusten denez, joera horren aurkako erresistentziak badaude ere, egile askok diote gustuak, pentsaerak eta jarrerak bateratzeko joera nagusitzen ari dela, eta hori kalean, etxean, lanean, eskolan... nabaritzen da. Diskurtso hori esparru horietara iristeko, ezinbestekoak dira hedabide handiak, beren hedaduragatik eta pentsaeran eta gauzak ikusteko moduan duten eraginagatik.

Globalizazioa, batik bat ikus-entzunezko komunikabideen globalizazioa, kultura aldaketa handiak eragiten ari da planeta mailan, kultura desberdinak eredu menperatzaile berberen mende jartzeko joera areagotuz (JUARISTI, 2001).

Globalizazioa kapitalismo basatiaren eta kolonialismo zaharberriaren arteko batura da, ez konkistatutako lurraldeen garai bateko inperioena, baizik eta mugarik gabeko kapitalak denon aurka egitekoa. [...] Bat-egite sakratu horri gehitu behar zaio hedabideak esku gutxi batzuetan kontzentratzea; hain zuzen ere, espekulaziorik lotsagabeena gidatzen duten handi-mandien esku zikinetan (SENDÓN DE LEÓN, 2001).

Hausnarketa horietan iradoki denez, hedabide handiak –munduaren zati gehienetan hedadura dutenak– eragile jakin batzuen esku daude. Kontzentrazioa zenbaterainokoa den ikusteko, bi adierazle hartuko ditugu kontuan: bata, hedabideek zabaltzen dituzten edukiei buruzkoa, eta bestea, hedabideen jabeei buruzkoa.

Gaur egun, planeta osoan, harat-hunat dabiltzan albiste guztien %65ek AEBetan dute jatorria. Albiste-agentzia erraldoiek, 1870ean sinatu hitzarmenaren arabera, mundu osoko eragin-eremuak elkar banatu zituzten. Agentziok –AP, UPI, AFP eta Reuter– gaur egun, informazio osoaren %80 dute beren mende” (RAMIREZ DE LA PISCINA, 1999).

AEBetako, Latinoamerikako eta, oro har, mundu osoko ehunka milioi herritarrek, egunero, hainbat holdingen informazio eta kultur produktuak kontsumitzen dituzte, zuzenean edo zeharka: AOL/Times Warner, Gannett Company, Inc., General Electric, The McClatchy Company/Knight-Ridder, News Corporation, The New York Times, The Washington Post, Viacom, Vivendi Universal eta Walt Disney Company. [...] Hedabide horien buruan daudenek botere handia dute, baina botere hori ez datorkie herri soberaniatik, baizik eta dirutik, eta horren iturria AEBetako korporazio transnazionalen eta informazio eta komunikazio hedabideen arteko harreman sare korapilatsuan dago (CARMONA, 2007).

Hedabideek sistematikoki eraikitzen dute iritzia, egunero sartzen dira etxeetako bihotzetaraino eta errealitate birtualak eraikitzen dituzte. Jose Manuel Castelsen ustez, hedabideek kodeak sortu, hedatu eta ezartzen dizkigute, eta, sarri askotan, eraikitzen dituzten errealitate birtualak oso urrun daude errealitatetik; nolana ere, jendearen adimenean, urruneko errealitate prefabrikatuak nagusitzen dira *benetako* errealitatearen aurrean (CASTELS, 1996-97), eta urrun diseinatutako egitasmoak tokian tokiko premiei ezartzen zaizkie, hizkuntzekin gertatzen den bezala. Azken batean, hedabideen bidez iristen zaiguna sinesgarriagoa da, eta eragin handiagoa du errealitateak berak baino.

Hizkuntza gutxituen ikuspegitik, hedabideek garrantzi estrategiko handia dute. Izan ere, hedabideak edukitzeak, batez ere zabalkunde handiko hedabideak, eragin handia du hizkuntzaren prestigioan eta gizarte presentzian, Xavier Albo CIPCA Boliviako Nekazarien Ikerketa eta Sustapenerako Zentroko kideak dioenez.

[...] Baztertutako hizkuntza baten hitzunek ikusten badute hizkuntza horri tratu positiboa ematen zaiola giza hedabideetan, gora egiten du autoestimua, eta baliteke elite nagusiek azkenean hizkuntza horren presentzia onartzea ere (MARTI eta beste batzuk, 2005)

Gainera, hedabideek berez hizkuntza estandarra bultzatzen dutenez, oso baliabide aproposak dira estandarizazio prozesuak bultzatzeko, nahiz eta horrek arriskua ere sortzen duen, estandarren eta bestelako hizkeren/dialektoen arteko oreka haustekoa, adibidez. **(IKUS HIZKUNTZEN GAINEKO DISKURTSOA. ESTANDARIZAZIOA).**

Hizkuntza gutxituen hedabideen zabalkundeak, audientziek, bideragarritasun ekonomikoak eta gizarte oihartzunak oso adierazle esanguratsuak dira hizkuntza baten egoera zein den jakiteko. Txillardegik, euskararen egoera zein txarra den adierazteko, audientzia datuak eman ditu:

Telebistaren termometroak asaldatzen gaitu, eta zalantzarako atekarik gabe uzten. Neurketek erakutsi dutenez, gure tele-ikusleen %96ak hautatzen dituzte erdal hedakinak, eta %ak bakarrik ETB1.

Joera bera nabaritzen da irratiaren arloan. Edozein bazterretan entzuten dira “Cuarenta principales”, eta enparauak; eta oso leku gutxitan Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea eta abar. Geure hedakineekiko boikota zinez da harrigarria (TXILLARDEGI, 2007b).

Datuek argi uzten dute, beraz, Euskal Herrian zer hizkuntzatako hedabideak nagusitzen diren. Nolanahi ere, munduko hizkuntzek hedabideetan duten sarbidea zein den ikusita, egin beharreko aurreneko sailkapena hedabideak dituzten eta hedabiderik ez dutenen hizkuntzen artekoa da.

Lehenengo multzoan, besteak beste, egungo hizkuntza hegemonikoak daude, lehen esan bezala globalizazioaren alderik ilunenaren diskurtsoa ahalik eta toki gehienetara helarazten dutenak, eta hizkuntza gutxituetako hiztun komunitateen trinkotasuna ahultzen dutenak, nahita edo nahi gabe. Esate baterako, mohawkeraren gutxitze prozesuan, mohawkerazko telebistarik ez izateak hizkuntz suntsipena azkartu zuen, seme-alabek lehen senideei eskaintzen zien denboraren zati bat ingelesezko telebistari begira igarotzen zutelako (ABLEY, 2006). Suntsitze prozesu historiko horrek kalte ordainak eskatzeko zilegitasuna ematen dio hiztun komunitate gutxituari, Bittor Hidalgo Euskal Herriko irakaslearen ustez.

Erdarari kanona, kuota eta zor historikoa [originalean nabarmenduta, azpigitulu bezala]. Euskal gobernuak, espainol/frantses estatuek agerian aitortu behar dute erdal hedabideek jokatu rol inperialista hizkuntz ordezkatzailerak. Eta legez derrigortu hizkuntza ofizial bien erabilera berdintzera. Gutxieneko kuota. Mila bider biderkatzera Zabalik/Aldaketa guztiak, erdaraz adina izan dezagun informazioa euskaraz (EITBn ere). Eta

hala ere erdara zabaltzen segituko duten hedabide guziok derrigortu kanon bat ordaintzera erdal produktu / hitz / minutu bakoitzeko euskal hedabide sarea sustatzeko. Amets? Ez. Jomuga (HIDALGO, 20007).

Nolanahi ere, badira hegemonikoak izan ez arren hedabideetan erabiltzen diren hizkuntza gutxituak. Kasuistika oso ugaria da: batzuek telebista(k), irratia(k) eta egunkaria(k) dituzte, beste batzuek tarte jakin batzuek baino ez dituzte hizkuntza nagusia erabiltzen den hedabideetan, batzuek ez dira telebistan erabiltzen baina irratian bai... (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Kasuistikan sakondu baino, interesgarriagoa da zein faktorek eragiten duten hedabideetan hizkuntzak erabiltzea, eta hor, zalantzarik gabe, hizkuntzaren estatusarekin lotutako faktoreak ageri zaizkigu: ofizialtasuna, hizkuntza ofizialak ez-ofizialak baino gehiago erabiltzen baitira hedabideetan; hiztunen hizkuntz kontzientzia, autogestioan oinarritutako hedabideak sortzea eragiten baitu; eta baliabide ekonomikoak, hiztun komunitatearen garapen sozio-ekonomikoaren isla baitira hedabideak ekonomikoki aurrera ateratzeko aukerak. Faktore horietan guztietan, enpresek ez ezik, administrazioek ere eragin handia izan dezakete, hedabideen aurkako neurriak hartzeko nahikoa botere baitute, bi adibide hauek erakusten dutenez:

- 2006ko irailean, 56 alkate kurdu epaitzen hasi ziren Turkian, telebista kurdu bat babesteagatik. PKK Kurdistango Langileriaren Alderdiaren bozeramale izatea eta “Turkia eta balio turkiarrak iraintzea” leporatzen zieten, terrorismoaren susmopean jarritz –aurreko kasu batean bezala, terrorismo ekintzak leporatzen dizkiete hizkuntza gutxiaren defentsa egiteagatik, Gerra Globalaren garaian terrorista etiketa jartzeko zein erraza den agerian utziz– (Berria, 2006-09-27).
- Herrialde katalanetan, PPko Valentziako gobernuak TV3 Kataluniako telebista ikusteko seinalea igortzen duten antenak ixteko agindu du aurtengo udaberrian, hogeitun urte baino gehiagorik Valentziako etxeetan seinalea normal-normal jaso ondoren.

Bigarren multzoan, hedabiderik ez daukaten hiztun komunitateak daude. “Hizkuntzen mundua” txostenean egindako laginketaren arabera, hizkuntzen ia erdiak (%47) ez daukate irispiderik hedabideetara, eta hori, kasu gehienetan, kultura nagusiek eragotzi egin dietelako izan da (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Beraz, berriro ere, esparruz esparru ikusten ari garen bazterketa da nagusi hedabideen arloan ere. Sistema ekonomiko globalaren baitan, hizkuntz hierarkia sendoa daude, historian bazterkeriaren eta errepresioaren bidez eraikiak. Gaur egun, nahiz eta egile batzuek teknologia berriek hizkuntz hierarkia hausteko aukera ematen ari direla aldarrikatu, hurrengo atalean ikusiko dugu teknologia berriak hizkuntz hierarkiaren isla direla.

iv. Teknologia berriak

Globalizazioaren ezaugarri nagusiak zein diren galdetuz gero, gehienok teknologia berrien indartzea erantzungo genuke. Sistema ekonomiko globalizatuan goi mailan dauden gizarteak gero eta teknologizatuagoak daude: internet, digitalizazioa, satelite bidezko uhinak... Nolanahi ere, iritzi hori erabat etnozentrismoa dugu: zenbat mundutarrek

dituzte eskura baliabide horiek? Ehuneko hamarrak, ehuneko zazpiak? Hala ere, Arkaitz Zarraga Aita Villasante udal euskaltegiko irakasleak dioenez, kritikatu arren, baliabide horiek liluratu egiten gaitu.

Globalizazioaren aroan gaude. Honezkerok mundu guztiak daki. Agian, gehiegi esatea izango da mundu guzti-guztiak dakiela horren berri, baina kontua da teknologia berriek dakartzaten aldaketak eta botereen bakantze hori geldiezin diruditelako. Hala ere gehienok kritikatzeko badugu ere, ezin uka daiteke nolabaiteko ikusmina ere sortzen digula "aurrerabideak". Internetek eta teknologia berriek ematen dituzten aukerak hainbeste dira...

Lilura hori, gainera, teknologizazioaren *aitabitxiak* elikatzen dute, teknologia berriek mundu ezin hobea ekarriko dutela errepikatzen baitute behin eta berriz, pentsamendu bakarraren parametroen baitan. Horietako bat Nicholas Negroponte dugu, Internet eta teknologia berrietako aditua eta "Digital World"⁵³ liburuaren egilea. Hona zer dioen teknologizazioari buruz:

Teknologia berrien leherketa hasi baino ez da egin. Hona hemen Bartzelonan egin zituen iragarpenetako batzuk: makinak Internet bidez elkarrekin komunikatuko dira; ikuzgailuen fabrikatzaileek oparitu egingo dizkigute tresna horiek eta garbitu bakoitzeko eta ikuzgailuek erabiltzen dituzten programak eguneratzeagatik kobratuko digute; pertsonak baino tresnak konektatuko dira gehiago Sarera (Eroski Consumer, 2000-11-01)

Aro digitalean gutxi batzuk gaude sartuta, munduko elite ekonomiko-politiko-kulturala, salbuespenak salbuespen. Banaketa horri darwinismo digitala edo amildegi digitala esan izan diote adituek. Hona hemen desberdintasun horietaz Manu Arco Euskalteleko Informazio Sistemen zuzendariak dioena:

Tamalez, litekeena da munduko zati zabal bat informatikatik at gelditzea. Elektrizitatea lortzea zail eta garesti egiten zaie, eta informatikak elektrizitatea behar du. Baina ikusita ekipo elektronikoen prezioak zenbat merkatu diren, eta ikusita energia alternatiboak oraindik ere asko gara daitezkeela, akaso herri pobretakoei errazagoa egingo zaie Interneten sartzea beste gizarte onura batzuk lortzea baino.

Ordenagailuak herri pobretuetara zabaltzeko hainbat ekimen egin dira: tartean, One Laptop Per Child erakundearena⁵⁴, herri pobretuetako haurrei zuzenduriko 100 dolarreko ordenagailu eramangarrien ekoizpena bultzatzeko asmoz.

Hizkuntza gutxituen ikuspuntutik, ordea, galdera ez da zenbat lagunek izan ditzaketen teknologizazioaren aroaren abantaila guztiak, baizik eta zenbat hizkuntza onartzen dituen teknologizazioak. Azken datuen arabera, hizkuntzen %90 ez daude Interneten, eta hori, etorkizunera begira, oso garrantzitsua izango da, adituen ustetan. Hona hemen, etorkizunera begira aditu batzuek Interneten Gobernagarritasunaren aldeko Munduko Foroan, 2006. urtearen azaroan:

⁵³ Euskaraz, "Mundu digitala".

⁵⁴ Euskaraz, Ordenagailu Eramangarri Bat Haur Bakoitzeko.

Patrik Faltstrom, Cisco Systemz erraldoi informatikoaren ingeniariak ziurtatu du tresna egokiekin eta itzulpen zuzenekin Internetetik kanpo dauden hizkuntzen edukiak sartuko direla.

Vint Cerf Interneten aitatzat jotzen den Google-n presidenteordeak nabarmendu du munduko biztanle askok ez dute hizkuntza idatzirik; beraz, aparteko indarra jarri behar da ahozko edukiak sortzeko.

Elisabeth Longworth UNESCOko ordezkariak nabarmendu zuen Interneten aniztasunik ez badago ezingo dela sarbiderik eduki edo parte hartu informazioaren gizartean.

Hamman Riza, Aceh-ko ordezkariak, 2004ko bukaeran bere eskualdean tsunamiak izandako kalteen harira, esan zuen oso garrantzitsua dela natur hondamendiak gertatzean bertako biztanleek tokiko hizkuntzetan informazioa edukitzea (Elmundo.es, 2006-11-06).

Horrekin lotuta, garrantzi handia du software librean oinarritutako programak erabili ahal izateko aukera zabaltzeak. Izan ere, bestela, hizkuntza gutxituak transnazional erraldoien esku geratzen dira, euskararekin eta Microsoftekin gertatu zen bezala. Euskal erakundeek diruz lagundu zuten Microsoftek Windows eta Office programak lehenbailehen euskaratzeko, euskaldunek ahalik eta lasterren eskueran izan zitzaten, aurretik enpresak diruz laguntzeko estrategiaren ildotik. Egoera horren aurrean, Gotzon Egi Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko eta Normalizatzeko Zerbitzuko buruak hausnarketa hauek jarri ditu mahai gainean:

Euskaldunak Microsoften produktuak finantzatzen: funtzio aldaketaren itxura du horrek, gatzetxoak aitari dirua ematea bezala. Ez al zaizue iruditzen?

Jar dezagun galdera hau mahai gainean: gaur egun, zenbateko balioa du, merkatuaren arabera, Windows 95eko euskarazko bertsioak? Zenbat balio du Office 2000k, Microsoftek ofimatikako produktu berria salgai jarri duenean? Beldur naiz horren balioa zerotik oso hurbil egotea. Beraz, Microsoften salerosketa harraparitza, bizkor.bizkorra izateaz gain, ikaragarri handia dela.

Azken batean, Microsoften bideak ez du ematen oso aproposa guretzat, gure erakunde publikoen boluntarismoa eta eskuzabaltasuna oso handia izanik ere (SUBERBIOLA, 2002).

Gotzon Egiaren ustez, "Linux bidea" da aproposena, Interneten legetara euskaldunen komunitatearen onerako egokitzea baitakar: kode irekiko programak gehienetan doan banatzen direnez, kostua zerotik oso hurbil dago, eta etorkizunean ere maila berean egoteko aukera handia dago. Hartara, horrek aukera ematen digu gastu txiki batekin euskara programa horietan sartzeko.

Ikusteko dago etorkizunean ere bide horretatik jotzeko aukera izango den; izan ere, orain arte globalizazioaren jauntxoek nolabaiteko oreka mantendu dute interneten, doakotasunaren eta internetek merkantilizazioaren artean: batetik, sarean ahalik eta gehien zabaltzen saiatu dira (herrialde garatuetan, behintzat), baina, bestetik, edukien gaineko kontrola ezartzen eta edukiak salerosketara bideratzen saiatu dira. Bi joeren arteko tentsioan, hizkuntza gutxituek aurrerabideak lortzeko ahalegina egin behar dute, kontuan hartuta darwinismo digitala darwinismo ekonomiko-politiko-kulturalaren beste

zati bat baino ez dela, eta hor ere elkarren aurkako gatazkan daudelako hizkuntz hierarkiaren logika eta hizkuntz berdintasunaren diskurtsoa.

HIZKUNTZ PLANGINTZAK ETA HIZKUNTZALARIEN FUNTZIOA

Hizkuntzen arteko aitortpen eta tolerantzia gupidatsuez harago egin nahi badugu, hizkuntz politika burutsu bat asmatu behar da, printzipio horiekin leial izango dena, eta horrek eskatzen du, lehenengo baldintza moduan, esku hartu nahi den gizarte eta kultur errealitatea behar bezala ezagutzea.

**Jon Landaburu, Frantziako CNRS Amerikako Hizkuntza Indigenen Ikasketa
Zentroko ikerlaria**

<http://alhim.revues.org/document125.html>

i. Sarrera

Globalizazioak dakartzan arriskuen aurrean, hiztun komunitate gutxituen premia handienetakoa hizkuntz plangintza da, eta, horrekin lotuta, hizkuntzalarien inplikazioa. Izan ere, ezinbestekoa da hizkuntz komunitate gutxituek beraien errealitatearen eta etorkizunaren plangintza egitea, hizkuntz irizpideak une, toki eta pertsona egikien bidez sartuz.

Hizkuntz plangintzak hizkuntz politiken baitan daude, eta, lan honetan behin baino gehiagotan iradoki denez, hizkuntz politikak hizkuntzarekin baino politikarekin dauka zerikusia, eta hori da hizkuntzalariak topatzen duen muga nagusia: hizkuntza biziberritzeko ahalegina gizarteko egitura politiko-ekonomikoak aldatu barik egin behar du, bere lan eremutik kanpo geratzen baitira gizartearen parametro ekonomiko-politikoak aldatzea. Beraz, ideologiak, politikak eta abarrek eragin zuzena dute hizkuntz plangintzan, eta, jakina denez, globalizazioa neurri handi batean ideologia eta politika denez, sistema politiko-ekonomiko globalean txertatuta dauden eragileen beren hizkuntz plangintzetan hori guztia islatzen dute.

Horregatik, plangintzak ez du hizkuntza objektu bakartutzat hartu behar; aitzitik, historiarekin, kulturarekin eta, azken finean, komunitatearen eta bertako kideen bizitzarekin lotuta dagoen elementu gisa jaso behar du (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Ildo horretan, garrantzitsua da ulertzea hizkuntz politika (ageriko)rik ez izateak ez duela esan nahi hizkuntz politikarik ez dagoenik; beste kontu bat da zenbateraino ikusten dugun edo ez, eta ikusteko gaitasun kulturala izatea guregan nagusitu diren mundu ikuskeren arabera da. Esate baterako, katalanaren aldeko erakundeek esaten dutenean Sardinian hizkuntz politikarik gabe katalana desagertu egingo dela, zer esan nahi dute: beste hizkuntz politikarik ez dagoela indarrean? Jakina, badago, hizkuntza nagusiaren aldekoa da, ordea, beste toki askotan gertatzen den bezala.

Dena dela, hizkuntz plangintzez ari garelarik, ez da ahaztu behar plangintzak bezain garrantzitsuak, edo garrantzitsuagoak, plangintza hori kudeatzen duten pertsonak direla; batez ere, hizkuntzalariak, horretan aritzeko trebatuta baitaude.

ii. Hizkuntzalarien funtzioa

David Crystalen ustez, hizkuntzalariak atzealdean ezkatatuta egon dira orain dela gutxi arte, eta globalizazioan ezinbestekoa da pausoak aurrera eman eta lehentasunezko tokia hartzea, zeregin hauek betetzeko: arriskuen diagnostikoa eta balioespena egin, hizkuntz(ar)en egoera(k) deskribatu eta aztertu, eta esku hartzeko eta berriro ebaluazioak egiteko bideak jarri.

Hori guztia lortzeko –betiere, Crystalen arabera– ezinbestekoa da hizkuntzalariaren inplikazioa norabide egokian aprobetxatzea. Horregatik, baztertzekoak dira beren doktore tesiak edo argitalpenak osatzeko asmoz hizkuntz komunitateetan ikerketak egiten dabiltzan hizkuntzalarien jarrerak, eta, Crystalen arabera, oso sarritan gertatzen da pertsonak ahaztea eta hizkuntzei bakarrik erreparatzea. Hizkuntzalariaren zereginak beste batzuk izan behar dute, munduko hizkuntz aniztasuna mantentze aldera:

- Hiztun komunitate gutxituei perspektiba handiagoa ematea, beren hizkuntz tradizioaren balioaren garrantziaz jabe daitezen, eta horren gaineko mehatxuak zein diren seinalatuz.
- Arrisku egoeran dauden hizkuntzei lotutako errealitate soziolinguistikoak ahalik eta sakonen ezagutzea, arriskuak nondik datozen ikusteko.

Nolanahi ere, oso ohikoa da hizkuntzalariak hizkuntz komunitatean desorekak eragitea: batetik, hizkuntz azpikomunitateen arteko lehian batzuen edo besteen aldeko jarrera hartzen dutelako, eta, bestetik, atzerritar izateak halako nagusitasun moral bat edukitzea eragiten duelako. Bestelako giza desplazamenduetan ikusi denez (**IKUS GIZA DESPLAZAMENDUAK (I) MIGRAZIOA ETA GIZA DESPLAZAMENDUAK (II) TURISMOA**), kanpotarra bertako kultur eta balio parametroen barruan gizarteratzea eta bertakoak kanpotarraren ezaugarrietara moldatzea ezinbestekoa da botere harreman desorekatuak ez gertatzeko. Gainera, hori gertatzeko arriskua handiagoa da globalizazioan, munduko hierarkiako mailen arteko aldea gero eta handiagoa baita, eta erasoak jasateko arriskua ere badago, atzerritarren aurkako jarrera dutenen aldetik. Hala dio Dona Gerds-ek:

Hizkuntz ezagutza ez da nahikoa ikerketa programa bat behar bezain ondo ateratzeko. Hizkuntzalariak bere trebetasun sozialak eta politikoak erabili behar ditu, hizkuntza bat biziberritzeko programa bateko kide eraginkorra izatera iristeko (CRYSTAL, 2001).

Nolanahi ere, errealitateak adierazten duenez, hizkuntzalariak beren jardunean hizkuntzen gaineko diskurtso zapaltzailearekin bat eginda dabilta. Izan ere, munduko hizkuntzalarietatik zenbatek dute ikergai ingelesa, zenbatek euskara eta zenbatek isanzuera? Ikergai dituzten hizkuntzen gaineko datuak bagenitu, argi ikusiko genuke hizkuntzalari gehienek interesa hizkuntza nagusietara bideratzen dela, eta hizkuntza gutxitu ugari ikertu gabe geratzen direla. Hartara, hizkuntz berdintasunaren ideiak nagusitzen ari badira ere –eta hori ere zalantzarazkoa da–, beren jarduerak aurkako norabidean doaz.

iii. Hizkuntz plangintzen paradigmatik

Atal honen sarreran adierazi bezala, ez dago lurralderik hizkuntz politikarik ez duenik. Segur aski, hizkuntz politikarik atzematen ez den lurraldeetan hizkuntza nagusiaren aldeko hizkuntz politika basatia ari dira garatzen. Izan ere, toki askotan, elite politiko-kulturalek ez dituzte beren pribilegioak galdu nahi izaten, eta pribilegio horiek mantentzeko hizkuntz politikak diseinatzen eta gauzatzen dituzte, globalizazioak haizutatuko kultur asimilazioaren bidetik askotan.

Hizkuntza nagusien hizkuntz plangintzen ezaugarriak eta hizkuntza gutxituenek ez dute zerikusi handirik, paradigmen eskema honetan ikusten denez:

HIZNET 2006-07
Sakontze egitasmoa

Paradigma: hizkuntza nagusien hizkuntz plangintza

1. Hizkuntz hierarkia
2. Goitik beherakoa
3. Zehaztasuna, legeetan
4. Erreferentzia, hizkuntza nagusia
5. Ikusezina, normaltasunez jantzia
6. Lurraldeari atxikita

Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak.
Arriskuak eta aukerak

Paradigma: hizkuntza gutxituen hizkuntz plangintza

- b. Hizkuntz berdintasuna
- c. Behetik gorakoa
- d. Lausotasuna, legeetan (hizkuntz politikaren gaineko legerik badago)
- e. Erreferentzia, hizkuntzen arteko harremana
- f. Ikusgarriena, atentzioa ematen baitu
- g. Hiztun komunitateari atxikita

iv. Hizkuntza gutxituen aldeko hizkuntz plangintzak

Idealizazioan erori gabe, esan daiteke berez hizkuntz plangintzak onuragarriak direla hiztun komunitatearentzat, baina hori ez da nahikoa, plangintza ez baita beti arrakastaren seinale, arrazoi askorengatik. Hortxe dugu Australiako kasua.

Denboraldi labur batez, [hizkuntz aniztasunaren] ideia hori nonbait moldatzeko ahalegina egin nahian, Australiaren hegoaldera jo eta etnia anitzeko eta funtzio anitzeko hiriak planifikatzeko ahalegina egin zen; baina proiektua beran behera geratu zen, eta, horrekin batera, hizkuntz eta kultur aniztasunerako planak ere bai (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Kasu horretan, plangintzan zebiltzan adituek nahiko informaziorik ez edukitzea izan omen zen porrotaren arrazoi nagusia –informazioaren gizartearen garaian, hizkuntza gutxituei buruzko nahikoa informazio ez izatea posible dela erakusten digu kasu horrek, besteak beste–. Horrelako porrotan ondorioz, etsipena nagusitzen da, eta, tartean-tartean, hizkuntz higadura saihesteko ahaleginek aurrerapauso txikiren bat ekartzen badute ere, hizkuntz galera saihestezina delako ideia nagusitzen da.

Bertako egoera ez ezagutzeaz aparte, badira hizkuntz plangintzak porrotera eramaten dituzten beste arrazoi batzuk, Yolanda Lastra hizkuntzalariak Mexikoko kasu honetaz ematen dituen argibideetan ikusten denez:

Mexikoko hizkuntz politikaren joera herrialdea hizkuntza aldetik uniformizatzea da. Horrek bertako hizkuntzak galtzea dakar. Honakoak hartzen ditu politika horrek oinarri: indigena taldeek gaztelaniaz mintzatzen diren taldeekin dituzten harremanak, eta gaztelaniaz mintzatzen diren horien harremanak, zeinak ekonomi erlazioak eta giza diskriminazioa dituzten oinarri; hain zuzen ere, komunikabideek, erlijioak, eta, batez ere, hezkuntza sistemak transmitituak. 1964tik aurrera, hezkuntza elebiduna eta bi kulturaduna da, ustez. Sistema horrekin, irakasle eta ikasleen arteko komunikazio muga ez da hain handia, baina ez da benetako hezkuntza elebiduna, eta, egiaz, bi kulturaduna ere ez; ikasmaterialak desegokiak dira, irakasleak ez daude prestatuta, eta, batez ere, haien jarrera ez da egokia. Bertako hizkuntza gaztelania irakasteko erabiltzen dute (MARTI eta beste batzuk, 2005).

Zailtasunei aurre eginda, badira arrakastatsua izan diren hizkuntz plangintzak; esate baterako, erromantxera Zeelanda Berrian eta maoriera Suitzan. Erromantxera eremu urriko hizkuntza izatetik Suitzako laugarren hizkuntza ofiziala izatera iritsi da. Arrakastaren arrazoiak estandarizazio prozesua, hizkuntza eraginkorra izateko egindako ahaleginak ondo ateratzea eta aniztasuna planifikatzea izan ziren. Maorieraren kasuan, adibidez, legezko garapenak Ozeaniako hizkuntza aborigenen artean egoera onenetakoa izatera eraman du maoriera, eta hori ez da meritu makala inguruko hizkuntza gutxitu asko hamarkada gutxi barru desagertuta egongo direla kontuan hartuta.

Hizkuntz plangintzetan egindako lanak ikustean, arazo berberak azaleratzen dira, nahiz eta hizkuntzen eta hizkuntz komunitateen artean oso alde handiak egon, hiztun kopuruari dagokionez, legezko estatusari dagokionez, migrazio mugimenduei

HIZNET 2006-07
Sakontze egitasmoa

Globalizazioa eta hizkuntza gutxituak.
Arriskuak eta aukerak

dagokienez. Horiek guztiak hirutan laburbiltzen dira: baliabide falta, dedikazio falta eta estatus gabezia.

AZKEN ONDORIOAK. BISTARATZEA HELBURU.

Lan honetan, nahita, globalizazioak hizkuntza gutxituei ekar diezazkiekeen aukerak eta arriskuak ez ditugu bi alorretan sailkatu –batetik aukerak eta bestetik arriskuak–, biak elkarrekin aurkeztu baititugu. Izan ere, globalizazioak dakartzan prozesuen baitan prozesu horien aurkako erresistentziak daude, eta aldeko eta aurkako eragileak, mekanismoak, errealitateak eta mundu ikuskerak aurrez aurre jartzen dira, tentsio itzela sortuz. Esate baterako, globalizaziok dakarren botere metaketaren aurrean botere komunal edo komunitarioen indartzea gertatu da, hizkuntza suntsipena azkartzeak hizkuntza gutxituekiko atxikimendu handiagoa sortu du... Hots, elkarren aurka talka egiten duten bi ikuskera daude, eta sokatira moduko tentsio horretan soka nora doan ikusita baloratu beharko da zein alde ari den indartzen eta prozesuak nola interpretatu, aukera moduan edo arrisku moduan.

Tentsio horretan, gakoa globalizazioari buruz nagusitzen den ikuskeran datza. Globalizazioa naturalizat hartzen badugu, ez ditugu ikusiko haren atzean dauden eragileak, ez bultzatzen dituzten mekanismoak, ez eragiten dituzten kalteak... Aldiz, globalizazioa indarrez ezarri nahi duguten sistema baten fasea dela ikusiz gero, globalizazioaren aldeko eragileak bilatzen, mekanismoak atzematen, kalteak nabarmentzen... hasiko gara. Eta, hizkuntza gutxituei dagokienez, ikusezintasunaren aldeko dinamika oso indartsua da: Nor dira hizkuntza gutxituak suntsitzen dituzten eragileak? Zer mekanismoren bidez egiten dute? Zer-nolako kaltea eragiten dute? Are gehiago, ez al da dena prozesu naturala? Eta naturala bada eta kalterik eragiten badu, ez al da izango kalte baino gehiago onura direla?

Duela hogeit hamar urte, irrati esatari euskaldun batek honako galdera/hausnarketa botatu zuen irrati saio batean: “Zer gertatuko litzateke euskaldun batzuk mailuak hartu eta Burgosko katedrala suntsitzen hasiko bagina? Sekulako kalapita sortuko litzateke, kultur ondare baten aurka egiteagatik! Bada, horixe ari dira egiten hedabide erdaldunak, jo eta fuego euskara –kultur ondare bat– suntsitzen, eta inork ez du ezer esaten”.

Hogeit hamar urte geroago, oraindik ere hortxe dago koska: gauza batzuk ikusten dira eta beste batzuk ez. Izan ere, irrati esatariak galdetzen duenean zer gertatuko litzatekeen euskaldunak Burgosko katedrala suntsitzera joango bagina, argi dago erantzuna: ikusi egingo litzateke, eta telebista kateren batek irudirik balu, munduko zoko guztietan ikusgai jarriko lukete *basatien ekintza*.

Helburua beste ekintza basatia –hedabideena– bistaratzea da, Burgosko katedrala suntsitzeko ekintza bezain ikusgarri egitea, denok ikusi eta bere neurrian balora dezagun.

Lan honen helburua bistaratze horretan bidea egitea izan da. Irakurleen esku dago bidean aurrera egin, atzera egin edo ez atzera ez aurrera geratu garen.

BIBLIOGRAFIA

ABLEY, Mark (2006). *Aquí se habla. Un recorrido por las lenguas amenazadas*. RBA

AIZPURUA, Martxel (2007). *Etiketak euskaraz?* Erabili.com.
http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1184590480

ALBA, Santiago (2003). *La ideología de la globalización*. Rebellion.org.
<http://www.rebellion.org/sociales/030715alba.pdf>

ALDABE, Koldo (2007). *Indigena jator hori...* Berria.
http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=berria&data=2007-09-21&orria=005&kont=004

AMEZAGA, Josu (2000). *Globalizazioa, komunikabideak eta identitatea*. Euskaldunon egunkaria.

APPIAH, K. Anthony (2004). *Ciudadanos del mundo*. In: *La globalización de los derechos humanos*. Bartzelona. Crítica.

ARRATIBEL, Nekane eta GARCÍA, Iñaki (2004) *Akulturazio estrategiak: Espainiatik etorritako etorkinen estrategiak harrera-gizartera egokitzeko hainbat autonomi elebidunetan*. BAT soziolinguistika aldizkaria. 52. zenbakia 83-93 or.

AZKARRAGA ETXEGIBEL, Joseba (2007a). *Aro globala, kafesnea hartu bitartean*. Berria egunkaria.

AZKARRAGA ETXEGIBEL, Joseba (2007b). *Hiria eta bere hondakin humanoak*. Berria egunkaria

BARICCO, ALESSANDRO (2002). *Next. Sobre la globalización y el mundo que viene*. Bartzelona. Editorial Anagrama

BARREÑA, Andoni (2007). *Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntza mehatxatuak. HIZNETeko ikastaroa*.

BARREÑA, A.; URANGA, B.; IDIAZABAL, I.; IZAGIRRE, E.; AMORRORTU, E.; ORTEGA, A. (2005). *Europako hizkuntzak*. Bilbo. UNESCO etxea.

BELLIDO, Eric (2005). *La pugna por el mapunzugun. Notukawün ñi wirintukugeam ta mapunzugun*. Rebelión.org. <http://www.rebellion.org/noticia.php?id=16326>

BERARDI, Franco Bifo (2002). *La fábrica de la infelicidad. Nuevas formas de trabajo y movimiento global*. Madril. Traficantes de sueños.
http://edicionessimbioticas.info/article.php3?id_article=610

BIFANI-RICHARD, Patricia (2004). *Globalización, aspectos generales*. FAO.
<http://www.fao.org/REGIONAL/LAmerica/mujer/docs/aseg/global.ppt>

BILBAO, Andrés (2002). *Las raíces culturales de las leyes de mercado. Capítulo en Guerrero*. Manual de Economía política. Mexiko.

BRETON, Roland J. (2000). *¿Es ineluctable la supremacía del inglés?* UNESCO.
http://www.unesco.org/courier/2000_04/sp/doss11.htm

BRONCKART, Jean-Paul (2005). *Hizkuntz arauen estatusa*. In: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo. EHU. 107-108 or.

CARMONA, Ernesto (2007). *Los amos de la prensa*. Rebellion.org.
<http://www.rebellion.org/noticia.php?id=51346>

CASTELS, Manuel (1996-97). *La era de la información* (3 liburuki). Madrid. Alianza editorial.

CHANDA, Nayan (2002). *¿Qué es la globalización?* YaleGlobal
<http://yaleglobal.yale.edu/display.article?id=5852>

CHOMSKY, Noam (2004). «*Recuperación de los derechos*»: un camino sinuoso. In: *La globalización de los derechos humanos* Bartzelona. Crítica.

CHOMSKY, Noam (2006). *Solasaldiak* (Noam Choskyri egindako elkarrizketa). IVAPen aldizkaria. IVAP.

CHOMSKY, Noam eta RAMONET, Ignacio (2007). *Como nos venden la moto*. Bartzelona. Icaria

CRYSTAL, David (2001). *La muerte de las lenguas*. Madril. Cambridge University Press

CRYSTAL, David (2004). *La revolución del lenguaje*. Madrid. Alianza.

CUNNINGHAM, Denis (2005). *Eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza, bigarren hizkuntza gisa hartuta*. In: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo. EHU.

DIAZ, Beatriz (1999). *La ayuda invisible. Salir adelante en la inmigración*. Bilbo. Likiniano elkarte.

DIAZ, Beatriz (2004). *"Y así nos entendemos": lenguas y comunicación en la emigración. el barrio de san francisco en Bilbao*. Bilbo. Likianio elkarte.

DOWI, Mark (2007). *Los refugiados del conservacionismo. Cuando la conservación implica expulsar a grupos indígenas de su territorio*. Pueblos aldizkaria.
<http://www.rebellion.org/noticia.php?id=46102>

Egile asko (2003). 2.500 hizkuntza galtzear. Baita euskara ere? GAIK.

ETXEZARRETA, Miren (2001). *Algunos rasgos de la globalización*. In: *Globalización y resistencias*. 2. edizioa. Bilbo. Virus.

FERNANDEZ, Jone Miren (2002). *Kale neurketa: sexuaren araberako erabileraren emaitzak eta horien inguruan sortutako galderak*. BAT aldizkariaren 43. alea. SEI

FERNANDEZ, Jone Miren (2004). *Euskara dela eta... neskek zer diote?*. BAT aldizkariaren 53. alea. SEI.

FERNÁNDEZ BUEY, Francisco (2004). *Guía para una globalización alternativa. Otro mundo es posible*. Bartzelona. Ediciones B.

FERNÁNDEZ BUEY, Francisco (2005). *Alternativas a la globalización*. Hitzaldia. Donostia.

FISHMAN, Joshua A. (2001). *Nuevo orden lingüístico*. Revista digital d'humanitats. <http://www.uoc.edu/humfil/articles/esp/fishman/fishman.html>

FISHMAN, Joshua A. (2005). *Zer galtzen dugu gure hizkuntza galtzean?* In: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo. EHU. 335-338 or.

FRANQUET BERNIT, José María (2005). *¿Por qué los ricos son más ricos en los países pobres? Falacia o modernidad de la globalización económica*. Eumed.net. <http://www.robertexto.com/archivo7/ricos4.htm>

GALEANO, Eduardo (2005) *¡Peligro! (El poder come miedo)*" Espai Alternatiu. http://www.nodo50.org/tortuga/article.php3?id_article=2195

GARCÍA MORALES, Federico (1997). *Globalización: definiciones, ideología y realidades*. Globalización aldizkaria <http://www.rcci.net/globalizacion/llega/fg096.htm>

GARRIDO FERRADANES, Fernando (2004). *Globalizacion y migración*. Monografías.com. <http://www.monografias.com/trabajos904/globalizacion-migracion-proceso/globalizacion-migracion-proceso.shtml>

GASCÓN, Jordi eta CAÑADA, Ernest (2005). *Viajar a todo tren. Turismo, desarrollo y sostenibilidad*. Bartzelona. Icaria editorial.

GEORGE, Susan (2001). *El informe Lugano*. Bartzelona. Icaria.

GEORGE, Susan; CHOMSKY, Noam; STIGLITZ, Joseph E.; SHIVA, Vandana; BHABHA, Homi K.; APPIAH, K. Anthony (2004). *La globalización de los derechos humanos* Bartzelona. Crítica.

GHEMAWAT, Pankaj. (2007): *Why the World Isn't Flat*. In Foreign Policy 159. 54-60 or.

GIBNEY, Matthew J. (2004). *Introducción: La globalización de los derechos humanos*. In: *La globalización de los derechos humanos*. Bartzelona. Crítica.

GONZÁLEZ CASANOVA, P. (1998) *Los indios de México hacia el nuevo milenio*. La Jornada egunkaria. Mexiko. <http://serpiente.dgsca.unam.mx/jornada>

GONZALEZ, Antonio eta Paula (2005). *Imperialismo lingüístico*. Madrid. Latinoamericana.org. <http://latinoamericana.org/2005/textos/castellano/Gonzalez.htm>

GONZALEZ, María de la Luz (2006). *Indígenas, justicia en otro idioma*. Mexiko. El Universal. <http://www.rebellion.org/noticia.php?id=34411>

GONZALEZ, Omar. *Entrevista a Ignacio Ramonet. La globalización aspira a que la gente, en definitiva, acepte su propia esclavitud*. http://www.nodo50.org/cubasigloXXI/politica/gonzalez_280205.htm

GRIMES, Barbara (2005). *Ethnologue katalogoaren ekarpena, munduko hizkuntzak biziberritzeko*. In: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo. EHU. 107-108 or.

HAGEGE, Claude (2002). *No a la muerte de las lenguas*. Bartzelona. Paidós.

HIDALGO, Bittor (2007). *Euskararen input-ak eta output-ak*. Berria egunkaria. http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2007-05-02&orria=005&kont=008

JAUREGI, Peio (2003). *Euskara eta Gazteak Lasarte-Oria (II)*. Lasarte-Oria. Lasarte-Oriako Udala.

JUARISTI, PATXI (2001). *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*. Bilbo. Euskaltzaindia.

JUARISTI, PATXI. (2002). *Euskararen kale erabilera Bizkaian*. Bat aldizkariaren 43. zenbakia. SEI.

K. (2002). *Guerra global permanente*. Lafogata.org. <http://www.lafogata.org/02inter/5internacional/i16.htm>

KLEIN, Naomi (2005). *No logo: el poder de las marcas*. Paidós.

KUCHARZ, Tom (2004). *Conflictos por la tierra y el territorio*. Madrid. ATTAC-Madril.

MAALOUF, Amin (1999). *Identidades asesinas*. Madrid. Alianza editorial.

MANJÓN, Roberto (2006). *Euskararen normalizazioa eta AHT*. Erabili.com. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1165230902/addPostingForm

MARCOS azpikomandantea (1997). *7 piezas sueltas del rompecabezas mundial (El neoliberalismo como rompecabezas: la inútil unidad mundial que fragmenta y destruye naciones)*. ezln.org. <http://www.ezln.org/documentos/1997/199708xx.es.htm>

MARCOS azpikomandantea (2007). *La guerra de conquista: Nuevo despojo... 5 siglos después*. Pensamiento autónomo. <http://lists.autistici.org/message/20070401.142329.27813a85.en.html>

MARTI, F.; ORTEGA, P.; IDIAZABAL, I.; BARREÑA, A.; JUARISTI, P.; JUNYENT, C.; URANGA, B.; AMORRORTU, E. *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo. EHU.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki (2002). *Euskararen kale erabilera Araban (1989-2001)*. BAT aldizkariaren 43. alea. SEI.

McLUHAN, M. (1990). *La aldea global: transformaciones en la vida y en los medios de comunicación mundiales en el siglo XXI*. Bartzelona. Sedisa.

MENDIZABAL, Antxon (1999). *La globalización. Perspectivas desde Euskal Herria*. Hondarribia. Hiru.

MENDIZABAL, Antxon (2000). *Kapitalismoaren laugarren globalizazioa*. Euskaldunon Egunkaria.

MILIAN I MASSANA, Antoni (2004). *Las lenguas amerindias y su protección constitucional. lenguas vivas*. In: *IV jornadas internacionales sobre indigenismo. lenguas vivas en america latina*. Bartzelona. CASA AMERICA CATALUNYA.

MONTEMAYOR, Carlos (1998). *Chiapas. La rebelión indígena de México*. 2. edizioa. México. Joaquín Mortiz SA.

MORENO CABRERA, Juan Carlos (2000). *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*. Madril. Alianza

MORENO CABRERA, Juan Carlos (2005). *Hizkuntz aniztasuna XXI. mendean*. In: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo. EHU.

NORBERG, Johan (2001). *En defensa del capitalismo global*, Madrid. Unión Editorial.

MORENO BERNAL, Fernando (2007). *¿Globalización o capitalismo agonizante?*. Rebellion.org. <http://www.rebellion.org/noticia.php?id=46552>

MÜHLHÄUSLER, Peter (2005). *“Hizkuntza” kontzeptua Papua Ginea Berrian*. In: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. BHilbo. EHU. 126-128 or.

NEGRI, Toni (2003). *La guerra constituyente y el imperio*. Rebellion.org. <http://www.rebellion.org/sociales/031223negri.htm>

ODRIOZOLA, Joxe Manuel (2007a). *Pilotarien auto-etnizidioa*. Erabili.com. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1183710048

ODRIOZOLA, Joxe Manuel (2007b). *Hizkuntzak berezkoa du identitatea*. Erabili.com. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1171618994

ODRIOZOLA, Joxe Manuel (2007c). *Erdi esanak osatze aldera*. Erabili.com.
http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1177581074

ORELLA, Jose Luis (2007). *Globalización, identidad y territorialidad*. Gara egunkaria.
<http://www.rebellion.org/noticia.php?id=51632>

OSKOZ, Josu eta CHACÓN, Arantza (2007). *Begiradak*. Berria egunkaria.

PAIA, Fredi (2006). *Gure indigenak*. Berria egunkaria.
http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2006-09-15&orria=006&kont=005

PAIA, Fredi (2007). *Kultur erreserbak*. Berria egunkaria.
http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2007-09-21&orria=006&kont=005

PAJARES ALONSO, Miguel Angel (2003). *Inmigracion y políticas de inmigración*. Confespacomercio.com
<http://64.233.183.104/search?q=cache:7epNrc67HeEJ:www.confespacomercio.com/3enc/ponencias/MIGUELPAJARES.pdf+Inmigracion+y+pol%C3%ADticas+de+inmigraci%C3%B3n+pajares&hl=es&ct=clnk&cd=3>

PERA, Lee eta McLAREN, Debora (2004). *Globalización, Turismo y Pueblos Indígenas: Lo que debemos saber acerca de la "industria" más grande del mundo*. Turismo Vision. <http://www.tourism-watch.de/esp/3esp/3esp.indigenas/>

PERUCA, Brigitte (2003). *Burkina Faso: Cuando la escuela se pone al servicio de la comunidad*. Le Monde de l'Education.
<http://www.rebellion.org/otromundo/030519burkina.htm>

PHILLIPSON, Robert (2002). *Lenguas internacionales y derechos humanos internacionales*. Esperanto-Dokumentoj 37. zenbakia.
<http://www.uea.org/informado/ED37-hispana.html>

RAMALLO, Fernando (2002). *O galego na publicidade*. Vigo. Vigoko Unibertsitatea.

RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema (1999). *Komunikazioaren mitoak*. Euskaldunon egunkaria.

RODRIGUEZ, Fito (2000). *Mundua ez da borobila*. Euskaldunon egunkaria.

RODRIGUEZ MAGDA, Rosa María (2002). *¿Feminización de la cultura?* Debats aldizkaria, 76. zenbakia, Institució Alfons el Magnànim. Valentzia.
<http://www.rebellion.org/mujer/031229magda.htm>

ROJAS, Sebastián (2004). *La globalización ¿Realmente mala?, ¿Realmente buena?* Monografías.com.
<http://www.monografias.com/trabajos21/globalizacion/globalizacion.shtml>

RPC (2004). *Los últimos hablantes*. Portal de los siete mares, Fundación Mar de Chile. http://www.mardechile.cl/index.php?option=com_content&task=view&id=496&Itemid=2

SANTILLAN, Asier (2007). *Gurdi gurpilak*. Berria egunkaria.

SAEZ, Manolo (2001). *Y ahora toca la globalización*. In: *Globalización y resistencias*. 2. edizioa. Bilbo. Virus.

SASSEN, Saskia (2003). *Contrageografías de la globalización*. Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos. Madril. Traficantes de sueños. <http://www.sindominio.net/karakola/contrageografias.htm>

SAXE-FERNÁNDEZ, John (1999). *Globalización: crítica a un paradigma*. Mexiko. Universidad Nacional Autónoma de México, Instituto de Investigaciones Económicas. Plaza y Janés. <http://de.scientificcommons.org/6946278>

SENDON DE LEON, Victoria (2001). *Mujer y globalización: el planeta de los simios locos*. Rebellion.org. <http://rcci.net/globalizacion/2004/fg433.htm>

SOROS, *La crisis del capitalismo global*. Traducción de María Luisa Pérez Castillo

TERBORG, Roland eta VILCHIS, Virna Velázquez (2005). *Enseñanza de lenguas y su impacto en la ecología lingüística*. Mexiko. Universidad Nacional Autónoma de México. <http://redalyc.uaemex.mx/redalyc/pdf/588/58804103.pdf>

TXILARDEGI ALVAREZ ENPARANTZA, Jose Luis (2007a). *Hitzarmenen azpian*. Erabili.com. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1183535658

TXILARDEGI ALVAREZ ENPARANTZA, Jose Luis (2007b). *Euskaldunak oraindik geurean arrotz*. Erabili.com. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1178179382

VEGA CANTOR, Renan (2006). *Las nuevas expresiones del imperialismo actual*. Nodo50.org. http://www.nodo50.org/cubasigloXXI/congreso04/vega_060404.pdf

TAIBO, Carlos (2007). *Globalización, alterglobalización, antiglobalización*. Altermundo.org. http://altermundo.org/portal/content/view/569/220/lang.gl_ES/

TAIBO, Carlos (2005). *Movimientos de resistencia frente a la globalización capitalista*. Bartzelona. Ediciones B.

SUBERBIOLA, Pablo (2002). *Hizkuntza gutxiagotuak globalizazioaren aurrean*. Hizneteko sakontze egitasmoa.

ZABALO, Julen (2000). *Abertzaleak eta ezkertiarak*. Donosita. Elkarlanean.

ZARRAGA, Arkaitz (2007) *Globalizazioa*. Erabili.com http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1173257820

ZUBEROGOITIA, Aitor (2000). *Globalizazioaren adarrak*. Irun. Alberdania.

BIDEOGRAFIA

TVE. En portada. *El orden criminal en el mundo*

TVE. *Voces contra la globalización*. 7 atal